

Mixel Xurio

**JESU-KRISTOREN
IMITAZIONEA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Jesu-Christoren imitacionea*, Michel Chourio
(faksimilea). Hordago, 1978

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00716.htm>

APROBAZIONEA

Irakurri dut atenzione handi batekin liburu bat zeñak baitu titulutzat, *Jesus Kristoren Imitazionea*, Jaun Mixel Xurio Donibaneko erretor zenak egina; zeñetan ez baitut deus kausitu fedearen kontra, baiñan bai arima debot guziak berthutearen bidean aitziañatzeko, eta nor nahi den debozionera erakartzeko doktrina saindua; hartarakotz aprobazione huni Donibanen Apirilaren 25an 1720 egiñari fede emateagatik ezarri dut hemen ene izena.

Haristegi Donibaneko erretora, eta Theologian dotora

APROBAZIONEA

Gure jaun Aphezpikuaren manus irakurri dut, *Jesu-Kristoren Imitazionea* M. Xurio Donibaneko Jaun erretorak eskararat emana, eta haren handitasuna seguratu dut, eskara haguitz garbian eta guziz orijinalaren gantzadura berezia dela.

Horla baizen etzen iguriki behar authorearen jakite, eta pietate berezitik: aspaldi zuen liburu saildu hau bere bihotzerat, eta akzionetarat ekharri zuela, hemengo egia, eta berthute gehienak beretuak bezala zituen, eta hura bezaiñ barnekoia, eta sailduen eskolan jakina behar da hemengo maxima gora, eta perfetei bere edertasuna, egia handiei bere argia, eta berthuterik gaitzenei bere maitagarritasuna erdara atze batean konserbatzeko. Ezagun da bihotzei mintzatzeko, eta hei ardiarazteko zuen donua zeinarenekin uste baitut obra hau hobekienik ager eta balia deitekela. Ziburun apherillaren hogoi, eta seiean milla eta zazpi ehun eta hogoiean.

J Darretxe, Ziburuko erretora

APROBAZIONEA

Denborak gitu arima leialek egartsu handibat zutela *Jesus Kristoren Imitazionea* eskaraz ikhusteko; handik plazer egiazko bat izan dut gure Jaun Aphezpikuak egorri darotanean Mixel De Xurio Donibaneko Jaun erretor zenak liburu sain-

du hortaz egiñ zuen tradukzioea. Haren ordenaz irakurri, eta examinatu dut artha berezi batekin, baita erremarkatu ere obra labur, eta eder hau, xoillki autorak egiñ tuen meditazioe luze batzuen efetu bat dela. Hargatik da haiñ iustua non ez bainaz beldur, nik bezala irakurtzen duten guziek ezdezaten aproba, eta nik egiñ ahal dezakedan baiño hobekiago lauda.

Azkaiñen maiatzaren 4 egina 1720 Dohalbide,
Azkaingo erretora

Jesu-Kristoren Imitazionea

LEHENBIZIKO LIBURUA

Bizitze espiritualekotz on diren abisuak

I. KAPITULUA

Imita Jesu-Kristo, mezipreza munduko banitate guziak.

1. *Niri darraitana ez dabilla ilhunbean*, dio Jesu-Kristok. Hitz horiez gure salbatzailleak irakhasten daroku nola behar ditugun imitatu haren akzioaneak eta berthuteak, eta bizi hura bizi izatu den bezala, egiazko argiaz nahi badugu argitu eta bihotzeko itsutasunetik osoki libratu.

Beraz gure artharik handiena izan behar da Jesu-Kristoren bizitzea gogoan erabiltzea, eta hura beti meditatzea.

2. Sainduak irakhasten darozkiguten gauzak ez dire, Jesus berak ikhasten darozkigunean aldean, eta Jainkoaren espiritua lukenak kausi lezake eta gusta haren doktrina sainduan gordea den manua zerukoa.

Ordean hañitzek enzuten dute maiz Ebanjelioa progotxu gabe, eta haren obratzeko gutizia-

rik sentitu gabe. Zergatik? Zeren ez baitute Jesus Kristoren espiritua.

Haren hitzak ungi aditu eta gustatu nahi dituenak hasi behar du haren berthuteen imitatzetik, eta bizi behar du ahalaz hura bizi izatuden bezala.

3. Zer probetxu zinduke Trinitateko misterioaz gauza barrenak eta gordeak iakitea, eta hetaz zuhurki eta goraki miñtzatzea, humill izan faltaz, gaitzetsia bazare Trinitateko presunez?

Egias gauza gorez miñtzatzeak, eta hitz ederrren errateak ezgaitu saindutzen; berthute xoilak egiten gaitu Jainkoaren gogarako.

Nahiago dut miñki sentitu bihotzean ene bekatuezko dolorea, ezen ez iakiñ nola presuna estudiantuek dolore hura esplikatzen duten.

Eskritura guzia eta filosofo guzien erranak gogoz baziñakizki ere, zer probetxu zinduke, ezbaduzu Jainkoaren amudioa eta grazia?

Banitateko banitatea, eta gauza guziak dira banitate; Deus ere munduan ezda funsezkorik, baizen Jainkoaren maitatzea eta hura xoilki zerbitzatzea.

Zuhurziarik handiena da mundua mezipreaturik, zerurat gure gutizia guzien itzultzea eta harat lehiatzea.

4. Banitate da beraz eta erhokeria aberastason galkhorren ondoan ibiltzea, eta hetan nork bere esparanzaren eta fidanziaren ematea.

Banitate da eta enganio munduko ohoreen billhatzea, eta bertzeak baiño gorago igan nai izatea.

Gauza banoa eta funsgabekoa da oraiño haragiaren gutizien segitzea, eta haiñ garrakzi punituko diren atsegiñen maitatzea.

Banitate eta zoratukeria da bizitze luzea desiratzea, eta ungi bizitzeaz kontu guti egitea.

Banitate dohakabe bat da halaber nork bere artha guziak bizitze huntan ematea, eta ethorkizuneko bizitzeas hurren ez orhoitzea.

Fiñean banitate handi bat da haiñ laster iragaten diren gauzei amudios lotzea, eta bethi iraun behar duen zorionarentzat ez kharrik ez lehiarik izatea.

5. Orhoit zaite maiz errankomun huntaz; *begia ez da asetzen ikhustez, ez beharria aditzez.*

Hari zaite ahal guziaz zure bihotza gauza ikhusten direnen amudiotik apartatzen, eta ikhusten ez diren ontasunei iratxekitzen. Ezen bere sensuen nahikarak konplitu nahi dituztenek lohitzen dute bere konzienzia eta galtzen Jainkoaren grazia.

II. KAPITULUA

Guti iduk gere buruak, humill behar dugu izan gure iakiñ guziekiñ ere.

1. Gizonak bere egitez eta naturalezaz du iakiteko gutizia. Baiñan zertako da iakitea, Jainkoaren beldurtasuna gabe?

Egiaz laborari humill eta Jainkotiarrek gehiago du balio filosofo supherbioak baiño, zeinak bere arimaren artha largaturik, zeruari eta izarrei beha baitarama denbora.

Bere burua ungi ezagutzen duenak, arbuia-tzen du bere burua, eta halakoak ezdu atsegiñik hartzen gizonek ematen diozaten laudoriotan.

Munduko gauza guziez iakinsun banintz, eta ez banu karitatea, zer probetxu nuke Jainkoaren aitziñean, zeinak ene obren arabera iuiatuko bainau?

2. Utzatzu sobera iakiteko gutizia; ezen hirritz hark hañitz espirituko barraiadura dakharke, eta maiz enganioa.

Jakinsunek agertu nahi dute eta zuhur fama ardietsi munduan.

Bizkitartean badire milla gauza, zeïnen iakiteaz arimak ez baitu probetxu garabik, edo guti hagitz.

Eta erhokeria handia da, salbamendukotz on diren gauzez bertzetan gogoaren ematea.

Hitz hañitzek ez dute kontentatzen arima, baiñan bizitze onak konsolatzen du, eta konzientzia xahuak ematen dio Jainkoa baitan fidanzia handi bat.

3. Zenbatenaz baitzare argituago, hanbatenaz punituko zare garrazkiago, ez bazare iakiñaren eredura sainduki bizitzen.

Duzun beraz burupe baiño beldur geihiago eman zaizkitzun argien eta talenduengatik.

Uste duzu benturaz hañitz gauza ikhasi ditutzula eta ungi dakizkitzula, segura, zaite hagitzez gehiago direla zuk ezdakizkitzunak.

Ez duzun zeure buruaz urguilluzko gogoetarik; aitzitik aithorzazu garbiki zure iakingabetsuna.

Zergatik zeure burua iduk bertzeak baiño gehiago; hañitz direnaz geroz zu baiño iakindunagoak eta Jainkoaren legean argituagoak?

Nahi duzu zure studioak eta iakiñaz ungi probetxatu! onhets zazu arbuiatua izatea, eta nihortaz ezagutua izan gabe bizitzea.

4. Ikhatsaririk gorena eta probetxoena da gere buruen ezagutzea eta mezprezatzea.

Ala zuhurzia eta perfezione handi baten seiñalea baita nork bere burua guti, eta bertze guziak hañitz, idukaitzea.

Ikhusten bazindu norbait huts ageritan erortzen, edo bekhatu handien egiten, etzinduke hargatik zeure burua hura baiño hobeagotzat esimatu behar: ezen ezdakizu noiz arteraiño iraunen duzun estatu onean eta graziazkoan.

Guziak flakoak gare: baiñan zuk uste behar duzu ezdela nihor zu baiño flakoagorik.

III. KAPITULUA

Jainkoaren enzutea, nork bere buruaren ezagutzea eta garazitzea dela egiazko doktrina, eta ikhasi behar den zuhurtzia.

1. Dohatsu egia, den bezala, ber baitan ezagutzen duena, eta ez figura edo hitz klartarsunik utzi gabe iragaten direnez.

Gure usteak opinioeak enganatzen gaitu maiz, eta gure espirituko bixta xoill da laburra eta flakoa.

Zer probetxu da haiñ zorrozki arrazoiñatzea gauza ilhunez eta estaliez, zeñen ez iakitea ezbaitzaitzu bekhatutzat kondatuko Jainkoaren iuiamenduan?

Erhokeria handia da gauza baliosak eta iakin beharrak utzirik, probetxu gabekoen eta kaltiarren ondoan ibiltzea, hori da begiak izatea, eta hetaz ez baliatzea.

2. Zertako ditugu filosofoen ihardukitze banoak, eta hekien kuestione deusetako on ez direnak?

Berbo eternala irakhatsaille duenak ez du horlako gauza alfer eta funs gabekoez espiritua trabatzen.

Gauza guziak berboak egin ditu: hartaz mintzo zaizkigu gauza guziak. Hura da gure lehenbiziko prinzipioa, eta hura bera mintzo zaizu.

Hark ez bagaitu argitzen ezin deus ikhas dezakegu, ezin deusez ungi iuia dezakegu.

Jainkoa xoilla gauza guzien orde duenak, gauza guziak Jainko xoillaganat dakharzkenak, guziak haren baitan ikhusten dituenak, kausitzen du bere bihotzeko deskansua eta bere bakea Jainkoa baitan.

O ene Jainkoa, egia eternala eta soberanoa, zurekin bat egiñ nazazu bethi iraunen duen amudioaz.

Hañitzetan unhatzen naiz hambat aditzeaz eta irakurtzeaz: zure baitan da ene gutizia guzien konpligarria.

Ixill beitez dator guziak, ixill beitez kreatura guziak gure aitzinean: zu xoillki mintza zakizkit.

3. Zenbatenaz baita nihor gauza guzietarik apartatuago, bere baitarat bilduago, bere barreanean sarthuago, hanbatenaz errexkiago ezagutzen ditu misteriorik gorenak: zeren egiazko argiak heldu baitzaiko zerutik.

Arima garbia, sinplea, xuxena, eta bere deliberazione onei fermuki datxakoena, begiratzen da ber baitarik sobera ilkhitzetik eta hañitz egitekotan ber burua barraiatzetik: zeren ez baitu gogoan Jainkoaren loria baizen, ber burua deuse-tan ere bilhatu gabe.

Deusek ez darotzu hambat pena ematen eta hanbat traba, nola zure bihotzeko gutizia desordenatuek, hekien hezteko eta mortifikatzeko art-harik ez duzunean.

Presuna prestu eta Jainkotiarrek bere barrean lehenik moldatzen eta arrimatzen ditu, kanporat egin gogo dituen obrak.

Handik heldu da bethi arrazoiñaz gobernatzen baita, eta naturaleza bizioaren nahioarak ezbaititu egiten.

Nork du gudu bortizagorik ber burua garaitu nahiz hari denak baiño? Hortaz gure lan bakha-

rra behar leiteke gure pendura gaixtoei gerla egitea gere buruen hezte, eta egun oroz bert-hutean aitzina goatea.

4. Gure perfekzioea zerbait eskasekin junta-tua da bethi ere mundu huntan, eta gure argiak ez dire zerbait illhuntasun gabe.

Zeure buruaren ezagutza humilla bide segu-ragoa duzu Jainkoa ganat goateko, iakintasunik handiena baino.

Ezda hargatik arbuiatu behar edo gaixtotzat iduki behar iakintasuna eta extudioaren bidez ardiesten diren ezagutzak: onak dire berenez eta Jainkoaren ordenuaren arabera: baiñan hobea-goia eta prezatzeagoa bethi ere konzienzia garbia eta bizitze saildua.

Bainan nola gehienek gutizia handiagoa bai-tute hañitz iakiteko, ezen ez ungi bizitzeko, eror-tzen dire enganiorat eta egiten dute probetxu guti edo batere ez.

5. Oi haiñ arthoski hari balire bizioen erroeta-rik atheratzen eta berthuteen landatzen, nola gauza banoez arrazoiñantzen eta ihardukitzen,

ez leiteke hanbat gaixtakeria eta skandala ikhuz munduaren artean, ez hanbat desordenu komentuetan.

Egiaz azken iudizioan etzaitu galdegiñen zer irakurri dugun, baiñan zeregin dugun, ez eta ea ederki mintzatu garen, baiñan ea sailduki bizi izatu garen.

Erradazu, non dire orai dotor eta nausi zuhur hek noizbait bizi ziren denboran ezagutu dituztuznak? Hekin kadirak eta benefizioak bertzek daduzkate, benturaz hetaz orhoitzen ez direla: bizi zireiño prezatuak ziren eta laudatuak, eta orai hetaz inor ez da mintzo.

6. Oi zein laster doan munduko loria! Oxala iakinsun bezain saildu izatu balire! Manera hortan etzuten egiñen estudio eta irakurtze probetxosik baizen.

Zenbat dire munduan bere iakintasun banoaz galtzen direnak, kontu guti egiñik Jainkoaren zerbitzatzeaz.

Nola nahiago baitute munduaren begietan handi izan, ezen ez humill, errebelatzen dire eta galtzen bere arrazoiñamenduetan.

Karitate handiak egiten du egiazko handitasuna egiazko handia da bere burua xume dadukana, eta ohorerik handiena ere arbuiatzen duena.

Egiazko zuhurra da lurreko *gauza guziak basaren pare daduzkana, Jesu-Kristo irabazteagatik.*

Egiazko iakinsuna da, ber nahiari ukho egirik, Jainkoaren borondatea konplitzen dakiena.

IV. KAPITULUA

Ez errexki sinhets bertzees erraten den gaizkia. Ez gaizki iuia edo mintza berzees. Balia prudenziaz.

1. Ez dire sinhetsi behar erraten zaizkigun, edo gogorat heldu zaizkigun guziak; baiñan gauzak pisatu behar dire Jainkoaren arabera astiroki eta goardia handirekiñ.

Helaz! gure flakotasuna haiñ handia da, non gogotikago bertzeez siñhesten eta erraten baitugu gaizkia, ezen ez ungia.

Baiñan perfetek ezdute arinki edozein presuna siñhesten: ezagutzen dute zeññ herbal, zeññ erorkor den gizona, eta zeññ errexki mintzatzen den gaizki bere lagun proximoaz.

2. Prudenzia handia da egitekotan ez lasterregi goatea, eta gure ustean edo siñhestean ez hisituki gogortzea.

Prudenziari dagoko halaber erran guzien ez siñhestea, eta aditu eta siñhetsi guzien ez erratea.

Hartzazu bethi ere konseillu gizon zuhur eta prestu batenganik, eta zeure argiak baiño harenak gehiago preza zatzu.

Bizitze onak egiten du nihor Jainkoaren araberaz zuhur, eta hañitz gauzen ezagutza ematen dio berari frogarazirik.

Zenbatenaz baita nihor humillago, zenbatenaz haren baitan Jainkoak kausitzen baitu kontrasta gutiago hanbatenaz du haiñak zuhurtzia eta sosegu gehiago.

V. KAPITULUA

*Nola behar diren irakurri Eskritura Saindua, eta debozioezko liburuak.
Konseillu galdetu behar zaiela presuna zuhur eta prestuei.*

1. Egia behar da Eskritura Sainduan bilhatu, ez elokuenzia eta hitzen distiadura.

Eskritura guzia irakurri behar da egiñ den espiritu eta xede berarekiñ.

Han ezda billhatu behar hitzen edertasuna eta arrimua, baiñan arimaren probetxua.

Irakuranzigun hain gogotik liburu espiritualak eta debozioezkoak, lanoak izan arren eta eder-gaillu gabeak, nola kuriosak eta gauza gorez mintzo direnak.

Etzazula begira ea liburuaren egillea iakinsuna den, ala ez. Baiñan egiaren amudio xoillez irakurrazu.

Pisazazu zer erraten zaitzun, kontu egiñ gabe nor den errailea.

2. *Gizonak badoaz, ordean Jainkoaren egia bethi dago.*

Jainkoa mintzo zaitzu hañitz manera fuertez, eta plazer duen presuna guziez.

Gure kuriostasuna dela kausa galtzen dugu maiz liburu sailduen irakurtzetik ginduken probetxua; zundatu nahi dugunean, lanoki iragan behar laitekena, eta arrazoiñamendurik gabe siñhetsi behar laitekena.

Nahi baduzu zure irakurtzeez probetxatu, irakurazu humilki, sinpleki eta federekin, iakinsun agertzeko gutiziarik gabe.

Zuhurrei gogo onez galdegiozute konseillu, eta respeturekin entzun zatzu sailduen hitzak; etzazula arbuia zaharren errankomunak, ezen ez dire arrazoin gabe erraten, eta maiz zarratzen dute zenbait egia handi.

VI. KAPITULUA

Afekzione eta gutizia desordenatuez.

*Ezin dukegula bakarrik hek
mortifikaturik eta hezirik baizen.*

1. Gizonak ezdu haiñ laster gutizia desordenatu bat bere baitan garaitzerat uzten, non khexatzen eta altaratzen baita berehala.

Supherbioek eta abariziosek ez dute behin ere pausurik: pobreak eta espiritu humillak bake handi batean daramate bizia.

Ber baitan, osoki mortifikatua ezdena eta bere pasioneak hillak ezdituena, maiz da tentatua, eta laster garaitua tentazionerik xumeenez.

Presuna flakoa, berthutean guti borthiztua eta sensuen atsegiñen gutiziak dituen, nekhez alde batera libratzen da munduko gauzen amudiotik.

Hargatik maiz tristatzen da eta erortzen zaio bihotza hetarik apartatu behar duenean, eta galtzen du errexki pazienza nihork kontra egiten dioenean.

2. Bere gutizia kontentatzen badu, berehala konzienziako harrak altaratzen du; zeren ez baitu atsegin falso hartan kausitzen billhatzen zuen bakea eta sosegua.

Beraz bihotzeko bakea ez da edireten gure nahi desordenatuak konpliturik, baiñan bai hei kontra egiñik.

Hala egiazko sosegu hura ez daiteke kausi gizon haragiazkotan, munduko espirituak darabiltzanetan, eta kanpoko gauzetarat baraiatuak direnetan: baiñan kausitzen da debozione khar-sua dutenetan, presuna barrenkoi eta Jainkoaren espirituaren arabera bizi direnetan.

VII. KAPITULUA

Gure esparanza eman behar dugula ez gure baitan, edo berze gizonen baitan, baiñan Jainkoa baita, zeĩñaganik heldu baitire on guziak. Humiliatu behar dugula eta geure buruak iduki behar ditugula bertze guziak baño gutiago.

1. Banoa da eta zoratua bere esparanza gizonetan edo zeĩñ nahiden kreaturetan ematen duena.

Etzaren ahalke Jesu-Kristogatik bertzeen zerbitzatzera, eta mundu huntan pobre agertzera.

Etzaitela fida zure baitan: baiñan zure fidantzia guzia emazu Jainkoa baitan.

Egizu zure aldetik zure egiñ ahala, eta Jainkoa lagunduko zaizu zure nahi eta xede onetan.

Etzaitezela segura zure jakiñean, ez eta zeĩñ nahi den gizonen prudenzian, antzean, edo flexotasunean: baiñan zure esparanza emazu Jainko-

aren grazian, zeñak laguntzen baititu humillak, eta humiliatzen fidoask eta seguratuak.

2. Baldin badituzu aberastasunak etzatzula hetan eman zure loria eta burupea, ez eta zure adiskidetan poderosoak badire ere: baiñan zure konsolazionea eta bozkarioa emazu Jainkoa baitan, zeñakganik baitugu guziak eta zeñak berze guzien gaiñerat eman nahi baitarozu bere burua ere.

Kontu guti egizu zure ungi egiñtasunaz, edertasunaz, eta gorphutzeko bertze abantaillez, zeinal eritasun xume batek desegiten baititu.

Etzakizkola boz zure fexotasunari edo espirituari; beldurrez gaitzi dakion Jainkoari zeñaganik baitituzu dituzun dohaiñ eta talendu naturak guziak.

3. Etzazula iduk zeure burua bertzeak baiño hobeagotzat, beldurrez guzietako gaixtoena ager zaitezten Jainkoaren begietan, zeñak ezagutzen baitu gizonaren barrena.

Ez duzun burupetik zure obra onengatik; Jainkoaren iuiamentuak guretarik xoill dire diferen-

tak, eta hark haitzesten du maiz gizonei eder zaiena.

Deus onik balinbada zure baitan siñhetsazu gehiago dela berzeren baitan, eta horla egonen zare humiltasunean.

Ez duzu deus hirriskatzen zeure burua bertze guzien ezpian emateaz; baiñan hañitz galtzen duzu zeure burua batez gorago idukitzeaz.

Bethiereko bakea du humillak baiñan supherbioaren bihotzean maiz kausi daiteke ieloskortasuna, eta asarretasuna.

VIII. KAPITULUA

Hautatu behar dela adiskide zuhur eta prestubat; ez dela behar famillertu edo trebatu, mundanoekiñ, guziz gazteekiñ, aberatseki, emaztekiekiñ, baiñan gure familiertasuna izan behar dela presuna berthutezkoekin Jainkoarekin eta aingeruekiñ.

1. *Ez diozozula edozeiñi ager zure bihotza, baiñan mintza zaite zure egitekoez gizon zuhur eta Jainko beldurti batekiñ.*

Jende gazteekiñ, kanpokoekiñ, mundanoekiñ, gutitan kausi zaite.

Ez aberatsei lausenga eta ez zure oldez ager ager aitziñean.

Adiskide egiñ zaite humillekiñ ximple eta xuxenekiñ, prestu eta jainkotiarrekiñ, eta minza zaite bethi ere arimakotz on diren gauzez.

Ez duzun adiskidetasun berezirik eta trebeta-sunik emzateki batekiñ ere baiñan Jainkoari

gomenda diotzozu jeneralki emazte berthutezko guziak.

Jainko xoillarekiñ eta aingeruekiñ desira zazu maizenik izatea, egotea, mintzatzea; eta ihes egiozu gizonen ezagutzari.

2. Mundu guzia maitatu behar da; baiñan hirrisku da mundu guziarekiñ trebe izatea.

Maiz prezatzen da presuna ezagutua ez dena bere fama onagatik, eta bera agertzen denean galtzen baitu bere estimua.

Uste dugu batzuetan bertzeek atsegiñ dutela gure maiz ikusteaz, eta hek gaitzesten baikaituzte hanbatenaz geihiago, zenbatenaz gure eskasak hurbilagotik ikhusten baitituzte.

IX. KAPITULUA

Maita obeditzea eta bertzeren gidaren azpian izatea; nor bere uztean ez sobra finka, eror bertzeren nahirat etan eta abisuran.

1. Gauza handi bat da obedientziaren azpian bethi bizitzea, eta nork bere libertateari alde baterat ukho egitea.

Segurago bide da, manatzea baiño, obeditzea. Hanitzek obeditzen dute, ez amorez, bainan bortxaz; eta hek pena hanitz dute, eta deus gutiz mormoratzen dire.

Ez dute halakoek sekulan ardietsiko espiritu-ko libertatea, non ez diren obedientziaren azpian ematen bere bihotz guziaz, Jainkoaren amoreagatik.

Ibill zaite lekhutz leku nahi duzun bezanbat, ez duzu kausituko egiatzko bkerik, aitzindari baten gidaren azpian humillki ematen ez bazare.

Lekhu aldatzeko gutiziak, eta berzetan hobeki izateko usteak hañitz enganatu ditu.

2. Egia da; batebederari on zaio bere buruz gobernatzea, eta gizonek maitatzen dituzte hekien sensurat eta abisurat erortzen diren presunak.

Baiñan Jainkoa gurekiñ bada behar diogute batzuetan ukho egin gure argi propioei bakearen ontasunagatik.

Zeiñ da gizon hain zuhurra, gauza guziak perfektiki dakizkiena?

Etzaitezela beraz sobera gogor zure abisuan eta siñhestean, baiñan gogotik entzun zazu eta segi bertzerena.

Zure ona delarik uzten baduzu Jainkoagatik eta hartzen bertzerena, merezimendu handi izanen duzu.

3. Hañitzetan aditu dut hobeago dela, eta segurago, mintzatzea baiño, entzutea, eta koseillu ematea baino, hartzea.

Gertha ere daiteke batzuen eta bertzeen abisua ona den: ordean bertzerenerat ez iaustea, arrazoinak edo okasioneal hala galdetzen duenean, orgilleriaren eta hisiaren seiñalea da.

X. KAPITULUA

Utz mundanoen konpañiak eta solas sobraniazkoak: begira ixilltasuna; probetxos direla solas espiritualak.

1. Ihes egiozu ahal guziaz munduko habarrotsari eta nahasmenduari, ezen xede gaixtorik ez izan arren, munduko gauzen erabilzeaz trabatzen du hagitz espiritua.

Banitatezko airea sartzen da solas hetan, zeinak lizuntzen baitu laster gure arima eta debekatzen Jainkoa gana libroki altxatetik.

Ala nahi bainuke hañitz orduz egotu baninz ixillik, eat jende artean ez baninz kausitu?

Baiñan nondik dugu hanbat gutizia elkharrekin mintzatzeko, solas hetarik hurren behiñere konzienzia zaurthu gabe ilkhitzen ezgarelarik?

Hori heldu da, zeren solas hekien bidez nahi baitugu zerbait konsolamendu elkharganik hartu eta gure bihotza gogoeta diferentez kargatua eta nekhatua arindu.

Hargatik atsegiñ dugu mintzatzeaz hagitzen maitatzen eta desiratzen ditugun gauzez, bai eta beldur garenez eta gure nahien kontra direnez ere.

2. Baiñan helaz! Maiz alferrik. Ezen kanpoko konsolamendu hura ezda traba xumea Jainkoaren barneko konsolamenduentzat.

Beraz atzarriak eta othoitzean egon behar dugu, denbora alferrik ezdoakuntzat.

Mintzatu behar bada mintza zaite arimakotz on daitezken gauzez.

Gure usanga gaixtoa, eta berthutean aitzina goateko dugun artha gutia da kausa haiñ gaizki mihia begiratzen baitugu.

Guziareki ere sola espiritualak ezdire guti baliatzen prefekzioneko bidean aitzina goatzeko guziz presuna Jainkoaren baitan iuntatuak, eta espirituz eta bihotzez bat egiñak elkhrgana bilzen direnean.

XI. KAPITULUA

*Nola beharden ardietsi bihotzeko
bakea, eta aiziña goan berthutearen
bidean. hezi behar direla bizioak, eta
gutizia desordenatuak.*

1. Bake handi bat ginduke, nahi ezbagindu sarthu bertzek erraten, edo egiten dutenetan, eta guk kontu eman behar ezdugun gauzetan.

Nola dagoke luzero bakean, bertzeren egitekoek behar gabeko arthak hartzen dituenak, kanporat espiritua barraiatzen duena, eta bere baitan guti sartzen denak?

Dohatsu sinpletasun saildu batean bizi direnak, ezen hek gozatuko dire bake handi batez.

2. Zergatik saildu batzuk hanbat bethute ardietsi dute, eta haiñ gora kontenplazionean altxatu dire?

Zeren bere bihotzetik khendu baitute alde baterat lurreko gauzen amudioa, eta bide hortaz ardietsi baitute bere espirituko libertate osoa,

eta lothu baitzaizko Jainkoari bere bihotzeko indar guziez.

Baiñan guri sobra lan ematen daroku gutizia desordenatuen kontentatzeak, eta artha sobra hartzen dugu gauza iragankorrez.

Gutitan garaitzen ere dugu bizio bat osoki, ezdugu kharrik berthutean aitzina goateko; hala bethi ephel eta bethi laxo gelditzen gare.

3. Gu bagine gure alderakotz osoki hillak, eta munduko amarraduretatik libratuak, Jainkozko gauzei goztu hargiñozokete, eta kontenplazio-nearen gozotik zerbait froga giñezake.

Gehienik gu trabatzen gaituena da, gure bizioak, eta gutizia gaixtoak oraiño biziak baitire, eta hasantzen baikare sainduiek bere exenpluez erakutxi darokuten bidetik.

Zerbait atsekabe xume gerthatzen zaizunean ere, gogo hiltzen zaizu berehala, eta abiatzen gare munduko konsolamenduen bilha.

4. Guk bagindu bihotzik asko guduan fermu egoteko, izan giñezake faltagabe laguntza handi bat zerutik.

Ezen Jainkoa bethi dago gogotik laguntzerat haren alde gudian hari direnak, eta haren grazian bere esperantza dutenak; eta hare berak soraratzten ere darozkigu paradak guri khoroen mereziatzeko.

Relijioneko perfekzionea, eta berthuteko aitzinomendua xoillki ematen badugu kanpoko gauza batzuen xirrikitu konplitzean, gure debozioneaz ez du hañitz iraunen.

Baiñan goazen gaitzaren erroraiño; hezatzigun gure bihotzeko mobimendu desordenatuak, eta gozatuko gare arimako bakeaz.

5. Urthe guziez bizio bat atheratzen bagindu, eta khentzen bihotzetik, laster ardiets giñezake berthutearen, perfekzionea.

Baiñan urrun gare handik: Aitzitik frogatzen dugu maiz konbertitu berrian berthute gehiago ginduela, handik hañitz urtheren buruan baiño.

Egun oroz saindutasunean behar ginduke berretu, eta orai hañitz daritzagu lehenbiziko kharraren ez osoki galzea.

Hastean geure buruel bortxa pixka bat egiten bagiñote, handik haratko guziak errexki eta bozkarioekiñ agiñ giñetzake.

6. Gaitz da usanza gaixtoen uztea; baiñan gaitzago da oraiño nork bere nahiri ukho egitea.

Ordean gauzarik, xumeenetan ez baduzu zeure burua garaitzen, nola bada, garaituko duzu handienetan?

Hastetik kontresta egiozu zure bihotzeko iai-durari, eta pendura gaixtoari, etzazula entzun zure hazdurak erraten darozuna: beldurrez egunetik egunera gaiztasunak handi daitezen, eta egiñ dakizun eziñ garaituzko traba.

Zuk baziñaki zer bake zinduke zerorrek, eta zer bozkario bertzeek, zure egiñbidean arabera arabera bizi baziñe, artha gehiago zinduke bertutean aitzia goateko.

XII. KAPITULUA

Zeiñ progotxos den sofritzea.

1. On da batzuetan guretzat penak eta trebesiak izatea, zeren hek gure baitan sararazten baikaituzte bizi garela, eta ez dugula eman behar gure esparanza munduko gauzetan.

On da noizik behiñ kausi deitezen gure kontrestatzailleak, eta gutaz opinione gaixtoa dutenak, gure akzioaneak, eta xedeak onak izan arren. Gauza hori maiz baliatzen da banagloriatik gure beiratzeko eta humiltasunean finkatzeko.

Nihoitz ere ez dugu hobeki billhatzen gure barrenean Jainkoaren lekhukotasuna, eta aprobazionea nola kapotik gizonak arbuiatzen eta gaizki iuiatzen gaituztenean.

2. Hargatik behar luke gizonak Jainkoa baitan hartaraiño bortistu, non ezbailuke munduko konsolezioenen billhatzeko beharrik.

Zenbatenaz presuna prestu bat baita aflijituagoa edo tentatuagoa, edo gogoeta gaixtoez penatuagoa, hanbatenaz frogatzen du bere baitan hobeki Jainkoaren beharra, zein gabe ezbahtagikegu deus onik.

Orduan tristatzen, dago plaiñuz, eta othoitzez sofritzen tuen gaitzetarik libratua izateko. Unhatzen da haiñ luze bizitzeaz, eta hiltzea desiratzen du bere gathetarik libro, eta Jesu-Kristorekin bat izateko.

Orduan ezagutzen du ezdela mundu huntan segurantza osorik, ez bake perfetik.

XIII. KAPITULUA

Tentazione progotxuaz, eta nola behar zaioten kontra egiñ.

1. Mundu huntan bizi gareiño eziñ gaitezke afizione, eta tentazione gabe.

Hargatik erran du Jopek gizonaren bizia ezde-la bethiereko tentazionerik baizen lurraren gainean.

Hargatik batbederak guardian egon behar luke tentazioneen kontra, eta othoitzean erne beldurrez engana dezan debruak zeina ez baita behi-ere loharkatzen, eta *bethi gure ingurutan baitabilla nor irets ahal dezaken.*

Ezda gizonik haiñ saindurik ez haiñ perfetik, noizik behin tentazioneak ez dituenik, eziñ gaitezke ere osoki halakorik gabe,.

2. Halere tentazioneak maiz arimakotz progotxos dire nekhagarriak, eta fastigagarriak diren arren, zeren gizonaren humiliatzeko, xahutzeko, eta argitzeko baliatzen baitire.

Saindu guziak hañitz aflikzone eta tentazio-netarik iragan dire, eta progotxatu dire hei kontra egiñik, eta tentazioneak ezeiñ iasan dituztenak reprobatu dire, eta galdu.

Ez da ordena haiñ saindurik, ez lekhu haiñ gorderik non ez baitire penak eta tentazioneak aurkhitzen.

3. Gizona bii deiño eziñ daiteke seguratusa ezdela behin ere tentatuko, zeren nola baikare konkupizenzian sorthuak, gurekiñ baitarkegu tentazione guzien ithurburua.

Tentazioneak eta tribulazioneak bata bertzeari darraizko, eta gure lehenbiziko dohatsutasuna galduz geroztik izanen dugu bethi zerbait sofritzeko.

Hañitz presuna tentazioei ihesi dabiltzala dohakabekiago hetarat erortzen dire.

Ihes egite xoillak ezdaroku garaia emanen, baiñan pazienziak, eta egiazko humiltasunak egiñen gaitu gure etsai guziak baiño sendoago.

4. Kanpotik baizen gaitzari ihes egiten ez dioenak, eta hura erroetarik atheratzen ez duenak,

guti abantzatuko du, aitzitik lasterrago bihurtuko zaio tentazionea, eta lehen baiño borthizkiago.

Errexkiago Jainkoaren laguntzarekiñ batean garaitukotutzu baratxe baratxe tentazioneak pazienza humill eta luze batez, ezen-ez zure buruaren kontrako gogortasun, eta amore gaitzez.

Har zazu konseilu tentazioneko denboran, eta ezzazula gogorki trata tentazioneez doloratua den presuna: aitzitik konsola zazu zeronek kasu berean nahi zindujen bezala.

5. Tentazione guzien hastapena gure arimaren inkonstanzia da, eta Jainkoa baitan fidanzia eskasa.

Ezen nola untzi lema gabe bat uhiñek norat nahi baitarabillate, hala presuna laxoa eta bere seliberazioneran inkonstanta darabillate tentazioneek.

Suak frigatzen burdiña eta tentazioneek gizon iustua.

Ezdakigu maiz zertaraiño doan gure ahala, baiñan tentazioneak erakusten daroku nor garen.

Bizkitartean bethi erne egon behar da, eta beregainki tentazionearen haztean, ezen errexkiago garaitzen dugu etsaia aitziña goaskonean, eta hurbill senti dugun bezaiñ sarri arimako athea zarratzen diogunean.

Hargatik erraten zuen zuhur batek: *hastetik emozu gaitzari erremedio, bertzela alferrik emanen diozu sobera luzaturik gaitza nausitu denean.*

Tentazioneak baitu bere graduak; hastean ezda espirituko gogoeta bat baizen, gero imajinazione borthiz bat, gero atsegiña, gero mobimendu desordenatua, eta azkenean konsentimentua: baratxe baratxe etsaia sartzen da osoki ariman barrena, zeren etzaion berehala kontra egiñ.

Ezen zenbatenaz berantzenago baitugu hari kontra egiterat, hanbatenaz flakantzen gare gehiago, eta hura gehiago borthizten da.

6. Batzuek bere konbertzionearen hastean pairatzen tuzte tentazionerik dorpheenak; bertze batzuek fiñean, badire bere bizi guzian tentazionez penatuak direnak.

Batzuek tentazioe ariñagoak dituzte, eta horiek guziak gertatzen dire Jainkoaren zuhurtziaren eta iustiziaren ordeñuen arabera, zeinak pisatzen baititu bat bederaren dispoziioeak, eta merezimenduak, eta guziak arrimatzen bere hautetsien salbamendukotz.

7. Ezdugu beraz etsitu behar tentatuak garenan, aitzitik hanbatenaz khar gehiagorekiñ othoiz egiñ behar diogu Jainkoari arren lagun gaitzan gure pena guzietan, eta hark iondoni Paulok dioen bezala *progotxurekiñ atherako gaitu tentazionetik, haren garaitzeko indarra emanik.*

Humilia gaitzen beraz Jainkoaren esku poderosaren azpian tentatuak, eta afrijituak garen guzian, zeren humillak salbatuko eta bere loriarat altxatuko baititu.

8. Gizona tentazionetan, eta trebesietan frogatzen da, hetan ikhusten du zenbat berthutean aitzinatu den, hetan merezimendu handiago da, eta berthutea ezagunago.

Ezda gauza handi bat debozitonean bero izatea deusik sofritzeko ezdenean, bainan trebesietan pairakor denaz esparanza izateko da berthutean abantzatuko duela.

Halere badire batzuek zeñak tentazionerik dorpheenak garaitu ondoan erortzen baitire xumeenetan, eta ardurazkotan, Jainkoak hori permetitzen du haiñak humilia daitezentzat, eta bere indarretan fida ezditezentzat okasione handietan, haiñ flako gerthatu diren ondoan okasionerik xumeenetan.

XIV. KAPITULUA

Ez iuia bertzeez temerarioki: finka zatzu begiak zure gaiñean eta etzaitezela iar bertzeen akzioneer iuie.

1. Bertzeren iuiatzen hari dena, alferrik traillaillatzen da, maiz enganatzen da, eta errexki hutsetan erortzen, baiñan bere buruaren iuiatzen eta examinatzen hari dena, bethi progotxoski hari da.

Gure bihotzeko penduren arabera dire komunski gure iuiamenduak, eta gure amudio propioak gaixtatzentu gehiengan.

2. Jainkoa balitz gure xere baxharra, eta gure gutizia guzien objeta ez gintezke haiñ errexki altara gure sentimenduei kontra egiten zaiegan.

Baiñan maiz edo zenbait amarradura gordek, edo zenbait kanpoko obietek garamatza.

Batzuek gordeki eta nola ezdakitela bere buruak billhatzen tuzte bere akzione guzietan.

Bakean daudez eta soseguan hekiñ gogara gauzak doazeino, bainan hekien desgogara deus gerthatzen bada, altaratzen dire eta tristatzen berehala.

Sentimendu eta umore kontarioek eskatimak sorarazten tuzte adiskideen, herritarren, ordena saindutako presunen, eta prestuen, eta Jainko-tiarren artean.

3. Usanza zaharrak nekhez uzten dire, eta ezdugu utzi nahi gure argi propioalez urrunago gidatzerat.

Zure espirituaren eta zure antzean gehiago fidatzen bazare ezenez Jesu-Kristoren indarrean, zeñak irabazten eta garaitzen baititu bihotzak, gutitan eta berant izanen dituzu haren argiak, ezen Jainkoak nahi du haren azpian perfetki humilia gaitezen, eta amudio khartsu batek sakrifika diotzan gure arrazoiñ eta argi guziak.

XV. KAPITULUA

*Akzione guziak amudioreki egiñ
behar dira.*

1. Ez da egiñ behar gaizkirik deusen ere gatik, edo nihoren amoreagatik, baiñan obra on bat hasia utz dezakegu, edo ganbia hobeago batetara, gure lagun proximoaren beahrrak hala galdetzen duenean.

Manera hortan gure obra ona ezda galtzen, baiñan bai hobeago batetarat ganbiatzen.

Jainkoaren amudioa gabe egiten diren obrak ezdire deusetako baliatzen; baiñan Jainkoaren amudioz egiten diren gauzak merezimenduskoak dire, xumeak eta mesprexagarriak iduri arren.

Jainkoak ezdu hanbat konsideratzen zer obra egiten dugun nola zer xedez hari garen.

2. Hañitz maite duenak hañitz egiten du.

Ungi egiten duenak hanitz egiten du, eta ungi egiten du bere progotxua baiño bertzerena hobeki billatzen duenak.

Maiz xede humanoak garabiltzate, eta uste baitugu karitateak garabiltzala; ezen gure pendura naturala, borondate propioa, zenbait abantailen esparantza, eta gure aisien gutizia hurren sentitu gabe sartzen da gure xedeetan.

3. Jainkoaren amudio egiazkoa, eta perfeta duenak ezdu deusetan ere bere burua billatzen, baiñan gauza guzietan billatzen du Jainkoaren loria.

Etzaio nihori bekhaisten, ezen ezdu bere baitan ematen bere kontentamendua.

Ezda bere baitan alegeratzen baiñan bai Jainkoa baitan, zeïña baita hark desiratzen duen ontasun bakharra, eta hura dohatsu errenda dezakena.

Ez diote ematen creaturei ontasun baten ere buruperik, baiñan on guzien loria ematen dio kreatzailleari zeïñaganik heldu baitire gauza on guziak ber ithurburutik bezala, eta zeïña baitan

kausitzen baitute sainduak bere errepausu eta dohatsutasun soberanoa.

Oi egiazko karitatetik den gutiena bagindu, ikhus giñezake munduko gauza guziak ezdirela banitaterik baizen.

XVI. KAPITULUA

Nola behar tugun iasan bertzeren eskasak.

1. Gure edo bertzeren baitan eziñ korreji detzakegun eskasak, behar tugu pazienki jasan, Jainkoak berzela ordena dezaken arteraiño.

Siñhetsazu benturaz hori hobe dela gure frogatzeko, eta gu borthizteko pazienzian, zeña gabe deus guti kondatu behar baitire gure merezimenduak.

Halere behar diogu Jainkoari miñki othoiz egiñ: desegiñ detzan gure baitan traba hek, edo eman diezagun indarra hekiñ ungi iasateko.

2. Presuna bat behiñ edo bietan abisatu duzun ondoan ez bada erortzen zure sentimendurat, etzazula gehiago harekiñ iharduk; baiñan utzazu guzia Jainkoa ganat, haren borondatea konpli dadintzat, eta haren loria ager dadintzat haren zerbitzarietan, zerbizarietan, ezen badaki hark ungi gaitza onera ganbiatzen.

Usa zaite bertzeren eskasen eta flakezien pazienziarekiñ iasaten, ezen baituzu zuk ere hañitz bertzeek pairatu behar dituztenak.

Hortaz eziñ gure burua erakhar badezazuke nahi zinduken kozkara; nola bertzeak moldatuko tutzu zure nahien eredura?

Atsegiñ dugu bertzeak izan ditezen eskasik gabe, baiñan gerorrek ezditugu gureak uzten.

3. Nahi dugu hek garraski mehatxa ditezen, eta ezdugu geronek nahi mehatxatuak izan.

Errateko dugu bertzei bere galdeak errexkiegi konplitzen zaizkotela, eta ezdugu nahi guri deus errefusa dakigun.

Galdegiten tugu bertzeentzat erregelamendu hertsia, baiñan guretzat ezdugu nahi hertsitasun garabik.

Ageri da beraz zeñ guti bertzeak gure buruaz neurtzen tugun.

Mundu guzia eskas gabe balitz zer ginduke gizonenganik pairatzeko Jainkoaren amoreagatik?

4. Baiñan Jainkoak bertzela ordenatu du, ikhas dezaguntzat elkharren karguen iasaten.

Nola ez baita nihor eskas gab e, hala ez da nihor karga gabe.

Nihor ez da beretzat asko, nihor ez da aski zuhur ber buruaren gidatzeko, eta behar dugu guziek elkhar iasan, elkhar konsolatu, elkhar lagundu, eta abisu onez argitu.

Ezda berthutearen froga seguragorik sofrika-riak baiño.

Ezen okasioneek ez gaituzte flakatzen, baiñan zeĩñ flako garen erakusten.

XVII. KAPITULUA

Relijioneko bizitzeaz.

1. Ikhasi behar duzu hañitz gauzetan zure buruari bortxa egiten, eta zure nahia garaitzen, bertzeekiñ batasunean bizi nahi baduzu.

Ezda gauza gutia komentu edo kongragazio-ne batean errenkuratzeko sуетik eman, edo hartu gabe bizitzea, eta heriotzeraiño bizitze erregelatu batean irautea.

Dohatsua da han eraman duen bizitze saindua heriotze on batez khorroatzen duena.

Nahi baduzu berthutean fermu egon, eta goan aitzia zure burua idukazu desterratu bat, edo bideante bat bezala lurraren gaiñean.

Relijioneko bizitzea eraman nahi duenak, eta Jesu-Kristoren gogarako izan nahi duenak, iguriki beahr du errotzat itxikiko dela munduaren artean.

2. Ordenako arropa, eta ilearen moxtea ez deus guti baliatzen dire: bizitzearen ganbian-

tzak, eta pasioneen mortifikazioneak egiten du egiazki erlijioneko presuna.

Jainkoaz eta salbamenduaz bertzerik biltzen duenak, ezdu kausituko dolorerik eta ondikorik baizen.

Guzien azken, eta guzien azpiko izan nahi ez duenak eziñ duke bake luzerik.

3. Orhoit zaite obeditzera ethorri zarela, eta manatzerat, erlijionerat deithua izatu zarela sofritzeko, eta traillaatzeko, eta ez solaz alferretan denbora galtzeko.

Komentutan baraz frogatzen dire gizonak urrea labeaz bezala.

Han nihork eziñ iraun dezake ez bada. Jainkoagatik humiliatzen bere bihotz guziaz.

XVIII. KAPITULUA

*Sainduen exenpluaz progotxatu
behar dugula.*

Konsidera zatzu sainduen exenpluak, zeinak izatu baitire Relijionearen eta perfekzionearen mirail bizizak eta kausituko duzu deus guti edo ez deus dela guk egiten duguna. Helaz! Zer da gure bizia hekienaren aldean?

Sainduak, eta Jesu-Kristoren adiskideak zerbitzatu dute Jainkoa sofritzen dutela gosea, eta egarria, hotza eta billuiztasuna, nekheak eta tabailluak, beillak eta barurak; egiñ dituzte othoitzak eta meditazione sainduak, eta pairatu haiñitz persekuzione eta laido fuerte.

2. Oi zenbat pena dorphe eta aflikzione gogor ezdute pairatu Apostoluek, eta Martirek, Konfessorek, eta Birjinek, eta Jesu-Kristoren urratsei iarraki nahi izatu zaisten berze guziek *Higuindu izan dute mundu bere huntan bere bizia, hartaz gozatzeko eternitatean.*

Oi! Ala desertuko aitez eraman duten bizitzea izatu baita probrea eta mortifikatua. Ala hekien tentazioneak luzeak izatu baitire ea dorpheak, zeñ maiz ezdire hek izatu etsaiaz persekuatuak. Oi! nolakoa izatu den othoitzetan hekien berotasuna eta iarraikitasuna, zeñ garratzak izatu diren hekien abstinenziak, zeñ zelo khartsua izatu duten debozitionean aitzina goateko.

Zer animorekin ezdiote gerla egiñ bizioei? zer xede xuxen eta xahurekiñ billhatu ezdute Jainkoa. Egunaz lanean ari ziren, eta gabaren gehien parte othoitzean zaramaten, eta lanean hari zirenean ere hekien espiritua etzen othoitz egitetik gelditzen.

3. Bere denbora guzia progotxoski enplegatzon zuten; orenak laburregi zitzaizkoten Jainkoa baitan aplikatuak egoteko; eta kontenplazionean sentitzen zituzten atseginek ahantzazten ziotzoten gorputzeko beharrik handienak.

Ukho egiten zioten aberastasunei, kargei, ohoreei, adiskideei, eta ahaideei; eta etzuten desiratzen munduko gauzarik batere doidoia hartzen zuten biziarenzat behar zena ere, eta

etzuten bere gorputzez eziñ berzezko artharik baizen.

Probe ziren munduko ontasunez, baiñan aberats graziaz eta berthutez. Kanpotik gauza guziak eskas zituzten, baiñan barrenean zeruko dohaiñez etea konsolazionez betheak ziren.

4. Munduarekiñ atze bezala bizi ziren, baiñan Jainkoaren adiskiderik maiteenak hek ziren.

Munduak meziprezatzen zituen, eta bere begietan ere etziren deus, baiñan Jainkoarentan maite eta preziatu ziren humiltasun egiazkoan bizi ziren, obediencia simple batean, karitate, eta pazienza perfet batean, eta hala egun guziez bizitze espiritualean aitzinañatzen ziren eta berretzen ziren graziaz eta berthutez.

Saindu hek ematen izan diotzate mirailtzat Jainkoak Relijioneko persuna guziei, eta hekien etsenpluak hobekiago behar gaitu obra onetarat animatu ezen ez haiñitz ephelen ikhusteak laxatu.

5. Oi! nolakoa izatu den fraide eta serora guzien debozionekeo kharra bere ordenen hasta-

penetan; zein handia hekien othoitzetako berotasuna, hekien lehia elkarren berthutean imitatzeko, bere erregela ponturen puntu beiratzeko: nolako errespetua eta obediencia bere aitzindariantzat.

Hek utzi darozkiguten berthuteen urratsek erakusten darokute egiazki perfetak zirela, eta izatu dutela animo munduari gerla egiteko, haren garaitzeko, eta bere handitasun guziekin ostizatzeko.

Orai gauza handizat daukate botuak ez haustea, eta hartu duten uztarria pazienki iasatea.

6. Oi gure denborako laxotasuna, eta epheltasuna, lehenbiziko khar hura lauster iraungitu da, eta haien gare flakoak, eta hagaranduak non bizia ere nekhagarrik baitzaiku. Oxala hanbat sailduren etsenpluek bitx balezate gure baithan ere saildutzeko gutizia.

XIX. KAPITULUA

Debozioneko pratikez.

1. Relijioneko presuna prestu baten bizitzeak behar du izan berthute guziez berregindua, kanpotik ageriden bezalakoa barrenean izan dadintzat.

Artha gutxiago behar du ere izan barrenaz ezenez kanpoaz, zeren Jainkoa baita gure bihotzeko mobimenduen lekhukoa eta juiea, eta hala haren aitziñean agertu behar baitugu Aingeruen errespetuarekiñ, eta garbitasunarekiñ.

Horatarakotz egun oroz erreberritu behar ditugu gure deliberazione onak, eta bixtu behar dugu gure kharra, gure konbersioea egun hasi balitz bezala. Erran behar diogu Jainkoari: Jauna, lagun nazazu zure ungi zerbitzatzeko eman darotazun desira onean, eta indazu grazia egundik egin ditudan guziak ezdire deus.

2. Berthutean gure aitziñatzea maiz gure deliberazioneen berotasunak egiten du, eta bide haiñitz egin nahi duenak animo handia behar du.

Baldiñ deliberazionerik hoberenak hartzen dituen ere erortzen bada maiz, zer izanen da bada gutitan eta flakoki deliberatzen dutenez?

Haiñitz manera suertez gerthatzen da gure laxatzea deliberazione onetan; eta Jainkozko eginbidetan egiten dugun hutsik xumeena ere hurren bethi gure kaltetan eta gutimendutan egiten da.

Bizkitartean justuen deliberazione onak hobeki dire fundatuak Jainkoaren grazian, eze-nez hekien zuhurtzian, eta zerbait egitekori lotzen zaiztenean, Jainkoa baithan emana dute bere esparanza guzia. Ezen gizonak *deliberatzen du, eta Jainkoak disposatzen du*; eta gizonak bere zorthea ez du bere eskuko.

3. Gure ardurako debozitoneak uzten baditugu noizik behiñ Jainkozko xedez, edo gure anaien progotxuagatik, huts hura errexki erremediatuko dugu, baiñan desgustuz edo laxotasunez uzten

baditugu, huts handia izanen da, eta sentituko ditugu haren ondoreak.

Jarraiki gagizkoten beraz ahal guziaz gure eginbideei, guziarekiñ sobra baitzen ez dugu huts egiñen haiñitz gauzetan.

Halere on da bethiere zerbaiti lot gakizkon partikularrean, eta guziz har detzagun gure deliberazioneak perfekzioneko bidean kausitzen ditugun traben kontra. Orobat behar dugu izan artha gure barrenaz, nola gure kanpoaz, ezen biek egiten dute gure aitziñamendua.

4. Instant guziez zure barrenean eziñ sar bazaitezke, sar zaite bederen denboratik denborara, eta gutienez egunean behiñ, goizean edo arratsean.

Goizean arrimatza zu zure espirituan egunean behiñ egiñ behar dituzun gauza guziak, eta etsamina zazu arratsean zer egin duzun, nolakoak izatu dire zure gogoetak, hitzak eta obrak, eta kausituko duzu menturaz huts haiñitz egiñ duzula Jainkoaren, eta lagun proximoaren kontra.

Harzatzitzu armak soldau balent batek bezala deabruaren maleziaren kontra: ebak atzu jan

edaneko sobrania guziak, eta errexkiago garaituko ditutzu haragiaren berze gutziak.

Ez zaudezela behiñ ere alferrik, aitzetik bethi othoitzean edi meditazionean, irakurtzen edo iskribatzen, edo balsakotz zerbait lanen egiten.

Halere bada kanpoko praktikak eta gorputzeko obra debozinezkoak prudenziarekiñ hautatu behar dire, eze ez dire guziak on guzientzat.

5. Guretzat partikularki hartu ditugunak, ez ditugu bertzen aitzinean egiñ behar, ezen segurago da hek gordeki egitea.

Begirautzu halere izan etzaitezen laxo komuneke debozinetarat, eta sobra kharsu zure praktika hautetsietarat baiñan zure eginbideak arthoski eta osoki konplitu ondoan, balin baduzu gehiagoko denborarik, enplegazazu zure debozione partikularrak inspiratzen darozkitzun gauzen egiten.

Guziek ezin dukete enplegatu bera, bara gauza batekotz da gai, eta bertzea bertzekotz. Eta on da ere denbora arabera debozione deiferentak hartzea, ezen batzuek hobeki dagozkote bestei, berzeak astelegunei.

Batzuen beharra dugu tentazioneko denboran; eta berzeena bakean eta soseguan.

Batzuek on ditugu triste garen denboran, eta bertze batzuek Jainkoa baithan boztuak garenan.

6. Besta handitan erreberritu behar dugu gure deboziona, eta galdetu berotasun handirekiñ sainduen arartekotasuna: on da besta bate-tik berzera presta gaitezen orduan mundutik ilkhi behar bagindu bezala, eta goan eternitate-rat, zeñetan egiñen baitugu dohatsuen besta handia.

Hala denbora sainduetan gure artha guzia behar da izan gure bizia gehiago saindutzea, eta gure egin bide guziak leialki konplitzea, gure nekheen saria, izateko menean bagiñe bezala.

7. Eta baldiñ Jainkoak luzatzen badu oraiño gure golardoa, sinhets agun ez garela oraiño aski prest, eta ez garela digne haren gloriaren ikhusteko zeña erakutsiko baitaroku berak orde-natu duen denboran; egitzigun beraz gure egiñ

ahal guziak ungi prestaturik ilkhitzeko mundu huntarik.

Dohatsu zerbitzaria (dio San Luc Ebanjelistak) jauna heldu denean atzarria edirenen duena, erraten darotzuet egia bere ontasun guzien gaiñean ezarriko duela.

XX. KAPITULUA

*Maitatu behar dela erretiramendua,
eta ixiltasuna.*

1. Harzazu denbora zure baitan sartzeko, eta maiz gagoan erabiltzazu Jainkoaganik errezibitu dituzun ontasunak.

Utz azitzu kuriostasun guziak, eta hauta zatzu liburuak espirituaren bethetzeko baiño bihotzaren ukitzeko geiago direnak.

Zure egitekoen konturik khentzen baidituztu solas banoak, bisita alferrak, eta munduko berriak, kausituko duzu denborarik asko meditazionean egoteko.

Saindurik handienak urrundu dire ahal guziaz gizonen balsatik, eta hautatu izan dute bakhartasunean Jainkoaren zerbitzatzea.

2. Arrozoïñekin erran zuen lehenago zuhur batek: *Ez naiz egundaiño gizonen artean izatu non ez naizen gutiago, eta flakatuago bihurtu;*

eta gauza hori frogatzen dugu gure solasak luzexko diren guzian.

Errexago da garabik ez mintzatzea, ezen ez hasi geroztik ez sobera mintzatzea.

Errexago da etxean baxharrik egotea, ezem ez kanporat geroztik bere buruaren ungi begiratztea.

Beraz bizitze espiritualean aitziñatu nahi duenak behar du Jesusekiñ munduaren artetik, eta habarrotsetarik erretiratu.

Erretiramendua onhetsi behar da segurantzarekiñ kanpoan agertzeko. Ixillik egoten ez dakienak beldurrekiñ behar du mintzatu. Zerbitzatzen ez dakienarentzat hirrisku da buruzagi izatea; obeditzen dakienak ungi manatzen du.

3. Ez da bozkario egiazkorik konzienzia onaren soseguan baizen.

Halere sainduen segurantza bethiere iuntatua izatu da Jainkoaren beldurtasunarekiñ, eta zenbat baitziren ere grazian, eta berthutean altxatuak, bethi humill izatu dire, eta ikharan egotu dire. Kontrarat gaixtagiñen seguratasuna heldu da hekien orgilleriatik eta burupetik, eta

azkenean baliatzen da hekien enganatzeko eta galtzeko.

Eztzazula burura segurean konda mundu huntan zareño, komentuan edo desertuan sainduki bizi baziñe ere.

4. Maiz konziencia sobrak etxatu ditu hirriskurik handienetarat munduak gehienik estimatzen zituenak. Hargatik da on haiñitzentzat tentazio-netarik osoki libro ez izatea, aitzitik hetaz husu penatuak izatea; beldurrez segurantza sobrak eroraraz detzan orgilleriarat, eta libertate sobra-rekiñ ibil daitezen konsolazione humanoen ondolan.

Oi ala gure konziencia garbia bailiteke bozkario iragankorren billha ibiltzen ez bagiñe, eta munduarekiñ egitekorik ez bagindu!

Oi nolakoa liteken gure bihotzeko bakea eta sosegua, behar gabeko arthak utzirik, gure salbamenduan baizik pensatzen ez bagindu, Jainkoa baithan gure esparanza guziak ematen ditugula!

5. Nihor ez da zeruko konsolazioneen errezi-bitzeko, ez badu maiz sentitu bere baithan bihoz doloratsu, eta humiliatu baten urrikia.

Nahi baduzu urriki miñ hark uki dezan zure bihotza, sar zaite zure barrenean, urrun zaite munduko habarrotsetatik, eta Psalmoetan eskribatua den bezala: *zure ohean eman zaite urrikimenduzko sentimendu egiazkoetan*. Kausituko duzu zure erretiramenduan maiz mundupean gal zinezakena.

Erretiramendua ederrestu da ungi begiratu denean; baiñan gaizki begiratzen bada, unhagarrri da eta desgustagarri.

Zure konbertsionearen hastetik erretiramenduan lakhet baduzu, eta zure arimak han gustuago ditu konsolazioneik eztiak.

6. Arima debotak eta Jainkotiarrek ixiltasunean eta soseguan egiten du bide berthutean, eta han ikhasten ditu skripturako sekretuak.

Han kausitzen ditu nigarrezko xirripak zeñez garbitzen baitu gau guziez bere arima; eta han-batenaz hurbiltzen da bere Jainkoa ganat, zenba-

tenaz urrutzen baita munduko egitekoetarik eta habarrotsetarik.

Bere adiskidetarik eta ezagunetarik urrutzen dena hurbiltzen da Jainkoaganat, eta aingeruen ganat.

Hobeago da gorderik egotea, eta salbamen-duaz artha izatea, ezenez artha hura utzirik mirakulluen egitea.

Relijioneko presuna batentzat laudagarri da guti ilkhitzea, ez ikhusi, ez ikhusia nahi izatea.

7. Zergatik nahi duzu ikhusi zuretzat izatea zilhegi etzaitzuna? Mundua iragaten da, eta iraganen dire halaber munduko guziak ere.

Atsegiñaren hirritsak bagarabiltza maiz pasaieta alferreran, baiñan denbora hura goan denean, zer handik ekharriko dugu lekhat konzienziaren pisutasuna, eta bihotzeko baraiadura.

Maiz nihor alegera ilkhitzen da, eta triste bihurtzen, eta arrats bozkariozkoak goiz tristea dakharke.

Hala ohi dire manduko bozkario guziak, atsegiñekin sartzen dire, baiñan azkenean, zaurtzen dute eta hiltzen arima.

Zer ikhusiko duzu berzetan, ikhusten ez duzunik zaren lekhan? Begien aitziñean ditutzu zerua, lurra eta elementak, bada hetaz egiñak dire munduan ikhus daitezken gauza guziak.

8. Zer ikhus dezakezu iguzkiaren azpian bethi iraun dezakenik? usteduzu menturaz kontentamendu oso bat kausituko duzula, ezeki ez duzu kausituko sekulan.

Munduko gauza guziak betan zure aitziñean ikhusten bazintu ere, zer liteke ikhuste bano bat baizen?

Altxa zatzu begiak gorat zure Jainkoa , eta othoitzazu barkha dietzakitzun zure bekhatuak eta laxotasunak.

Utz diotzatzute gauza banoak presuna banoiei, zu lotzakizko Jainkoak manatzen darotzun lanari.

Hertsazu barnetik zure gelako athea eta deithzazu harat zure Jesus maitea. Egon zaite harekiñ, nihon ez duzu kausituko hanbat sosegu.

Handik ilkhi ez baziñe, eta hanbat berri ez bazindu aditu, hobeki gozatuko ziñen bihotzeko bakeaz. Gauza berrien aditzen atsegiñ hartzen

dugun pontutik, bihotza altaratzen, eta espiritua barraiatzen.

XXI. KAPITULUA

Bihozeko urrikimenduaz.

1. Nahi baduzu aitziañatu debozionetan idukazu bihotza Jainkoaren beldurtasunean, eta ez diozazula eman zure buruari sobera libertate, baiñan itxek atzu zure sensuak goardia hertsia- ren azpian, bozkario banoei ihes egiten diozute- la. Eman zakizko osoki zure bekhatuen dolorea- ri, eta ardietsiko duzu debozione egiazkoa.

Dolore hark haiñitz ontasun ematen daroku; baiñan espirituko barraiadurak ontasun hek guzian galarazten darozkigu.

Espantagarri da, nola ahal dukeen gizonak mundu huntan instant batez ere egiazko bozka- riorik; konsideratzen duenean bere desterrua, eta zenbat hurrisku harrigarritz den inguratua.

2. Gure bihotzeko arintasunak, eta bizioen uzteko dugun ansikabetasunak debekatzen gaitu gure arimako zaurien sentitzetik, eta hirri

egiten dugu maiz nigar egiñ behar gindukeen denboran.

Ez da egiazko libertaterik eta ez bozkario perfetik, Jainkoaren beldurtasunean eta konzienziaren garbitasunean baizen.

Dohatsu, traba eta barraiadura guzietarik espiritua libra ahal dezakeena, eta bere bekhatuen urrikiak bere baithan sarrastatzen duena: Dohatsu ko nziencia lohi edo karga dezaketen gauza guziak bereganik hastantzen dituen.

Duzun animo eta ezzaitezela guduan unha, usantza onak gaixtoa garaitze du. Ikhasen baduzu behiñ gizonen aldebatetar at usten; hek ere utziko zaituzte lauster nahi duzunaren egitera.

3. Ez zaitezela karga bertzeren arthez eta lanez, guziz ezzaitezela sar handien egitekoetan. Zure begiak finak zatzu lehenik zure buruaren gaiñean, eta zure abisu onak lehenago emotzu zure buruari, zure adiskiderik maiteenei baiño.

Gizonen grazian edo adiskidetasunean ez bazare, ez duzula gauza hortaz bihotz miñik, baiñan zure damu guzia beharda izan zeren etzaren

bizi iainkoaren zerbitzari, edo relijioneko presu-
na batek lukeen hersitasun eta goardia guziare-
kiñ.

Maiz segurago da eta progotxosago mundu
huntan kosnsolazione haiñitz ez izatea, guziz
sensuen araberakorik.

Jainkozko konsolazionez denaz bezanbatean
maiz gure falta da ez balinbaditugu, zeren ez
baikare aski ensaiatzen gure bekhatuen urrikia
bihotzean formatzerat, eta baidiogute uko egine
aldebaterat konsolazioe humanoiei.

4. Ezagut zazu beraz ez zarela digne zeruko
konsolazioneen errezibitzeko, aitzitik ez duzula
merezi damurik eta desgusturik baizen.

Egiazko urrikiaz bihotza hautsia denean mun-
duak ez du harentzat kiratsik eta behazunik bai-
zen. Giristiño on batek bethi kausitzen du arro-
zoinik asko nigarretan eta doloretan egoteko.

Ezen konsidera dezan bere burua edo bere
lagun proximoa, ez du ikhusten alde guztietan
lazeriarik eta ondikorik baizen, eta zenbatenaz
gehiago bere burua examinatzen baitu, hanbate-
naz gehiago doloratzen da.

Hortaz gure urrikien eta nigarren arrozoiñ iustuak dire gure bekhatuak eta bizioak, zeñek halako manera baikaduzkate herstuak eta zapatuak non hurren eziñ zeruko gauzetan pensa baitezakegu.

5. Bizitze luzean baiño heriotze hurbillean maizago bazindu gogoak, khar gehiago zinduke zure biziaren xuxenzeko.

Fede bizi batekiñ konsideratzen bazintu ifernuko eta purgatorioko tormentak, uste dut ezleitekela penarik edo nekherik gogorregi lizaikezunik, eta gogo onez paira etziñezakenik.

Baiñan nola egia inportant horiek ez baitire sartzen dure bihotzeraiño, eta oraiño sensuen atsegiñen ondoan baigabiltza, bethi epelthasunean eta nagitasunean gelditzen gare.

6. Maiz gure espirituaren fl akotasunetik heldu da gure gorputz dohakabea haiñ sentikor eta errenkurati baita. Egiozu beraz othoitz Jainkoari humilki, eta galde diozozu bihotz urriki-menduz doloratu bat, erratendiozula profetarekiñ; launa, janaraz diezadazu nigarrezko ogia,

eta edanaraz diezadazu ebundanki ene nigarren
ura.

XXII. KAPITULUA

*Konsideratu behar ditugula mundu
huntako miseriak.*

1. Non nahi den izan daitezen, eta norat nahi den itzul zaitezen, bethi dohakabe izanzen zare, Jainkoari lotzen ez bazaizko.

Zergatik altaratzen zare zure xedetan hel-tzen ez zarenean? Nor da gauza guziak bere gogara dituen? Ez zu, ez ni, ez munduan nihor. Ez da mundu huntan nihor penarik, eta ondikorik gabe, lizela eta Errege edo Aira Saindua.

Guzietako dohatsuena da Jainkoaren amoreagatik zerbait pairatzen duena.

2. Flakoek erraten dute maiz: ala hunelako dohatsu baita! ala aberats! ala podoroz baita.

Baiñan beha diozozute zeruko ontasunei, eta ikhusiko duzu mundu huntako gauza guziak ez direla deus guti segurak bere iraupenean, des-kansu baiño karga hobekiago direla, eta hekien

gozarena milla beldurrez eta griñez bethea dela.

Ez dago gizonaren dohatsutasuna haiñtz ontasunen izatean, haiñ guti asko duenaz geroztik bizitzeko.

Egiazki beraz miseria handia da lurrean bizitzea; eta zenbatenaz nihor aitzinañatzen baita gehiago bizitze espiritualean, hanbatenaz zaio bizitze hau khiratsez betheago, zeren hark miñkiago sentitzen baititu, eta agerikiago ikhusten korrupzioezko estatu hunen eskasak.

Ezen iatea, edatea, atzarria egotea, lo egitea, lanean haritzea, pensatzea, eta naturalezaren bertze behar guzien azpiko izatea ezda bada bethiereko miseria, eta ondiko gogorra gizon prestu, eta Jainkotiarrentzat, zeinañ nahi bailuke libro izan gorputzaren amarretarik, eta bekhatuaren gatibotasunetik?

3. Segur da Jainkoaren espirituaz bizi den arima batentzat gorputzaren beharrak karga pisu bat direla: hargatik profetak haiñ beroki erraten dio Jainkoari: *Jauna othoi libra nazazu ene behar guzietarik.*

Baiñan zorigaitz bizitze huntako lazeria eza-gutzen ez dutenentzat, eta zorigaitz gehiago bizitze hau miseriaz, eta lazeriaz inguratuaz delarik halere maite dutenentzat.

Ezen badire presunak bizitze hunekiñ hartaraiño lothuak, bethiereko lanez, eta eskez baizen garraiatzen ez dutelarik, non hortaz bethi goza ahal balitez, ez bailezakete egiñ konturik zeruko erresumaz.

4. O arima fede eta adimendu gabeak, bihotz gogorak, zeñan hartaraiño baitire lurrarekiñ, iosiak non ez baitute sentimendurik munduko gauzentzat baizen.

Baiñan helaz dohakabe hek azkenean frogatuko dute zeñ ezdeusak, eta mezprezagarriak ziren hek hanbat maitatu dituzten gauzak.

Bertzela konportatu dire sainduak, eta Jesu Cristoren adiskideek ez dute ko nturik egiñ sensuen atsegiñez, edo mundu huntako ponpoez: baiñan bere esparantza guzia eman izan dute zeruko ontasunetan, zeñentzat baitire hekien amudio, eta gutizia guziak .

Bethi bere bihotzak altxatuak zaozkaten ontasun ikhusten, eta fiñatzen ez direnetarat beldurrez ikhusten diren gauzen amudioak behera zetzan lurreko alderat.

Ez dezazula bada gla, ene anaia, bizitze espiritualaren progotxxatzeko fidanzia, eta animoa, Jainkoak hortakotz ematen darotzunaz geroztik oraiño denbora.

5. Zergatik nahi duzu luzatu egunetik egunerat zure konbersionea? Altxa zaite, khexa zaite, haz zaite orai beretik, eta errozu zure buruari: orai da denbora dugukatzekoa, orai da denbora ziñziñez konbertitzekoa.

Noiz ere gerthatzen baitzaiku zerbait ondiko edo altaramendu, oraduantxe da denbora merezimendu egiteko. Iragan behar duzu ezen, *uretik eta sutik freskaduran sarthu baiño lehenago*.

Zure buruari ukho egiten ez badiozu eziñ garaituko dituzu zure bizioak.

Gorputz herbal hau dakarkegiño, eziñ zaitzke bekhatu gabe, ez eta bizi dolorarik edo unhardurarik gabe.

Nahi ginduke egiazki sosegu oso batez gozatu munduan, baiñan bekhatuaz galtzearekiñ batean onozentzia, galdu dugu halaber dohatsutasuna.

Hartu behar dugu beraz pazientzia, eta egon Jainkoaren miseriardiaren beira: *Inikitatea iragan daitekeen arteraiño, eta gure baithan hilkor den guzia ethorkizuneko bizitzeak irets dezakeen arteraiño.*

6. Oi! nolakoa den gure flakezia zeñak haiñ abiadura handian baigaramatza biziora.

Egun konfesatzen ditutzu egiñ ditutzun bekhatuak, eta bihar egiten ditutzun bekhatuak berrizkonfesatu ditutzun hek berak. Orai deliberratzen duzu beiratuko zarela huts batetik, eta oren baten buruko erortzen zare hartan, deliberrionerik hartu ez bazindu bezala.

Arrozoiñ handiak ditugu beraz gure buruen humiliatzeko, eta gure indarrak deus gutitzat igukitzeko, haiñ flako eta mudakor garenaz geroztik.

Nagitasunak eta ansikabetasunak galaraz ere diezakegu instant batez nekhe gogorrekiñ graziak ardiets arazi darokun berthutea.

7. Zer izanen da beraz gutaz, egunaren akhabantzan, goizetik haiñ ephel garenaz geroztik?

Zorigaitz guretzat pausatzeko gutizia badugu, iadanik bakea, eta salbamenduaren segurantz ardietsi bagindu bezala. Gure bizitzean saindutasunaren seiñalerik batere ageri ez den arren.

Beharra baginduke berriz has litezengdure nausiak gauzarik xeheenak guri irakasten, eta gure gidatzen berthutean apendizak bezala: ikhusteko ea baden esparantzarik korrejituko garela edo aitziñatuko bizitze espiritualean.

XXIII. KAPITULUA

*Heriotzean behar dugula pensatu,
eta hartarat preparatu.*

1. Mundu huntan zureak eginduke lauster, ikusazu zertan zaren. Egun bazare, bihar etzare. Eta presuna bat bixtatik gladuz geroz, galtzen da halaber lauster orhoitzapenetik.

O gizonen bihotz gogor, eta sentimendu gabeak zeiniek ez baitute pensatzen oraingo gauzetan baizen gerokoez konturik egiñ gabe! Egunoroz zure akzione, eta gogoeta guziak erregelatu behar zintuzke egun berean hill behar bazindu bezala.

Koziencia ona bazindu, ezzintezke heriotzearen beldur. Hala hobeago liteke bekhatuari ihes egitea heriotzeari baiño.

Egun hilzeko prest ez bazare, nola bihar izanen zare? Biharko egun hura ez da segura, ezen zer dakizu, Jainkoak emanen darotzun?

2. Zer progotxu dugu haiñitz bizitzea, haiñ guti gure eskasak uzten ditugunaz geroztik?

Helaz! bizitze luzeak ez ditu maiz gutitzen gure fatak, aitzitik gehienez berretzen ditu.

Oxala gure bizi guzian egun bat bederen ungi iragan bagindu.

Hainitzek kondatzen dituzte konbertitu direla dituzten urthak, baiñan eziñ erakutx dezakete zer fruitu geortzik ekharri duten.

Heriotzea beldurtzeko bada, maiz beldurtze-koago da luze bizitzea.

Dohatsua da heriotzeko orena bethi begien aitzinean darabillana, eta egun guzietz hilzera prestatzen dena.

Ikhusi baduzu nihor hiltzen, orhoit zaite gauza bera zuri ere gerthatuko zaitzula.

3. Goizean, duzun uste arratsa ardietsiko ez duzula, eta arratsa ethorri denean, ez zaitezela atrebi zure buruari biharamuna agintzera.

Zaren beraz bethi prest, eta bizi zaite halako maneraz non herioak ez baitzaitu sekulan uste-gaberik atzemanen.

Haiñitz presuna hilltzen dire uste ez dutela, eta heriotze supitus: *Ezen gizonaren semea nihork uste ez duen orduan ethortzen da.*

Azkeneko oren hura ethortzen denan, bertze gisaz behatuko bide diozu zure bizitze iraganari, eta ungi urrikituko zaitzu zeren haiñ andikabe eta laxo izatu zaren.

4. Ala dohatsu baita eta zuhur haiña zeñak bere ahal guziak egiten baititu bizitzean halakoa izateko, nolakoa nahi bailuke heriotzean kausitu.

Heriotze on eta dohatsu baten esparanza har ahal dezakegum baldiñ balin badugu mundua-
rentzat meziprezio osobat, berthutean aitzina goateko desira bero bat, bizitze erregelatuaren amudio handi bat; baldiñ penitenzia garratz bat egiten badugu, obeditzera prest bagaudez, gure buruari ukho egiten badiogu, eta sofrikari guziak Jesu-Kristoren amoreagatik pairatzen baditugu.

Haiñitz ungi dagikezu osasuna duzuiño baiñan erituz geroz ez dakit zertakotz gai izanen zaren. Eritasunek ezen, eta erromeriek nihor guti hobetzen ohi dute.

5. Ez zazula urrun egor zure salbamenduaren lana, eta ezzazula utz egiteko handi hura zure hurkoen edo adiskideen gaiñean, uste duzun baiño lehenago gizonei ahantziko zaizkote.

Segurago da haiñitzez eta hobeago oraidanik zure sal bamenduaren egiten zeroni haritzea, eta zure obra onak zure aitziñean egortzea, ezen ez kondatzea zu hill ondoan bertzeek egiñen darozkizuten laguntzen gaiñean.

Bizi zarela zeronek artharik ez baduzu zure arimaz, nork naho duzu harta duen axola zu hill ondoan.

Orai da denbora baliatzekoa, *orai dire salbamenduko egunak, oari denbora fagorezkoak, momentu guziak dire orai preziatu.*

Baiñan helaz! ala zuk gaizki enplegatzen baitituzu oren eta momentu hek zeñak eman baitzaizkitzu izitze eternalaren merezitzeko.

Ethorriko da denbora zeñetan galdetuko baitugu egun bat edi oren bat penitzenziaren egiteko, eta ez dakit ardietsiko duzun.

6. Oi ene anaia maitea ikhusazu zenbat hirris-kutarik eta beldurretarik athera dezakezun zure

burua, bethie herioaren usteen eta beldurrean bizi bazare.

Enzaiazaite orai halako mameraz bizitzera, non zure heriotzeko orenak beldur baiño bozkario gehiago eman baitiezakezu.

Ikhasazu orai danik munduari hiltzen, Jesu-Kristorekin orduan bizitzen hasteko.

Ikhasazu orai dnik gauza guzien arbuiatzen libro izan zaitezentzat orduan zure salbatzaillea ganat goateko.

Gastigazazu orai zure gorputza penitenziaz, orduan Jainkoa baithan esparanza fermu bat izateko.

7. Helaz erhoa! zergatik darabillazu gogoan luzero bizitzea, egun batez segur ez zarenaz geroztik?

Zenbat ez ditu enganatu haiñitz bizitzeko esparanzak, zeñak hill baitire gutien uste zuteanean?

Zenbatetan ez duzu aditu hunelako hill da ezpata kolpe batez, halako itho da, bertze batek goratik eroririk hautsi du burua? bata hiltzen da iatean, berzea iokoan; bata konsumitzen du

subak, bertzea akhabatzem du burdiñak: bata hiltzen da izurriz, bertzea mandularen eskuz, eta hala herioak badaramatza guziak, eta gizonen *bizia sunsitzen da itzala bezala.*

8. Zu hill ondoan nork egiñen du zutaz orroi-tzapen, edo pthoitz Jainkoari?

Egitzu beraz orai danik, ene anaia maita, egiñ ahal ungi guziak, ezen ez dakizu noiz hillen zaren, eta hill ondoan zer gerthatuko zaitzun: denbora duzuiño bilzatzu aberastasunak eternitaterakotz: ez duzun gogoetarik salbamenduaz baizen, ez axolarik Jainkoaz baizen.

Egitzatzu orai adiskideak zeruan, sainduak ohoraturik eta imitaturik, hill ondoan errezibi zaitzaten tabernakle eternalean.

9. Bizi zaite lurraren gaiñean arrotz eta bideante bat bezala zeiña ez baitute munduko egitekoek deusetan ere ukhitzen.

Itxekazu zure bihoitza mundutik apartatua, eta Jainkoa ganat altxatua, ezen ez da hemen zuretzat egoitza iraupenekorik.

Ofrenda diotzozu bethiere Jainkoari zure othoitzak, nigarrak eta plaiñuak, bizitze hunen ondoan zure arimak merezi dezantzat haren ganat dohatsuki goatea. HALABIZ.

XXIV. KAPITULUA

*Jainkoaren iuiamendu ikharagarriaz,
eta bekhatoreen suplizoaz.*

1. Gauza guzietan orhoit zaite zure azken fiñaz, eta ez dezazula ahantzagun batez agertuko zarela iuie garratz haren aitziñean zeññarentzat ez baita deus gorderik zeññak ez baititu errezibitzen ez gure presentak, ez eta gure aitzekiak, baiñan iuiatzen baitu bethiere iustutaisunaren arabera.

O bekhatore erho eta dohakabea, zeñña ikharatzen baitu maiz gizon baten kolerak; zer ihar-detsiko diok bada Jainkoari, zeññak ikhusten baititu hire krima guziak.

Zergatik ezhaiz prestatzen iuiamenduko egun ikharagarri hartakotz, zeññetan nihork ez baitu izanen begiratzailerik, sustengurik eta defendatzeillerik; eta zeññetan batbederak aski izanen baititu bere karga.

Orai lituzkek hire obrak progotxosak, hire nigarrak entzunak, hire urrikiak merezimenduz-

koak, eta hire doloreak baliozak eta salbamen-dukotz onak.

2. Oi hala bizitze hau purgatorio ona baita gizon pairakor batentzat, zeinak afrontuak errezibitzean damuago baitu ofensatzaillearen bekuhatuaz, ezen ez berari egiten zaioen gaizkiaz; zeinak bihotz onez othoitz egiten baitio Jainkoari bere persekutatzailleentzat, zeinak barkhatzen baitiote gogotik bere etsaiei, eta zeina prest baitago bethi bere hutsik xumeenen gainean bertzei barkhamendu eskatzera; zeinaren bihotzean errexkiago sartzen baita urrikalmendua, eze ez asarradura, zeinak maiz bere buruari bor-txa egiten baitio; zeina ensaiatzen baita bethiere bere buruaren garaitzerat, eta espiritua haragiaren nausi errendatzerat.

Hobeago da balinba orai gure konzienziaren xahutzea, eta handik bizioak atheratzea, ezen ez hek uztea berze munduko suas purgatzeko: baiñan gure haragiarentzat dugun amudio desordenatuak enganatzen eta itsutzen gaitu.

3. Helaz! ez dugu pensatzen su izigarri hark ez duela bertze bazkarik izanen gure bekhatuak baizen.

Zenbatenaz hemen zure burua guphidesten baituzu gehiago, hanbatenaz gehiago han sofrituko duzu; zuk hemen zure haragia mainozkiago lausenga, hura gehiago han puni eta tormenta; zenbatenaz Jainkoa ofensatzen baituzu gehiago, hanbatenaz biltzen duzu ifernukotz sukari gehiago.

Zertaz ere gizonak egiñ baitu bekhatu, hartarik beretik izanen du pena, eta gastigu gehienik.

Han nagiak eta antsikabeak izanen dire suzko punta zorrotzez punxikatuak, han gorman-tak eta hordiak gosez eta egarriaz kruelki tormentatuak.

Han lohiak, eta desonestak pulunpatuko dire bikhezko, eta sufrezko tulunbio irakituetan, eta bekhaiztiak bere dolorearen biolentzian egonen dire marrubiaz potzo errabiatuak bezala.

4. Han bizio bakhoitxak izanen du bere supli-zio partikularra. Han izanen dire supherbioak sekulako laidoaz eta ahalkeriaz estaliak, eta aba-

riziosak azkeneko lazeriaz, eta erromesiaz herstuak.

Han oren bten pena gaitzago izanen da pairatzen, hemen ehun urtheren penitentzia den garratzena baiño.

Hemen nekheak badu bere sosegua, doloreak bere deskansua, baiñan han damnatuentzat ezda pausurik batere, ez kosolazionerik, ez deskansurik.

Duzun bada orai zure bekhatuezko dolore bizi bat, eta hari zaite zure falten penitentziaz urratzen, iuiamenduko egunean sar zaitezentzat dohatsuen bakean eta soseguan.

Ezen orduan iustuak *altxatuko dire segurantzaz handirekiñ mundu huntan desohoratu, eta persekutatu dituztenen kontra.*

Orai hemen gizonen iuiamendu iniustuak humilki pairatzen dituen ethorriko da orduan loriaz betherik hekien iuie izatera.

Orduan humilla eta pobrea izanen dire segurantzaz oso batean, eta supherbioak ikharan eta etsimenduan.

5. Orduan ikhusiko da egiazko zuhurrak zirela haiñak zeñek nahi izan baitute mundu huntan izan mezprezatuak edo erhotzat idukiak Jesu-Kristoren amoregatik.

Orduan pazienziarekiñ pairaturikako atseka-beak izanen dire persekutatuen loria, eta persekutatzaileen iniustutasunak egiñen du hekien etseka bea eta bihotz mina.

Orduan presuna prestua eta debota bozkarioan izanen da, eta gaixtagiña nigarretan eta plaiñutan.

Orduan gorputz mortifikatua egiñen da distantago eta ederrago, bethi atsegiñpean, eta maiñanpean hazia izatu baliz baiño.

Orduan distiatuko dute pobrearen tresna txarrek, eta illhunduko da aberatsaren berregintza.

Orduan gehiago prezatua izanen da etxola txarra, ezen ez iauregi urreztatua.

Orduan hobeago kausituko da pazienza humilla, ezen ez munduko bothere guzia, eta obediencia simple batek gehiago balioko du munduko prudenzia eta errefiñamendu guziak baiño.

6. Orduan bozkario gehiago emanen du konzientzia onak eta garbiak, ezen ez filosofoen iakintasun guziak.

Orduan gehiago laudatuko da aberastasunen mesprezioa, ezen ez munduko tresor guzien iabetasuna eta posesioea.

Ikhusiko dugu orduan othoitzean enplegatu dugun denbora hobeki emana izatu dela, ezen ez atsegiñezko othuruntzetan iragan zaiguna.

Orduan bozkario gehiago izanen dugu ixillik egonaz, ezen ez solas luzeak egiñaz.

Progotxosago izanen ditugu hitz ederrak baiño, obra sainduak. Eta deskansu gehiago emanen daroku bizitze hersi eta penitentizak munduan hartu ditugun atsegin guziek baiño.

Ikhasazu beraz bizitze huntako gatziz xume, eta iragankorren pairatzen, bertzeko tormenta dorphe, eta eternaletarat eror ez zaitezten.

Froga zazu hemen, zer han paira dezakezun; hemengo gaitz xumeen iasateko indarririk ez baduzu, ikhasazu nola han pairatuko dituzun bethi iraunen duten suplizioak.

Hain pazientzia guti baduzu orai gaitzik xumeenetan, nola iraunen duzu ifernuko su eta lametan?

Orhoit zaite ez dela posible bozkariotik iragartea, mundu huntan lehenik dohatsu izatea, eta gero zeruan Jesu-Kristorekin erregiñatzea.

7. Zure bizi guzia ohorez eta atsegiñez orai arteraiño bethea izan balitz ere, zer progotxu zinduke orai beran hill behar bazindu?

Gauza guziak dire beraz bano eta ezdeus lekat Jainkoa maitatzea, eta haren xoillki zerbitzatzea.

Bere bihotz guziaz Jainkoa maite duenak ez du beldurrik heriotzearentzat ez suplizoarentzat, zeren Jainkoaren amudio perfetak haren ganat segurantzarekiñ hurbill arazten baikaitu.

Baiñan ez da miresteko bekhatuan oraiño lakhet duena heriotzearen, eta iuiamenduaren beldur izatea.

On da bada halere amudioak oraiño gibela-tzen ez bazaitu bekhatutik, gibela zaitzan bederen ifernuaren beldurrak.

Guziarekiñ ere Jainkoaren baiño berze zerbaiten beldurrago denak, eziñ onean luzero iraunen du, eta lauster eroriko da deabruaren artetarat.

XXV. KAPITULUA

*Gerotik gerorat berthutean
aitzinzatzero behar dugula lehiatu.*

Izan zaite erne eta arthos jainkoaren zerbitzuan, eta manera berezi batean Jainkoari konsekratua bzare, errozu maiz zure buruari: zer xedez ethorri naiz hunat? Zertako utzi duk mundua, Jainkoaren espiritual bat eramateko baizen?

Zoaz beraz khar handiarekiñ aitziña, sinhetsirik nekheen saria lauster izanen duzula, eta orduan izanen zarela zure gaitz, eta beldur guzietarik kanpoan.

Nekhe hek xumeak direlarik ere izanaraziko darotzute sosegu eternal bat, eta dohatsutasun infinitu bat.

Zaren leial eta khartsu Jainkoaren zerbitzuan, eta Jainkoa leial izanen da eta liberal zure golar-doan.

Behar duzu izan esperanza handi bat ardies-teko duzula golardo hura, ordean halere ez dio-

zozula zure buruari agiñ segurantz a osorik beldurrez eror epheltasunerat edo orgilleriarat.

2. Behiñ Jainkoaren zerbitzari bat khexatua hagitz, eta penatua beldurraren, eta esparantzaren artean, goan zen, tristezi az betherik Eliza batetara, eta han aldaren baten aitziñean ahuspez emanik, gogoeta hau zarabillan bere baitan: oi banaki bederen iraunen dudala Jainkoaren zerbituan! eta berehala aditu zuen boz bat zeñak bere barrenetik ertan baitizoen: eta bada gauza hori baziñaki zer egiñ nahi zinduke? Egizu orai orduan egiñ zinezakena, eta izanen duzu desiratzen duzun segurontza! Errespusta hortaz konsolatua guzia, eta borthiztua abandonatu zen osoki Jainkoaren borondatera, eta fazegatu ziren haren khexagune guziak.

Handik harat etzen kurioz izatu iakitekotz zer gerthatu behar zitzaioen ethorkizunean, baiñan haren arta guziak izatuziren iakiteko zer zen Jainkoaren nahia, zer zen haren begietan hoberenik, eta perfetenik bere obra on guziak sainduki hasteko eta akhabatzeko.

3. *Duzun esparanza Jainkoa baithan, dio profetak, eta egizu ungia, egon zaite lurrean, eta haziko zare haren ontasunez.*

Gauza batek gibelatzen gaitu edo geldiarazten salbamenduko bidean; eta hura da han kausitzen diren gaiztasunen, eta han iasan behar diren guduen beldurra.

Bertzenaz haiñak gehienez berthutean aitziañatzen dire, zeiañak animo gehiagorekiñ ensaiatzen baitire trabarik handiene, eta gure desira sailduak gehienik kontrestatzen dituztenen garaitzerat.

Ezen zenbatenaz gizonak bere burua garaitzen, eta mortifikatzen baitu gehiago, hanbatenaz ardiesten du grazia, merezimendu, eta perfekzione gehiago.

4. Baiñan guziek ez dute hanbat pasione mortifikatzeko, ez haiñ gudu handia egiñ behar bere buruen garaitzeko.

Halere khar eta zelo gehiago duneak bide gehiago egiñen du berthutean pasione borthitza-goak izan arren ezen ez pendura onak dituelarik khar gutiago duenak.

Bi moian dire guziz handiak gure eskasetarik libratzeko, lehenbizikoa da geure buruei bortxa egitea, gure bizio naturalei kontra egiteko, eta bertzea zinzinñez premiatzea gehienik behar ditugun berthuteen ardiesteko.

Ensaia zaite beraz arthozki zure baithan garaitzerat bertzeen baithan gehien gaitzesten dituzun eskasak.

5. Progotxa zaite gauza guziez zure aitzina-mendukotz, eta lehia zaite imitatzerat ikhusten edo aditzen dituzun etsenplu on guziak.

Nihork huts bat egiten badu zure aitzinean, goardia gehiagorekiñ beira zaite huts hartarik, edo zu ere hartara erori bazare altxa zaite ale hen bai lehen.

Orhoit zaite zuk bertzeen gainean bezala, bertzeek ere zure gainean begia idekia daokate-la.

Oi ala on baita eta esti bizitzea presuna debot, eta khartsuekiñ, bere egiñ bideei iarraikiñ, eta bere bizitzean erregulatuekin!

Kontrarat, ala triste eta doloragarri bait ikhustea iende desordenatuak, eta bere egiñ bidetarik batere konplitzen ez dutenak!

Ala perilloz baita nork bere estatuko obligazioeak uztea, eta obligatu ez den egitekoei lotzea!

6. Orhoit zaite bethiere zertarat deithua izatu zaren, eta maiz beha diozozu Jesu-Kristo gurutzezikatuaren imajinari.

Zuretzat ahalkeria handi baten suieta behar da izan ikhustea zeñ guti zure bizia harenaren iduriko errendatu duzun, Jainkoaren zerbitzuan.

Arima Jainkotiar batek amudiorekiñ meditatzen duenean Jeus-Kristoren bizitze saindua, eta haren pasionea, kausitzen ditu han bere salbamenduaren egiteko progotxos dituen gauza guziak. Alferrik bilha lezake bertzetan Jesusen baitan kausitzen duen baiño zerbait hobeagorik.

Oi baldiñ sartzen baliz Jesus gurutzezikatua gure bihotzean, ala lauster baikiñakike iakiñ berhar den guzia.

7. Relijioneko presuna batek zeloz etakharrez bihotza bethea duenean, hartzen ditu gogo onez, eta berahala konplitzen egiten zaizkon manu guziak, baiñan ephelak, eta antsikabeak bere buruari erakhartzen dio atsekabea atsekabearen gaiñean, eta ez du halakoak alde guzietarik penarik, eta dolorerik baizen, zeren gabe-tua baita barneko konsolazioneez, eta debekatzten baitzaizko kanpokoak.

Bere erregelatik urruntzen dena osoki galtzeko menean da.

Aisian eta largotasunean bizi nahi duena onhiko gogoretan kausituko da; zeren eta gauza batean laxatzen denak ez baitu aurkhitzen bertze guzietan desgusturik, eta unhadurarik baizen.

8. Nola egiten dute hanbat relijioneko presunek zeñek bere erregela haiñ hersiki beiratzen dutela bizi baitire komentutan?

Bakhan ilkhitzen dire, bakhartasunean daudez, pobreki iaten dute, harriko bestitzen dire, haiñitz nekatzen, guti mintzatzen, luzero beillatzen dute, goiz iaikitzen dire, berant etziten,

othoitz luzeak egiten, haiñitz irakurtzen, eta bere buruak bere eginbide guzietan arthoski itxekitzen.

Ikhusazu Xartrusen ordena, Zitozkoa, eta hanbat bertze fraide eta serora, zeñak gau guziez iaikitzen baitire Jainkoaren laudorioen kantatzera.

Laido handi bat liteke zuretzat laxo eta nagi izatea haiñ eginbide sainduan, hanbat arima onkhar eta debozionerekiñ othoitzean daudezen denboran.

9. Oi posible balitz bertze artahrik ez izatea munduan lekat gure bihotz guziaz Jainkoaren laudatzea! Ez balitz behar behiñ ere ez ian ez edan, ez lo egiñ: ahal bagintez bertze artharik gabe Jainkoaren eta gure arimaren alderakoez lekhora, orduan hagitzez dohatsuago bide gintezke orai garen baiño, gorputzeko behar guzien gatibu garen huntan baiño.

Oxala bada gatibutasun huntarik alde batera libratuak bagiñe, eta lan bakhartzat bagindu gure arimari bere bezka espirituala ematea, zeña helaz! Gutitan dastatzen baitugu!

10. Gizonak ardietsi duenean estatuhura zein-
ñetan ez baitu bilhatzen kreaturen konsolazione-
rik, orduan hasten da Jainkoaren ungi gustatzen,
eta zer nahi den gertha dakioen bake handi
batean dago haren arima.

Orduan ez gauza handiek ez xumeek ez diote
kausatzen bozkariorik edo tristeziarik, nola osoki
ematen baitzaio Jainkoari, gauza guziak kausi-
tzen ditu Jainkoa baitahn, zeinarentzat ez baita
deus ez galtzen, ez hiltzen, eta zeina gauza
guziek obeditzen baitute gibelamendurik batere
gabe.

11. Bethi orohit zaite zure fiña hurbiltzen dela
egunetik egunerat, denbora galduak ez direla
gehiago bihurtzen, eta artha eta griña handire-
kiñ baizen berthuteak ez direla ardiesten.

Epheltzen hasten zaren pontutik, hasten zare
gaizkitzen, baiñan zure berotasunean irauten
baduzu, bake handi baten gozatuko zare, eta
Jainkoaren graziak eta berthutearen amudioak
estituko darozkitzute nekhe guziak.

Arima khartsua eta arthosa prest dago gauza guzietako.

Arimak pena gehiago hartzen du bizioei eta pasioei kontra egiten, ezen ez gorputzak nekherik handienen iasaten.

Falta xumeei ez badiozute ihes egiten, roriko zare baratxe baratxe handienetarat.

Nahi baduzu izan alegera arratsean, enplegazuzu progotxoski eguna.

Egon zaite erne zure buruaren gaiñean, atzazazu zure burua; animazazu, mehatxazazu, eta bertzeez zer izanen bada ere, ez dezazula utz zure buruaren artha.

Zenbatenaz zure buruari bortxa egiñen baitiozu, hanbatenaz goanen zare aitziña berthutean.

HALABIZ

Jesu-Kristoren Imitazionea

BIGARREN LIBURUA

Bizitze Espiritualean arimaren abantzuaz

I. KAPITULUA

*Sarthu behar dugula gure
barrenean, eta konbersatu Jesu-
Kristorekin.*

1. *Jainkoaren erresuma zuen baitan da, dio Salbatzailleak, konberti zaite Jainkoaganat zure bihotz guziaz, eta utzazu mundu dohakabe hau, eta zure arimak kausituko du egiazko sosegua.*

Usa zaite kanpoko gauza guzien arbuiatzen, eta maiz zure barrenean sartzen, eta sentituko duzu Jainkoaren erresuma zureganat ethortzen. Ezen Jainkoaren erresuma ezta bertzerik lekhat Espiritu Sainduak bihotzera dakharken bakea eta bozkarioa, zeñaz gaixtoak ez baitire gozatzten.

Jesu-Kristo ethorriko da zureganat, eta dastaraziko darozkitzu bere konsolazioneak, hari dagokan egoitza bat preparatzen badiozu.

Hark maite duen loria eta edertasun guzia ariman dago, han egotea du lakhet.

Gizon barrenkoiak izaten du harenganik bisita husuak, instrukzione samurрак, konsolazione eztiak, bake handi bat, eta komunikazione batzuk guziz miragarriak.

2. Ea beraz arima leiala aphain diozozu zure bihotza espos dibino hari; han bere egoitza egiñ dezantzat. Ezen berak erran du: *Ni maite nauenak ene hitzak beiratuko ditu ethorriko gare harenganat, eta egiñen dugu haren baitan gure egoitza*. Idek diozozu beraz zure bihotza Jesu-Kristori, eta herts bertze guziei.

Hura baduzu aberatz zare, eta hura bakharrik asko duzu, hark berak konplituko ditu zure behar guziak; hura izanen da zure habea eta adiskidea, eta etzare izanen gizonen laguntzaren galdegiteko beharrean. Ezen gizonak laster ganbiatzen dire, eta eskasten berehala; baiñan Jesu-Kristo *bethikoz dago*, eta haren adiskidetasunak irauten du mende guzietan.

3. Guti behar duzu pausatu gizon flako eta hilkor baten gaiñean, nahi bezaiñ progotxosa edo maitea zuretzat izan arren eta etzaitzu hala-

ber sobera gaitzitu behar, haren inkonstanzia, edo herra zure aldera jiaratzen dire haizea bezala, egun zure alde direnak, bihar zure kontra izanen dire, eta berriz egun etsai ditutzunak bihar zure fagore altxatuko dire.

Ez beraz eman zure esparantza bertzetan, baizen Jainkoa baitan; den hura baxharrik zure beldurtasun, eta amudio guzieñ xedea. Hark ihardetsiko du zuretzat, eta gauza guzietarik probetxu atheraraziko darotzu.

Ezta hemen zuretzat iraupenezko egoitzarik, norat nahi zoazen arrotz eta bideante izanen zare, eta eztuzu egiazko sosegurik kausituko non etzaren Jesu-Kristorekin osoki iuntatzen.

4. Zer ikhusten duzu mundu huntan trikaraz zaitzakenik, eztenaz geroztik hemen zuk pausatu behar duzun lekhoa? Zeruan behar duzu egiñ zure egoitza hala lurreko gauza guziei eztiozute beiratu behar iragaitzaz baizen.

Gauza hek iragaten dire eta zu ere bai hekiekiñ, begirautzu hei lot etzakizkoten beldurrez har zaitzaten eta gal bethikotz.

Itx ezazu zure espiritua Jainkoaganat altxatua, eta ofrenda diotzokotzu bethiere zure othoitzak Jesu-Kristori. Kontenplazione gora batera eziñ hel bazaitezke, pausa zaite Jesu-Kristoren pasionean, eta duzun lakhet haren zauri sakratuetan egotea. Ezen ihesleku sakratu hartara debozione handirekiñ goaten bazare, kausituko duzu deskansu handi bat zure atsekabe guzietan, kontu guti egiñen duzu gizonen arbuioez eta kalomniez.

5. Jesu-Kristo bera gizonetarik mesprezaturia izatu da, behar suerte guzietan inguratua, bere ahaide eta adiskideez abandonaturia, laidoen eta doloreen erdian. Jesusek nahi izatu du izan penaturia eta arbuaturia, gero atrebituko zare nihortaz errenkuratzera? Jesusek izatu ditu etsaiak eta gaizki erraileak, eta zuk eztuzu nahi kausitu adiskiderik eta ungi erraillerik baizen? Nola Jainkoak khorotuko du zure pazientzia, ez baduzu nahi gertha dakikun atsekaberik? Eta ez baduzu deus sofritu nahi, nola izanen zare Jesu-Kristoren adiskide? Sofri zazu Jesusekin eta Jesusgatik, nahi baduzu Jesusekin erregiñatu.

6. Oi behiñ sar ahal bazintez Jesusen galtzarrean, eta apher bat senti baziñeza haren amudioaren kharra eta gozotasuna; etzintezke kasu hari zure amudio propioaren gogara edo desgogara litezken gauzez, boskariorekiñ har ziñetzake egiten gaizkitzun afrontuak, ezen Jesusen amudioak ekhartzen gaitu gure buruaren mesprezaterat.

Jesus eta haren egia ziñ-ziñez maite duena, eta afekzione desordenatuetarik libratu rik barreneko bizitzeaz bizi dena ematen zaio osoki Jainkoari, eta altxatzen da espirituz bere buruaz gorago, sosegu ezti batez gozatzeko bere maitearen posesioea.

7. Nork ere gauzez iuiatzen baitu ez iendeen ustearen, ede erranaren arabera, baiñan gauzak berenez direnaren arabera, haiña da zuhurra; ez gizonenganik heldu den zuhurtziaz, baiñan Jainkoaganik heldu denaz. Barreneko bizitzeaz bizitzen dakienak eta kanpoko gauzetan gelditzen eztenak, eztu muga edo lekhu suerte baten hartzeko beharrik bere debozionearen bizteko.

Gizon barrenkoa laster bereganat biltzen da, zeren ez baita behiñ-ere osoki kanporat airatzen: kanpoko lanek, eta ardurazko egitekoek eztute trabatzen, ez barraiatzen; baiñan alogatzen da egitekoekiñ, gerthatzen direnaren arabera. Bere baitan ungi dispositua denak, kontu guti egiten du munduan kondemnatzen edo laudatzen diren gauzez. Zenbatenaz gizonak hartzen baitu kanpotik egiteko gehiago, hanbatenaz gehiago barraiatzen da bere barrenean.

8. Bihotza xuxena bazindu, eta garbia gauza guziez, egiñ ziñezake probetxu eta berthutean aitziñamendu. Milla gauzek khexatzen zaituzte, eta altaratzen zeren ez baitzare oraiño zure baitan osoki hilla, eta munduko gauzetarik apartatua. Deusek eztu hala nothatzen eta trabatzen gizonaren bihotza, nola kreaturen arnudio lohiak munduko konsolazioneak hasantzen bazintu zureganik, zeruko gauza kontenpla ziñetzake, eta senti ziñetzake hango bozkarioak.

II. KAPITULUA

*Guk konek eziu deus dagi1 uetela
bere esparantza Jainkoa baitan
emana duenaren kontra.*

1. Etzaitezela penetan eman nor den zure alde edo zure kontra; baiñan duzun artha solamente Jainkoa den zurekiñ egiten ditzun gauza guzietan. Duzun bethiere konzienzia garbi, eta Jainkoak defendatuko zaitu guzien kontra. Ezen gizonen maleziak eziñ egiñ diozoke bidegaberik Jainkoak lagundu nahi duenari.

Baldiñ badakizu ixillik sofritzen, frogatuko duzu falta gabe Jainkoaren laguntza. Hark daki ungi zeñ diren zure laguntzeko mugarik, era rnanerarik hoberenak; hala emazu zure burua haren eskuetarat. Hark daki zure laguntzen, eta zure atheratzen zure nahasdura guzietarik. On da rnaiz gure humiltasuna beiratzeko eta handitzeko, bertzek iakiñ detzaten gure eskasak, eta hekien gatik rnehatxa gaitzaten.

2. Nihork bere hutsa aithortzen duenean, eta hartaz humiliatzen denean, errexki fazegatzen ditu, eta kontentatzen bere mehatxatzaileak. Jainkoak humilla begiratzen du eta defendatzen; maitatzen du, konsolatzen du, harenganat ethortzen da, bethetzen du bere graziez, eta beheramendu handi baten ondoan altxatzen du azkenean loriarik gorenera.

Jainkoak humillari agertzen diotza bere sekretuak, deitzen du eta erakhartzen emeki bereganat. Zer nahi ahalkeria izan dezan humillak, bakean da hargatik, zeren bere sosegua ematen baitu Jainkoa baitan, eta ez gizonen baitan. Eztuzu uste behar perfekzioran aitziñatu zarela, ez badaukazu siñhetsia guzietako xumeena zu zarela.

III. KAPITULUA

Barreneko bakeaz.

1. Haz zaite behiñdik behiñ zure bihotzean bakearen ezartzen, eta gero bertzeen artean emanen dukeku. Gizon bakezkoa progotxosago da bertzeentzat gizon sabanta baiño. Bere pasio-
neen gathibu den gizonak ona ere gaitzera itzul-
tzen du, eta errexki siñhesten du bertzeez erra-
ten den gaizkia, baiñan gizon baketiarrak guziak
onerat aldatzen ditu.

Bere baitan bakean den gizonak eztu nihor-
taz suspitxarik, baiñan gizon khexosa eta pausu-
gabea hañitz suspitxa suertez bethea da, eta ez
bere buruari, ez bertze nihori uzten dio halakoak
bakerik. Mintzo da maiz erran behar ez lituzken
gauzez, eta uzten ditu egiñ gabe gehienik egiñ
behar lituzken gauzak. Artha handi du iakiteko
bertzeak zertara diren obligatuak, eta berak
uzten ditu egiñ gabe obligazionez egiñ behar
lituzken gauzak. Duzun beraz zelo lehenik zure

buruarentzat, eta gero bertzetara ere hedatuko dukezu.

2. Badakiku xoill ungi zure hutsen eta falten gerizatzen eta bernuzatzen; eta ez ditutzu errezibitzen berzeek bere hutsen estaltzeko edo gutitzeko ekhartzen dituzten arrazoiñak ez liteke bada iustuago zure burua faltiar aithortzea, eta bertzeak faltatik deskargatzea?

Nahi baduzu bertzeek iasan gaitzaten, iasan zatzu zuk ere bertzeak. Ikhusazu hortik zeñ urrun zaren oraiño egiazko karitatetik, eta egiazko humiltasunetik, zeñak ez baitu asarradurarik bere buruaren kontra baizen.

Ez da gaitz bakezko izatea onekiñ eta mansoekiñ, natural da ezen bakea maitatzea, eta gure sentimenduko diren presunen onhestea. Baiñan grazia handi bat, eta berthute sendo bat behar da, buru gaitz eta errebesekiñ, desordenatuekiñ, makhurrekiñ, eta kontrestatsailleekin bakean bizitzeko.

Badire presunak bere buruekiñ, eta bertzeekiñ bakea dutenak: badire bertze batzuk ez bere-

kiñ ez bertzeekin bakerik ez dutenak bertzeentzat nekhagarri eta nekhagarriago beretzat.

Bertze batzuk ez dire kontentatzen bere buruekiñ bakean izateaz, ensaiatzen dire bertzeei ere haren ematerat. Guziarekiñ ere zure bakea bizitze dohakabe huntan gareiño, hobeki datza trebesien humilki pairatzean, ezen ez atsekaberik gabe izatean. Zenbatenaz baitaki gizonak hobeki pairatzen, hanbatenaz du bake gehiago. Pazienza duena da bere buruaren garatzaile, munduaren nausi, Jesu-Kristoren adiskide, eta parabisuko primu.

IV. KAPITULUA

Bihotzeko garbitasunaz eta xedearen sinpletasunaz.

1. Garbitasuna eta sinpletasuna bi hegal dire zeñek lurraz gorago altxatzen baikaituzte. Sinpletasunak behar du izan gure xedeetan, garbitasunak gure afekzioneetan. Sinpletasunak eramaten gaitu Jainkoarenganat, garbitasunak erakhartzen du Jainkoa gureganat.

Zer nahi den akzione onetako prunpt izanen zare, baldiñ libro bazare barranean afekzione desordenatuetarik. Ez baduzur bertze xederik Jainkoaren gogarako, eta lagun proximoaren probetxuko izatea baizen, gozatuko zare barre-neko libertateaz.

Zure bihotza xuxena balitz, kreatura guziak eureztat kreatzaillearen kontenplatzeko mirailitzat litezkez, eta liburu bat zeñetan ikhus baitziñetzake bizitze saindu baten eramateko errege-lak. Ezen ezta kreaturik haiñ xumerik, eta txarrik

non ez baitaroku erakuxten Jainkoaren ontasuna.

2. Arima ona eta xahua baziñdu, gauza guziak ikhus ziñetzake goibelik gabe, eta errexki adi ziñetzake: ezen bihotz xahuarentzat ezta deus estalirik, idekiac dire zeruak eta ifernuak.

Nolakoa baita gigona bere barrenean, halakoak dire haren iuiamenduak kanpoko gauzen gaiñean.

Egiazko bozkariorik baldiñ bada munduan, hura du bihotz onetako gigonak. Eta balin bada atsekaberik edo ondikorik, konzienzia gaixtoentzat dire guziz halakoak.

Nola burdiña herdoilldura guziak utzirik goritzen baita suban, hala Jainkoari osoki ematen zaion gizona egiten da gizon berri bat uzkurdura guziak utzirik.

Arima bat epheltzen hasten den pontutik izitzen da nekherik xumeenaz, eta kanpoko konso-lazioneen ondoan abiatzen da.

Baiñan noiz eta ere bere burua osoki garaitzen hazten baita, eta Jainkoaren bideetan gogo

onez ibiltzen, orduan errex kausitzen du lehen gaitz eta dorphe zitzaiona.

V. KAPITULUA

Gogo guzia eman behar dugula gure buruen ezteustazunean eta Jainkoaren handitasunean pensatzen.

1. Eztugu behar gure baitan sobra fidatu, zeren eta maiz eskaz baitugu grazia, eta espirituko argia. Eztugu gure baitan airaio xume bat baizen, zeïña laster galtzen baitugu gure antsi-kabez, eta gehienez haiñ itsu gare non ez baitugu ezagutzen gure itsutasuna ere.

Maiz gaizki egiten dugu, eta gaizki egiña gure aitzekiez gaizkiago gerizatzen.

Batzuetan uste dugu zeloak garabiltzala, eta pasioneak baikarabiltza.

Mehatxatzen ditugu bertzeak falta xumeen gatik, eta gure buruei hutsik handienak ere, barkhatzen diotzogute.

Biziki sentitzen ditugu eta gure hitzez berretzen bertzeenganik pairatzen ditugunak, eta ez

gare akordatzen ere zer bertzeei pairarazten dioguten.

Gure obrak zorrozki eta xuxenki pisatzen bagintu, ez ginduke lekhuric bertzeen hertsiki iuiatzeko eta kondenatzeko.

2. Barreneko bizitzeaz bizi den gizonak artha guzien aitziñean darabilla bere arimaren artha, eta bere buruaren gaiñean atzarria dagoena guti minzo da bertzeez.

Etzare sekulan izanen debot eta barrenkoi, ez baduzu ikhasten zure buruaren gaiñean atzarrik egoten, eta bertzeen egitekoak alde batera uzten.

Zure gogoan ez bada Jainkoa eta gure burua baizen kanpoan ikhusten ditutzun gauzek guti mobituko zaituzte.

Non zare zure buruaren bistan etzarenean, eta zure baitan gogoa eztuzunean? Eta zer probetxu gelditzen zaitzu zure buruaren artha largaturik, kanpoan gogoa ibilliz haizatu zaitzunean?

Nahi baduzu barreneko bakeaz gozatu, eta Jainkoaren adiskide egiazko izan, emozu zure buruari kontu, eta ahantzazu bertze guziak.

3. Hagitz aitziañatuko zare berthutean gauza iragankorren artha uzten baduzu, baiñan hei lotzen bazaizkote hagitz gibela egonen zare.

Eztezazula estima badela deus handirik, gorrarik, agradagarririk, edo baliosik Jainkoa bai-zen, eta Jainkoaganik heldu denik baizen.

Banotzat eta ezdeustzat idukatzu kreaturen-ganik heldu diren konsolamendu guziak.

Jainkoa maite duen arima haren azpian ema-ten da eta altxatzen da denbora berean bertze gauza guziez gorago.

Jainko xoillak bere izate neurri gabekoaz, eta fiñ gabekoaz egiten du arimaren konsolazionea, eta bihotzeko bozkario egiazkoa.

VI. KAPITULUA

Konzienzia onaren bakeaz.

1. Presuna prestuaren *loria egiten du haren konzienziaren lekhukotasunak*. Duzun bihotza garbi, eta bethi izanen zare bozkarioan.

Konzienzia onak pairatzen du hañiz, eta bethi boz dago sofrikarien erdian ere.

Konzienzia gaixtoa bethi da izialduran eta altaramenduan.

Sosegu ezti batez gokatuko zare, zure bihotzak deusez akusatzen ez bazaitu.

Ez zaitezela deusez ere boz ungi egiñaz baiden.

Bekhatoreak eztu egiazko bozkarioarik, ez barreneko sosegurik, zeren Jainkoaren beraren errana baita: Gaixtagiñentzat eztela bakerik.

Erranen dute menturaz: *Deskansuan gare, ezta gure gaiñera gaitzik eroriko, eta nor atrebi ere leiteke guri gaizki egitera?* Baiñan ez detzakula siñhetz, ezen Jainkoaren kolera betan altxatuko da hekien kontra; ez estatuko ditu hekien

obrak, eta hekaiekiñ batean suntzituko dire hekien gogoeta guziak.

2. Ezta gaitz Jainkoa maite duen arima *baten-tzat atsekabetan loriatzea*, ezen hori da nihork *bere loria Jesusen gurutzean ematea*.

Gizonek elkarri ematen eta hartzen dioten loria berehala iragaten da, eta loria hari bethi darraio tristezia.

Prestuen loria hekien bihotz barrenetan dago, eta ez gizonen ahoetan.

Nola iustuen bozkarioa Jainkoaganik heldu baita, Jainkoa baitan da guzia, eta da egian fundatua.

Loria egiazkoa eta eternala billhatzen duena ezta kasu hari mundu huntakoaz, eta munduko loria arbuiatu behar bidean, billhatzen duenak erakuxten du zeruko loria eternalaz eztuela axolarik.

Bihotzeko bakea handia du haiñak, zeñak ez baitu ansiarik ez munduko laudorioez ez afrontuez.

3. Konzienzia garbia errexki da kontent eta soseguan.

Hortaz gizonen laudorioek etzaituzte sainduago egiten, eta halaber etzaituzte gaixtoagozten iendeek zutaz erraten dituzten gaizgiek.

Hek guziengatik zarena zare; eta gizonen erranek etzaituzte egiten Jainkoaren ezagutzan zarenaz bertze bat.

Ikhusazu beraz zer zaren zure barrenean, eta kontu guti egiñen duzu zer iendeek dioten zutaz.

Gizonek kanpoa dakusate, eta Jainkoak bihotza. Gizonak ikhusten ditu akzioaneak, eta Jainkoak pisatzen xedeak eta intenzioeak.

Bethi ungi haritzea, eta bere burua guti prezatzea, da arima humillaren seiñalea.

Kreaturenganikako konsolamendu guzien usteak markatzen du arima bat hagitz garbia, eta bere esparantza guzia Jainkoa baitan duena.

4. Gizonen estimuaren den gutiena ere billha eztabillanak erakuxten du Jainkoari oseki eman zaiuela.

Ezen londoni Paulok dioen bezala: *Laudagarri eta estimagarri da ez bere burua laudatzen duena, baiñan Jainkoak laudatzen duena.*

Gizon barrenkoiaren estatu perfeta da, bere barrenean Jainkoari iarraitzea, eta kanpoko gutzietarik eta afekzioneetarik libre izatea.

VII. KAPITULUA

Maitatu behar dela Jesus gauza guzien gaiñetik.

1. Dohatsua da ungi dakiena zer den Jesusen maitatzea, eta Jesusengatik bere buruaren arbuiatzea.

Utzi behar dituzu maite dituzun guziak guziz maite haren gatik, zeren bakharrik, eta gauza guzien gaiñetik nahi baitu izan maitatua.

Kreaturen amudio enganiosa da, eta ganbiamorra, baiñan Jesusen amudioa leiala eta iraupe-nezkoa.

Kreaturari lotzen zaioena eroriko da harekiñ, baiñan Jesusi iuntatzen zaioena hura bezala egonen da fermu eternitatean.

Maita zazu eta itxezazu zure adiskidetzat mundu guziak uzten zaituenean utziko etzaituena, eta galtzetik debekatuko zaituena.

Berdiñ nahi baduzu eta ez noizbait utzi beharko dituzu kreatura guziak.

2. Lot zakizko beraz Jesusi, eta zaude harekien bizian eta heriotzean; eman zaite adiskide leial haren eskuetan zeñak baitu podore zure laguntzeko bertze guziak eskasten zaizkitzunean ere.

Orduan guzizko maite hark baxharrik nahi du izan maitatua, eztu nahi bertzerekiñ partitu zure bihotza, berak nahi du guzia, eta nahi du han iarri errege bere tronuan bezala.

Nahi baziñdu husku zure bihotza kreaturen afekziona guzietarik, ethor liteke Jesus gogotik zure baitan bere egoitzaren egitera.

Berdiñ gizonengatik egiten ditutzun obrak, eta Jesusi khentzen diotzotzunak galduak dire guziak.

Etzazula har zure habetzat seska bat haizeak darabillana, ezen *haragi guzia belharraren pare da, eta haren loria guzia ihartzen da belharraren lorea bezala.*

3. Gizonen kanpoari bazauzko beira laster enganatuko zare, eta hetan billhatzen baduzu zure konsolamendua, eta probetxua, maizago

kausituko duzu zure arimako kaltea, eta zorigaitza.

Gauza guzietan Jesus billhatzen baduzu falta gabe edirenen duzu; eta zure burua billhatzen baduzu halaber kausituko duzu, baiñan zure bidegabetan.

Ezen gizonak Jesus billhatzen duenean bere buruari kalte gehiago egiten dio, mundu guziak eta bere etsaiik handienak egiñ diozokoten baiño.

VIII. KAPITULUA

Jesusen amudioa dela on guzien ethorkia

1. Jesus bihotz batean denean han dire on guziak, errex zaizko gauza guziak; baiñan handik urrun denean, gauza guziak zaizko gogor eta gaitz.

Jesus arima bati mintzo etzaioenean deusek eztu konsolatzen; baiñan Jesus mintzo denean hitz bat baizen ez erranik ere konsolazionez betetzen da.

Maria Madalena laster altxatutzen nigarrez kagoen lekhutik; Marthak erran zioenean: *Hemen da launa, zure galdez dago.*

Dohatsu orena zeñetan Jesusek deitzen baikaitu nigarretarik bozkariorat.

Ala gure bihotza agor baita, eta gogor Jesus gabe! Oi zeñ eroa, eta banoa zaren Jesusez kanpoan deus billhatzen baduzu! Munduko tresor guzien galtzea ezta deus orduan egiñ ziñezaken kaltearen aldean.

2. Hortaz zer probetxu ekhar diezazuke mundu guziak ere Jesus gabe?

Jesus gabe bizitzea ifernua da, harekiñ bizitzea parabisua.

Jesus zurekiñ bada, eziñ nihork kalterik egiñ diezazuke.

Jesus kausitzen duenak kausitzen du tresor bat, edo hobeki, ontasun guzien gaiñeko ontasun bat.

Hura galtzen duenak galtzen du gehiago aberatstasun guziak baiño, eta mundu guzia baiño ere.

Jesus gabe bizitzea, azkeneko lazeria, Jesusekin bizitzea aberatstasunik handiena.

Sekreturik handiena da beraz Jesusekin bizitzen iakitea, eta prudentzia soberanoa nork bere bihotzean hura idukitzea.

Zaren humill eta baketiar, eta Jesus gurekin izanen da.,

Zaren debot eta manso, eta Jesus zure baitan idukiko duzu.

Orduan ihesi egorriko duzu, eta segurki galduko duzu, munduko gauzetara beheratzen

bazare. Eta ihesi badoatzu, norenganat goanen zare? Galtzen baduzu, non kausituko duzu adiskide leial bat?

Ez bada posible adiskide gabe bizitzea, Jesus ez denean zure adiskide izanen, ala zu triste eta larri egonen baitzare.

Erhoki beraz zure esparantza eta bozkarioa ematen duzu hartaz bertzetan.

Hobeago ziñduke mundu guziaz higuindua izan ezen ez gaitzez egon Jesusekin.

Den beraz Jesus zure adiskideen artean guziz hautetsia eta onhetsia.

4. Maita zatzu bertze guziak Jesusengatik, eta Jesus beregatik.

Hark baxharrik behar du izan bereziki maitatua, hura baxharrik hobeago, maitagarriago eta leialago baita bertze adiskide guziak elkharrekiñ baiño.

Maita zatzu haren baitan zure adiskideak, eta harengatik zure etsaiak, eta egiozu othoiz batzuentzat eta bertzeentzat, demoten grazia haren ezagutzeko eta maitatzeko.

Eztuzu nahi behar bakharrik maitatua edo laudatua izan: hori etzaio zor Jainkoari baizen, zeñak ez baitu nihor bere parerik edo idurikorik.

Ez duzu nihoren bihotzean eta amudioan buruperik, eta ez diozozula eman halaber zurean nihori; Jesus xoillaren amudioak behar ditu bethe bihotz guziak.

5. Begira zazu zure arima garbi eta libro krea-
turen traba guzietarik.

Billhuzi behar duzu guzietarik, eta bihotza garbi eman behar diozu Jainkoari, nahi baduzu harekiñ iuntatu, eta launa zeñ gozoa den gusta-
tu.

Egia da billhuztasuneko estatu hortara ez zare helduko, graziak ez badu zure bihotza behindik behiñ atzartzen, eta gero thiratzen eta alxatzen; munduko lothura guzietarik libratu-
rik Jainko xoillarekiñ iunta zaitezentzat.

Ezen graziak borthizten gaituenean, gauza guzietako gai eginen gare; baiñan uzten gaitue-
nean, erortzen gare gabetasunerat eta flakezia-
rat, eta gaudez paratuak pena eta gaztigu suer-
te guzietarat.

Hargatik ez zaizu bihotza erori behar, edo esparantzaz gabetu; baiñan bakezki Jainkoaren borondateari behar gaizko sumetitu, eta gerthazten zaizkigun gaiz guziak Jesu-Kristoren loriagatik pairatu, ezen uda heldu da neguaren ondoan, eguna badarraio gabari, edo denbora ederra tenpestari.

IX. KAPITULUA

*Barreneko agortasunez eta
desgustuez.*

1 Ezta gaitz gizonen konsolazionean arbuia-tzea Jainkoaren konsolazioneak gustatzen ditugunean. Baiñan berthute hagitz handi bat behar da konsolamendu batzuez, eta bertzeez gabetua bizitzeko, eta Jainkoaren loriagatik gabetasun hura gogo onez pairatzeko, nork bere burua deusetan ere ez billhatzeko, eta bere merezimenduari ez batere behatzeko.

Ezta miresteko bozkario sentitzen baduzu grazia zureganat iausten denean. Nork eztaduka bere burua dohatsu momentu zorionezko hartan?

Bere gogara dabilla graziak darabillana: eta ez da mirakullu ez bazaitzu deus pisu iduritzen, Jainko guziz podorosak sustengatzen eta gidatzen gaituenean.

2. Atsegiñ dugu bethiere kausitzeaz zerbait konsolagarri; eta nekhez gure buruei ukho egiten diogute.

Londoni Laurendi martir handi hark garaitu zuen mundua bere Ipizpiku sailduak bezala, hemengo atsegiñak eta xarmak ostikaturik, bai eta oraiño pazientki pairaturik apartatua izatea Sixto Aita saildua hagitx samurki maite zuenganik.

Manera hartan Jainkoarentzat zuen amudioaz garaitu zuen gizonarentzat zuen amudioa, eta konsolazione humanoa utzirik segitu zuen Jainkoaren nahia.

Hortik ikhasazu behar duzula utzi Jainkoagatik zure adiskiderik maiteena eta beharrena.

Ez bekizu damu adisakide batek uzten zaitue-nean, orhoit zaitte noizbait berdin behar degula elkharganik separatu.

3. Gudu luze eta dorphe bat egiñ behar dio bere buruari gizonak, bere burua osoki garaituko badu, eta bere afekziorie guziak Jainkoaganat itzuliko baditu.

Bere baitan sustengatzen dena errexki iaus-
ten da munduko konsolazionetarat.

Baiñan Jesu-Kristo zin-ziñez maite duena, eta
berthuteari arthoski darraioena ez da beheiti-
tzen gizonen konsolamenduetarat, eta ez abia-
tzen sensuen araberako solaiimenduen ondoan,
aitzitik lotzen kaio debozionezko pratikarik gai-
tzenei, eta nekherik gogorrenak iasaten ditu
Jesu-Kristoren amorea gatik.

4. Hala Jainkoak egortzen darotzunean barre-
neko konsolazionerik, har zazu eskerrekiñ, eta
pensa zazu hark egiten darotzun dohaiñ bat dela
hura; eta ez zuk irabazirikako sari bat.

Ez duzun orduan buruperik, ez bozkario
sobrarik, aitzitik izan zaite humillago; zure gai-
ñean atzarriago, zure akzione guzietan beldur-
tiago; ezen oren dohatsu hura iraganen da eta
tentazioneko denbora ethorriko da.

Barreneko eztitasun hartaz gabetzen zare-
nean, ez bekizu eror bihotza, baiñan humiltasun,
eta pazienziarekiñ idurikazu bihur dakikun; ezen
aski botheretsu da Jainkoa zuri emateko fagore
bera, eta oraiño abundantkiago.

Konportamendu hori ez da berria, ez mireste-koa Jainkoaren bideak egagutzen dituztenentzat; Profeta zaharrek eta Saindurik handienek frogatu dituzte ezen bere baitan gantiantza horlakoak.

5. Hargatik Errege Profetak graziako abundanzian erraten ohi zuen: *Nik erran dut neure abundanzian, ez naiz sekulan mobituko edo aldaratuko.* Orduan grazia hura harenganik has-tandu denean, berenez zeñ flakoa zen frogaturik, dio: *Itzuli duzu eneganik zure begitartea, eta erori naiz altaramenduan.*

Halere bada ez du galtzen bere esparantza, aitzitik khar gehiagorekiñ othoizten du Jainkoa, eta diotzo: *launa, ene oihua altxatuko dut zureganat, eta egiñen darotzut ene othoitza.* Eta fiñean markatzen du ardietsi duela galdetu duena, dionean: *launak entzun nau, eta urrikaldu natzaio, ene Jainkoa egiñ da ene laguntzaille.*

Baiñan adi zagun zer laguntza egin dioen, dio: *launa, ene plainuak ganbiatu ditutzu bozkarroriat, eta inguratu nauzu aleganziaz.*

Saindurik handienei horla gerthatu bazaie, guk gaxo eta herbalek ez dugu esparantza galdu behar, batzutan khartsu, eta bertzetan hotz ederiten bagare, zeren Jainkoaren espiritua hurbiltzen eta urruntzen baita berak plazer duen bezala.

Hargatik diotso Jopek Jainkoari: *Goizetik gizona bisitatzen duzu eta berehala ondoan frogatzen duzu harenganik apartaturik.*

6. Zeren gaiñean beraz fida ahal naiteke eta zertan eman ahal dezaket neure esparantza baiden Jaikoaren grazian, eta haren miserikordian?

Ezen nahiz aurkhi nadiñ presuna prestuekiñ eta arima sainduekiñ, edo adiskide leialekiñ; nahiz irakur detzadan liburu sainduak eta Jainkozko gauzez mintzo direnak, nahiz kanta detzadan edo entzun detzadan kantatzen himnoak, eta Elikako bertze kantik; horietan guzietan laguntza eta deskansu guti kausitzen dut graziaz billhuzia; eta neure miseriarat largatua balin banaiz.

Orduan erremedio hoberena da pazientzia, eta gure buruen abandonamendua Jainkoaren nahirat.

7. Ez dut egundaiño kausitu gizonik haiñ debotik eta kharsurik zeñez ez baitu frogatu bere burua graziaz gabetua, eta lehen zuen berotasunetik epheldua.

Ez da egundaiño izatu saindurik hartaraiño argiturik, edo haiñ gora althaturik, zeña ez baita lehenxe edo geroxe izatu tentazionez humilia-tua.

Jainkoaren amoreagatik gudu handirik iasan ez duenak ez du merezi kontenplazione gora batetara altxatua izatea.

Ezen presenteko tentazionea da marka kon-solazioneak laster ethorri behar duelakoa: hortaz konsolazioneak etzazte ere bertzeei agintzen, lekhat atsekabeez frogatuak izan direnei baizen, dio ezen Jainkoak: *Biktorioz izanen denari emanen diot iatera bizitzearen arbolako fruitutik.*

8. Ezen grazia suerte horiek ematen zaizko gizonari sendoago izan dadintzat sofrikarien pai-

ratzeko, eta berriz nahigabeak egortzen zaizko bere baitan altxa ez dadintzat grazia hekiengatik.

Hala zaude bethi prest gudu egiterat, ezen deabrua ez datza lo, haragia ez da hilla, eskuiñ, eta ezker baitutzu etsaiak behin ere pausatzen ez direnak.

X. KAPITULUA

*Jainkoaren grazientzat behar den
esker eta ezagutzaz.*

1. Zertako zabilta pausu billha nekhekotz sorthua zarenaz gerotik; prepara zaite gehiago pazientziarat ezen ez konsolazionerat, atsekaberat hobeki ezen ez bozkariorat.

Nor da munduan presuna bozkario eta konsolazione espiritualak gogotik gusta ez detzakena, bethi hetaz goza ahal baledi? Ezen gozoago dire konsolazione hek haragiaren plazer, eta munduko atsegiñ guziak baiño.

Ezen haragiaren atsegiñak edo dire banoak, edo laidotsuak; baiñan espirituaren plazerak ederrak dire eta garbiak, zeren berthutetarik sortzen baitire, eta Jainkoak itzartzen baititu arima garbietarat. Baiñan eziñ nihor goza daiteke nahi bezanbat Jainkozko konsolazione hetaz, zeren tentazionearekiñ ditugun tregoak hagitz baitire laburrak.

2. Konsolazioe espiritual hekiñtzat traba handiak dire gure burua baitan dugun fidanzia sobraniozkoa eta gure arimaren libertate falsoa.

Jainkoak ungi egiten daroku bere graziaz konsolatzen gaituenean, baiñan guk ungi hura gantziatzen dugu gaizkira, gure eskerren bidez guzia hari berari bihurtzen ez diogunean, eta horren-gatik ez dire heldu gureganat graziaren dohaiñ hek, zeren eskergabeak baikare hekien emaillearen alderat, eta ez baiditugu iganaratzitzen bere ithurbururat aithor humill baten medioz.

Ezen grazia errezibituen ezagutzak erakhar-tzen ditu gureganat grazia berriak: eta Jainkoak supherbioari khentzen dioena, ematen dio humillari.

3. Ez diezadazula eman, o ene Jainkoa, konsolazionerik ene bekhatuen urrikiaz gabe nazakenik, ez eta kontenplazionerik orgilleriara altxa nakakenik.

Ezen gora guziaz ez dire saindu, ezti diren guziak ez dire on, desiratzen den guzia ez da garbi, eta gizonaren gogora den guzia ez da zure gogora.

Baiñan indazu, launa, grazia bat humillago eta arkarriago egiñen nauena, eta neure buruari ukho egitera ekharriko nauena.

Jainkoak bere grazia batean eman bezetxean khenduz presuna bat argitu duenean, eziñ atrebituko da siñhestera deus onik bereganik baduela; baiñan aithortuko du haiñak gauza guziez dela pobrea eta billhuzia.

Emozu Jainkoari Jainkoarena dena, eta guretzat, ez zakula har zurerik baizen; Erran nahi da, emotzu eskerrak Jainkoari harenganik ditzun graziez, eta aithorazu ez duzula zureganik bekhatusa baizen, eta hala ez duzula merezi hari zor zaioen pena baizen.

4. *Eman zaite bethi lekhurik beherenean*, eta altxatuko zaituzte gorenerat; lehenbiziko herrunka azkenekoa hautatzen duenarena da.

Saindu Jainkoaren begietan handienak dire bere begietan xumeenak, zenbatenaz distiantago, hanbatenaz humillago.

Ezen nola baitire zeruko egiaz eta loriaz betheak, ez dire kasu harri munduko ohore banoez: Jainkoa baitan finkatuak eta borthitstuak ez ditu

higitzen orgilleriak; eta nola Jainkoari egortzen baitiotzate harenganik izatu dituzten on guziak, ez dute nahi batzuek bertzeenganik loriarik, eta ez dute desiratzen Jainkoaganik heldu dena bai-zen.

Hek gauza guzien gaiñetik desiratzen dutena da Jainkoa den laudatua bere baitan, eta bere sainduetan, eta hori da hekien akzione guzien xedea.

5. Duzun beraz ezagutza handi bat graziarik xumeenez, eta merezituko ditutzu handienak. Jainkoaganik heldu zaitzun dohaiñik xumeena estima zazu hañitz, eta gizonei txar iduritzen aiena den preziatu zure begietan.

Emaillearen handitasunak errendatzen badu balioz dohaiña, Jainkoaren dohaiñik eziñ daiteke txarrik edo xumerik; ezen guziz handi denak eziñ deus xumerik eman dezake.

Harenganik heldu zaizkigun gaztiguak eta zigorradak ere on behar zaizkigu, ezen deus ez zaizu gerthatzen non ez duen hark gure salbamenduagatik permetitzen.

Beraz Jainkoaren grazia konserbatu nahi duenak esker, eta ezagutza behar du hura ematen zaionean, eta pazientzia khentzen zaionean, behar du egiñ othoitz haren ardietsteko, eta behar du izan humill, eta goardiakor haren konserbatzeko.

XI. KAPITULUA

Gutik dutela maite Jesu-Kristoren gurutzea.

1. Jesusek baditu hañitz haren erresuma maite dutenak, baiñan guti harren gurutzea iasaten dutenak.

Hañitzek billhatzen dituzte haren konsolazio-neak, gutik haren sofrikariak.

Lagun hañitz du mahaiñean, baiñan bakharrik da barurean.

Guziek nahi dute izan haren bozkarioetan partale, baiñan nihor gutik nahi du harengatik pairatu.

Hañitz darraizko Jesusi ogia partitzen diotenean, baiñan guti pasioneko khalitza edan behar denean.

Hañitzek ohoratzen dituzte haren bizitzeko mirakulluak, baiñan gutik haren heriotzeko laidokak.

Hañitzek maite dute Jesus nahigaberik gertatzen ez deiño, laudatzen dute eta benedikatu.

tzen, konsolatzen ditueiño; baiñan gordetzen bazaiote, eta uzten baditu denbora bateko, erortzen dire berehala murmurazionerat eta epheltasunerat.

2. Jesus maite dutenek ez bere kontentamendu propialagatik, baiñan Jesus beragatik, benedikatzen dute sofrikarietan haiñ ungi nola bozkarioetan.

Eta behiñ-ere konsolazionerik eman ez baliozate ere, ez litezke geldi hargatik bere laudorioak, eta eskerrak hari bihurtzetik.

3. Oi ala indarsua baita Jesusen amudioa garbia denean, eta amudio propioaz nahastatua ez denean! Zer dire beraz Jainkoaren zerbitzuan eztitasunen bilha bethi dabiltzanak, baizen zerbitzari intresatuak, eta soldateko sehiak?

Hañek bere buruak Jesus baiño gehiago dituzte maite zeñak bethi bere abantailen, eta aisien ondoan baitabiltza.

Bizkitartean nor kausitzen da orai Jainkoa dohaiñik zerbitzatu nahi duenik?

4. Presuna espiritualen artean ere nekhez kausituko da bat gauza guziez billhuzia denik.

Non kausi daiteke presuna espirituz egiazki pobrea, eta kreatura guzien amudiotik osoki libroa? *Munduaren bazterreraño goanik behar da aurkhitu halako bat.*

Gizonak bere ontasun guziak ematen balitu ere, ez da hori deus. Penitentzia garratz bat egiñ baleza ere deus guti da hori. Munduko iakintasun guziak balitu ere urrun da oraiño. Balu ere bert-hute handi bat, eta debozione kharsu bat, eskas du gauza bat hagitz beharra.

Zeiñ da hura? Gauza guziak utzi ondoan, utz dezan bere burua; bere baitharik athera dadiñ osoki, eta ez dezan deus itxek bere amudio propiotik; eta oraiño gauza horiek egiñ ondoan, eta egitekotz dauskan guziak siñhets dezan ez duela deus egiñ.

5. Guti preza dezan bertzeei haren baitan handi iduritzen zaiena, eta zin-ziñez aithor dezan zerbitzari alfer bat dela; Jesu-Kristo berak era-kuxten darokun bezala: *Manatu zaizkitzuen*

*guziak egiñ ondoan, errazue bethi, zerbitzari inu-
tillak gare.*

Orduan daiteke egiaz espirituzko pobrea, eta gauza guziez billhuzia: orduan erran dekake Profetarekiñ: *Pobrea naiz eta abandonatua.*

Halere ez da nihor izanen aberatsagorik, puxantagorik, ez libroagorik halako gizona baiño, zeinak baitaki gauza guzietarik apartatzen, eta azkeneko herrunkan bere buruaren ematen.

XII. KAPITULUA

Gurutzea dela zeruko bidea.

1. Jesu-Kristoren hitz hauk dorphe zaizkote hañitzei: *Ukho egiozu zure buruari, altxa zazu gurutzea, eta iarraiki zakizkit.* Baiñan dorphe izanen da aho beretik aditzea azkeneko hitz hauk: *Aparta zaitezte eneganik madarikatuak, eta zoazte sekulako surat.*

Orai gurutzezko hitz hek gogotik aditzen dituztenak ez dire beldur izanen adi dezaten Jainkoaren iuiamenduan kondenezko arasta ikharagarri hura.

Gurutzea agertuko da zeruan, Jesu-Kristo ethortzen denean gure iuiatzera. Orduan gurutzearen zerbitzari guziak, bere bizian Jesus gurutzefikatuaren iduriko egiñ direnak seguratu ki hurbilduko dire bere iuiearenganat.

2. Zergatik zare bada beldur gurutzearen har-tzerat, haren bidez goan behar denaz geroztik zerurat? Gurutzean kausituko duzu zure salba-

mendua, zure bizitzea, eta zure etsaien garaitzeko behar den guzia.

Gurutzea da grazien kanala, arimaren indarra, espirituaren bozkarioa; gurutzean da berthuteen khoroa, eta saindutasunaren perfekzioea.

Ez dugu kausituko arimaren salbatzerik, ez bizitze eternalaren esparantzarik gurutzean bai-zen.

Har zazu beraz zure gurutzea, eta zarraizko Jesusi, eta goanen zare bizitze eternalerat.

Berak iasan du lehenik bere gurutzea, eta hill da hartan zuregatik; zuk ere iasan zazuntzat zurea, eta hartan hilltzera dezazuntzat.

Ezen harekin hilltzen bazare, harekiñ biziko zare, eta haren penetan partale bazare, izanen duzu halaber haren lorian parte.

3. Gauza dago beraz gurutzearen maitatzean, eta hartan hilltzean; ez da bertze biderik bizitze eternalerat, eta egiazko bakerat, lekhat gurutzearen eta mortifikazionearen bidea.

Zoaz noratnahi, billha zazu plazer duzun bezanbat; behatzen baduzu gorat, ez duzu kausituko bide altxatuagorik, behatzen baduzu

beherat, ez duzu kausituko seguragorik gurutze sainduaren bidea baiño.

Dispersa zatzu eta arrima gauza guziak zure nahien, eta xedeen arabera; nahi baduzu eta ez, aurkituko duzu bethi zerbait pairatzeko; hala kausituko duzu bethiere gurutzea. Ezen edo izanen duzu gorputzean oiñhaze, edo espirituan atsekabe.

4. Batean Jainkoak utziko zaitu, bertzean gizonek persekutatuko zaituzte, eta gehiago dena, maiz zure buruarentzat zeroni nekhagarri izanen zare. Eta eziñ kausituko duzu zure penen erremedioarik, edo arintasunik; hala beharko ditzu guziak pairatu Jainkoak plazer duen arteiraiño. Ezen Jainkoak nahi du ikhas dezazun pairatzen konsolamendu gabe; osoki haren azpian eman zaitezentzat, eta pairatuz humillago egiñ zaitezentzat.

Jesu-Kristoren pasioneak ez du nihor hala ukitzen nola haren iduriko sofrikariak pairatu dituen. Alde guzietarik beraz bathuko zaitzu gurutzea, lekhu guzietan zure beira dago.

Noratnahi den ihes egiñ dekakun, eziñ itzuriko zaizko; zeren noratnahi den zoazen, zurekin eramaten baitutzu zure burua, eta hala kausituko baitutzu zure burua lekhu guzietan.

Zoazen goiti, zoazen beheiti, zoazen kanporat, edo zaudezen barrenean; alde guzietan aurkhituko duzu gurutzea, lekhu guzietan behar-ko duzu pazienziaz borthiztu, nahi baduzu ardie-tsi bihotzeko bakea, eta merezitu sekulako khoroa.

5. Gogotik ekhartzen baduzu zure gurutzea, hark ere ekharriko zaitu, eta gidatuko zaitu xede dohatsu hartara zeïña baita nekhe guzien akhabantza, eta zeïña ez baita edireten bizitze hune-tan.

Baiñan gogoaren bortxa iasaten baduzu karga pisuago egiten duzu, eta pena gehiago zure buruari ematen diozu, berdiñ bai eta ez bada pairatu behar duzunaz geroztik.

Gurutze bat uzten baduzu, kausituko duzu bertze bat menturaz pisuagoa.

6. Egundaiño nihor eziñ itzuri zaio gurutzeari, eta duzu uste zu itzuriko zaizkola? Sainduetarik zeñ izatu da egundaiño gurutze, eta ondiko gabe bizia iragan duenik?

Jesus gure nausiak ez du berak izatu munduan bizi izan deiño oren bat zerbait pairatu gabe. Ezen dio berak: *Pairatu behar zuen Kristok, hilletarik bixtu behar zuen, eta sofrikarien bidez behar zuen sarthu bere lorian*. Nola bada billhatzen duzu zeruko bertze biderik, gurutzearen bide erregezkoa baizen.

7. Jesusen bizitze guzia bethiereko gurutzea, eta martirioa izatu da, eta zu zabilta pausuaren, eta bozkarioaren billha?

Enganutzen zare, berriz ere diot, enganutzen zare, mundu huntan billhatzen baduzu penarik, eta pairatzerik baizen, zeren bizitze mortal hau lazeriaz bethea baita, eta alde guzietarik atseka-bez, eta gurutzez inguratua.

Eta zenbatenaz arima bat aitziñatzen baita gehiago bizitze espiritualean, hainbatenaz komunzki gurutze handiagoak ditu; zeren zerua-

rentzat duen amudioak miñkiago sentiarazten baitiotza bere desterruko penak.

8. Halere haiñ miñki aflijitua den arima ez da konsolazione gabe, ezen frogatzen du zenbate-naz baita haren gurutzea gogorrago eta pisuago, hanbatenaz dela haren abantzua, eta probetxu espirituala handiago.

Ezen nihork amudiorekiñ atsekhabeak hartzen dituenean, hekien dorphetasuna ganbia-tzen da Jainkoaren esparantza handi batetara, eta zenbatenaz sofrikari hek gehiago flakatzen baitute haragia, hanbatenaz graziaz borthiten du espiritua.

Eta batzuetan Jesus gurutzefikatuaren iduri-ko izan nahian inspiratzen dio arima bati hanbat amudio, atsekabeentzat, non ez bailuke nahi izan hetaz gabetua; zeren uste baitu hanbatenaz izanen dela Jainkoaz maitatuago, zenbatenaz pairatuko baitu haren amoreagatik gehiago.

Eta ez du hori egiten gizonaren berthuteak, baiñan bai Jainkoaren graziak, zeñak haragi fla-koan bizi bagare ere ematen baitaroku hanbat indar non maitarazten baitaroku, eta khar handi-

rekiñ billharazten naturalezak gehienik higuña-razten darozkigun gauzak.

9. Ez da gizonaren pendura gurutzearen iasatea eta maitatzea, gorphutzaren gaztigatzea, eta gathibu errendatzea, ohoreei ihes egitea afrontuak bozkariorekiñ hartzea, bere buruaren arbuiatzea, eta bertzez arbuiatua izan nahi izatea, kalteak eta nahigabeuk gogo onez pairatzea, eta mundu huntako onen eta abantailen gutiziarik ez izatea.

Zure burua ungi konsideratzen baduzu, kausituko duzu horietarikan deus eziñ dagikezula; baiñan Jainkoa baitan ematen baduzu zure esparantza hark emanen darotzu zeruko laguntza, eta hala mundua, hala haragia zure azpian izanen dire.

Fedeaz armatua eta gurutzeaz seiñalatu bazare, deabruaren ere etsai kruel haren beldur etzare izanen.

10. Zaude Jesusen zerbitzari on eta leial bat bezala, bihotz handirekiñ iasatera gurutzea, zei-

ñetan zure nausi adoragarriak nahi izatu baitu hill zure amoreagatik.

Deliberatu behar duzu bizitze dohakabe huntan zareño hañitz gaitz eta atsekabe suerteren pairatzerat; ezen norat nahi zoazen, eta non nahi gorde zaitezzen, ez duzu kausituko halakorik baizen.

Horixe da zure zorthea; eta gaitz horien guzien kontrako erremediorik ez dukezu, guziak pazientki iasatea baizen.

Edan zazu beraz gogo onez Jesusen khalitza, nahi baduzu izan haren adiskide, eta haren erresuman partale.

Konsolazionez denaz bezanbatean utzatzu hek Jainkoaren borondatera, egiñ dezan hetaz plazer duena.

Baiñan zuk delibera zazu atsekabeen hartzerat konsolazioneak balire bezaiñ bozkario handirekiñ. *Ezen mundu huntako sofrikariak (guziak pairatzen bazintu-ere), ez dire konparatzeko agintzen zaizun loriarekiñ.*

11. Ardietsi dukezunean estatu hura, zeñetan penak ezti idurituko baitzaizkitzu, eta atse-

kabeak gozo Jesu-Kristoren amoreagatik; orduanxe idukazu zure burua dohatsu, aurkhitu dukezu munduan parabisua.

Baiñan sofrikarien ihesi zabiltzaiño, edo hek fastikurekiñ pairatzen ditutzuiño; dohakabe izañen zare, eta ihesi egiñ nahi diozun gaitza bethi iarraikiko zaitzu.

12. Ematen bazare behar zaren bezala pairatzeko, eta hilltzeko estatuan, kausituko zare berehala hobeki, eta ardietsiko duzu bihotzeko bakea.

londoni Paulo bezala baziñe ere altxatua hirugarren zeruraiño, etzinduke segurantzarik ez duzula deus pairatuko. Ezen Jesu-Kristo berak hanbat fagoreen ondoan erran du Apostolu hartaz: *Nik erakusiko diot zenbat beharko duen pairatu ene izenaren ohoretan.*

Zure egiteko baxharra da beraz pairatzea, nahi baduzu Jesus maitatu, eta zure bizi guzian zerbitzatu.

13. Oxala bai baziñe Jesus izenean zerbaiten pairatzeko! Oi nolako ohorea liteken zuretzat! Nolako bozkarioa Sainduentzat; eta exenplu ona

zure lagunentzat! Ezen guziek laudatzen dute pazientzia, nihork gutik hartu nahi badu ere.

Ez liteke bada iustu zenbait pena xume har ziñezan Jesu-Kristogatik, hanbat iendeek munduagatik hagitzez dorpheagoak hartzen dituztenaz geroztik?

14. Siñhetsazu zure biziak behar duela izan heriotze kontinual bat, eta zenbatenaz gure buruari hilltzen baitzaizko gehiago, hanbatenaz gehiago hasten zarela Jainkoarentzat bizitzen.

Nihor ez da gai zeruko gauzen ezagutzeko, ez bada iartzen atsekabeen sofritzerat Jesu-Kristoren amoreagatik.

Deusere ez da Jainkoaren gogarago denik, eta gure salbamendukotz hoberik, nola Jesu-Kristogatik gogo onez pairatzea.

Eta hautua ematen balitzaitzu, hobeki behar gintuzke hartu atsekabeak ezen ez bozkarioak; zeren horla iduri gehiago baikinduke Jesu-Kristorekin, eta haren sailduekiñ.

Ezen gure merezimendua, eta aitziñamendua ez dago hañitz konsolazioneen, eta estitasunen

igatean, bainan hañitz altaramenduen eta penen iasatean.

15. Izan batitz sofrikariak baiño deus hoberik, eta progotxosagorik gizonentzat, Jesu-Kristok erakutxiko zarokun bere hitzez eta exenpluz.

Bizkitartean bere diszipuluak eta bere iarraikun guziak ez ditu exhortatu pairatzerat baizen, eta ez diote erran bertzerik, lekhat: *Nihork ethorri nahi badu ene ondotik uko egiñ bioza bere buruari, ekhar beza bere gurutzea, eta iarraiki bekit.*

Hala gauza guziak ungi konsideratu eta examinatu ondoan, huntantxe zarratzen dire: Hañitz atsekabetarik eta hañitz sofrikaritarik iragan behar dela zeruko erresuman sartze-ko.

Jesu-Kristoren Imitazionea

HIRUGARREN LIBURUA

Barneko Konsolazioneaz

I. KAPITULUA

Nola behar den preparatu Jainkoaren aditzerat.

ARIMAK

1. Adituko dut Jainko iaunak ene bihotzaren barrenean erranen darotana.

Dohatsu arima, Jainkoa mintzo zaionean aditzen duena, eta harenganik konsolazionezko hitzak hartzen dituen!

Dohatsu beharriak, Jainkozko hitzen soiñua enzuten dutenak, eta munduko habarrotsentzat zarratuak direnak.

Berriz ere diot dohatsu beharriak, kanpotik heldu zaioten boza aditu nahi eztutenak; baiñan bihotzari minzo zaion egia entzuten dutenak.

Dohatsu, bere barrenaren berri dakitenak, eta egun oroz debozionezko pratika sainduz gerotik gerora gehiago zeruko sekretuen ezagutzerat preparatzen direnak.

Dohatsu gizona, munduko traba guzietarik libratuak Jaink xolla baithan gogoia duena.

Gaudezen erne o ene arima, eta hertsatzigun gure sensuen atheak aditzeko zer erranen darokun gure Jainko iaunak, huna zer dioen zure guziz maiteak.

JESU-KRISTOK

2. *Ni naiz zure salbamendua*, zure bakea, eta zure bizia; zaude enekiñ, eta kausituko duzu egiazko sosegua.

Utzatzu gauza iragankorrak, eta iarraik zakizkote bethi iraun behar dutenei.

Zer dire denborak daramatzan gauzak, doidoia lilluramendu banoak.

Eta zertako tutzu kreaturak, kreatzailleak uzten bazaitu.

Beraz gauza guziei ukho egiozute iaunaren gogarako, eta haren zerbitzari leial izan zaitezenezat, eta egiazko dohatsutasuna ardiets dezazuntzat.

II. KAPITULUA

Arimak Jainkoari galde egiten dio arren minza dakion bihotzerat.

1. *Minza zaite iauna ezen zure zerbitzariak adituko zaitu, ni naiz zure zerbitzaria indazu argia ezagut dezadan zer manatzen darotazun.*

Susta zazu ene bihotza eta gai egizu zure ahoko hitzen entzuteko, eta isur beitez hitz saindu hek ihintza bezala ene bihotzera.

Lehenago israeldarrek erraten zioten Moiseri: *minza zakizkigu zu zerorri, eta adituko zaitugu; baiñan ez bekigu Jainkoa minza, hill ez gaitezen-tzat.*

Eztarotzut nik hori galdegiten, o ene Jainkoa; aitzitik atrebitzen naiz humiltasunekiñ, eta debiozionerekiñ zuri erraterat Samuel profetak bezala: *minza zaite iauna ezen zure zerbitzariak entzuten zaitu.*

Ez bekit mintza Moise, ez bertze profetarik, baiñan zu minza zakizkit, o ene iauna eta ene Jainkoa: zu zeñak inspiratzen, eta argitzen baiti-

tutzu profetak; ezen zuk baxharrik hek gabe perfeko argi nazazuke, eta hek zu gabe eziñ dagikete deus.

2. Egia da, hitzak adiaraz detzakete; baiñan ezin eman dezakete, espiritua eta grazia.

Ungi minzo dire: ordean zu gabe bihotza eziñ uki dezakete.

Hek ematen dute letraren axala; baiñan zuk agertzen duzu eta adiarazten sensua.

Hek predikatzen tuzte misterioak, baiñan hekin ezagutza zuk ematen duzu.

Hek adiarazten darozkigute zure manuak; baiñan eziñ konpli detzakegu zure lagunza gabe.

Hek irakasten darokute bidea: ordean zuk ematen han ibiltzeko indarra.

Hek ematen tuzte kanpoko argiak; baiñan zuk argitzen tutzu barnetik gure espirtuak, eta bihotzak.

Hek kanpotik ihinstatzen dute arbola; ordean zuk erakhartzen diotzotzu fruituak.

Fiñean bere bozaren oihua adiarazten dute, baiñan zuk idekitzen bihotzeko beharriak.

3. Ez bekit beraz niri Moise mintza; baiñan zu minza zakizkit, ene Jainkoa, zeña baitzare egia eternala.

Hill ez nadintzat, eta agor, eta fruitu gabe egon ez nadintzat; ezen hori gerthatuko zait kanpotik xoillki banaiz abisatua; eta ez barnetik ukitua eta sustatua.

Beldurrez zure iuiamenduan kondemna nadiñ zeren enzun dudan zure hitza, eta ez begiratu; ezagutu, eta ez maitatu; sinhetsi, eta ez konplitu. *Mintza zaitte beraz, iauna ezen zure zerbitzariak aditzen zaitu, eta zuk ditutzu hizitze eternalaren hitzak.*

Mintza zakizkit ene arimaren konsolazione-kotz; mintza zakizkit ene biziaren onera gantziatzekotz: fiñean mintza zakizkit zure izen sainduaren ohore loria, eta laudorio eternalakotz.

III. KAPITULUA

Jainkoaren hitzak humiltasunekiñ entzun behar direla, eta hanitzek eztituztela hek aski pisatzen.

1. Ene semea adi zatzu ene hitzak hitz eztitasunez betherikakoak, ziñek ixitzen baitute infinituki munduko zuhurren iakintasun guzia.

Ene hitzak espiritu eta bizitze dire, eta ez tute sensu humanoaren arabera neurthuak izan behar.

Etzazula hetan bilha konplazenzia bano bat: baiñan entzun zatzu ixiltasun handi batean, eta har zatzu berotasun eta zelo hañitzekiñ.

2. *Dohatsua da, zuk argitzen duzuna, o ene Jainkoa, eta zeronek zure legea irakasten diozuna bere atsekabezko egunetan deskansuak emateko, eta mundu huntako miserietarik atheratzeko.*

JESU-KRISTOK

3. Nik argitu ditut hatsetik profetak, eta orai ere ni bethi mintzo natzaiote gizonei.

Baiñan gehienak gor dire, eta sentimendu gabe ene bozarentzat.

Jainkoa baiño gogotikago aditzen dute mundua, et hobeki behatzen diote bere haragiaren gutiziei, ezen ez Jainkoaren nahiei.

Munduak agintzen tu ontasun iragankorrek, eta mesprezagarriak, eta zerbitzatua da beroki; nik agintzen ditut ontasun soberanoki handiak, eta bethi iraunen dutenak, eta gizonak nagi dire, eta hotz enetzat.

Nork hanbat artharekiñ, eta kharrekiñ obeditzen, eta zerbitzitzen nau ni, nola mundua, eta munduko handiak egiten baitire?

Gorri zaite Sidon, dio itsasoak, edo hobeki ahalka zaite arima giristiñozkoa, dio munduak; arrazoiña galdetzen baduzu, huna non den.

Bide haiñitz egiten da benefizio xume baten izteagatik; eta urhats bat ere doidoia nihork egiñ nahi du bizitze eternalagatik?

Hañitz nekhez bilhatzen da gauza txar bat; ezdeusgatik altxatzen dire hauzi ahalkagarriak;

airezko esparantza batek, edo agintza bano batek gabak, eta egunak iraganarazten darozki-gu nekhe eta borroketan.

4. Baiñan oi gure laidoa, uzkur gare den nekherik xumeenaren hartzerat ontasun eternal batengatik, golardo eziñ aski estimatuzko batengatik, ohore soberano, eta loria neurri gabe batengatik.

Ahalka zaite beraz zerbiztari laxo, eta errenkuratia ikhustez hanbat iende bere kaltetako gauzentzat lehia gehiago dutenak, zuk zure salbamendukoentzat baiño; eta itxurapenezko ontasunetan atsegiñ gehiago hartzen dutenak zuk egiazkoetan baiño.

Bizkitartean maiz enganatuak gerthatzen dire bere esparantzetan, baiñan ene agintzak eziñ salatuzkoak dire, eta ene baitan esperantza eman duena ez tut hutsik egorri egundaiño.

Emanen dut agindu dudana, erran dudana konplituko dut; baldiñ ene zerbitzariak fiñeraiño irauten badu ene amudioan.

Nik onak handiroki sariztutzen ditut: Ordean lehenago frogantza dorphetan ezartzen ditut.

5. Eskriba zatzu ene hitzak zure bihotzean, eta maiz gogoan erabil zatzu, behartuko zaizkitzu tentazioneko denboran.

Ezpadituztu aditzen irakurtzean, adituko dituztu nik bisitatuko zaitudan denboran.

Bi maneraz bisitatu ohi ditut neure hautesiak, tentazioneez, eta konsolazioneez: eta egunoroz bi lekzione fuerte ematen diotzatet: bata utz dezatenztat bere eskasak: bertzea berthuteak ardiets dezatenztat.

Lekzione horiek hartu ondoan: arbuiaitu dituena, hekien gaiñean kondenatuko da azken egunean.

OTHOITZA

Debozionarioaren grazia adierazteko zat

6. Ene Jauna eta ene Jainkoa, zure baithan dire ene ontasun guziak, eta ni zer naiz ausartatzeko zuri mintzatzerat?

Ni naiz zure zerbitzarietan den mendreena, eta on guzietz gabetuena, ezteusago lurreko harra baiño, nerorrek dakidan, eta erran ahal

dezakedan baiño milletan dohakabeagoa, eta mezprezagarriagoa.

Guziarekiñ ere orhoit zaite Jauna, ez naizela deus, eta eziñ deus dagikedala.

Zu zare baxharrik ona, iustua, eta saindua, zuk dakizkitzu guziak, zuk ematen tutzu guziak, zuk bethetzen tutzu guziak, lekat bekhatorea, zeïña uzten baituzu zure ontasunez gabetua.

Orhoit zaite zure miserikordiez, bethe zazu ene bihotza zure graziez zuk zeïnak ezpaituzu nahi zure obrak izan ditezen eskasak.

7. Nola neure burua iasan dezaket bizitze dohakabe hunetan? zure graziak, eta miserikordiak ezpanaute borthizten.

Etzazula itzul eneganik zure bisaia, eta eztezazula luza zure bisita, ez nazazula gabe zure konsolazioneez, ene arima zure aitziñean egiñ eztadintzat *lur agor, eta idor baten pare*.

Jauna irakats *diezadazu zure nahiaren egiten*, irakats diezadazu zure aitziñean humilki eta digneki ibiltzen; ezen zu zare ene zuhurtzia zuk eza gutzen nauzu egiazki naizen bezala, zuk ezagu-

tzen nauzu nintzen baiño leheango, bai eta ere mundua kreatu baiño lehenago.

IV. KAPITULUA

*Egiaren eta humiltasunaren arabear
ibilli behar dela Jainkoaren aitziñean.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea zure bizia xuxen zazu ene egiaren arabera, eta bihotz sinple, eta xuxen batekiñ bethi bilha nazazu.

Ene aitziñean egiaren arabera dabillana gerizatuko dut etsaiaren kolpetarik, eta egia hark berak beiratuko du gaixtagiñen atakada eta enganamenduetarik.

Egiak libratzen bazaitu, egiazki libro izanen zare, eta kontu guti hariko zare zure kontrako erasia guziez.

ARIMAK

2. Egia da Jauna, egizu ene baithan diozun guzia, zure egiak argi benaza, gida benaza, eta begira fiñ dohatsu batetaraiño.

Libra beza ene bihotza amudio lohi, eta gutizia desordenatu guzietarik, zurekiñ ibill nadin-tzat bihotzeko libertate handi batean.

JESU-KRISTOK

3. Egia bera naiz ni, eta nik irakatsiko darotzut zeñ den bide xuxena, eta nola izan ahal zaitzeken ene gogarako.

Gogoan erabillzatzu zure bekhatuak damu eta bihotz miñ handirekiñ, eta zure obra onek ez biezazute eman buruperik.

Hortaz bekhatore bat zare milla pasioneez, eta gutizia gaixtoz gathe batzuez bezala herstua, eta trabatua.

Zure buruz ezdeusera duzu zure pendura guzia; bethi erorka hari zare, berehala zare garhaitua, den gauzarik xumeenak ere altaratzen zaitu ezdeusek bihotza erorarazten darotzu.

Eztuzu nondik preza zure burua, aitzitik zure baithan diren gauza guziek humiliatu behar zaituzte; ezen zure flakezia handiago da zerorrek ezagut ahal dezakezun baiño.

4. Ez dezazula beraz deus preza egiten duzun gauzetarik.

Etzazula deus itxek handi, balios, miragarri, gora, laudagarri, edo gutziagarri bethi iraun behar duena baizen.

Bilha zazu gauza guzien gaiñetik egia soberanoa: mepreza zazu deus ere baiño gehiago zure beheratasun eziñ gehiagokoa.

Deusi ere ez diozozula hanbat ihes egiñ nola zure bizioei, ez bekizu deus iduri haiñ izigarri, eta kondenagarri, nola zure bekhatuak, zeinek aborrimendu gehiago eman behar baitarotzute munduko gaitz guziek baiño.

Hañitz presuna eztabiltza ene aitziñean sinpleki, eta xuxenki; baiñan arroganziazko, eta kuriostasunezko espirituz nahi tuzte iakiñ ene sekretu gordeak, eta zundatu ene misterioak bere buruen, eta bere, salbamenduaren artha utzirik.

Baiñan nola ni halakoen etsaia bainaiz, kuriostasun, eta arroganzia hark erorarazten ditu haiñak tentazione eta bekhatu handitara.

5. Zutaz denaz bezanbatean zaren Jainkoaren iuiamenduen beldur, ikhara bekaitza guziz podosoaren kolerak.

Etzazula zunda Jaunaren obren barrentsuna; baiñan bai zureen malezia, eta gaixtotasuna, konda zatzu zenbat bekhatu egiñ dituzun, eta zenbat obra on utzi egiñ gabe.

Batzuek bere debozione guzia liburuetan darabillate, bertze batzuek imajinetan; edo kanpoko seiñale edo itxurapenetan.

Batzuek bethi dute Jainkoa bere mihitan, eta hurren behin ere bere bihotzean.

Baiñan badire bertze batzuk zeïnen espiritua argitua baita, eta bihotza egiazki xahutua zeïnek ezpaitute bertzerik gogoan, eta xedean, ontasun eternalak baizen, zeïnek eziñ bertzez aditzen badituzte munduko gauzak, eta gogoaren bortxa iarraitzen baitzaizko bere bizi beharrari, haiñek sentitzen, eta aditzen dute Jainkoaren espirituak bihotz barrenerat erraten diotena.

Espiritu hark erakuxten diote lurraren arbuia-tzen, zeruaren maitatzen; mundutik desamarra-tzen, eta gabaz eta egunaz zeruko dohtsutasuna desiratzen.

V. KAPITULUA

*Jainkoaren amudioaren efetu
miragarriez.*

ARIMAK

1. Benedikatzen zaitut, Aitazerukoa, ene Jesus Jaunaren aita zeren ni bezalako bekhatore dohakabeaz orhoitu zaren.

Esker darotzut *o miserikordien Aita*, eta konsolazione *guzien Jainkoa* zeren nahi nauzun noizik behiñ konsolatu zure graziez, haiñ guti merezi dudalarik.

Laudatzen zaitut, eta lorifikatzen bethi Jesu-Kristo zure seme baxhotxarekiñ, eta espiritu saindu konsolatzallearekiñ, zeñnek erregiñatzen baitute zurekiñ mendako mende guzietan.

O ene Jaun, eta ene Jainkoa ene maitatzaille saindua, ene ganat iausten zarenean boztuko da ene bihotz guzia.

Zu zare ene loria, eta ene arimaren bozkario guzia. Zu zare ene esparantza, eta ihes lekhua atsekabezko denboran.

2. Baiñan nola oraiño zure amudioan flako bainaiz, eta berthutez eskaz, zure Iguntzen, indarren eta konsolazioneen beharrean naiz.

Bisita nazazu berazko ene Jainkoa, eta irakats dietzakidatzu zure manu sailduak.

Libra nazazu ene pasine gaixtoetarik, eta senda zazu ene bihotza afekziona desordenatu guzietarik, ene barna sendo, eta garbi dela, gaitz izan nadintzat zure maitatzeko, indratsu pairatzeko, eta fermu fineraiño irauteko.

3. Egiaz amudioa guza handi, eta miragarri bat da, hark arintzen du pisu dena, hark behiñere altaritzen ezten sosegu batekiñ iasaten tu bizitze huntako mudantza diferentak.

Pena gabe iasaten tu penak, nekhe gabe nekheak, eta ez tirat ganbiatzen tu khiratsik miñenak Jesusen amudioa genorosa da, hertxatzen gaitu gauzarik handienetarat, eta lehiarazten berthuterik perfetenetarat.

Amudioak goiti du iaidura, eta eziñ geldi dai-teke gauza beheetan.

Amudio saindu hark libro nahi du, eta hastantzzen da lurreko gauzen gutizietarik, beldurrez haren barreneko argia ilhun dadiñ, eta beldurrez munduk onek traba dezaten edo garai munduko gaitzek.

Ezta deus ere zeruan, ez lurrean eztiagorik, eta borthitzagorik amudioa baiño, deus ere altxatuagorik, edo hedatuagorik, nahikarazkoagorik, perfetagorik, eta exzelentagorik hura baiño; zeren amudioa Jainkoaganik heldu baita, eta kreatura guziez gorago altxatzen dela Jainko xoilla baithan kausitzen baitu bere sosegua.

4. Amudio duena bethi da boz, lausterka, eta airetan dabilla den kheñurik xumeenean libro da, deusek eztu trabatzen ez gibelatzen.

Gauza guziak ematen tu Jainkoagatik, zeñña baita harenztat guzia, eta haren baithan guziak kausitzen tu, zeren pausatzen baita ontasun soberano hartan, zeñña guziez gorago baita, eta zeññaganik heldu baitire bertze guziak.

Dohaiñei baiño gehiago behatzen dio hekien emailleari, eta hura ontasun guziak baiño maitteago du bethiere.

Maiz amudioak eztu ezagutzen neurririk, eta bere kharrak badarama mugarri guziez urrunago.

Amudioak eztu karga sentitzen, hura eztu nekheak izitzen, lan garaiari ere lotzen zaio, eztu alegatzen ahal eskasa; zeren uste baitu gauza guziak badakizkiela, eta zillegi zaizkola.

Hala amudioa duena gai da guzietako; hala-koak egiten tu, eta obretan atheratzen millia gauza, zeñei ezpailitzaiote lothuko amudiorik eztuena.

5. Amudioa ezta loakhartzen, loan ere atzarrria dago.

Ezta unhatzen nekheetan, libro gelditzen da hersturetan, ezta altarutzen izialduretan, khar bizi, eta suzko bat bezala altxatzen da zerurat traba guziak ixiturik.

Maite duenak aditzen du boz ixill hura, suzko hasbeherapen hek, plaiñu samur hek, zeñak arima batek egortzen baitiotza Jainkoari, erraten dioenean: O ene Jainkoa, ene amudio bakharra, guzia enea zare, eta ni zurea naiz guzia.

6. Zabal zazu ene bihotza gehiago maita zaitzantzatzat, gusta dezadantzatzat ene baithan zein on den zure maitatzea, eta igeri ibil nadintzatzat amudio saildu hartan, itsaso batean bezala, edo hobeki han urth eta nabazta nadintzatzat.

Oxala posedi banintza osoki amudio hark, eta haren kharraz goriturik, eta gorputzeko sentimenduez gabeturik altxa banendi neure buruaz gorago zurekin bat egiteko.

Ene arimak kanta beza amudiozko kanta, iarraik bekizu, eta airetan ibill bedi zure ondotik, o ene guziz onetsia, zu laudatuaren podorez flaka bedi, eta honda bedi bere bozkarioaren ezintasunean, eta gozoan.

Maita zaitzadan neure burua baiño gehiago, eztezadan maita neure burua zure amoreagatik baizen, eta maita dezantzatzat zure baithan zu maite zaituzten guziak.

Hala manatzen du amudiozko lege hark zeina zure argiaren arraiio bat baita.

7. Amudioak eztu luzamendurik, egiatia da, ezta, agradagarria, prudenta, pairakorra, bihotzduna, leiala, desintresatua; ezen nihork bere

burua bilhatzen duen ponturik galtzen du amudioa.

Amudioa gauza guzietan goardiakor da, humilla da eta xuxena, ezta laxoa, ez gauza banotarar eman, sobrea da, garbia, fermua, pausatua, bere sensuak hertsiki begiarzten dituena.

Hark egiten gaitu obedient gure aitzin gidarien alderat, et mezprezagarri geure begietan.

Zeloz eta ezagutzaz bethea da Jainkoaren alderat, hark inspiratzen daroku esparantza fermu bat agortasunik handienen artean, ezen amudio hura hazten da atsekabeen erdian ere.

8. Hala gauza guzien pairatzerat, eta gauza guzietan bere maitearen borondatearen konplizterat prest eztagoenak eztu merezi haren adiskidearen izena.

Jainkoa maite duena gogotik lothu behar zaiote gauzarik gaitzenei, eta gogorenei, eta zeñ nahi den trebesia gertha dadiñ, eztute behar apartatu bere amudiotik.

VI. KAPITULUA

*Nola amudioa eztagoen atsegiñ
espiritualetan; baiñan bai gudutan
leial izatean.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, ez nauzu aski borthizki, eta aski prudenki oraiño maitatzen.

ARIMAK

Nola bada ene Jauna?

JESU-KRISTOK

Zeren den kontrestarik xumenak utzarazten baitarotzu hasi duzun gauza, eta sobra lehiarekiñ baiztabiltza konsolazioneen bilha.

Ni zin-zinez maite nauena fermu dago tentazioneen erdian, eta eztute haiña etsaiaren agintzek enganatzen.

Eta maite banau ene ontasunez bethetzen dudanean, ez nau gutiago maite atsekabeez frogatzen dudanean.

2. Amudio argituak eztio behatzen hanbat dohaiñaren balioari, nola emaillearen amudioari.

Amudio heren eredura prezatzen tu emaitzak, ez hetarik heldu zaion progotxuaren arabera: eta bere maitea baiño beherago ematen tu haren emaitza guziak.

Amudio jenerosak ene baithan ematen du bere bozkarioa, eta e eneganik dituen onetan, eta on hek guziak baiño gorago ni altxatzen nau.

Halere eztuzu uste behar galdu zarela ez baduzu batzuetan enetzat, edo ene sainduentzat nahi zindukeen bezanbat berotasun sentitzen.

Noizik behiñ sentitzen duzun samurtasun ezti hura ene grazia zure baithan denaren efetu bat da, eta oraidanik parabisuko bozkarioen dastatze suerte bat; baiñan etzaitezela hartan sobra pausa; ezen gustu horiek heldu dire, eta badoaz lauster nik nahi dudan bezala.

Baiñan berthute egiazko, eta merezimendu handi baten seiñalea da gure bihotzeko gutizia gaixtoei kontra egitea, eta deabruak eman nahi darozkigun enganioen arbuiatzea.

3. Etzaitzatela beraz altara zure espiriturat heldu diren imagina banoek, zer nahi den giseta-koak ahal ditezen.

Zaude fermu zure deliberazione onetan, eta zure xedea xuxen idekazu Jainkoaren alderat.

Zure burua sentitzen duzunean betan zeru-raiño altxatua, eta handik berehala erortzen bazare zure espirituzko flakezia, eta imajinazio-ne banotara; eztuzu hrgatik uste behar Ililluramenduzko, eta enganiozko estatuan zarela.

Ezen eztire horiek zure nahitik heldu, aitzitik gogoaren bortxa pairatzen ditutzu; bada gaitzes-ten tutzuiño, eta kontra egiten diozuteiño mere-zimendukotz ditutzu, eta ez zure galtzeko.

4. Orhoit zaite zure etsai zaharrak bere ahal guziak egiten dituela zure gutizia onen debekatzeko eta obra on guzietarik zu gibelatzeko: hala nola baitire, sainduen ohoratzea ene pasionea maiz gogoan erabiltzea, zure bekhatuez urrikire-kiñ orhoitzea, zure bihotzaren goardian egotea, eta berthutean aitziañatzeko deliberazionean fermuki irautea.

Erraintzen tu zure espirituan gogoeta gaixtoak zuri deskustu, eta higuintza emateko, eta zu othoitzetik, eta liburu sainduen irakurtzetik gibelatzeko.

Higuindu xoill zure bekhatuez egiten duzun aithor humilla; eta (ahal balegi) gibela zintzake alde batera komunione saindutik.

Etzazula sinhets, eta, eztuzun hartaz ansiarik, maiz arteak hedatzen badarozkitzu ere.

Egoratzu harenganat heldu zaizkitzun gogoeta gaixtoak, eta errozu:.

Hoa espirtu lizuna; ahalka adi dohakabea.

Hagitz behar haiz lohia horlako haskeriak ene gogorat ekhartzeko.

Aparta akit enganari gaixtoa, eztuk ene gainean deus irabaziko. Ez niauk Jesusek utziko, ene alde gudu egiñen dik, eta laidorekiñ geldituko aiz.

Nahiago tiat sofritu supliziorik handienak, eta heriotzea ere ezen ez hire nahi gaixtora erori.

Ago ixillik, ez akidala mintza gehiago, ezen ez haut hemendik harat adituko zer nahi erranik ere.

Jauna da ene argi, eta ene salbamendua noren beldur niteke.

Etsaiezko oste bat ene kontra altxa baledi ere ezlite izi ene bihotza.

Jainkoa da ene habea, eta ene salbatzaillea.

5. Gudu egizu soldadu fexo batek bezala, eta noizik behiñ flakeziaz erortzen bazarte, altxa zaite lehen baiño indar gehiagorekiñ, seguraturik grazia sendoago batez lagunduko zarela, guziz begira zaite konplazenzia banotik, eta orgilleriatik.

Handik hañitz presuna erortzen dire enganiorat, eta hurren eziñ sendatuzko itsutasun batetarat.

Halako supherbioen, eta bere baithan erhoki fidatzen direnen ererikoa balia bekizu humillago, eta goardiakorrago izateko.

VII. KAPITULUA

*Arimako agortasunetan begiratu
behar dela humiltasuna, eta bakea.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea ezta deus zuretzat hobeagorik, eta seguragorik, nola debozionearen grazia gordetzea; harengatik buruperik ez izatea; hartaz guti minztatzea, zure buruaren meziprezatzea; eta grazia haren beraren beldur izatea, sinhetsirik merezi gabe duzula.

Eztuzu sobra fidatu behar bihotzeko sentimendu samur horietan, hiñ lauster kontrarat ganbia daitekenaz geroztik.

Grazia hura duzuiño orhoit zaite zeñ urrikaltzeko zaren hura eztuzunean.

Bizitze espiritualeko aitziñamendua ezatza bihotzeko konsolazioneen izatean; baiñan nork bere buruari ukho egiñik, humilki hekien gabetasuna pairatzean, zure othoitzak, eta bertze debozionezko praktikak uzten ez ditutzula.

Aitzitik zure ahal guzia egiten duzula berthutean laxatu gabe zure bihotzeko agortasun, eta nahastura guziengatik.

2. Hañitzi erorzen zaie bihotza, eta eskasten pazientzia den trabarik xumeena aurllhitzen duten bezaiñ sarri.

Baiñan gizonaren bidea eztago bethi gizonaren ahalean. Jainko xoillak bere graziak eta konsolezationeak ematen diotzate plazer dutenei, eta plazer duen denboran, eta neurrian.

Bertze batzuk goardia eskasez galdu dire bere debozitionean: zeren ahala baiño gehiago egiñ nahi izan baitute bere flakotasunari behatu gabe, eta gehiago sinhetsi baitute bere bihotzeko zeloa, eta khara, ezen ez bere arrazoiñaren argia.

Eta zeren Jainkoak galdegiten zioten baiño gehiago egiñ nahi izatu duten, galdu dute lauster grazia.

Hegaldatu nahi zuten zeruetan gora, eta erori dire pobreziarat, eta mezipreziorat; humildurik, eta pobreturik ikhas dezatentzat ez abiatzen

fidoski airetan gora; baiñan bere esparantza, eta indarra ene hegalen itzalean ematen.

Jaunaren bidean sarthu berriak, eta oraiño ungi ikhasi gabeak errebelatuko dire falta gabe, eta tulunbiorat eroriko, presuna zuhurren, eta iakinsunen argiez ezpadire gidatzen.

3. Haiñek bere buruak gehiago sinhesten baituzte presuna ungi ikhasiak eta argituak baiño, hekien salbamendua hirrisku handitan dabilla, baldiñ ezpadiote ukho egiten bere sentimendu propioari.

Gutitan gerthatzen da bere buruak zuhur daduzkatenak bertzeez gidatzea.

Hobeago da argi guti, eta humiltasun haiñitz izatea, ezen ez zuhurziazko tresor guziak bere buruaren konplezenzia bano batekiñ.

Hobeago da gutia, ezen ez orgilleria eman dezakeen hañitza.

Prudenziarik ez izatea da bere bihotza bozkarioari osoki ematea, orhoitu gabe bere leheneko gabeaz, eta ahantzirik Jainkoaren beldurtasuna, zeñak bethi goardian baikaduzka, izatu dugun grazia gal eztezagun.

Baiñan berthute guti izatea da halaber penak, eta nahi gabeak ditugun denboran bihotza galtzea etsimendurat erortzea, eta ene ontasunean behar den esparantza ez izatea.

4. Bake denboran bere burua sobra seguratu dadukanak laxo, eta beldurti izanen da gerla denboran.

Bethi humill baziñe, etaxume zure begietan, eta baziñaki zure bihotzeko mobimenduen brida-tzen, eta xuxentzen, etzintezke haiñ lauster errotentazioneen hirriskutarat.

Graziaz gozatzen zarenean on da pensatzea, nola izanen zaren hura eztuzunean: goaten zaitzunean orhoit zaite berriz ere bihur daitekela argi saildu hura, zeña khendu baitarotzut denbora batekotz zure hobeagoagatik, eta ene loriagatik.

5. Frogantza suerte hori hobeago duzu maiz, ezen ez ene graziak, eta fagoreak bethi zure gogara bazintu.

Ezen merezimendua ezatza zeruko bisio-
neen, eta konsolazioneen izatean; ez datza hala-

ber eskritura sainduaren ungi aditzean, ez eta kargu goretarat altxatua izatean; baiñan egiazko humilatsunean finkatua izatean, Jainkoaren amudioz, eta haren loriaren zeloz bethea izatean, nori bere burua ezdeus estimatzean, fiñean nahiago izatean bertzeez izan mezprezatu ezen ez ohoratua.

VIII. KAPITULUA

Nola behar dugun gure burua ezeztatu Jainkoaren aitziñean.

ARIMAK

1. *Mintzatuko othe natzaio ene Jaunari, ni hautsa eta herrautsa baizen ez naizena?*

Zerbait gehiago naizela uste badut, altxatuko zare ene orgilleriaren kontra, eta ene hobenek egiñen dute ene kontra lekhukotasun bat zeinari eziñ deusik ihardetsiko baitiot.

Baiñan ene burua meziprezatzen badut; ezeztatzen banaiz; eta fama bano guziei ihes egiñik ene herrautserat bihurtzen banaiz; orduan zure grazia alde izanen dut, eta zure graziak ene bihotzean distiatuko du.

Eta ene ezteustasunaren tulunbioak iraungituko ditu bethikotz ene amudio, eta estimu prpioaren iñhar guziak.

Estatu hartan erakuxten darotazu zer naizen, eta zer billhakatu naizen. *Zeren eta ezpainaiz egiazki deus, eta hori ez nakien.*

Neure ganat uzten nauzunean ez naiz flakeziarik baizen; baiñan zure begitarte eue ganat itzultzen duzun bezaiñ sarri bethetzen naiz indarrez, eta bozkarioz.

Oi gauza miragarria horla betan altxatzen bainauzu, eta haiñ samurki besarkatzen, ni zeiiña ene pisutasun propioak ezdeusera bainarama.

2. Horra zer egiten duen zure amudioak, nik merezi gabe hasten da ontasunez ene bethetzen; laguntzen nau ene beharretan, beiratzen nau hirriskurik handienetan, eta atheratzen nau milla gaitz suerteen artetik.

Ene burua galdu dut sobera maitatuz; eta zu bakharra bilhaturik, eta maitaturik kausitu zaitut, baita halaber neure burua, eta zure amudioa baliatu zait ene ezteustasunean barrenago sartzeko.

Hala, o Jesus, guziz mansoa egiten darotazu ez solamente nik merezi baiño grazia gehiago; baiñan oraiño zureganik igurikitzen, eta galde-tzerat atrebi naiteken baiño gehiago.

3. Zaren bethiere benedikatua, o Jainkoa!
Zeren grazia guzientzat indigne naizelarik, hale-
re zure jenerostasun, eta ontasun infinitua ezpai-
ta gelditzen niri ungi egitetik, hala nola hañitz
bertze esker gabeei, eta zuretzat higuintzarik
baizen ez dutenei.

Jauna osoki zure ganat itzularaz gaitzazu izan
gaitzentzat esker emaille, humill, jainkotiar;
ezen zu zare gure salbamendua, gure indarra,
eta berthutea.

IX. KAPITULUA

Nola Jainkoa baita guzien fiña, eta azken xedea, hari behaturik egiñ behar direla gauza guziak.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, dohatsu izan nahi baduzu, nik behar dut izan zure xede azkena, eta soberanoa; xede horrek xahutuko ditu zure bihotzeko afekzioak, zeinak maizegi zure baitharat, eta kreaturetarat baitaramatzate.

Ezen zerbaitetan zure burua bilhatzen baduzu eroriko zare berehala flakeziarat, eta agortasunerat.

Niri behar darotazu beraz gauza guzietan behatu gauza guzien xede prinzipalari bezala; ezen nik gauza guziak eman darozkitzut.

Ontasun guziak idukatzu ontasun soberanoetik ethorriak bezala, eta ene ganat bere ethorkira gisa bihurtu beharrak bezala.

2. Eneganik ithurburu bizi batetik bezala, xumeek, eta handiek, pobreek, eta aberatsek hartzen tuzte graziaren urak, eta grazia bat brtze grazia baten saria da ni bihotz onez zerbitzitzen nautenentzat.

Baiñan nork ere nitaz kanpoko ontasun batean eman nahiko baitu bere loria, eta atsegiña, eztu izanen behiñere bozkario ungi finkaturik, ez sosegu egiazkorik bere bihotzean; aitzitik, haren trabak, eta hersturak berretuko dire gero rat gehiago.

Ez beraz eman zure kontuan, edo bertzenean ungerik edo berthuterik, baiñan gauza guziak bihur Jainkoari, zeïña gabe gizonak ezpaitu deus.

Nik eman darozkitzut guziak, eta nik nahi dut guziak posedi dezatzun; baiñan halaber nahi dut hertsiki bihur dietzakidatzun, zor zaizkidan eskerak.

3. Horra egia bat, banaloria guziak sunsitu behar dituen.

Jainkoaren grazia eta egiazko amudioa zure bihotzean sartzen badire, ezta han gehiago iza-

nen ez inbidiarik, ez tristeziarik, ez amudio propiorik.

Ezen Jainkoaren amudioak garaitzen tu gauza guziak, eta berretzen arimaren indarrak.

Egiazki zuhurra bazare emanen duzu ene baithan zure bozkario, eta esparantza guzia, zeren ezpaita nihor onik Jainko xoilla baizen, zeinak behar baitu izan gauza guzien gaiñetik laudatua, et guzietan benedikatua.

X. KAPITULUA

*Zeiñ on den Jainkoaren maitatzea,
eta munduaren mezprezatzea.*

ARIMAK

1. Ez naiz ixillik egonen atrebituko natzaio berriz ere mintzatzerat ene Jainkoari, ene iabea-ri, ene erregeari, zeïña baitago zerurik gorenean.

Oi ala zuk ontasun, eta gozotasun handia gorde baituzu zure beldur direnentzat o ene Jainkoa!

Baiñan zenbatez zare eztiago, eta gozoago zu maitatzen zaituztenentzat, eta bere bihotz guziez zerbitzatzten zaituztenentzat.

Egiaz nihor ezta gai esplikatzeko zuk zure maitatzaillei kontenplazionean ematen diotzotzuten atsegiñak.

Nintzen biño lehenago eman darozkidatzu zure amudioaren seiñale handiak, zeren ezteu- setik athera bainazu ni egiteko, eta formatze-ko: gero zureganik hastandu naizenean ene errebelamendutik erakharri nauzu zure zerbitza-

tzeko; eta zenbat higuin garria banaiz ere manatu darotazu maita zaitzadala.

2. O amudiozko ithurburu eternala, zer erranen dut zutaz, nola zu ahantz zaitzaket, nitaz orhoitu zarenaz geroztik galdua nindabilanean?

Ni zure zerbitzaria bethe nauzu miserikor-diaz, graziez, eta samurtasunez, ez solamente merezitu baiño gehiago; baiñan oraiño esparantzaz guziez gorago.

Hanbat ontasunen orde zer bihurtuko darotzut ene Jainkoa?

Ezen ezta guziei egiten diozuten dohaiña munduari ukho egitea, eta guziak utzirik relijioneko bizitzean sartzea.

Gauza handia da bada nik zu zerbitzatzea, kreatura guziak hortara obligatu direnaz geroztik?

Ez ezta handia, aitzitik handi eta miragarri dena zuk ni zenbat guti gaia, eta dohakabea banaiz ere hartzen bainauzu zure zerbitzaritzat, eta ematen bainauzu zure adiskideen nonbrean.

3. Nik dudan guzia zurea da, nik zu zerbitzatzeari ere zuk niri egiten darotazun dohaiñ bat da.

Baiñan zer egiten darotzut? Hobeki erran diteke zuk ni zerbitzatzaren nauzula, ezen ez nik zu.

Horra non zerua, eta lurra kreatu tutzun gizonaren zerbitzuketan, konplizen tuzte arthozki zuk gure progotxuketan eman diotzotzuten manuak.

Eta hori gauza gutia balitz egiñ ditutzu ainguruak gizonen zaiñ, eta defendatzaile izateko.

Baiñan fagore horiek guziak ixitzen dituenada zrorri beheratu baitzare gizonaren zerbitzariño, eta agindu baitiozu emanen zaizkola zure lorian.

4. Millaka ontasuenn orde zer bihurtuko darotzut?

Oxala ene biziko egunetan zerbitza ahal bazintzat!

Helaz, egun batez bederen digneki zerbitza bazintzak!

Ezen zuk ditutzu merezi zerbitzu guziak ohore, eta loria guziak.

Zu zare ene nausi egiazkoa, eta ni zure zerbitzaria, zerbitzatu behar zaitut ene indar guziez, eta laudatu behin-ere unhatu gabe. Hori nahi dut, hori da ene gutizia, konpli zazu othoi ene ahal eskasa.

5. Ohorerik, eta loriarik handiena balinba zure zerbitzatzea da, eta zure amoreagatik gauza guziak arbuiatzea.

Ezen zure graziez betheko tutzu zure zerbitzuan bihotz onez ematen diren guziak.

Zuregatik munduko atsegiñ banoak uzten dituztenek izanen tuzte espiritu sainduaren konsozazione gozoak; eta munduko arthak utzirik zure loriagatik bizitze hertsuari lotzen zaizkonak bihotzeko libertateaz gozatuko dire.

6. Oi gathibutasun ezti eta maitagarria! zeinñak ardiesten baitio arimari libertatea, eta saindutasuna.

O relijioneko bizitze saindua, zeinñak egiten baitu gizona aingeruen berdiñ, Jainkoarenzat maitagarri, eta giristiño guzientzat xoragarri.

O esklabotasun eziñ aski desira, eta bilha dai-
tekena haren bidez irabazten dugunaz geroztik
ontasun guzien gaiñeko ontasuna, eta bethi irau-
nen duen bozkarioa.

XI. KAPITULUA

*Gutizia onak ere behar ditugula
bridatu espirituaren azpian eman
haragia, eta espiritua Jainkoaren
azpian.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea nahi darozkitzut irakatsi hañitz gauza oraiño ungi eztakizkitzunak.

ARIMAK

Zer bada ene Jainkoa?

JESU-KRISTOK

Zure borondatea eman behar baituzu enea-
ren azpian, ezpaituzu zure burua maitatu behar
ez bilhatu bertzerik ene nahiaren konplitzia bai-
zen.

Maiz zure gutiziek borthizki zarabiltzate;
ordean ikhusazu ungi, ea gutizia hekien xedea
ene loria den, ala zure aisia.

Enegatik hari bazare, zer nahi den ene ordenuz gerha dadiñ kontent izanen zare; baiñan zure xedetan estaliki sartzen bada zure buruaren amudioa, gauza horrek nahasiko zaitu, eta alataratuko.

2. Etzaitzela beraz sobra fida ni konsultatu gabe hartu tutzun deliberazionetan beldurrez urriki dakizun, eta higuin dezazun lehen on zitzaitzuna.

Ezen eztire berehala konplitu behar gure bihotzeko gutizia on diruditenak, eta halaber etzaiote bere berehala ihes egiñ behar gaixto diruditenei.

On da maiz desira onen ere bridatzea beldurrez lehia sobrak barraia dezan gure espiritua, edo zelo gaizki neurthu batez bertzeei eskandala eman diozoguten, edo fiñean bertzeren kontrestak altara gaitzan.

3. Maiz behar da bortxaka hari, eta borthizki kontra egiñ bear zaie sensuen gutiziei, eta beiratu gabe zer nahi duen, edo zer ez haragiak, artha behar da xoillki espiritua haren nausi egiteaz.

Hari behar dugu haren garaitzen eta zentzuzko gauza guzietara prest izan dadiñ arteraiño, gutiz konetnta dadiñ arteraiño, eta den errenkurarik xumeena nahi gabeetan itzur eztakion arteraiño.

XII. KAPITULUA

*Pairakor izan behar dela gaitzetan,
eta arbuiatu behar direla atsegiñak.*

ARIMAK

1. Ene Jauna, eta ene Jainkoa, ikhusten dut pazienziaren behar handian naizela: ezen bizitze hau bethea da hañitz atsekabez.

Zer nahi egiñ dezadan bakean bizitzeko eziñ naiteke gudu eta pena gabe.

JESU-KRISTOK

2. Egia da, ene semea; baiñan eztut nahi billa dezazun bake bat tentazione, eta ondiko gabe-koa.

Aitzitik nahi dut zure bakea eman dezazun zure indarra, eta pazienza frogatzen duten atsekabetan.

Erraten badarotazu eziñ hanbat paira deza-kezula; nola bada pairatuko duzu purgatorioko sua?

Bi gaitzetarik bethi xumeena hautatu behar da.

Hala nahi duzu ez erori sekulako supliziota-rat? Iasan zatzu pazienki oraiko gaitzak Jainkoaren amoreagatik.

Uste duzu munduko presunek ez tutelera deus sofritzen?

Eztuzu hori kausituko munduko dohatsuene-tan ere.

3. Erranen duzu baituztela hek hañitz atse-giñ, bere nahiaren egiten hari direla, hala bere penak arintzen zaizkotela.

4. Baiñan emagun hala dela, eta gauza guziak bere gogara dituztela; horiek guziek zen-bat iraunen dute?

Munduko handi hek guziak iraganen dire khea bezala, hekien atsegiñen orhoitzapenik ere gelditzen eztela.

Eta mundu huntan bizi direiño ere eztire atsegiñ hetaz gozaten khirats, beldur, eta des-kustu gabe. Eta maiz zerk ere egiñ baitu hekien

bozkariarik handiena hark kausatzen ere du hekien dolorerik miñena.

Eta iustu da ene nahiaren kontra atsegiñak bilhatu dituztenek, ez detzaten dasta laido eta behazun gabe.

Oi ala atsegiñ hek guziak laburrak baitire, falsoak, desordenatuak, eta ahalkagarriak.

Baiñan gizonek eztute hori ikhusten munduak itsutu, eta horditu dituenen, aitzitik iduri bestia adimendu gabekoak bere arima ematen dute heriotzeko hirriskuan memen batez iragaten den atsegiñagatik.

Zu beraz ene semea *etzabiltzala zure pasio-
neen ondotik, ukho egiozute zure gutzia desor-
denatuei.*

*Emazu iauna baithan zure bozkarioa, eta
zure bihotzeko galdeak, eta desirak konplitu-
ko darozkitzu.*

5. Nahi baduzu betheki gozatu egiazko boz-
karioez eta konsolazionez, mundua mezipreza-
turik, eta atsegiñei ukho egiñik aurkhituko duzu
ene benedikzioneen eta faboreen gaindidura.

Zenbatenaz gehiago hastanduko baitzare munduko konsolazioneetarik; hanbatenaz aurkituko duzu deskansu gehiago Jainkozko konsolazionetan.

Egia da eztuzu hartarat ardietsiko pena gabe, nekhe, eta gudu gabe.

Zure haztura gaixtoak traba egiñen darotzu; baiñan hobeago batez garaituko duzu.

Haragia altxatuko da zure kontra, baiñan zure espirituaren kharrak heziko du.

Fiñean suge zaharrak armatuko ditu zure kontra bere malezia, eta indar guziak; baiñan othoitzak ihesi egorriko du, eta gero zenbait lan on eta progotxosek zarratuko diote zure bihotzeko athea.

XIII. KAPITULUA

Obedienziaz.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, obedienziatik aldaratzen dena hastantzen da graziatik; eta bere gisa bizi nahi duena gabetzen da baltsan egiten den ungiuz.

Bere aitzin gidariak, gogotik, eta bihotz onez obeditzen eztituenak erakuxten du eztuela haragia ungi hezia; baiñan muthiria, eta maiz espirituaren kontra altxatzen dena.

Ikhasazu beraz berehala obeditzen zure gidariei, baldiñ nahi baduzu zure haragiak obedi zaitzan.

Kanpoko etsaia lauster da garaitu barneko gerla iraungitu denean.

Eztuzu zure arimaren etsai handiagorik, eta gaixtoagorik zeroni baiño, baldiñ zure espiritua-rekiñ bakean ezpazare.

Behar duzu zure burua zin ziñez meziprezatu, nahi baduzu zure haragia eta odola osoki garaitu.

Herabe duzu bertzeren borondateari osoki arrimatzera zeren sobra maite baituzu oraiño zure burua.

2. Zer da miresteke zuk Jainkoagatik obeditzea gizon bati, etzarenaz geroztik herrauts, eta ezdeus baizen? Ni egin naiz bada zuregatik gizonen obedient, naizelarik guziz gora, eta guziz podoroso.

Guzietako humillen eta azken egiñ naiz, ene humiltasuna balia dakizuntzat zure orguilleriaren garaitzeko.

Herrautsa ikhasazu beraz obeditzen; lurra humilia zaite, ongarria uztazu zure burua ostikatzerat.

Ikhasazu zure nahi guziei ukho egiten, eta obediencia guzietarat arrimatzen.

3. Aserra zaite sainduki zure buruaren kontra, eta etzazula utz orguillera zure baithan bizitzerat.

Egizu zure burua haiñ xume, emazu haiñ behera non bapedera baitabilke zure gaiñean karrikako, basaren gaiñean bezala.

Gizon banao zertaz errenkura zaitezke?

Bekhatoroz hanbat maneraz lizundua, nola atrebitzen zare mintzatzerat, zuri egiten zaizkitzun hirriez? Hanbatetan zure kreatzaillea ofensatu, eta ifernua merezitu duzun ondoan.

Bizkitartean ene miserikordiak barkhatu darotzu zeren zure arima preziatu izatu baita ene begietan.

Eta ene amudioaren seiñale horiek eman darozkitzut eneganik izatu tutzun ontasunez behiere ezagutza izan dezazuntzat, eta zutazko meziprezio guziak mansoki paira detzatzuntzat.

XIV. KAPITULUA

*Jainkoaren iuiamenduetan pensatu
behar dugula begiratu obra onen
banaloriatik.*

ARIMAK

1. Jauna, zure iuiamenduen ihurtzuria aditzen dudanean, beldurrak, eta ikharak iharrosten tu ene hezurak, eta ene arima tranzitzen du izialdurak.

Harritua gelditzen naiz, eta nahasia ikhustean zeruak ere eztirela garbi zure begietan.

Baldiñ kausitu baduzu korupzioea aingeruetan ere, eta ezpadiozute barkhatu helaz! Zer izanen da nitaz?

Izar diztiant hek erori dire zerutik, eta nik herrautsa baizen ez naizenak zer burupe duket?

Hañitz presuna zeñen obrek laudagarriak baitziruditen erori dire, eziñ erran bezaiñ behera, eta aingeruen ogiaz hazten zirenek egiñ dute bere atsegiña urdeen bazka lizunaz.

2. Ezta beraz saindutasunik zuk urruntzen baduzu zure eskua gureganik.

Ezta zuhurtziarik zure argiaz ezpada gidatua.

Ezta indarrik zure laguntza gabe.

Ezta garbitasunik segurean, zure grazia gabe.

Eta fiñean gizonen ernetasun guzia ezta deus baliatzen zure artha gabe.

Zu gureganik hastantzen zarenean erortzen gare, eta galtzen gare; zu bihurtzen zaizkigunean altxatzen gare, bixten gare.

Kordokan gare bethi; xoillki zuk borthizten gaitutzu; bethi gare ephel zuk berotzen gaitutzu.

3. Oi ala nik arrazoin baitut neure buruaren meziprezatzeko! Ala nik hagitz behar baitut humiliatu, eta guti prezatu ene baithan on diruriena.

Zertaraiño behar dut ezeztatu zure iuiamenduen tulunbiotan barna sartzen naizenean, zeinnek irakasten baitarotet ezdeusetik heldu naizela, eta ezdeus baizen ez naizela.

O pisutasun neurri gabekoa, karga eziñ iasanezkoa! O itsaso ondo eta bazter gabekoa, zei-

ñetan kausitzen bainaiz hondatua, eta zeñetan nondik nahi mira nadiñ ezpaitut kausitzen ezteustasunik baizen neure baithan.

4. Non gordeko da beraz ene baithan, orguilleriaren erroa, eta ene berthute aphurraz dudan burupea.

Ene banaloria guzia galtzen da, eta hondatzen zure iuiamenduen tulunbio barreanean.

5. Zer da gizona zure aitziñean? *Lurrezko iarroa atrebituko da bada altxatzera bere moldatzaillearen kontra?* Laudorio banoek nola haunt ahal dezakete bihotz bat Jainkoaren aitziñean humiliatua, eta beheititua?

Munduko lausengu guziek eziñ altxa dezakete bihotz bat egia berak azpiratu duena, ez eta aldara laudorio guziet Jainkoa bere esparantza finkatu duena.

Ezen lausengari hek eztire deus; suntsituko dire bere hitzen soiñuarekiñ, *baiñan egia badago eternitate guzian.*

XV. KAPITULUA

*Eztugula nahi behar Jainkoak nahi
duenik baizen.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea huna aldi guzian itxeki behar duzun solasa. Jauna, hauxe egiñ bedi baldiñ zure nahiaren arabera bada. Jauna, gauza hau zure loriarakotz balin bada gertha bedi zure izen sainduaren ohoretan.

Jauna ikhusten baduzu nik nahi dudana on dela ene arimakotz, eta progotxos ene salbamendukotz arren egidazu balia nadiñ zure ohoretan.

Baiñan ezagutzen baduzu kaltiar nukela, khen diezadazu othoi gutizia hura.

Ezen eztire espirtu sainduaganik heldu gutizia guziak, ez eta on eta probetxos diruditenak ere.

Gaitz ere da xuxenki iakitea ea gure desirak heldu diren espirtu onaganik, ala gaixtoaganik, ala eztiren heldu gure espirtu propialetik.

Hañitz presuna azkenerat enganatuak gertatu dire, zeñek baitziduriten hastean espiritu onaz gidatuak zirela.

2. Hala beraz gogorat heldu zaizkigun gauzetarik eztugu behar deus desiratu edo galdetu humiltasunekiñ, eta Jainkoaren beldurtasunekiñ baizen: eta beregaiñki orduan behar tugu utzi guziak Jainkoaren nahirat, eta eran behar diogu errespetu handirekiñ:.

Jauna zuk dakizu zer den hobe: egiñ bedi hau edo hori zure nahi sainduaren arabera.

Indazu plazer duzuna, plazer duzun maneran, eta plazer duzun denboran.

Egizu nitaz behar dela dakizuna: zuk nahien duzuna, eta zure loriarentzat hoberen dena.

Eman nazazu nahi duzun lekhuan, eta gauza guzietan konpli bedi ene baithan zure borondatea.

Zure eskuan naiz, jira nazazu, eta erabill plazer duzun bezala.

Bai Jauna huna non naizen zure zerbitzaria prest gauza guzietarat, ezen eztut enetzat bizi

nahi; baiñan bai zuretzat; oxala egiñ baneza dig-neki eta perfetki.

OTHOITZA

3. O Jesus guziz ona, eta mansoa, egizu arren zure grazia bethi *enekiñ izan* dadiñ, *enekiñ tra-bailla* dadiñ, eta fiñeraiño bethi enekiñ egon dadiñ.

Desiraraz diezadazu bethi gehienik zure gogara dena zure borondatea den bethi enea; enea iarraik bekio bethiere zureari, eta enea bethi iunta bedi zurearekiñ.

Nahi izatea, eta ez nahi izatea diren osoki zure baithan, eta ene baithan halako fazoiñez non ezpaituket ahalik nahi izateko zuk nahi eztuzuna, edo ez nahi izateko zuk nahi eztuzuna.

4. Arren egizu naizen hilla munduko gauza guzientzat, eta dudan lakhet munduaz ahantzia, eta arbuiatua izatea zure amoreagatik.

Egizu arren zure baithan kausi dezadan neure sosegua, eta ene bihotzak gauza guzietan baiño hobeki zure baithan kausi dezan bere bakea, eta bozkarioa.

Zu zare egiazki bihotzeko bakea: zu bakharrik zare gure arimako sosegua.

Zutaz kanpoan ezta penarik, eta kexadurarik baizen.

Beraz ene loa, eta pausua hartuko dut bake soberano hartan, zeïña baitzare zu zeroni, o ene Jainkoa ene ontasun guziz handia, eta eternala, halabiz.

XVI. KAPITULUA

*Jainko xoilla baithan bilhatu behar
dugula gure konsolazionea, eta
sosegua.*

ARIMAK

1. Ene Jainkoa, eztitut hemen igurikitzen; baiñan eternitatean ene deskansukotz desira edo pensa ahal detzakedan gauza guziak.

Munduko konsolazione guziak neronek banitu ere; eta lurreko atsegiñ guziez goza banendi ere, segur da ez litezkela hek guziak denbora luzetako.

Beraz o ene arima eziñ kausi dezakezu bozkario oso, eta perfetik zure Jainkoa baithan bai-zen, zeïña baita pobreen konsolatzaillea, eta humillen habea.

Idurikazu aphur bat ene arima igurikazu konpli daitezen Jainkoaren agintzak, eta ontasun guzien bethetasuna izanen duzu zeruan.

Jainkoaren ordenuen kontra oraingo ontasunak desiratzen baitutzu ontasun eternalak galduko tutzu.

Munduko ontasunez balia zaite eta zerukoak desira zatzu.

Ontasun iragankorrek etzaitzakete osoki kontenta, zeren ezpaitzare egiña hetaz gozatzeko.

2. Munduko ontasun guziak bazintu ere etzintezke hargatik dohatsu, ezen Jainko gauza guzien kreatora baithan datza zure egiazko zoriona.

Bai Jainko xoillak egiten du gure dohatsutasuna, ez munduaren maitatzailleak prezatzen duten bezalakoa; baiñan Jesu-Kristoren zerbitzari leialek igurikitzen duten bezalakoa, eta arima garbiek, eta bere gogo, eta desira guziak zeruan dituztenek noizik behiñ mundu huntan berean gustatzen duten bezalakoa.

Mundu huntako konsolazioneak falsoak dire, eta laburrak.

Ezta atsegiñ egiazkotik, eta iraupenekorik Jainkoak bihotzaren barrenean sentiarazten darokuna baizen.

Gizon iainkotiarrak berekiñ darabilla lekhu guzietarat Jesus-Kristo bere konsolatzaillea, eta erraten dio aldi guzian: Jauna lagun zakizkit denbora, eta lekhu guzietan.

Den ene konsolazionea gizonen konsolazionerik ez nahi izatea.

Eta zure konsolazionea faltatzen bazait ere, zure borondatea, eta zure frogatzak balia dakizkit.

Ezen zure kolerak eztu bethi iraunen, eta zure dixiduak eztire eternalak izanen.

XVII. KAPITULUA

*Gure buruazko artha guziak eman
behar tugula Jainkoa baithan.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, utz nazazu zure alderat nahi dudanaren egiterat, nik badakit zer den on zuretzat.

Zuk gizon gisa gauzez iuiatzen duzu, eta zure gogoetak, hala nola zure gutziak humanoak dire.

ARIMAK

2. Horiek guziak egiak dire, o ene Jainkoa, zuk artha gehiago duzu nitaz nerorrek ahal dukedan baiño.

Zure gaiñean bere artha guziez pausatzen eztena hirrisku handitan dabilla.

Jauna, baldiñ ene borondatea bethi zure baithan fermu badago, egizu nitaz plazer duzuna.

Ezen nitaz egiten duzun guzia eziñ diteke ona baizen.

Nahi duzu izan nadiñ illunbean? zaren benedikatua. Nahi duzu izan nadiñ argian? zaren halaber benedikatua.

Plazer nauzu konsolatu, zaren laudatua; plazer nauzu aflijitu, zaren orobat laudatua.

JESU-KRISTOK

3. Ene semea estatu hortan behar duzu eman zure burua, nahi baduzu enekiñ ibilli.

Haiñ ungi egon behar duzu atsekabeei paratua nola bozkarioei.

Haiñ gogotik izan behar duzu pobre nola aberats.

ARIMAK

4. Jauna zure amoreagatik bihotz onez pairatuko tut zuk egorriko darozkidatzun sofrikari guziak.

Zure eskutik orobat nahi dut hartu ona, eta gaitza, ezia, eta khiratsa, bozkarioa, eta tristezia, eta orobat bethi eskerrak bihurtuko darozkitzut zer nahi den gertha dakidan.

Beira nazazu solamente bekhatutik, eta eztut heriotzearen ez ifernuaren beldurrik izanen.

Baldiñ ezpanauzu bethikotz khentzen zureganik; ezpanauzu urratzen bizitzearen liburutik deusek eziñ kalterik egiñen darot.

XVIII. KAPITULUA

Pazienki behar tugula sofritu munduko lazeriak Jesus-Kristok bezala.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, zure salbamenduagatik zerutik iautsi naiz, eta kargatu naiz zure miseriez, ez baitezpada hala beharrez; baiñan zure ganako amudio phuruz, ikhas dezazuntzat pairatzen, eta bihotz onez mundu huntako atsekabeen iasaten.

Ezen sortu nintzen pontutik gurutzean hil naitzen oreneraiño ez naiz izatu dolore gabe.

Bizi izatu naiz gauza guzien beharrean, aditu ditut maiz ene kontrako iroi, eta errenkura inius-tuak, eztiki pairatu ditut desohoreak, eta laidotak.

Ene ungi egiñak esker gaitzez pagatuak izatu dire.

Ene mirakuilluak blasfemioz, eta ene doktrina afruntuz eta mehatxuz.

ARIMAK

2. Jauna zure bizitzean haiñ pazient izatu zarenaz geroztik, eta puntu hortan guziz zure aitaren, ordenuak konplitu tutzunaz geroztik; iustu da nik zeïña bainaiz bekhatore dohakabe bat pazienki iasan detzadan atsekabeak eta zuk nahi duzun bezanbat denboraz garraia dezadan ene salbamendukotz bizitze flako, eta galkor hunen karga pisua.

Ezen bizitze hau pisu eta penagarri delarik zure graziak egiten du merezidun, eta zure sindu guzien exenpluak etsitzen tu, eta ohoragarri errendatzen mundu huntako sofrikariak.

Konsolazione gehiago ere dugu orai lege zaharrear baino, zeïñetan zeruko athea hertsia baitzen, eta harako bidea gutiago ezagutua noiz eta ere haiñ gutik baitzuten artha bide haren bilhatzeko.

Orduan iustu zirenak ere eziñ sar zitezken zeruko erresuman, zeren hango athea eziñ idek baitziteken zure pasioneko doloreez, eta zure heriotzearen merezimenduez baizen.

3. Zer esker eta ezagutza eztarotzut beraz zor niri, eta fidel guziei egiñ darokuzun graziaz zure erresuman sartzeko haiñ bide zuzena, eta segura erakutxi darokunaz geroz.

Ezen zure bizitzea gure bidea da, eta pazienziaren medioz goaz zure ganat, zeña baitzare gure khoroa, eta golardo.

Zu zeroni ezpaziñe abiatu gure aitziñean, zuk ezpaziñaroku erakutxi bide hura nor sartuko zen sofrikarien bidean.

Zenbat lagoza gibelat, eta hagitz urrun zure exenplu ederrak ezpalituzte begien aitziñean.

Eta hanbat mirakuillu, eta instrukzioeen ondoan ephel, eta nagi bagare; zer liteke bada argi diztiant haren laguntza ezpagindu zuri iarraikitze.

XIX. KAPITULUA

*Nola behar tugun pairatu afruntuak,
eta mezipreziok.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea zer duzu errateko? utz atzu errenkurak beiratu ondoan ene pasioneari, eta sailduen sofrikariei.

Eztuzu oraiño odolaren isurtzeraiño sofritu.

Zure pena guziak deus gutiak dire hañitz bertzen aldean, zeñek pairatu baitituzte haiñ tentazione borthitzak, haiñ atsekabe gogorrak, haiñ frogantza husuak eta luzeak.

Zure gogoan erabil zatzu hekiñ sofrikari handiak, eta zure xumeak errexkiago pairatuko tutzu.

Eta xumeak iduritzen ezpazaizkitzu ikhusazu ea eztituen zure pairu eskasak handitzen.

Baiñan nahiz diren handiak, edo xumeak esaia zaite hekien eztiki pairatzerat.

2. Zenbatenaz baizare sofritzerat emanago, hanbatenaz duzu zuhurtzia eta merezimendu gehiago; eta gaitzak ariñago idurituko zaizkitzu deliberazione fermuez, eta usantza saindu batez borthiztua bazare.

Ezterrazula eziñ paira dezaket han, edo hori hunelakorenganik; ezta hori gauza bat sofritu behar dudana; kalte handi bat egiñ arot; egundaiño orhoitu ez naizen gauzez iroi egiten darot.

Bertze batenganik sofri nezake gogotik; bada gauzarik aski eztiki paira nezakenik.

Solas horiek arrazoin gabekoak dire, eta horla mintzo denak eztu konsideratzen, ez pazienziaren merezimendua ez hura khoroatu behar duen Jainkoa; baiñan bai xoilki nolakoa den egiñ zaion ofensa, eta nor den ofensatzai-ilea.

3. Nahi duenaganik, eta nahi duen bezanbategan baizen sofritu nahi eztuenak eztu egiazko pazienza.

Egiazko pazienziak eztu behatzen norenganik heldu zaion, ala heldu zaion goragokoaganik, ala

berdiñekoaganik, ala prestuaganik, ala gaixtoaganik.

Baiñan nor nahi denek ofensa dezan, zeñ nahi den denboraz, edo zer nahi den maneraz gertha dakion atsekabe hura hartzen du bethiere esker onez Jainkoaren eskutik, eta uste du abantail handi bat dela harenzat, zeren eta Jainkoagatik pairatzen den gauzarik xumeena ezpaita merezimendu gabe.

4. Zaude beraz bethi gudurat prest nahi baduzu izan biktorios. Pazienziaren khoroa eziñ dukezu gudu gabe; ezpaduzu nahi pairatu, eztuzu nahi khoroatu.

Khoroa ardietsi nahi baduzu, egizu gudu bort-hizki, paira zazu pazienki.

Nekhearen saria da sosegua, eta guduaren golardoa biktoria.

ARIMAK

5. Ene Jainkoa zure graziaz errex diezadazu ene baithan naturalezak eziñ daikeena.

Badakizu ez naizela gai hañitz sofritzeko, eta den gaitzik xumeenak bihotza erorarazten darotala.

Ene Jainkoa, egidazu othoi grazia desira, eta maita detzadan zure ohoretan ene frogatzeko egorzen darozkidatzun sofrikari guziak; ezen abantail handi bat da enetzat zure amoreagatik pairatzea, eta persekutatua izatea.

XX. KAPITULUA

*Ezagutu behar tugula gure flakezia
propioak, eta mundu huntako
miseriak.*

ARIMAK

1. *Aithortuko dut ene buruaren kontra ene injustutasuna, bai ene Jainkoa, aithortuko darotzut ene flakotasuna.*

Maiz den gauzarik xumeenak egozten nau, eta tristatzen. Maiz deliberatzen dut borthitz izanena naizela; baiñan tentazionea heldu da bai, erortzen naiz nahasmendurat.

Batzuetan ezteuskeria batek etxatzen nau tentazione handitarat.

Eta noiz ere uste baitut segurean naizela, zeren eztudan hirriskua aitziñean ikhusten betan kausitzen dut neure burua den haizerik xumeenaz etxatua.

2. Urrikal bekizu, Jauna, ene beheratasuna, ene flakotasuna, zutaz ungi ezagutua.

Nauzun urrikari, eta athera nazazu *basatik han sarthua ez nagoen, eziñ nihoiz ilkhizko maneran.*

Horrek bada doloratzen nau, eta ahalkatzen zure aitzinean, ikhustez zein erorkor naizen, eta zein indar guti dudan ene pasioneen garaitzeko.

Eta ez osoki kontenitu arren, halere bethiereko gudu horrek penatzen nau hagitz, et xoil unhatzen naiz ene bizi guzia barneko gerla hortan iragateaz.

Eta oraiño ene flakezia gehiago ezagutarazten darotana da gogoeta lohi, eta ahalkagarriak errexkiago ene ariman sartzen baitire handik ilkhitzen diren baiño.

3. O Israelgo Jainko podoroso, giristiñoen arimak haiñ samurki maite ditutzuna, ikhusatzu zure zerbitzariaren penak, eta nekheak, eta eztiozozula falta zure laguntza bere behar guzietan.

Zeruko indarrak borthitz nazazu; beldurrez naussi dakidan gizon zaharra, haragi dohakabe hau, zeina oraiño ezpaita espirituaz ungi garai-

tua, eta zeinaren kontra bethiereko gudua baitu-
gu.

Helaz! zer da dohakabe hau! Atsekabez, eta lazeriaz guzia kargatua, artez, eta etsaiez alde guzietarik inguratua.

Tentazione bat iragan deneko bertzea heldu da, eta lehenbiziko gudua oraiño dirauela hañitz bertze ageertzen dire betan ustekaberik.

4. Eta nola maita ahal dezakeguke bizitze bat hanbat behazenez bethea, hanbat atzekabeei, eta miseriei paratua.

Nola ere deith ahal daiteke bizitzea, hanbat izurri, eta heriotzeren ithurburu pozoatua.

Guztiarekiñ ere maite dute hañitzek, eta bizitze huntan bere atsegiñak bilhatzen dituzte, hañitz iende errenkuratzen dire mundua gezurtia, eta banoa dela, halere nekhez uzten dute, zeren gure pasioneak gure arimetan sobra baitire nausi.

Hala badire munduan gauza batzuk hura maitarazten darokutenak, eta badire bertze batzuk higuizarazten darokutenak.

Alde batetik *haragiaren gutziek, begietako atsegiñek, bizitzeko orguilleriak* maitarazten darokute mundua, bertze aldetik nekheek penek, eta miseriek (zeiñak baitire bekhatuaren gaztigu iustuak) higuinarazten darokute.

5. Baiñan helaz! munduaren amudioa garaitzen da haiñitzen arimetan, eta munduarekiñ iosiak direnek billatzen tuzte beroki sensuen atsegiñak.

Zeren haiñek ezpaitute egundaiño ikhusi berthutearen edertasuna, ez gustatu Jainkozko gozotasunak eta atsegiñak.

Baiñan mundua zin ziñez arbuiatzen dutenek, eta Jainko xoillarentzat erregela sailduen azpian bizi nahi dutenek ezagutzen tuzte ungi Jainkoak mundua uzten dutenei agintzen diotzaten gozokak, eta deskantsuak, eta ikhusten klarki, zertaraiño mundanoak enganatzen diren berak, eta zertaraiño, bertzeak enganatzen dituzten.

XXI. KAPITULUA

*Jainko xoilla baithan kausitu behar
dugula gure sosegua.*

ARIMAK

1. Ene arima, gauza guzietan, eta gauza guzien gaiñetik pausa zaite zure iauna baithan, ezen hura da saindu guzien sosegu eternala.

O Jesus guziz ezti, eta maitagarria, egidazu grazia zure baithan bake, eta sosegu gehiago kausi dezadan kreatura guzietan baiño, osasunaren, eta edertasunaren abantailletan baiño; ohorean, eta lorian baiño; argietan, eta jakintasunetan baiño; aberastasunetan, eta anzean baiño; bozkario, eta atsegiñetan baiño; fama onean, eta laudorietan baiño; eztitasun, eta konsoalzio-ne guzietan baiño; munduko esparantza, eta agintza guzietan baiño; guk ahal dituzkegun merezimendu, eta nahi saindu guzietan baiño.

Egidazu grazia, ene Jainkoa, gehiago preza zaitzadan zu zerorri zureganik errezibi ahal detzakedan dohaiñ, eta fabore guziak baiño; ene

arimak zureganik izan ahal detzaken plazer, eta bozkario guziak baiño; fiñean egidazu fabore gehiago estima dezadan zure baithako pausu saindua; ezen ez aingeruak arkhanie luak, eta espiritu dohatsuen armadak; ezen ez ontasun ageri direnak, eta eztirenak; eta hitz batez zutaz bertze guziak, o ene Jainkoa.

2. Ezen iauna, zu zerorri zare ona, eta guziz ona gauza guzien gaiñetik zu zerorri zare guziz gora, eta guziz podoroso, zu zerorri zare zuretzat eta bertze guzientzat asko zarena deusen, edo nihoren beharrik ez duzuna.

Zuk zerorrek ematen tutzu egiazko konsolazioneak, eta gozoak.

Zu zerorri zare edertasuna bera, ontasun eta amudio bera: zu zare maiestate, eta loria bera; zu zare ithurburu bakharra, zeñetan baitire, izatu eta eta izanen baitire bethan ontasun guziak bere perfekzionerik handiengan.

Hala zutaz bertze ematen darozkidatzun guziak xume zaizkit, eta eztire asko enetzat, zure buruaz ematen darozkidatzun ezagutzak eta argiak, eta zure loriaz egiten darozkidatzun

agintzek ez naute kontentatzen, ezpazaitut zerrori ikhusten, eta ezpanaiz zure baithan des-kansatzen.

Hortaz non ene bihotzak kausi dezake egiazko sosegurik, eta kontentamendu osorik, ezpada kreatura guziak baiño, eta dohaiñ guziak baiño gorago altxatzen zurekiñ bat egiteko.

3. Ene arimaren espos maitea, Jesus amudio garbiaren ithurburua, mundu guziaren iaun eta iabea, *nork libratuko nau, eta nork emanen darozkit hegadak zure ganaraiño hegaldatzeko, eta zure baithan pausatzeko.*

Helaz! noiz ethorriko da momento dohatsu hura zeñetan bertze lan guziak utzirik ez baitut izanen bertze egitekorik lekat ikhustea eta gustatzea zeñ eztia eta gozoa zaren, o ene iauna eta ene Jainkoa.

Noiz izanen naiz haiñ barna sarthua zure bit-han, haiñ sustatua zure amudioz non ezpaitut neure burua sentituko, eta zu bakarrik gustatuko baitzaitut sensuez goragoko manera batean, zeña ez baitute guziek ezagutzen!

Orai bizi naiz plaiñuen, eta hasbeherapenen erdian, eta ene bizitze dohakabea dolorez iasaten dut.

Ezen miseriazko haran hunetan gerthatzen dire milla gaitz, zeñek ene espiritua altaritzen, nahasten, eta ilhuntzen baitute, eta ene bihotza trabatzen dute, barraiatzen, thirutzen, kargatzen, halako maneraz non eziñ baitoake zure ganaraiño, eta eziñ goza baititeke zure arraiziez, zeñek egiten baitute dohatsuen bethiereko bozkarioa zeruan.

Ene Jainkoa uki bezaitzate ene hasbeherapenek, eta nik lurraren gaiñean pairatzen tudan hanbat gaitz diferentek.

4. O Jesus *loria eternalaren diztiadura* arima desterratuaren konsolamendua. Ene ahoa mutu da zure aitziñean. Baiñan ene bihotza mintzo zaitzu ene ixiltasunaz.

Noiz arteraiño ene iaunak beranduko du ene ganat ethorri gabe.

Bethor ene ganat ene pobrezian ene konsolatzerat.

Heda biezat eskua, eta athera benaza ene lazeria guzien artetik.

Zato Jauna zu gabe eztenaz geroz, bizitzean bozkariozko ez egunik, ez orenik, eta zu zarenaz geroz ene neurrimendua, eta habea.

Hagorandua naiz, mundu huntan presondegi beltz batean bezala gaitzez kargatua, burdiñez herstua, zure presenziaren argiak konsola nazakeen arteraiño, eta zure begitarte arraiak libertatean eman nazan arteraiño.

5. Bertzeek galde bezate zure orde, eta bilha bezate nahi dutena, nik eziñ deus bertzerik maita dutena, nik eziñ deus bertzerik maita dezaket, ezta, eta ezta izanen ene gogarakorik zu baizen, o ene Jainkoa, ene esparantza, eta dohatsutasun eternala.

Ez ez naiz ixilduko; ez naiz behiñere geldituko othoitz egitetik; zure grazia bihur diezadazun arteraiño, eta barrenean ene bihotari mintza zakizkon arteraiño.

JESU-KRISTOK

6. Huna non naizen bada, ene semea, heldu naiz zure ganat, zeren deithu bainauzu.

Zure begietako nigarrek, zure arimako desirrek zure bihotzeko humiltasunak, eta urrikiak iautsarazi naute zerutik, eta erakharri zure ganat.

ARIMAK

Egia da Jauna; deithu zaitut; zutaz gozatzea desiratu dut, eta deliberatu dut gauza guzietan ukho egiterat xoillki zurekiñ iuntatzeagatik.

7. Baiñan zuk lehenbizirik hertxatu nauzu zure bilhatzerat. Zaren beraz benedikatua, ene Jainkoa, zeren zure zerbitzariarentzat hanbat ontasun izatu duzun zure miseriordia infinituaren arabera.

Zer erran dezake beraz gehiago gathibu pobre batek zure aitziñean humiliatzea baizen, behin ere bere bekhatuen, eta beheratasunaren orhoitzapena galdu gabe.

Ezen zeruan, eta lurrean egiñ tutzun gauza miragarri guzietan ezta zure parerik.

*Zure obra guziak perfetak dire, zure iuiamen-
duak zuzentasunez betheak, eta kreatura guziak
zure probidenzia guziz zuhurraz gobernatuak
dire.*

Zaren beraz laudatua, eta lorifikatua o Jesus
aita eternalaren zuhurtzia.

Ene mihiak, ene arimak, eta kreatura guziek
elkharrekiñ lauda, eta benedika bezaitzate eter-
nitate guzian.

XXII. KAPITULUA

*Orhoitu behar dugula bethi,
Jainkoaganik izatu ditugun ungiez.*

ARIMAK

1. *Jauna idek diozozu ene bihotza zure lege sainduari eta irakats diezadazu zure manamenduen bidean ibiltzen.*

Egidazu othoi grazia ezagut dezadan zure borondate saindua, eta errespetu, eta atenezione handirekiñ gogoan erabil detzadan zureganik izatu ditudan ontasun jeneralak, eta partikularrak: hetaz orhoiturik bihur dietzakitzudantzat zor darozkitzudan eskerrak.

Egia da eta aithortzen dut, ez naizela gai zure foborerik xumeenaz ere behar bezala zuri eskerren bihurtzeko.

Infinituki urrun naiz egiñ darozkidatzun ungien merezitzetik, eta ausartatzen naizenean zure jainkozko maiestateraiño begien altxatzerat haren diztiadurak erorarazten nau lilluramendurats, et flakezarat.

2. Arimako eta gorputzeko abantaila guziak barnean eta kanpoan ditugun dohaiñak, nahiz naturazkoak, nahiz graziazkoak, guziak dire zureganik ditugun ungiak, zeiniek ezagutarazten baitute zure manifestentzia; miseriakordia, eta ontasuna.

Batzuek gehigo dute, bertzeek gutiago, baiñan guziak zureak dire; eta nihork eziñ duke den xumeena ere zureganik baizen.

Gehiago errezibitu duenak ezta hargtik burupe gehiago behar, gehiago merezi balu bezala, ezta behar altxatu bertzeak baiño gorago, eta ez arbuiatu gutiago duena; ezen guzietako handiena, eta hoberena da bereganik deus ezuela uste duena, humillen dena, eta zuri eskerren bihurze-ko arthosena.

Egiazki nork ere baitaroka bere buru mezpre-zagarrientzat, eta dohaiñen errezibitzeko gutienik gaitzat, haiña egiten da gai handienen errezibitzeko.

3. Dohaiñ gutiago errezibitu duenak ezte behar tristatu, eta etzaio behar gehiago errezibitu duenari bekhaiztu.

Hobeki behar du miretsi, eta laudatu zure ontasun infinitua, zeñak haiñ liberalki dohaiñik, eta gogotik, isurtzen baititu bere ontasunak gure gaiñerat; presunen handitasunari, edo xumetasunari behatu gabe.

Gauza guzietan zu behar zare laudatu, ene Jainkoa; ezen gauza guziak zureganik heldu dire.

Zuk dakizu zer behar zaion bapederari, eta zertako behar zaion eman batari gutiago, eta bertzeari gehiago, eztagoku guri diferentzia horren egitea, baiñan bai zuri Jauna, zeñak markatu baituzu gizon bakhotxaren merezimenduen neurria.

Hargatik, ene Jainkoa, fabore handi batentzat dagozat ez izatea dohaiñ diztiantik gizonen laudorioak, eta ohoreak ene ganat erakhar dezakenik.

Eta nork ere bere burua pobre, eta bilhuz baitakusa ezte hargatik behar tristatu, eta doloratu, aitzitik boztu behar du; zeren eta zuk, o ene Jainkoa, humillenak, eta munduaren arabera mez-

prezagarrienak hautatu baitituztu zure zerbitzaritzat, eta maitetzat.

Lekhuko dire zure apostoluak, zeinak egiñ *baitituztu zu mundu guziko prinze*.

Bizi izatu dire munduan errenkura gabe.

Haiñ ziren humillak, haiñ malezia, eta enganio gabeak: non hekien boztario guzia baitzen *afrunturik handienen zuregatik pairatzea*, eta zer munduak higuintzen baitu, eta hura gogo onez besarkatzea.

5. Hargatik zu maite zaituenak, eta zure ungi egiñez behar den ezagutza duenak bere atsegiñik handiena behar du izan zure borondatearen egitea, eta desiratzea konpli daitezen haren bait-han zure ordenu eternalak.

Hori behar da izan haren bozkario guzia; eta nahi behar du haiñ gogotik izan xumeena, nola bertze batek nahi bailuke izan handiena; hain kontent behar du izan azkeneko herrunka hortaz, nola bertze batek lehenbizikoaz.

Fiñean hanbat bozkario behar du izan behe-ratua mezipreatua, eta fama gabe izateaz nola

bertzeek bailukete ohoreen, eta loriaren erdian izateaz.

Guziak baiño gehiago estimatu behar duguna da zure loriaren maitatzea, eta hartan bozkario, eta konsolazione gehiago behar dugu kausitu gureganik errezibitu ditugun, eta errezibituko ditugun ontasun guzietan baiño.

XXIII. KAPITULUA

*Lau abisu probetxos bihotzeko
bakearen izateko.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea orai irakatsi nahi darotzut bakearen, bidea, eta egiazko libertatearena.

ARIMAK

2. Egidazu grazia hori, iauna, atsegiñekiñ adituko zaitut.

JESU-KRISTOK

3. Ene semea eman zaite zure nahia baiño hobeki bertzeenaren egitera.

Hauta zazu hobeki gutia, ezen ez hañitza.

Bilha zazu bethiere azkeneko lekhoa, eta eman zaite bertzeak baiño beherago.

Desira zazu, eta othoitz egizu zure baithan egiñ dadiñ Jainkoaren borondatea.

Horra nolako behar duen gizonak bakean, eta soseguan sartzeko.

ARIMAK

4. Iauna, solas labur horrek perfekzione handi bat zarratzen du.

Hitz baiño sensu gehiago da hor eta manu baiño fruitu gehiago.

Erregela horiek leialki beira ahal banetza ez ninteke errexki eror altaramendurat.

Hortaz ezagutzen dut bakea, eta sosegua galdu dudan guzian; zori gaitz hura gerthatu zaitala; zeren maxima saildu horietarik hastandu naizen.

Baiñan zuk ene Jainkoa, zeinak gauza guziak egiñ ahal baitezaketzu, berret diotzadatzu zure graziak, zure manuak konpli detzadantzat, eta egiñ dezadantzat, ene salbamendua.

Gogoeta gaixtoen kontrako othoitza

5. *Ene Jauna, eta ene Jainkoa, etzaitzela urren eneganik, zato othoi ene lagunzerat, ezen hañitz gogoeta gaixto altxatu dire ene kontra eta izialdura handiek altarutzen dute ene arima.*

Hanbat etsaien artetik nola iraganen naiz zaurthu gabe, eta nola nik hek garhaituko ditut?

6. launa, zuk erran darokuzu zure profetaren ahoz: *Ni zure aitziñean ibilliko naiz, eta munduko podorosen orguilleria beheratuko dut. Presondegitako atheak idekiko ditut, eta agertuko ditut gauzarik gordeenak.*

7. Beraz, launa, konpli zazu agindu darokuzuna, *eta ni nahasten nauten gogoeta gaixto guziak suntsi bitez zure aitziñean.*

Ene esparantza, eta konsolazione baxharra ene atsekabe guzietan da zure ganat ihes egitea, zure baithan fidantzia osoaren ematea, zure deitzea, eta othoiztea, zureganikako konsolazio-neak pazienziarekiñ igurikitzea.

*Jainkoaren argien galdetzeko
othoizta*

8. Jesus guziz ona, eta maitagarria, argi nazazu, othoi, barreneko argiaren arraioez, eta khenzatu ene arimatik ilhunbe guziak.

Eztezazula utz ene espiritua errebelatzerat, eta ez atzu ene tentazione muthiriak.

Egizu gudu ene alde, egor atzu ihesi bestia kruek hek, pasione gaixto hek, zeñnek gure gal-tzeko lausengatzen baikaituzte, *zure bothereak bakea eman diezadantzat*, eta ene arima garbi-turik egiñ dadintzat tenplu saindu bat, zeñetan kontu gabe adituko baitire zure laudoriozko kantak.

Mana diozozute haizeei, eta tenpestei, errozu itsasoari pausa adi, eta haizeari geldi adi, eta berehala egiñen da kalma handi bat ene ariman.

9. *Egorazu zure argia, eta zure egia lurraren gainean diztia dezatentzat; ezen ni naiz lur hura ilhun, eta agor dagoena, zuk argi dezakezun arteraiño.*

Zure graziak isur atzu ene gainerat, zeruko ihinz hartaz; busti zazu ene arima, egor atzu debozione samur baten uriak lurraren ihinztatze-ko, eta hari erakartzeko fruitu onak, eta exze-lentak.

Altxa zazu ene arima bere bekhatuen karga pisuaz zapatua, ene desirak itxek atzu zeruko gauzei lothuak, dohatsutasun soberanoaren goz-

tasuna dastatu ondoan ahalka nadintzat lurrerat gogoaren dedatzeaz.

O thira nazazu, ene Jainkoa, eta osoki aparta nazazu kreaturen iragaitzazko konsolamendu guzietarik, ezen ezta kreaturarik ene bihotza osoki sosega, eta deskantsa dezakenik.

Bat egiñ nazazu zurekiñ bethikotz zure amudioaren lokharri ezin urratuzkoaz; ezen zu zare baxharra zure maitatzailleentzat asko zarena, eta zu gabe alfer dire bertze guziak.

XXIV. KAPITULUA

*Eztugula behar kuriostasunik
bertzeren berrien iakiteko.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea etzaren kurios, eta eztezazula traba zure espiritua behar gabeko arthez.

Hunelako, edo halako egitekotan zer dohatzu zuri, xoilki iarraik zakizkit niri.

Batak duen hunelako, edo halako umore; bertzeak egiñ dezan hau, erran dezan hori, edo hura zuk zer axola behar duzu.

Ez duzu zuk bertzeentzat ihardetsiko; baiñan zure buruaz kontu eman beharko duzu; zergatik beraz horla khexatzen zare, zuri eztoazkitzun egitekoez.

Nik ezagutzen tut gizon gaziak, ikhusten tut iguzki azpian iragaten diren guziak, badakit bapedera zer den, zer darabillan gogoan, zer nahi duen, zer xedez hari den.

Niri behar zaizkit utzi artha horiek; zu zaude soseguan, eta utzatzu khexosak khexa ditezela nahi duten bezanbat.

Zer ere egiñen baitu, edo erranen gizonak bere kontuko izanen du; ni eziñ enganatuko nau.

2. Etzabilzala fama handi bat ardietsi beharrez hañitz adiskide egiñ nahiz, edo handien estimua merezitu beharrez.

Horiek guziak eztire espirituaren barraiatzeko, eta bihotza ilhunbeez bethetzeko baizen.

Adiaraz niezazuke gogotik ene hitz, eta ager sekretu gordeak; begira baziñaudez noiz heldu naizen zure ganat; eta idokitzen baziñarot zure bihotzeko athea.

Zaren beraz goardiakor, atzarria othoitzean, eta humill gauza guzietan.

XXV. KAPITULUA

Zertan dagoen bihotzeko bakea, eta aitziñamendu espiritualala.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea erran diotet ene dizipuluei: *uzten darotzuet ene bakea, ematen darotzuet ene bakea, eta eztarotzuet ematen munduk ematen duen bezala.*

Guziek nahi dute bakea: ordean guziek ezituzte bilhatzen bake egiazkoaren ardiesteko bideak.

Ene bakea bihotzez humill, eta ezti direnentzat da.

Kausituko duzu bakea, baldiñ pazientzia handia baduzu.

Baldiñ aditzen banauzu, eta ene manuak beiratzen baitutzu sosegu handi batez gozatuko zare.

ARIMAK

2. Zer beraz egiñen dut, launa?

JESU-KRISTOK

3. Goardia hersi bat idukazu erraten, eta egi-ten tutzun gauza guzien gaiñean.

Eztuzun bertze xederik ene gogara egitea baizen, eta nitaz kanpoan ez dezazula deus ere ez billha, ez desira.

Ezteazula temerarioki iuia bertzeen erranez, eta egiñez, eta ezteazula traba zure burua zure egiteko eztirenez. Manera hortan gutitan izanen zare altaratu, edo zure altaramenduak guti iraunen du.

Ezen bihotza bethi soseguan izatea eta gorputzean, edo espirituan penarik ez sentitzea, hori eziñ daiteke bizitze huntan, eta aurkhituko da solamente eternitateko posuan.

Ez duzun beraz uste bake egiazkoa ediren duzula, zeren ez duzun gaitzik pairatzen; edo osoki ona zarela, zeren ez duzun etsaiik; edo guzia perfeta zarela, zeren gauza guziak zure gogara doazkitzun.

Etzazula halaber iduk zure burua berthute handitakotzat, eta Jainkoaz bereziki maitatutzat,

deboziora, eta fermutasun hañitz zure baithan sentitzen duzunean.

Ezta seiñale horietan ezagutzen berthutearen maitatzaille egiazkoa, eta eztago hortan gure aitziñamendu espirituala, eta perfekzioea.

ARIMAK

4. Zertan bada launa?

JESU-KRISTOK

5. Perfekzioea dago zure burua Jainkoari zure bihotz guziaz sakrifikatzean, eta zure abantailak niholere ez billhatzean, ez gauza xumetan, ez handitan, ez denboran, ez eternitatean. Halako manieraz bai non bisaia bethi kontent duzula zure eskerrak bihurtuko baitiotzozu Jainkoari, haiñ ungi zorigaitzetan, nola zori-onean, guziak zuretzat orobat idukirik.

Baldiñ baduzu indarririk, eta bihotzik asko, barreneko konsolazioneak galdu ondoan gaitz handiagoen ere pairatzera preparatzeko; baldiñ ezpaduzu zure burua iustificatzen, allegaturik merezitu gabe gaztigu gogor hek pairatzen tutzula, aitzitik ene probidenzia, eta saindutasu-

na adoratzen badituztu gerthatzen zaizkitzun gaitz guzietan. Orduan ibilliko zare bakearen bidean, eta esparantza ahal dukezu *berriz ere izanen duzula ene ikhusteko bozkarioa*.

Baiñan zure buruaren mezprezio oso baterat hel ahal bazaite gozatuko zare bakezko abundanziarik handienaz; bederen mundu huntako desterruan ahal daiteken bezanbat.

XXVI. KAPITULUA

*Espirituko libertatea ardiesten dela,
irakurtzez baiño hobeki othoitzez.*

ARIMAK

1. Ezagutzen dut, launa, gizon perfet bati daokala, zeruko gauzetarik espiritua ez apartatzea, mundu huntako arthen erdien artha gabe izatea, ez tontotasunezko indiferentzia batez, baiñan arima libro, eta kreaturetarik lexatuaren pribilejio berezi batez.

2. Othoizten zaitut, o ene launa, begira nazazun mundu huntako artha sobretarik, beldurrez hetan traba nadiñ, gorputzeko beharretarik, beldurrez hekien konplitzen hari naizela, atsegiñak atzaman nazan; fiñean ene salbamenduko traba guzietarik beldurrez trebesiez unhatu eta flakatu ondoan eror nadiñ.

Eztarotzut galdegiten solamente beira nazazu mundanoek lehia handirekiñ bilhatzen dituzten gauzetarik, baiñan oraiño libra nazazun

miseria hetarik zeñak baitire gizon guzien pena, eta maledikziona komunak, zeñek ene arima pisatzen baitute, eta debekatzen nahi luken bezanbat libertaterekiñ espirituaren bidean ibiltzetik.

3. O ene Jainkoa atsegiñ egiazkoen ithurburua ganbia dietzadatzu behazunetarat haragiaren gezurrezko konsolaziona guziak, zeñek ontasun eternalen amudiotik gibelatzen baikaituzte, eta bere ganat thiratzzen presenteko atsegiñ iragankor baten itxurapen enganiosez.

Haragiak, eta odolak ene Jainkoa ez nazaten garai, munduak, eta haren loria falsoak ez nazaten lilura, deabruak, eta haren malezia guziak ez nazaten engana.

Indazu indarra gudu egiteko, pazienza pairatzeko, eta konstanzia fiñeraiño irauteko.

Munduko konsolamendu banoak ganbia zatzu zure espirituaren ganzuduru guziz eztirat, eta haragiaren amudioa zure izen sinduaren amudiorat.

4. Oi ala iatea, edatea, eta bertze gorputza-
ren beharrak karga baitzaizko zu maite zaituen
arima bati.

Egidazu grazia, ene Jainkoa, gure flakeziaren
erremedio horiez balia nadiñ sobreki, eta ez
atsegiñagatik, edo sobraniaz.

Ezen hek osoki utz detzakegu zeren naturale-
za hagoan itxeki behar baitugu, baiñan zure lege
sainduak debekatzen daroku hetarik behar
baiño, gehiago hartzea, edo hetan sensuen bil-
hatzea, zeren bertzela haragia altxa bailiteke
espirituaren kontra.

Zure esku botheretsuak, ene Jainkoa, gida
benaza, eta goarda sobrania guzietarik.

XXVII. KAPITULUA

*Gure buruentzat dugun amudioak
gibelatzen gaituela ontasun
soberanoaren amudiotik.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, eman behar duzu guzia, guziagatik, eman behar zaizkit guzia; nahi banauzu izan osoki.

Jakiñ zazu deusek ere eziñ hanbat kalte egiñ diezazukela nola zure buruarentzat duzun amudioak.

Zenbatenaz baituzu amudio propio gehiago, hanbatenaz, zare creaturekiñ iosiago.

Zure amudioa sinplea, garbia, eta xuxena balin bada, etzare munduko gauzen gethibu izanen.

Etzazula desira, iatea zillhegi etzaitzuna. Eta etzazula izan deus ere traba zaitzakenik, edo espirituko libertateaz gabe zaitzakenik.

Miresteko da nola eztuzun bihotzaren barne-
tik uzten ene ganat zure burua, zuk desira, edo
izan ahal detzakezun guziekiñ.

2. Zergatik tristezia banoez ahitzen zare, eta
nekhatzen artha sobraniakoez?

Zatxazko fermuki ene borondateari, eta deu-
sek eziñ kalterik egiñen darotzu.

Lotzen bazaizko gauza bati baiño hobeki ber-
tze bati; lekhu bat hautatzen baduzu, eta uzten
bertze bat zure aisiagatik, eta zure kontenta-
mendu propialagatik; etzare behiñ ere izanen
griña eta khexagune gabe, zeren kausituko bai-
tuzu gauza guzietan eskasak, eta kontrestak
lekhu guzietan.

3. Ezta beraz heldu bihotzeko bakea mundu-
ko gauzen izatetik, ez eta hek nombre handian
izatetik ere, baiñan hek arbuiatzetik, eta biho-
tzez uztetik.

Eta gauza hori erran behar da ez solamente
aberastasunez, baiñan oraiño ohoreen, eta lau-
dorioen gutiziaz ere, ezen iragaten da mundua,
eta munduarekiñ gauza horiek guziak.

Lekhuaren saindutasuna guti baliatzen da espirituaren kharra eskas denean, eta kanpotik bilhatzen dugun bakeak guti iraunen du: ezpalin badu bere zimendua bihotzeko bakean.

Erran nahi da ezpazare enekiñ borthizki lot-hua, alda bezaitezke; baiñan hobe eziñ zaitezke.

Ezen lehenbiziko aldian kausituko tutzu zureganik hastandu nahi izan ditutzun gaitz guziak, eta menturaz, gehiago ere.

*Othoitza bihotzeko garbitasuna
Jainkoari galdetzeko*

4. Ene Jainkoa borthitz nazazu espiritu sainduaren graziaz.

Borthitz zazu ene baithan gizon barrenekoa.

Libra zazu ene bihotza munduko artha, eta griña guzietarik.

Etzazula utz ene bihotza thira dezan bere ganat zer nahi den gauza txar, edo baliosen guti-ziak.

Egidazu grazia munduko gauza guziei beha diozotedan gauza iragankorrei bezala, eta orhoit nadiñ neroni ere hekiekiñ batean lauster iragannen naizela; *zeren ezpaita iguzkiaren azpian*

deus iraupenekorik; eta guziak baitire banitate, eta espirituko atsekabe.

Oi ala dohatsu baita gauzei manera hortan behatzen diotena.

5. Indazu, launa, Jainkozko zuhurtzia hori; ikhas dezadantzat zu gauza guzien gaiñetik bilhatzen, kausitzen, gustatzen, eta maitatzen. Eta gauza guzietz iuiatzen bere baithan direnaren arabera, eta zure probidenziak eman dioten berrunkaren arabera.

Indazu behar den prudenzia lausenguen eneganik urruntzeko, et kontresten mansoki iasateko.

Ezen zuhurtzia handi bat da gizonen hitz banoen mezprezatzea, eta sirena perillosen kanta ezteiei, eta lausengu xarmagarriei beharria tapatzea.

Manera hortan ibilliko gare seguranzarekiñ Jainkoaren bideetan.

XXVIII. KAPITULUA

*Eztugula izan behar mihi gaixtoen
beldur.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, paira zazu asarratu gabe zure kontra nihork gogoan iragaten badu, edo erraten zerbait.

Ezen zenbait estimu guti zutaz iendeek egi-ten badute ere: zerorrek oraiño gutiago behar duzu zure burua prezatu, eta uste behar duzu eztela flakeziarik zurearen parerik.

Barrenkoia, eta espirituala bazare kontu guti egiñen duzu haizeak daramatzen hitzez.

Prudenzia handi bat da, gerthatzen zaizkigun gaizetan, eta nahi gabeetan ixillik egotea, ene ganat bihotzez itzultzea, eta gizonen iuiamen-
duez ez altaratzeari.

2. Zure bakearen izateak edo ez izateak ez du egon behar gizonen errankizunetan; ezen nahiz

iendeak zutaz mintzat ditezen ungi edo gaizki, etzare hargatik zarenetik bertze bat.

Non da zure ustez bake egiazkoa, eta egiazko loria? Ez othe dago ene baithan?

Bai segur, eta nork ere ezpaitu gizonen desgogarako izateko beldurrik, haiña gozatuko da bake handi batez.

Eta kontrara, bihotzeko khexagune, eta espirituko barraiadura guziak sortzen dire amudio desordenatutik eta gizonentzat dugun beldurtasun banotik.

XXIX. KAPITULUA

*Othoiztu, eta laudatu behar dela
Jainkoa atsekabetan.*

ARIMAK

1. launa, zuk nahi izatu duzu tentazione edo atsekabe hau gertha zekidan, den zure izena benedikatua eternitate guzian.

Nola eziñ itzur bainakioke, zure ganat behar dut ihes egiñ; zuk lagun nazazuntat haren iasaten, eta ene progotxukotz gertharaz dezazuntzat.

launa altaratua naiz guzia ene bihotzak eziñ kausi dezake sosegurik, pasione hunek banarabilla: eta tormentatzen nau.

Zer erranen darotzut, o ene aita guziz onetsia, orai ni naizen hersturan.

Hau da guduko orena, khexa zaite ene lagun-tzerat.

Baiñan denbora hau ethorri da ene ganat, zu gehiago lorifika zaitezentzat, ni libratu hanbateraiño humiliatu nauzun ondoan.

launa beraz othoi heda dioezadazu eskua, eta athera nazazu hirriskutik.

Ezen naizen bezalako gaxoa, zer daiket, eta norat noake zu gabe?

launa indazu aldi huntan ere pazienza.

Lagun nazazu ene Jainkoa, eta zenbat hertua banaiz ere ez naiz beldur izanen.

2. Baiñan arte hortan zer erran ahal diezazuket lekat? *launa zure borondatea konpli dedilla-la.*

Ungi merezituak ditut iasaten tudan penak.

Pairatu behar ditut Jainkoa nahi duela pazienziarekiñ iasan detzadan, tenpesta iragan, eta kalma bihur daiteken arteraiño.

Zure esku guziz botheretsuak athera nazake tentazione huntarik, edo ema dezake atsekabe hau, ni erortzetik gibelatzeko lehenetan asko aldiz egiñ nauzun bezala, o miserikordiazko Jainkoa.

Ezen zenbatenaz baitzait niri gaitzago, hanbatenaz da ene librantza errexago Jainko guziz goraren eskuarentzat.

XXX. KAPITULUA

*Nola behar dugun Jainkoaren
laguntza galdetu, esparantarekiñ
grazia bihurtuko zaizula.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, *ni naiz Jauna atsekabetan ari-mak borthizten ditudana*. Zato ene ganat penatua zarenean.

Badakizu zergatik eztutzun lauster izaten zeruko konsolazioneak? Hori heldu da zeren nekhezegi galdegiten baitituzu orazionean.

Ezen othoitz khartsu batez baliatu baiño lehen, kanpoko konsoalzioneen ondoan abiatzen zare, eta enplegatzen tutzu gizonen erremedio banoak.

Hargatik hek guziak guti baliatzen zaizkitzu, ezagut dezakezun arteraiño, *Ni naizela bakharra ene baithan esparantza dutenak*, hirriskutik athera detzakedana, eta nitaz kanpoan eztela asko den laguntzarik, on den konseillurik, probetxos den erremediorik.

Baiñan orai tenpesta gelditu denaz geroztik, eta gure espiritua sosegatuago denaz geroztik har zatzu zure lehenagoko indarrak ene miseri-kordien argiak dirabeiño.

Ezen hurbill naiz zureganik ez xoillki gauza guziak leheneko estatuan ezartzeko baiñan orai-ño zu grazia berriez bethetzeko.

2. *Bada enetzat deus gaitzik?* ala izanen naiz erraten duena, eta egiten eztuena bezalako?

Non da zure fedea? zaude fermu, eta iraun zazu ungian.

Zaren pairukor, eta indartsu bere denboran ethorriko da konsolzionea.

Zaude ene beira, igurik nazazu, *ethorriko naiz segur, eia sendatuko zaitut.*

Tentazione iragankor batek penatzen zaitu, izialdura bano batek altaratzen zaitu.

Zer probetxu duzu zure buruaren khexatzea, eta nahastea, ethorkizuneko gauza segur eztire-nengatik? Hori da zure gaitzen berretzea, eta zure buruari tristeziaren gaiñerat ematea. *Egun bakhotxak asko du bere pena.*

Gauza bano, eta alfer bat da ethorkizuneko gauzez, eta nioiz menturaz gertatuko eztirenez tristatzea, edo boztea.

3. Gizonen arintasunaren marka bat da bere burua halako gogoeta banoez enganatzerat uztea, eta arima flako baten seiñalea da haiñ errexki gure etsaiak gogoratzen darokuna sinhestea.

Ezen hari orobat zaio baliatzea gezurraz edo egiaz, baldiñ heltzen bada gure enganatzerat.

Eztu axolarik ala eroraraz gaitzan oraingo gauzen amudioaz, ala gerokoen beldurraz.

Etzaitezela beraz altara; ez bedi izi zure biho-tza.

Sinhetsazu ene baithan, eta emazu zure esparantza ene miserikordian.

Noiz ere uste baituzu urrun naizela zureganik, orduan maiz zure hurbillean naiz.

Eta uste duzunean guziak zuretzat galdu direla; orduan duzu maiz merezitzekotz paradarik hoberena.

Gauzak gure nahien kontra direnean eztire hargatik bethi zure bidegabetan.

Eztuzu zure buruaz iuiatu behar barreanean duzun khexagunearen arabera, eta nondik nahi den ethor dakizun atsekabea etzaitzu bihotza erori behar, handik ilkhitzeko esparantza guziak galdu bazintu bezala.

4. Zerbait damu noizik behiñ egortzen darotzudan arren, edo zerbait konsoalzionez gabetzen zaitudan arren eztuzu uste behar bethikotz utzia; ezen bide hortaz ardiesten da zeruko erresuma.

Duda gabe hobeago da zuretzat, eta ni zerbitzatzen nauten guzientzat atsekabeez frogatuak izan zaitezten ezen ez gauza guziak zuen gogarra doazen.

Ezagutzen tut zure gogoetarik gordeenak, eta badakit on dela zure salbamendukotz utz zaitzadan noizik behiñ, agortasunean: beldurrez zure nahira gauzak izateak eroraraz zaitzan orguilleriarat, eta zure burua lausenga dezazun sinhetsirik etzarena bazarela.

Eman dudana khen dezaket, eta bihur ere plazer dudanean.

5. Ematen badut, enea ematen dut; eramaten badut, eztut zurea hartzen; zeren eneak baitire ontasun, eta dohaiñ perfet guziak.

Beraz zerbait pena, edo atsekabe egortzen darotzudanean, ez bekizu hargatik eror bihotza; ezen zure gaitzak ariñ detzaket berehala, eta ganbia detzaket bozkariorat zure nahi gabeak.

Eta horla egiten dudanean, ez naiz hargatik gutiago iustu, eta eztut laudorio gutiago merezi.

6. Zuhurra bazare, eta gauzei egiaren arabera behatzen badiozute, eztuzu behar atsekabean hanbat tristatu; aitzitik boztu, eta niri eskerak bihurtu.

Zure bozkario baxarra behar liteke, *nik zuri mundu huntan guphidetsi gabe atsekabeak egortzea.*

Noizpait erran diotet ene dizipulu guziz onesiei: *Aitak ni maitatu nauen bezala zaituztet maite.*

Bizkitartean eztitut egorri mundurat hango atsegiñez gozatzerat; baiñan gudu handien pairatzerat, ez ohoratuak; baiñan mezprezatuak

izaterat, ez pausuan egoterat; baiñan pazienza-
ren bidez fruitu hañitzen ekhartzerat.

Ene semea orhoit zaite bethi hitz horiez.

XXXI. KAPITULUA

Kreatura guziak arbuiatu behar ditugula, nahi badugu kreatzaillea kausitu.

ARIMAK

1. launa haiñitz grazien beharra dut oraiño, ardietsiko badut estatu hura zeinetan kreatura batek ere ezpanau trabatuko.

Ezen zerbaitek itxekiten darotaiño eziñ zureganat libroki hegaldak naiteke.

Hala nahi zuen altxatu profetak, zionean: *Nork emanen darozkit hegaldak uso bati bezala, hegaldak nadintzat, airean noan, eta aurkhi dezadan pausa lekhu bat.*

Zer da bakezkoagorik *begi sinplea baiño?* eta libroagorik mundu huntan deus desiratzen eztuena baiño?

Altxatu behar da beraz gauza kreatu guzietz gorago, utzi osoki nork bere burua, eta goratasun hartan ezagutu zu zarela gauza guzietz krea-

tzaillea, eta zure obra guzietan eztela zure pare-rik.

Orduan arima ezpada osoki lurreko gauzeta-rik lexatua, ezta nihoiz ere gai izanen zeruko gauzetan gogoia finkatzeko.

Hargatik dire bakhanak kontenplazionekotz gai diren presunak, zeren gutiak baitire ontasun irankorretarik osoki apartatzen direnak.

2. Hortakotz behar da grazia handi bat arima altxa dezakena bere buruaz gorago.

Eta gizona ezpada ematen espirituaren goratasun hortan, eta kreatura guziez billhuzirik, ezpada Jainkoarekiñ osoki iuntatzen, ez dire deus kondatu behar haren iakiñ, eta izan guziak.

Nork ere uste baitu badela deus handirik ontasun soberanoaz, neurri gabeaz, eta eterna-laz kanpoan, haina apha egonen da, eta herrestan ibilliko da luzaro.

Jainko ez den guzia ezta deus, eta ezdeus behar da estimatu.

Diferenzia handia da gizon prestu Jainkoak argitzen duen baten zuhurtziaren, eta theologo

batek liburutarik atheratzen duen iakintasunaren artean.

Zerutik heldu diren argiak, eta graziak gure bihotzetarat isurtzen dituenak hagitzez dire baliosagoak, ezen ez gizonaren espirituak bere nekhez, eta estudioz ardiesten dituenak.

3. Haiñitzek nahi lukete altxatu zeruko gauzen kontenplazionerat; ordean eztute egiñ nahi haiñ ontasun handiaren ardiesteko behar dena.

Gu estatu dohatsu hartarik gehienik gibelatzen gaituena da, zeren gauza kanpokoei, eta sensuen gogarakoei lotzen baikaizkote, eta zeren artha guti baitugu gure buruaren mortifikatzeko.

Eztakit zer den, edo zer espirituk garabiltzan, edo zer nahi dugun guk espiritualtzat pasatu nahi dugunok.

Nekhe, eta artha haiñitz hartzen dugu ontasun ezteus, eta iragankorrenzat, eta eztugu hurren behiñ-ere pensatzen nola xuxen ahal dezakegun gure barrena, eta itxek bilduak gure sensuak.

4. Helaz! ez gare haiñ lauster gure barreanean sartzen, non ez garen berehala ilkhitzen, eta eztitugu behiñere behar bezaiñ hersiki gure obrak pisatzen.

Eztugu ikhusten zeñ behera dabiltzan gure gutziak, eta eztingu nigarrrik egiten ikhustez ez gareliz lizuntasunik baizen.

Jainkoak *egorri zuen uholde handia lurrerat, zeren haragi guziak lohitu baitzuen bere bidea.*

Hala gure bihotzeko afekzioriek gaixtatuak direnean, eta gure arima bere indarrez gabetua edireten denean, baitezpada gure kanpoko akzioriek ere sentitu behar dute barreneko flakezia, eta korrupzioe hura.

Ezen bizitze onaren fruitua bihotz garbitik sortzen da.

5. Galdetzen da maiz zer nihork egiten duen; baiñan guti kntutan hartzen da zer xedez hari den.

Galdegiten da gizon batez, ea balenta den, aberatsa, edo ungi eskribatzen, edo kantatzen duen, ea bere ofizioan fexoa den.

Orduan ea espirituzkoa, pobrea den, ea pairukorra, mansoa, barrenkoa den. Nihor ezta mintzo.

Naturaleza, eta grazia hagitz dire diferent, hark eztio behatzen kanpoari baizen, hau berriz barrenera dago beira.

Naturaleza maiz enganatzen da, graziak ez enganatzeko Jainkoa baithan ematen du bere esparantza.

XXXII. KAPITULUA

*Bapederak ukho egiñ behar dioela
bere buruari, eta bere gutiziei.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, zure buruari alde baterat ukho egiten ezpadiozu, libertate oso bat eziñ ardietsiko duzu.

Badire batzuek bere eskuko izan nahi dutenak, bere buruen maitatzailleak, gutiziosak, kuriosak, horrat, hunat bethi dabiltzanak, bere aisiak bilhatzen dituztenak eta, ez Jesu-Kristoren gogarako gauak; bethi gogoeta berritan dabiltzanak, eta deseñu iraupenezkorik behiñ ere hartzen ezutenak; eta hek guziak gathibu dire, eta amarratuak daduzkate haragiak, eta deabruak.

Ezen Jainkoaganik heldu eztena desegiten da, eta erortzen da lauster ezdeusetarat.

Orhoit zaite bethi hitz labur, eta perfekzione guzia zarratzen duen huntaz.

Utzatzu guziak, eta kausituko tutzu guziak.

Ukho egiozute zure pasionei, eta edirenen duzu egiazko sosegua.

Egia hori erabillazu maiz zure gogoan, eta obratzen baduzu, gauza guziak iakiñen tuzketzu.

ARIMAK

2. launa ezta hori egun bateko lana, eta ez haur dosteta, hitz labur horiek zarratzen dute erlijioneko perfekzione guzia.

JESU-KRISTOK

Ene semea eztuzu gibela goan behar, eta bihotza galdu behar perfekzioneko bidea erakuxten zaitzunean, aitzitik altxatu behar duzu zure arima estatu gora hartarat, edo bederen ensaiatu zure desirez, harat igaterat.

Oxala hartan baziñe, eta ethorri baziñe zeure buruaren ez gehiago maitatzeraiño; baiñan onesteraiño solamente ene borondate saindua, zeña markatzen baizatzu zure aitzidarien ordenuez.

Oi ala orduan ene gogarako baitzintezke! eta zure bizia bakez, eta bozkarioz bethea bailiteke.

Hañitz gauzez behar duzu oraiño billhuzi; zein-ñak ezpaditut osoki enegatik utzi nahi ezpadituzu sekulan ardietsiko galdetzen duzuna.

Beraz abisu ematen darotzut aberastekotz eros dezazun eneganik urre suan gori hura, zein-ña agindu baitut, erran nahi da zeruko zuhurtzia mundu guzia oiñen azpian ostikatzen duena.

Haren izteko arbuia zazu lurreko zuhurtzia guzia, eta utz atzu zure buruaren amudio, eta estimu guziak.

3. Badirudi hitz horiez ertxatzen zaitudala gauzarik baliosenen despendioz, txarrenen, eta mezprezagarrienen erosterat.

Ezen zeruko zuhurtzia hura bere buruarentzat estimurik eztuena iduriz xumea da hagitz, mezprezagarria, eta hurren ahanzmendurat eroria, eta zenbaitek hitzez ohoratzen badute ere akzioneerz kontra egiten diote.

Hura da bizkitartean perla preziatua, zein-ña hañitzentzat estalia baita; eta haren balioa gutiz ezagutua.

XXXIII. KAPITULUA

*Gizonaren bihotzeko ariñtasuna eziñ
paua daitekeela Jainkoa baithan
baizen.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, etzaitezela sobra fida oraiko zure dispositionean, ezen bertze kontrakorat lauster muda daiteke.

Mundu huntan bizi zareino nahi eztuzularik ere ganbiakor izanen zare.

Hala batean alegera izanen zare, tea bertzean triste, batean bakean eta bertzean altaramenduan, egun jainkotiar, eta debozioanean bero, bihar ephel, eta debozione gabe.

Orai fexo gero nagi, batean serios, eta goardiakor, eta bertzean ariñ, eta goardia gabeko.

Baiñan zuhurra fermu dago mudantza horien guzien erdian.

Nola gauza espiritualez argitua baita, eztu konturik egiten bere baithan zer sentitzen duen,

eta ez zeñ partetarik heldu den inkonstanziaren haizea.

Haren gogo guzia da gerotik gerora gehiago hurbiltzea markatua duen xederat, zeña ezpaitu behiñ-ere bixtatik galtzen.

Manera hortan dago bethi bat, eta bethi fermu zeren haren xede xuzen, eta garbia gert-hakari diferenten erdian bethi baita ene zerbitza-tzea, eta ene gogara egitea.

2. Zenbatenaz gure xedea, zeña baita gure arimako begia, garbiago eta xuxenago baita, hanbatenaz gabiltza seguratukiago hirrisku dife-
renten artean.

Baiñan intenzione garbi hura lohitzten da hai-ñitzen baithan, zeren lauster bixta arthikitzen baitute aitzinera heldu zaizkoten sensuen goga-rako gauzen gaiñerat.

Gaitz da hagitz kausitzea bihotz bat osoki libroa, eta amudio propioaren notha guzietarik garbia.

Hala juduak lehenago ethorri ziren Bethania-rat, Martharen, eta Mariaren etxerat ez xoilki

Jesusengatik; baiñan hobeki Lazaro bixtua ikhustegatik.

Behar da beraz garbitu intenzionearen begia xuxena, eta sinplea izan dadintzat, eta moian guzien artetik bethi-ere xedea ene ganat heda dezazuntzat.

XXXIV. KAPITULUA

*Zeiñ gozo den Jainkoa maite
dutenentzat.*

ARIMAK

1. Huna ene Jainkoa, eta ene guzia, zer gehiago nahi dut, zer zori-on desira dezaket handiagorik?

Jainkoa da ene guzia, o hitz ezti eta gozoa.

Ordean hitz eternala maite duenarentzat, eta ez mundua, eta munduko ontasunak maite dituenarentzat.

Ene Jainkoa da ene guzia! aski erratea da hori amudioa duenarentzat.

Aditzen tu errexki hitz horiek, eta ezta unhasen horien maiz ahoan izateaz.

Zure aitziñean gauza guziak on eta gustos dire, khiratsdun, eta unhagarri, zu estalia zarenan.

Zuk ematen diozu bihotzari bere sosegua, eta bethetzen duzu bakez eta bozkarioz.

Zuk gauza guziez ungi iuiarazten darokuzu, eta laudarazten gauza guzietan zure maiestatea.

Deusek ere zu gabe eziñ luzaro atsegiñ daike, deus ere ezta gozo, eta gustos zure graziak, eta zure zuhurziaren gatzak ezpadio gustu ona ematen.

2. Zu gustatzen zaituenak gustatzen tu zure baithan gauza guziak; eta zu gozo kausitzen etzaituenarentzat khiratsa dute gauza guziek.

Munduko zuhurrek eztute gozo kausitzen zure zuhurtzia, eztute gusturik haragiarentzat baizen; bizkitartean zer han kausitzen dute? Banitatea, eta herioa.

Kontrarat egiazko zuhurak ddira mundua mezprezaturik, eta haragia mortifikaturik, zuri darraizkitzunak; zeren iragaten baitire gezurretik egiarat, eta haragitik espirituarat.

Hei zaie gozo Jainkoa, hek ematen diote Jainkoari kreaturetan kausitzen den on guziaren ohorea, eta burupea.

Hekien gustu fiñ, eta delikatuak ezagutzen du zer diferenzua den kreatzaillearen, eta kreaturen artean; eternittearen, eta denboraren

artean, argi kreatua eztenaren, eta argi hartarik kreatu diren arraioen artean.

3. O argi eternala, argi kreatu guziez gorago infinituki altxatua, artikatzu zero goratik zure xismixtak, eta zure khara sar bedi ene bihotzeko xokolu, eta goardia guzietan.

Garbi zazu, allegera zazu, argi zazu, bitx zazu ene arima; haren puxantza guziak zuri hertsiki iunta dakizkitzuntzat.

Oi noiz ethorriko da oren dohatsu, oren hanbat desiratu hura: zeñetan zure presenziaz sasiatuko bainauzu, eta *zu izanen baitzaitut guzien orde?*

Fagore hura egiten eztautazuiño, ez tut izanen egiazko bozkariorik.

Baiñan helaz! gizon zaharra bizi da oraiño ene baithan, ezta oraiño guzia gurutyzefikatu, ezta osoki hill oraiño.

Enzarratzen zaio muthiriki espirituari, bixten ditu gerlak, eta guduak gure barreanean, eta ez tu uzten arima bakean erregiñatzerat.

4. Baiñan zu ene Jainkoa, itsasoaren furia guziaren nausi zarena, eta haren uhiñ aserreak kalmatzen dituztuna altxa zaite, etya lagun zakizkit.

Sunsi zazu niri gerla egiten darotatenak: korroska zazu zure beso guziz botheretsuaz.

Erakutx zazu zure obra mirakuillozkoak, zure botherea ohora, eta lorfika dadintzat; ezen zu zare ene ihes lekhua, eta ene esparantza bakharra, o ene Jainkoa.

XXXV. KAPITULUA

*Nihor eztela tentazionetarik
segurantzán mundu huntan bizi
deiño.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, mundu huntan zareíño etzare nihoiz ere segurantzán izanen; baiñan bethi arma espiritualen beharra izanen duzu.

Etsaiez alde guzietarik inguratua zare, zeínek ematen baitarotzute gudu eskuiñ, eta ezker.

Baldiñ ezpadiozute paratzen hekien kolpe guziei pazienziaren erredola, etare haiñitz egonen zenbait zauri hartu gabe.

Zure bihotza ezpaduzu ene baithan finkatzen, enegatik gauza guzien pairatzeko borondate fermu batekiñ, hanbat gudu borthitz eziñ iasanen tutzu, eta eziñ ardietsiko duzu dohatsuen khoroa.

Iragan behar tutzu beraz hurrisku guziak, bihotz handirekiñ; eta indarka garaitu traba hek guziak.

Ezen biktoriosentzat dago manna, bihotz gabeentzat lazeria handia.

2. Mundu huntako bakearen ondoan bazabil-tza, nola ardietsiko duzu sosegu eternala?

Etzaudezila pausuaren uztean; baiñan egon zaite sofrikarien beira.

Billha zazu bake egiazkoa, ez lurrean: baiñan bai zeruan, ez gizonen, eta kreaturen artean, baiñan Jainko xoilla baithan.

Munduko gaitz guziak iasan behar tutzu, nek-heak, doloreak, tentazioneak, persekuzioneak, beharrak, errasunak, afruntuak, erran gaixtoak, hiroiak, humiliazioneak, ahalkeriak, mehatxuak, meziprezioak; guziak behar tutzu pairatu Jainko-aren amoreagatik.

Horiez aitziañatzen gare berthutean, horiez frogatzen gare, horiek egiten da zeruan errezei-bituko dugun khoroa preziatua.

Ezen agindu dut golardo bethi iraunen duen bat nekhe laburrentzat, eta loria fin gabeko bat berehala iragaten den ahalkeriarentzat.

3. Uste duzu bethi nahiaren arabera izanen tutzula konsolazione espiritualak?

Ene sainduak eztute bethi halakoak iztu, egorri diotet pena penaren gaiñean, tentazionea tentazionearen gaiñean.

Baiñan gaitz horiek guziak pairatu tuzte pazienza handi batekiñ bere esparantza guzia ematen zutela ez bere baithan, baiñan Jainkoa baithan; baitzakiten *bizitze huntako sofrikariak eztirela deus loria haren aldean, zeïña izanen baita hekien pagua eterniatte guzian.*

Nahi zinduke eman niezazun berehala hanbat sainduak haiñ nekhe, eta nigarren ondoan izatu dutena?

Zaude ene laguntaren beira; eztuzun inpaenziarik: zaren fermu eta animotsu, fida zaite ene baithan, egon zaite finkatua berthutean, eta hirriska zatzu zure arima, eta gorputza, ene oho-retan.

Nik emanen darotzut konpliki golardoa, eta *izanen naiz bethi zurekiñ zure atsekabetan.*

XXXVI. KAPITULUA

Mezprezatu behar ditugula gizonen iuiamendu banoak.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, emazu segurantzarekiñ ene eskuetan zure bihotza, eta eztuzun beldurrik gizonen iuiamenduentzat, zure konzienziak deusez akusatzen etzaitueiño.

Zorion bat da horla pairatzea; eta hori etzaio gaitz, eta penagarri idurituko bihotz humillari, eta bere baitan baiño Jainkoa baithan fidatzenago denari.

Gizon gehienak sobra mintzo dire, eta siñhes-te guti eman behar zaie hekien hizkuntzikeriei.

Bertze alde eziñ guziak kontenta detzakeguke.

Ezen Jandoni Paulok bere ahal guziak egiñ dituelarik jainkozko xedez guzien gogarako izatekotz, eta haratakotz *guzia guzientzat egiñ delarik*, halere erakutxi du *eztela kontu hari gizonen iuiamenduez kondenatua izateaz.*

2. Bere ahal guziak egiñ ditu arimen onekotz, eta salbamendukotz; eta halere eziñ egotu da bertzeez iuiatua, eta meziprezatua izan gabe.

Gauza guziak uztu zituen Jainkoa ganat, zeinak guziak ezagutzen baititu, eta etzen baliatu bere pazienziaz, eta humiltasunaz baizen gizonen errankizun, eta suspitxa falsoen kontra.

Eta noizik behiñ ihardetsi badiote bertzeen gaxtakeriei, hori egiñ du beldurrez haren ixilatsuna behaztopa harri balia zediñ flakoentzat.

3. Zaren bezalakorik zergatik zare beldur gizon hilkor batenzat. Egun bada, bihar ezta.

Zaren Jainkoaren beldur, eta etzare gizonen beldur izanen.

Zer bidegabe egiñ diezazuke gizon batek bere solasez, eta hitz gaixtoez? Bere buruari kalte gehiago egiten dio zuri baiño; ezen nor nahi den eziñ itzuriko zaio Jainkoaren iuiamenduari.

Duzun beraz iuie iustu hura bethi begien aitzinean, etzaitzela balia errenkurez, eta ihardukitzez iendeen erasia gaixtoen kontra.

Baldiñ orai garaitua badirudizu, bertzeen gaixtakeriaz, eta estalia bazare merezitu eztitutzun laidoz, eta ahalkeriaz, beira zaite zure merezimendua gutitzetik, eta zure khora mendratzetik zure pairu eskasez.

Itzul zatzu zure begiak ene ganat, zeñak baitut ahala zero goratik zure libratzeko laido, eta afruntu guzietarik, eta bapederari bihurtzeko bero obren arabera.

XXXVII. KAPITULUA

*Utzi behar dugula osoki gure burua
Jainkoaren nahirat bihotzeko
libertatearen izateko.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, utzazu zure burua, eta edirenen nauzu.

Ez duzun zerenez, ez hauturik ez iabetasunik, eta haiñitz irabaziko duzu.

Ezen ene borondaterat uzten baduzu zure burua bethikotz, bethi grazia berriak emanen darozkitzut.

ARIMAK

2. launa zenbat aldiz behar dut manera hortan utzi neure burua.

JESU-KRISTOK

3. Denbora guzietz, lekhu guzietan, gauza xumetan handitan bezala; ez dut deus-ere

berezten, eta nahi zaitut gauza guziez billhuzia kausitu.

Bertzela nola zaitezke enea, eta ni zurea; ezpazare kanpoan, eta barnean osoki hustua nahi propio guzietarik.

Zenbatenaz hori egiñen baituzu lausterrago, hanbatenaz hobeki kausituko zare. Eta zebnbatenaz osokiago, eta ziñezago utziko baituzu zure burua; hanbatenaz gehiago merezituko duzu ene amudioa, eta ene graziak.

4. Haiñitz niri ematen zazkit, baiñan ez osoki eta ene probidenzian eztire hanbat fidatzen, non ezpaitute berek ere zerbait artha bere buruez itxekitzen.

Batzuek ematen zaizkit osoki; baiñan gero tentazionez herstuak direnean hartzen dute eman dutena, eta hala eztire garabik berthutean aitziañatzen.

Batzuek, eta bertzeek eztute behiñ-ere ardie-tsiko bihotz garbien libertatea, eta ene adiskidetasunaren fagore eztiak.

Ezen eziñ daiteke enekiñ gozamenezko amudiorik, eta batasun mistikorik presuna ezpada

lehenago ene ganat osoki uzten, eta ezpadarot egun oroz bere iate guzia sakrifikatzen.

5. Erran darotzut maiz, eta berriz ere erraten darotzut ukho egiozu zure buruari; eman zakizkit osoki, eta zure arima gozatuko da barreneko bake handi batez.

Emazu guzia, guzia izateagatik, etzazula deus desira, etzazula galde iadanik eman duzuna.

Zaude enekiñ phuruki, eta fermuki lothua, eta ni izanen nauzu.

Orduan izanen da zure bihotza egiazki libro, eta illunbe guzietarik kanpoan.

Zure egiñ guzien, zure othoitzen, zure desiren xedean behar da izn iabetasun guziez billhuzirik Jesus-Kristo billhuziari iarraitzea, eta zure buruari hillik enetzat etarnitate guzian bizitzea.

Orduan goanen dire zureganik beldurtasun humanoak, eta hillen dire zure bihotzean amudio desordenatu guziak.

XXXVIII. KAPITULUA

Nola behar dugun kanpoko gauzetan konportatu, eta Jainkoaganat ihesi egiñ hirriskuetan.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, lekhu, okasione, eta lan guzietan duzun artha handi bat libro izateaz zure barrenean, eta zure kanpoaren nausi.

Gauza guziak diren zure azpioko, eta zu ez baten ere; izn zaitezentzat zure akzioneer nausi, eta ez esklabo.

Manera hortan gathibutasun guzietarik libratu-rik, israeldar egiazko bat bezala iraganen zare Jainkoaren umeen kondizionerat, eta libertaterat.

Zeiñak altxatzen baitire denbora huntako gauzez gorago, ontasun eternaletan gogoa fin-katzeko.

Zeiñek ezkerreko begiaz behatzen baitiote ontasun iragankorrei, eta eskuiñaz zerukoei.

Zeiñak haiñ guti kreaturen esklabo iartzen baitire, non kontrarat hek arrimatzen baitituzte kreaturak Jainkoaren zerbitzuan, berak kreaturretan eman duen ordenuaren arabera, zeinetan ezpaita deus makhurrik; baiñan gauza guziak egiñak baitire kreatzaillearen ohoreko.

2. Baldiñ fermu bazaude munduko gerthakari guzietan; ezpaduzu iuiatzen ikhusten, edo aditzen ditutzun gauzez kanpoko idurien arabera, eta haragizko begiz.

Aitzitik okasione guzietan sartzen bazara Moise bezala tabernaklean barna, Jainkoari konseillu galdetzerat, maiz adituko ditutzu haren errepusta dibinoak, eta handik ilkiko zare haiñitz gauza oraiñgoez, eta gerokoez argitua.

Ezen Moise bethi tabernaklerat zioan argi, eta konseillu billha gauza gaitz, eta dudazkoe-tan; othoitzerat egiten zuen bere ihesa gizonen maleziak hirriskutan ematen zuenean.

Zuk ere manera berean sarthu behar duzu zure bihotzeko tabernaklean, Jainkoari mintkiago bere laguntza galdegiteko.

Ezen irakurtzen dugu eskritura sainduan Josue, eta Israelgo umeak Gabaondarrez engatatuak izatu zirela, *zeren ezpaitzuten artha izatu gauza guziak baiño lehen Jainkoari konseillu galdetzeko*, zeren errexkiegi siñhetsi baitzituzten hekien hitz eztiak, eta urrikalmendu falso batez ukitzerat utzi baitzituzten bere buruak.

XXXIX. KAPITULUA

Jainkoari uztu behar diogula gure egitekoen artha, eta harenganik iguriki gauza guziak.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, utzazu ene gaiñean zure egitekoen artha, nik burutan atheratuko ditut zeñ bere denboran.

Zaude ene ordenuaren beira, eta progotxu izanen duzu.

ARIMAK

2. Iauna, gogotik uzten ditut zure ganat ene egiteko guziak, ezen ikhusten dut berdiñ ene art-hek deus guti daiketela.

Oxala ezpanu griñarik geroko gauzez, eta osoki zure nahirat arrimatzen baninz.

JESU-KRISTOK

3. Ene semea, gizona bada billa, eta khexatzen da hagitz desiratzen duenaren izateko, eta

ardietsi duen bezaiñ sarri higitzen zaio, eta hartaz bertzela iuiatzen du, zeren gizonaren guti-ziak ganbiakorrak baitire, eta errexki iragaten baitire gauza batetik bertzerat.

Ezta beraz berthute xumea gauzarik xumee-netan nork bere buruari ukho egitea.

4. Gizonaren aitzinamendu egiazkoa bizitze espiritualean datza bere buruari ukho egitean; hartarat ardietsi duena gozatzen da libertateaz, eta soseguaz.

Guziarekiñ ere deabruak ungi guzien etsaiak ezkaitu behiñere uzten tentazione gabe; gabaz, eta egunaz heatzen tu sareak, hetan atzamateko bero buruen guardian ez daudezenak.

Hargatik erran diotet ene apostoluei: *zaudete atzarririk, eta egizue othoitz tentazionean sar etzaitezentzat.*

XL. KAPITULUA

Gizonak eztuela berenez onik, eta eziñ dukela deusez ere buruperik.

ARIMAK

1. launa zer da gizona zu hartaz orhoitzeko, edo zer da gizonaren semea zuk hura zure bisi-taz ohoratzeko?

Nondik merezitu ditu zuk hari egiten diotzo-tzun grazia guziak.

Uzten baninduzu ere, o ene Jainkoa, zer zuzen nuke errenkuratzeke?

Eta zer kausi dezaket errateko ez badarotazu ematen galdetzen darotzudana.

Eziñ neure buruaz deus pensa, eta erran dezaket egiagorik hauxe baiño, launa, ez naizela deus, ez daikedala deus, eneganik eztudala deus onik; ez naizela flakeziarik baizen, eta bet-hiere neure iaidura guzia ezteusera dudala.

Halako maneraz bai non ezpanauzu kanpotik laguntzen, eta barnetik borthizten, laxatzen bai-naiz berehala, eta erortzen epheltasunerat.

2. *Baiñan zu, launa, bethi orobat zare* eternitate guzian, bethi on, iustu, saindu.

Gauza guziak ordenatzen, eta arrimatzen ditutzula ontasunekiñ, istutasunekiñ, zuhurtzia-rekiñ, eta saindutasunekiñ.

Baiñan ni zeña aitzina baiño gehiago bainoa gibela berthutearen bidean ez nago denbora luzez estatu batean, zeren ganbiatzen bainaiz denboaren arabera.

Halere lauster altxatzen naiz plazer duzuan hedatu zure eskua ene laguntzeko.

Ezen zu zerrori nihoren laguntzarik gabe asko zare ene laguntzeko, eta ene borthizteko halako fazioñez non ezpainaiz haiñ ganbiakor izanen, baiñan ene bihotza osoki zure ganat itzuliko baita, eta zure baithan baizen ezpaitu billhatuko bere sosegua.

3. Baldiñ banaki munduko konsolazioneen uzten, nahiz deboziane an aitzina goateko, nahiz zure baithan kausitzeko gizonen artean eziñ tuzkedan laguntzak, eta solejimenduak.

Orduan arrazoiñekiñ uste behar nuke betheko nintekela zure graziaz, eta zerutikako dohaiñez, eta konsolamenduez.

4. Esker darotzut, o ene Jainkoa, ene ganat heldu diren ontasun guziak zureganik heldu direnaz geroztik.

Ezen ezdeus naiz, eta banitate huts zure aitzian guzia naiz ganbiakorra herbala, eta flakoa.

Zertaz duket beraz ene baithan burupe, eta zergatik nahi dut izan prezatua bertzeez?

Ene ezteustasunagatik? Hori liteke azkeneko banitatea.

Egiaz banaloria izurri perillos bat da, eta Ililluramendu handi bat egiazko loriaz gabetzen, eta zure graziaz billhuzten gaituenaz geroztik.

Ezen nihor bere buruaz kontent denean zure desgogara egiten da, eta gizonen laudorioen ondoan dabillanean galtzen tu egiazko berthuteak.

5. Arimaren egiazko loria, eta bozkario saindua da zure baithan bere atsegiña ematea, eta

ez bere baithan zure handitasunean boztea, eta ez bere berthuteaz, eta kreaturretaz gure gogarako diren gauza guzietz zuri ohore ematea.

Hala beraz, launa, gizonak lauda bezaitzate zu, eta ahantz ni; glorifika betzate zure obrak, eta ez eneak; laudorio guziak diren zuretzat, eta nik ez dezadan enetzat geldi batere.

Zu zare ene loria, eta ene bihotzeko bozkarioa.

Eztut nahi loriarik, eta bozkariorik hartu zure baithan baizen, ene bizi guzian, ezen nitaz denaz bezanbatean eztut deus loria, eta burupe eman diezakedanik ene flakeziak, eta ezdeustasuna baizen.

6. Juduek eta mondanoek *billha bezate elkharri ematen dioten loria: nik behintzat eztut nahi billhatu Jainkoaganik heldu dena baizen.*

Ezen mundu huntako loria, ohore, eta handitasun guziak eztire banitaterik, eta erhokeriarik baizen zure eternitateko loriaren aldean.

O ene Jainkoa, zeïña baitzare ene miserikordia, eta ene egia; Trinitate dohatsua! zuri xoilki

zor zaizkitzu laudoriak, ohoreak, berthuteak, eta loria mende guzietako mendetan.

XLI. KAPITULUA

*Mundu huntako ohoreak meziprezatu
behar ditugula.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, etzaitezela trista ikhustez bertzeak ohoretarat altxatuak, eta zu arbuiatua, eta beheratua.

Altxa zazu zure bihotza ene ganat zerurat, eta eztuzu izaren damurik gizonez lurrian meziprezatua izateaz.

ARIMAK

2. Iauna, haiñ itsuak bagare non banitateak errexki enganatzen baikaitu.

Neure buruari ungi behatzen badiot, ezagutuko dut egundaiño nihork eztarotala bidegaberik egiñ, eta hala eztudala arrazoiñik zutaz errenkuratzeko.

Ezen kreatura guziek zuzen dute ene kontra altxatzeko, hanbateraiño egun oroz ofensatzen zaitudanaz geroztik.

Hala desohorea, eta arbuioa haiñ iustuki
daoakit niri, nola zuri laudorioa, ohorea, eta loria.

Eta ezpanago gogotik kreatura guziez mez-
prezatua, utzia eta ezteustzat idukia izaterat,
eziñ duket ene barrenean bakerik, eta fermuta-
sunik, ez zure graziaren argirik, ez zurekiñ bata-
sun osorik.

XLII. KAPITULUA

*Bizitze huntako bakea eztugula
gizonen baithan ezarri behar.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, zure bakea ematen baduzu zein nahi den presunaren baithan, zeren den zure gogarakoa, eta zeren lakhet zaitzun harekin bizitzea; bethi izaren zure khexos, eta trabatua.

Baiñan lotzen bazaizkit niri zeina bainaiz egia eternala, eta nihoiz ere ganbiatzen ez naizena, etzare tristatuko zure adiskidea hiltzen zaitzunean, edi bertze maneraz uzten zaituenean.

Nik behar dut izan zure adiskideentzat duzun amudioaren zimendua, eta enegatik behar tutzu maitatu berthutetsu iduritzen zaizkitzun guziak, eta mundu huntan maiteen ditutzunak.

Ni gabe ezta adiskidetasun egiazkorik, ez iraupenekorik, eta bi presunen arteko amudioa ezta garbia, baldin ni ezpanaiz hek elkharrekin lotzen tuen korapilloa.

Halako maneraz behar duzu izan hilla maite tutzun presunen afekzionari, non zure baithan dagoen bezanbatean nahi behar baituzu izan gizonen konpaiñiarik gabe.

Zenbatenaz gizona lurreko konsolazione guzietarik urruntzen baita, hanbatenaz hurbiltzen da Jainkoa ganat.

Eta hanbatenaz gorago altxatzen da Jainkoa ganat, zenbatenaz beherago iausten baita bere ezteustasunerat, eta bere begietan agertzen mezprezagarriago.

2. Zerbait on bere baitharik duela uste duenak debekatzen du bere burupeaz Jainkoaren grazia bere ganat iaustetik, zeren espiritu sainduaren graziak bethi bihotz humilla billatzen baitu.

Baziñaki zure buruareb osoki ezeztatzen, eta kreaturen alderako amudio guzietarik billhuzten, ikhus ninzakezu zureganat iausten ene grazien abundanziarekiñ.

Ordean creaturei beha iartzen zaizkotenean, , galtzen duzu bixtatik kreatzaillea.

Ikhasazu gauza guzietan zure buruaren garaitzen Jainkoaren amoreagatik, eta altxatuko zare baratxe baratxe Jainkozko gauzen ezagutzarat.

Gauza bat xumea izan arren Jainkoaren ordenuaren kontra maitatzen baduzu lizuntzen du zure bihotza, eta hastantzen zaitu ontasun soberanoganik.

XLIII. KAPITULUA

*Zeñ banoa den munduko
iakintasuna.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, eztezazula utz zure burua xarmatzerat gizonen solas ederrez: *ezen Jainkoaren erresuma eztago hitzetan; baiñan bai Jainkozko berthutean, eta indarrean.*

Zaude erne erne hitzen aditzeko, hek berotzen dute bihotza, hek agitze espiritua, ariman urtikimendua bixten, eta konsolazione fuerte guziak ematen.

Eztezazula behiñ-ere hitza irakur, zuhurrago, eta iakinsunago gizonen artean agertzeko.

Ikhasazu zure pasioneen hesteko antzea; hura gehiago baliatuko zaitzu gauzarik gaitzenen ezagutza baiño.

2. Irakurazu nahi duzun bezanbat; izan zaite nahi bezaiñ zuhur, eta iakinsun; bethiere ethorri

behar da prinzipiorat; nik irakasten diotedala gizonei iakintasun guzia.

Nik ematen diotedala haurrei, eta sinpleei argi, eta intelijenzia gehiago gizon guziek elkarrekiñ eman ahal dezaketen baiño.

Ni mintzo natzaiona lauster izanen dela iakin-sun, eta hagitz aiñtziñatuko dela zuhurtzian.

Zorigaitz haiñitz gauza kurios ikhasten hari direnentzat, eta ene ungi zerbizatzeke moldearen ikhasteaz artharik eztutenentzat.

Ezen ethorriko da egun bat, zeñetan Jesus-Kristo doktoren doktorak, eta aingeruen nausiak examinatuko baitu bapederaren estudioak, erran nahi du miratuko bihotzak, eta konzienzia.

Orduan miratuko du Jerusalem flanben argiz, illhunbean gordeak daudezen gauzak agertuko dire, eta ahalkeriak mututuko ditu hitz ederretako mihiak.

3. Nik momento batez altxatzen dut espiritu humilla, eta gaiago egiten dut egia eternalaren arrazoiñamenduan aditzeko, hamar urthez eskoletan estudiatu dutenk baiño.

Nik irakhasen dut hitzezko habarrotsik gabe; opinione diferenten nahasmendurik gabe, iakin-tasunak ematen duen haunturarik, eta buruperik gabe, ihardukitzeen gudukarik gabe.

Nik irakasten dut lurreko gauzen arbuiatzen, oraiko ontasun iragankorren uzten, eternitatekoen billhatzen, eta gustatzen; ohoreei ihes egiten, laidoen pairatzen, Jainko xoilla baithan esparantzaz ematen, hura baizen ez desiratzen; eta hura maitatzen gauza guziak baiño gehiago.

4. Presuna batzuek ni bere bihotz guziaz maitatuz ikhasi tuzte eneganik Jainkozko gauza handiak, eta hetaz mintzatu dire miragarriki.

Haiñek zuhurtzia gehiago ardietsi dute gauza guziei ukho egiñik, gauza ederrak, eta gorak estudiaturik ikhasiko zuten baiño.

Batzuei gauza ardurazkoak erraten diotzatet, bertzeei irakasten diotzatet goragoak; batzuri agertzen natzaiote itzalen. eta figuren azpian, eta bertze batzuei ene misterioak argi handian erakuxten diotzatet.

Liburuek gauaa bera erraten diote guziei; baiñan eztituzte guziak orobat argitzen, zeren ni

barrenean bainaiz egiaren irakatzaillea, eta nik bapederari partitzen baitiotzat argiak merezi duela iuiatzen dudan bezala.

XLIV. KAPITULUA

*Eztugula behar kanpoko gauzez
espiritua trabatu.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, on da haiñitz gauzen gaiñean etzaitezen izan iakinsun, eta zure burua iduk zazun munduari hilzat, *eta mundua zuri hill, eta gurutzefikatutzat.*

Gor izan ere behar duzu haiñitz solasentzat, eta erne hagitz bakea eman ahal diezazuketen gauzentzat.

Hobeago da begiak zure gogarako eztiren gauzetarik apartatzea, eta bapederari nahi duenaren egiterat uztea; ezen ez kontrestetan, eta ihardukitzetan sartzea.

Jainkoarekiñ ungi lothua bazaude, eta haren iuiamenduari bhatzen badiozu axola guti izanen duzu gizonen iuiamenduan garaitua izateaz.

ARIMAK

2. Helaz! ene Jainkoa, zertara billhakatuaq gare? Auhendatzen dugu kalte tenporal bat; intres xume batek nekharazten gaitu, eta bagarabiltza lausterka; eta galtzen dugu gure arima, hurren nola eztakigula antsia gabe, eta haiñ kalte izigarriaz ukituak izan gabe.

Artha handi dugu progotxu gbeko, edo gutitako gauzentzat, eta ansikabeki lrgatzen tugu baitezpada behar ditugunak, zeren gure pendurak kanporat baikaramatza; eta hetan gogotik baikaudez, ezpagare seriozki sartzen gure barnetan.

XLV. KAPITULUA

Eztela edozeiñ siñhetsi behar, eta guti behar dela mintzatu.

JESU-KRISTOK

1. launa lagun zakizkit ene atsekabeen, ezen gizonaren laguntza ezta deusetako.

Oi zenbatetan gerthatu zait leilatasunik ez kausitzea gehien uste nuen lekhuari; eta zenbatetan kausitu dut gutienik uste nuen presunetan.

Alferrik ematen dugu beraz gure esparantza gizoenn baithan, iustuen salbamendua ezta kausitzen zure baithan baizen, o ene Jainkoa.

Zaren benedikatua, o ene Jauna, gerthatzen zaizkigun gauza guzietan.

Flakoak gare, eta ganbiakorrak; enganatzen gare, eta mudatzen aldi guzian.

2. Nor dago bere buruaren gaiñean haiñ erne, eta haiñ atzarria non ezpaita noizik behiñ erroritzen ustekabeko faltetarar, eta espirituko pene-tarat.

Baiñan zure baithan bere esparantza ematen duena, eta bihotz simple, eta xuzen batekiñ zu billhatzen zaituena, ezta haiñ errexki hetarat eroriko.

Eta atsekabetarat erortzen bada, hetaz alde guzietarik inguratua balitz ere, lauster hetarik atherako duzu, eta konsolatuko, zeren ezpaitutzu uzten behiñ-ere zure baithan fiñeraiño esparantza dutenak.

Bakharrek dire hagitz adiskide leialak, bere adiskideen herstura, eta zorigaitz guziengatik ganbiatzen eztirenak.

Zu bakharrik zare, o ene Jainkoa, adiskide guziz leiala, eta ezta zure adiskidetasunaren, eta leialtasunaren parerik.

3. Oi, ala birjina saindu batek zuhurki erran baitzuen tormentarik handienak ikhustean: *Ene arima finkatua da, eta fermuki zimendatua Kristo baithan!*

Hala baninz ni ere gizonen beldurrak ez nintzake haiñ errexki altara, eta enetzake haiñ minki senti mihi gaixtoen kolpeak.

Nor da gaitz guziak aitziñetik ikhus ahal detzakena, edo heldu detzakena, edo heldu zaizkigun zorigaitz guziei itzur ahal dakieketena?

Eta aitziñetik ikhusirik heldu zaizkigunak ere haiñ miñ bazaizkigu, zeñ dorpheak dire bada ustekaberik zaurtzen gaituzten kolpeak.

Ene dohakabea! zergatik ez diyut gaitz horiek guzien kontra segurantzarik handienak hartzen, eta zergatik fidatzen naiz gizonen hitzetan?

Helaz! gizonak gare eta gizon flakoak haiñitzek aiñgerutzat bagaduzkate ere.

Nor beraz siñhetsiko dut baizen zu, o ene Jainkoa, zeña baitzare egia, eta zeñak eziñ nihor engana baitezakegu, ez zu ere nihork?

Gizon guziak gezurtiak dire, flakoak, ganbiakorrak, eta erorkorrak, bere gaiñki hitzetan: hala eztire erexki sinhetsi behar, zenbat hekien hitzek egia badirudite ere.

4. Ala zu launa, zuhurki abisatu baikaitutzu: *ez gaitzela fida gizonetan, gizonaren etsaiak haren etxekoak direla, eta nihork erraten bada-*

rotzu *Hemen da*, edo *Han da Kristo*, eztugula behar siñhetsi.

Hori frogatu dut ene gastuz. Oxala frogantza hark egiñ bañindu goardiakorrago, eta zuhurrago ethorkizunekotz.

Presuna batek gomendatzen darot sekretu bat; itxekazu gorderik, diotsa, nik erraten darotzudana, eta nik gauza hura sekretu datxekat, eta estalitzat dadukadala; bera eziñ daoke ixillik, eta erraten du nik erran dezadan nahi eztuena; badoa eneganik, eta denbora berean bere buruari, eta niri hitza faltatzen daroku.

Othoi ene Jainkoa, beira nazazu jende hitzuntzi, eta ariñetarik; ez nadiñ error hekieñ eskuetarat, ez nadiñ izan hekieñ iduriko.

Ematzu ene ahoan hitz egiazkoak, eta ziñezkoak; urrun zazu eneganik mihi enganaria; ezen eztut behar ene baithan onetsi bertzeen baithan gaitzesten dudana.

5. Oi nolako bakea, eta abantailla den bertzeez ez mintzatzea; erraten diren guziak ez siñhestea, hek bertzeei ez ondatzea, gutiri bere barrena agertzea, gure bihotzeko lekhuko, eta

iuieari bezala zuri bethi behatzea, gizonen hai-
zezko solasen arabera ez jiratzea, eta nahi iza-
tea gauza guziak iragan ditezen gure barnean,
eta kanpoan zure borondate sainduaren arabe-
ra.

Ala on baita, grazia segurean beiratzeko, ihe
egitea gizonen begietan distiatzen duten gauza
guziei; ez desiratzea munduaren estimua, eta
admirazionea gure ganat erakhar dezaketen
gauzarik, eta artha handirekiñ billhatzea gure
eskasak guti, eta gure berthuteak berret detza-
keten guziak.

Ezen berthute distiantegiak, eta sobra preza-
tuak haiñitz galdu ditu.

Eta kontrarat progotxos izatu da bethi, ixillta-
sun handi batean grazia gordetzea bizitze hun-
tan, zeinetan bethi tentazioneez, eta etsaiez
inguratuak baikare.

XLVI. KAPITULUA

*Jainkoa baithan eman behar dugula
gure fidantzia mihi gaixtoz
zaurthuak garenean.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, zaude fermu, eta emazu ene baithan zure esparantza;

ezen zer dire gizonen solasak; baizen hitz airean galtzen direnak; eta harriak hausten ezutenak.

Egia bada zutaz erraten dena, libra zaite lehen bai lehen eskas hartarik.

Ezpaduzu zure burua faltiar kausitzen; paira zazu gogo onez, erran gaixto hura Jainkoaren amoreagatik.

Etzare gai tormenta handien iasateko; eztuzu bada bederen zenbait hitz gogor pairatu behar?

Zergatik haiñ gauza xumeak min egiten darotzu bihotzean? Zeren oraiño haragizkoa baitzare, eta behar baiño gehiago gizonei behatzen batiozute.

Arbuiatua izateko beldurrez, eztuzu hiroik aditu nahi zure eskasen gaiñean, eta zabilitza zure buruaren edertatzeko aitzekia billha.

2. Baiñan sar zaite barnagi buruaren ezagutzan, eta ikhusiko duzu mundua oraiño zure bihotzean bizi dela, eta gizonen gogara egiñ nahizko gutzia banoak zure baithan badirauela.

Ezen zure faltengatik beheratua, eta mezprezatua izateko duzun beldurrak erakuxten du ageriki etzarella egiazko humilla, ez egiazki *munduarentzat hilla*, eta eztela *halaber mundua hilla*, eta *gurutzefikatua zuretzat*.

Baiñan adi zazu ene hitza, eta gizonen solaz guziez etzare kontu hariko.

Gizonen gaixtakeriak asma ahal detzakeen guziak zure kontra erasten balire ere, zer bidegabe zinduke? Uzten bazintu erran hek guziak antsia gabe aireko fixa bezala, gai othe litezke zure burutik ille baten atheratzeko ere?

3. Presuna bat eztenean bere barrenean sart-hua; bihotza kanporat barraiatua duenean, eta Jainkoa begien aitziñean eztuenean hitz moko

bat asko da haren zaurtzeko, eta minki ofensatzeke.

Baiñan ene baithan bere esparantza ematen duenean, bere iuiamendu propioa trikatu gabe; gizonen iuiamenduentzat ezta beldur izanen.

Ezen ni naiz Juiea, eta bihotzen barrenak ezagutzen ditudana; nik badakit er maneraz gauzak iragaten diren; badakit nork egiñ duen ofensa, eta nori egiten zaion.

Nik permetiturik egiñ da hunelako gauza, edo erran halako hitz, eta hori gerthatu da *argitarat atheratzeko haiñitzen bihotzetan gordiak zaudezen gogoetak*.

Inozenta, eta faltaduna nik iuiatuko ditut mundu guziaren aitziñean; baiñan nahi izatu ditut bata, eta bertzea lehenago frogatu iuiamendu gorde batez.

4. Gizonen lekhukotasuna maiz enganioa da; baiñan ene iuiamendua egiazkoa da, fermua, eta deusek eziñ ganbiatuko du.

Maiz gordea da, eta nihor gutik ezagutzen ditu haren sekretuak.

Eta ez bethi iustua iduritu arren presuna zuhurziaz gabetuei, hargatik xuxena da, eta eziñ nihor engana dezake.

Niri utzi behar zait beraz gauza guzien iuiamendua, nork bere burua siñhetsi gabe.

Ezen iustua ezta altaramendurat eroriko, zer nahi den gaitz gertha dakion Jainkoak permetiturik.

Damu guti izanen du, iende batzuek haren kontra gaizki, eta iniustuki mintzatzen badire; eta halaber bozkario guti bertze batzuek haren alde iarririk iustuki defendatzen badute.

Zeren baitaki *nik zundatzen ditudala bihotzen, eta erraiñen barrenak*, eztudala iuiatzen kanpoko idurien arabera, et maiz gizonen begietn on, eta laudagarri dena, gaixto dela eta kriminel ene iuiamenduan.

ARIMAK

5. Ene Jauna, eta ene Jainkoa zeïña baitzare iuie iustu, borthitz, eta pairakorra, zeïñak ezagutzen baituzu gizonen flakezia, eta gaixtotasuna; zaren othoi ene indarra, eta ene habe bakharra.

Ezta asko ni neure begietan hobenduri ez izatea; zureek ikhusten dute ene baithan nik eziñ ezagut dezakedana, eta mehatxatu nauten aldi guzietan behar izatu dut humiliatu, eta hiroi guziak eztiki hartu.

Barkha dietzakidatzu, ene Jainkoa, bertzela konportatuz egiñ ditudan hutsak, eta egidazu grazia ethorkizunean humillago, eta pairakorrago izateko.

Hobeago dut othoiztu zure miserikordia guziz handia ene barkhamenduaren ardiesteko; ezen ez fidatu, ene baithan dela uste dudan iustutasunean: ezen ene konzienziaren xokoluak, eta gordairak eztitut ezagutzen.

Ezen deusetan ere faltiar neure burua kausitzen ez tudalarik halare eziñ neure burua iustificak dazaket, zeren eta zure miserikordia gabe gizon batere ezpaita iustu edirenen zure aitziñean.

XLVII. KAPITULUA

*Munduko pena guziak gogotik behar
direla pairatu bizitze eternalaren
ardiesteko.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, etzaitezela unha ene amoreagatik hartu ditutzun lan gaitz, eta penagarritan; ez bekizu bihotza error atsekabetan; baiñan ene agintzak borthitz bezaitza, eta konsola zer nahi gertha dadiñ.

Aski podorosa naiz neurri gabeko sari bat hekien orde zuri emateko.

Etzare hemen denbora luzez nekhatuko, eta etzare bethi nahi gabetan izanen.

Igurikazu aphur bat, eta lauster ikhusiko duzu zure gaitz guzien akhabantza.

Ethorriko da momento bat zeñetan zure pena et altaramendu guziak fiñatuko baitire.

Denborarekiñ iragaten direnk ariñak dire bethi, eta laburrak.

2. Egizu bethi egiñ behar duzuna; hari zaite leialki lanean ene mahastian, eta neroni izanen naiz zure golardoa.

Eskriba zazu, irakur, kanta psalmuak; maita zazu penitencia, ixiltasuna, othoitzza, eta paira zatzu animoski gerthatzen zaizkitzun atsekabe eta kontresta guziak.

Bizitze eternalak merezitzen ditu gudu horiek guziak, eta handiagoak ere.

Egun batez ethorriko da bakea, eta egun hura eztaki nihork launak baizen, ezta hura izanen oraikoa bezalako eguna, zeññaren ondoan gaba baita; baiñan izanen da egun eternal bat klaritate fin gabeko bat, bake fermu bat, eta sosegu seguratu bat.

Eztuzu orduan erranen: *nork libratuko nau heriotzeko gorputz huntarik?* eta etzare gehiago oihuz egonen. *Helaz! ene desterruaren luzea!*

Ezen heriotzea desegiñen da, eta ezeztatuko, zure dohatsutasuna eziñ altaratuzkoa izanen da, eta gozatuko zare griñarik gabe zeruko bozkario guziez, Jainkoaren konpaiñiaz, eta loriaren edertasunez.

3. Oi! ikhusten bazintu zeruan ene sainduen khoroa eternalak, eta nolakoa den orai haiñen loria zeñei munduak leheango mezpreziorekiñ behatzen baitzioten, bizitzea ere merezitu ezpalute bezala! Duda gabe humilia zintezke lurreraiño, eta nahiago zinduke gizon guziei obeditu, ezen ez bti ere manatu.

Nahiago zintuzke Jainkoagatik atsekabeak pairatu, ezen ez bizitze huntako egunak atseginiñetan iragan; eta abantail handitzat estima ziñezake gizonen aitziniñean ezteustzat idukia izatea.

4. Oi! egia hauk gusta baziñetza, eta zure bihotzaren barreneraiño sar balitez nola atrebi zintezke zure gaitz guzietan errenkura xume baten ere egiterat?

Zer da hiñ gaitz handirik, gogotik pairatu behar eztenik bizitze dohatsu, eta eternal baten ardiesteko?

Ezta gauza gutia Jainkoaren erresumaren galtzea, edo irabaztea.

Altxa zatzu beraz zure begiak zerurat; han ikhus nazazu ene saindu guziez inguratua; hek

gudu handiak izan tuzte munduan; baiñan orai bozkarioan dire, konsoalzionean, bakean, eta egonen dire enekiñ eternitate guzian, ene aitarren erresuman.

XLVIII. KAPITULUA

*Zeruko dohatsutasunaz, eta mundu
huntako misereez.*

ARIMAK

1. Oi Jerusalem zeruko egoitza gozo, eta dohatsua! O eternitateko egun ditziosa, gbak ill-huntzen eztuena baiñan egia soberanoak bethi argitzen duena!

Egun zori onekoa! zeñetan gustatzen bita bethiereko bozkarioa, segurantza osoa, eta ezit-tasun eziñ altaratuzkoa!

Oxala ethorria balitz egun hura, eta oraingo egun hauk guziak akhabatuak balire!

Orai danik egun hark argitzen du sainduen-tzat bere diztiadura guzian: baiñan urrundik hagitz, eta haiñitz itzalen artetik bere arraioak arthkitzen ditu lurreko bideanteen gaiñerat.

2. Zeruan daudezenek gustatzen dute atsegi-ñekiñ egun dohatsu hura; Ebaren ume desterra-

tuek frogatzen dute bihotz miñekiñ zenbat khira-tsez betheak diren hemengo egun dohakabeak.

Ezen denbora huntako egunak laburrak dire, gaixtoak, atsekabez, eta behazunez betheak.

Hemen gizona bekhatuek lizuntzen dute pasioneek amarratzen dute; beldurrak altartzzen du; artheak khexatzen dute; kuriostasuna barraiatzen du, banitateak trabatzen du; enganioak itsutzen du; nekheak ahitzen du; tentazio-neek penatzen dute, atsegiñek flkatzen, eta gabeak tormentatzen.

3. Oi! noiz ethorriko da gaitz hauk guzien fiña! noiz libratuko naiz bizioen gathibutasun dohakabetik?

Noiz ez naiz zutaz baizen orhoituko, ene Jainkoa; noiz osoki zure baithan boztuko naiz.

Noiz gorputzeko, eta espirituko traba guzie-tarik ilkhirik manera guziez libro izanen naiz.

Noiz gozatuko naiz bake fermu eta nahas-mendu gabeko hartaz, bake seguratu, barneko, eta kanpoko bake deusek eziñ altaratuzko hartaz?

O Jesus ona, eta maitagarria! noiz izanen naiz estatu hartan zeinetan nik zu bekhoz bekho ikhusiko baitzaitut, zeinetan zure eresumako loria kontenplatuko baitut! noiz izanen zaitut zu gauza guzien orde?

Noiz izanen naiz zurekiñ erresuma hartan, *zeiña preparatu baituzu maite zaituztenentat eternitate guzitik.*

Helaz! utzia naiz hemen desterratu dohakabe bat bezala etsaien lurrian, zeinetan bethiereko gerlak baitire, eta lazeria eziñ gehiagokoak.

4. launa konsola nazazu ene desterruan, goza zatzu ene atsekabeak; ezen ene bihotzak eztu zuretzat baizen hasbeherapenik.

Munduak ene gaitzen arinzeko eman nahi darozkidan konsolamendu guziak nekha garri, eta penagarri dire enetzat.

Ene gutizia miña da zurekiñ hertsiki lothua iztea, eta eziñ hartarat hel naiteke.

Ene desirak altxatzen naute zeruko gauzetarat, baiñan ene pasioneen kargak pisatzen nau, eta lurreko gauzek lurerrat thiratzen naute.

Espirituak eman nahi nau gauza guziez gorago, baiñan haragiak nahi badut, eta ez beheratzen nau.

Eta hala ni dohakabea, ene buruaren kontra guduan hari naiz, *ene buruaren etsai naiz*, eta kontresta neure buruarentzat karga eziñ iasanezko bat, ene espirituak goiti, eta haragik beheiti naramanaz geroztik.

5. Oi zer bihotz miñ eztut pairatzen, noiz eta ere othoitzean nagoenean, eta zeruko gauzetan gogoia dudanean, haragiak milla fantasma, eta lilluramendu gogoratzen baitarozkit!

O ene Jainkoa etzaitezela othoi hastan eneganik, etzaitezela zure zerbitzariaganik itzul zure koleran.

Arthik atzu zure ihurtzuriak, eta zure xismistak, eta sunsi zatzu zure fletxak, eta egor atzu ihesi ene etsaiak bere artifizio guziekiñ.

Biribilla zatzu zure ganat ene sensu guziak ahantsaraz dietzakidatzu munduko gauzak, egidazu grazia hei ukho egiteko, eta bizioen fantasma banoak arbuiatzeko.

O egia eternala! hel zakizkit, eztezazula sofri banitateak egiñ diezadan daiñurik.

O zeruko eztitasuna! zato ene ganat, eta khien zatzu ene bihotzetik lohitasun guziak.

Zure miseriakordia infinituak barkha bietzakit othoitzean nagoenean zureganik ene gogoan has-tantzen duten errebelamendu guziak.

Aithortzen dut ardura dudala bertzetan gogoan, eta maiz gutiako naizela ene gorputza den lekhan, ezen ez ene gogoeta airatuek naramaten lekhan.

Eta egiazki ene gogoan den lekhan naiz, eta da ene gogoan nik maite dudana den lekhan.

Eta naturalki atsegiñ egiten darokun gauzak usantzak gure gogarako egiten duena lauster heldu zaiku espiriturat.

6. Hori zeronek erran darokuzu klarki, o egia eternala! *zure bihotza den lekhan da zure tresora.*

Zerua maite badut zeruko gauzak atsegiñe-kiñ gogoan erabilliko ditut, mundua maite badut munduko onez boztuko naiz, eta tristatuko munduko gaitzez.

Haragia maite badut haragiari daozkana gauzak ethorriko zazizkit gogorat, espiritua maite badut espirituaren araberrako gauzetan hrtzen dut atsegiñ .

Fiñean gogotik mintzo naiz maite ditudan gauzez, eta halakoez mintzatzen bertzeak gogotik aditzen ditut, eta bihurtzen naiz etxerat halako gauzen orhoitzapenez, eta imajinez burua betherik.

Baiñan dohatsu da, ene Jainkoa, zuregatik kreatura guziak bere bihotzetik hastantzen dituen, bere naturalezari bortxa egiten dioena, eta haragiaren gutziak espirituaren kharraz hersten, eta mortifikatzen dituen.

Manera hortan bere konzienzia soseguan emanik othoitz garbia ofrenda diezazuntzat; lurreko gauzak kanpoan, eta barnean bereganik hastandurik gai kausi dadintzat aingeruen baltsan egoteko.

XLIX. KAPITULUA

Dohatsutasunaren gutiziaz, eta bertze munduko golardoez.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, sentitzen duzunean ematen dudala zure baithan berotasun saindu bat eternitateko zorionarentzat; desiratzen duzunean zure gorputzeko presondegitik ilkhitzea ene argien kontenplatzeko; orduan zabal zazu zure bihotza, eta har zazu espirazione hori zure arimaren hedadura guziaz.

Eskerrak bihur diotzotzu Jainkoaren miseri-kordiari, ziña haiñ eztiki heldu baita zureganat, zeñak haiñ samurki atzartzen baizaitu; zeñak haiñ sendoki sustengatzen baizaitu, beldurrez zure pisutasun propioak eroraraz zaitzan lurreko gauzen amudiorat.

Ezta hori heldu zure gogoetetarik, eta ez zure ahaletarik: baiñan ene graziaren faboretik, eta ene miserikordiazko begitartetik berthutean aitziña zaitezen, humiltasunean bortitz zaitezen-

tzat, ethorriko zaizkitzun gudutarat prepara zaitzentzat; zure bihotz guziaz niri lot zakizkidantzat, eta zure borondate guziaz zerbitza nazazuntzat.

2. Ene semea, sua bixten da errexki; baiñan khe gabe ezta kharra altxatzen.

Hala badire presuna batzuk zerukotz desira beroak dituztenak; ordean eztire osoki garbi afekzione humanoen zikhiñetik.

Handik heldu da zenbat khar handirekiñ zeruko ontasunak galdetzen badarozkidate ere ezpaitituzte phuruki ene loria xoillagatik galdetzen.

Halakoak dire maiz zure gutziak, eta hargatik dire hanbat griñez nahastuak.

Ezen intres, eta amudio propioz nothatua dena, eziñ daiteke ez xahua, ez perfeta.

3. Galde diezadazu beraz ez zure nahiaren, eta aisiaren arabera dena, baiñan ene loriari daokana, eta ene gogara dena: ezen gauzez ungi iuiatzen baduzu behar duzu ene ordenuak

zure gutizia baiño gehiago prezatu, eta zure nahia utzirik enea konplitu.

Ezagutzen ditut zure nahiak, eta maiz entzuten ditut zure hasberapenak.

Nahi zinduke orai danik gozatu Jainkoaren umeen libertateaz, eta loriaz; atsegiñekiñ darabillazu gogoan etxze eternal hura, eta herri bozkarioz bethe hura.

Baiñan ezta oraiño zure orena ethorri: iguriki behar duzu zenbait denboraz, eta denbora hura gerlaren, nekhearen, eta frogantzen denbora da.

Nahi duzu izan bethea ontasun soberanoaz; baiñan eziñ dukezu orai.

Ni naiz ontasun guzien gaiñeko ontasun hura: zaude ene beira, dio launak, Jainkoaren erresuma ethor dadiñ artheraiño.

Asko atsekabe behar duzu lurraren gaiñean pairatu, eta haiñitz frogantzarik iragan.

Konsoalzioneak ere izanen tutzu batzuetan: ordean eztuzu izanen bozkario perfeta.

Eztuzun beraz beldurrik, eta prepara zaitte animorekiñ egiterat, eta airatzerat naturaleza gehienik kontrestatzen duten gauza guziak.

Gizon berriaz beztitu behar duzu, eta behar duzu bertze gizon batetarat kanbiatu.

Maiz egiñ behar duzu nahi eztuzuna, eta utzi behar duzu nahi duzuna.

Bertzeak helduko dire bere xede guzietan, eta zu ez batetan ere.

Hek diotena adituko da, eta zuk diozuna arbuiatuko.

Bertzeen othoitzak entzunen dire, zureez ezta kasurik egiñen.

5. Bertzeak laudatuko dire, eta zu ahantziko.

Bertzeei emanen zaitze karguak, eta zu etare deusetako gai idukiko.

Orduan naturalezak pairatuko du, eta handia daikezu horlakoak ixillik, eta errenkura gabe pairatzen baitutzu.

Manera hortan frogatzen da Jainkoaren zerbitzari leiala, ikhusteko nola dakien gauza guzietan bere buruari ukho egiten, eta bere pasioneen garaitzen.

Nihoiz ere eztuzu beharrago zure buruari billa izatea, nola gutien nahi zinduken gauza ikhusi edo pairatu behar duzunean; eta guziz mana-

tzen darozkitzutenean gaua batzuk arrazonik, eta progotxurik gabeko iduritzen zaizkitzunak.

Eta nola buruzagi baten azpian baitzare, eta eziñ kontra egiñ baitiotzokezu haren podoreari, garratz iduritzen zaitzu zure nahi propioak utzirik haren ordenuen konplitzea.

6. Baiñan, ene semea, konsidera zazu nola-koa izanen den nekhe haukien fruitua, ziñ guti iraunen duten, eta zeñ sari handia darraioten: eta etzaituzte tristatuko, aitzitik borthiztuko dute zure pazienza.

Ezen zure nahiei zeren zerbait bortxa hemen egiñ diozuten zure nahi guziak konplituko dire zeruan.

Han kausituko duzu plazer duzun guzia, eta desira ahal dezakezun guzia.

Han ontasun guzien iabe izanen zare hekien galtzeko beldurrik gabe.

Han zure borondatea enearekiñ bat izanen da, eta eztu berzerik deusere nitaz lekhora desiratuko.

Han nihork eztarotzu kontrarik egiñen, nihor ezta zutaz errenkuratuko, nihork eztitu zure

xedeak debekatuko, ez trabatuko; baiñan nola ontasun guziak aitzinean izanen baititutzu zure desira guziak konplituak izanen dire, eta betheko dute bihotzaren hedadura guzia.

Orduan emanen darotzut loria fiñ gabeko bat pairatu duzun afruntu baten orde; bozkario guzien bilduma zenbait nigarren orde; eta zeren eman zaren bethi azkeneko herrunkan, iarriko zare bethikotz zeruko lorian.

Han ageriko da nolakoa den obedienziaren fruitua, zer bozkario darraion penitenziari, eta zeñ handia den humiltasunaren balioa.

7. Orai beraz humilioa zaite, eman zaite guzien azpian, eta etzaitezela kontu hari noren ganik heldu den zuri eman zaitzun manua.

Duzun artha solamente gogo onez hartzeko, eta puntualki konplitzeko zureganik galdetzen dutena; nahiz den galdetzaillea zure aitzindaria, nahiz den zure azpikoa edo zure kidea.

Batak bilha bea hau, bertzeak hori; haiñak eman beza bere loria gauza batean, eta hark bertzean; izan beitez laudatuak ehun milla presunez.

Zuk etzazula eman zure bozkarioa, edo oho-
rea gauzetan; baiñan zure mezprezatzean, ene
loriaren bilhatzean, eta ene loriaren konplitzean.

Zuk izan behar duzun gutizia bakharra da
*Jainkoa izan dadiñ bethiere loriafikatua nahiz
zure biziaz, nahiz zure heriotzeaz.*

L. KAPITULUA

Nola arima aflijituak eman behar duen Jainkoaren eskuetan bere burua.

ARIMAK

1. Ene launa, eta ene Jainkoa, eta guziz saindua, zaren benedikatua orai, eta mende guzietan, zeren zuk nahi izatu duzun guzia egiñ baita, eta zuk egiten duzun guzia bethi ona baita.

Zure zerbitzaria boz bedi ez bere baithan, edo berze nor nahi denen baithan; baiñan xoillki zure baithan; zu zarenaz geroz ene egiazko bozkarioa, bai, ene Jainkoa, zu zare ene eparantza, ene khoroa, ene kontentamendua, eta ene loria.

Eta egiazki, launa, *zer du zure zerbitzariak zureganik izatu duena baizen*, eta halere oraiño merezitu gabe.

Gauza guziak zureak dire, zuk egiñ ditzuzu, eta zuk eman ditzuzu.

Ni probea naiz, eta nekhatua ene gaztetasuneko denboratik, ene arima doloratzen da, eta

batzuetan nigarretaraiño; *altaratzen da* maiz ene pasioneez garaitua izateko beldurrez.

2. Zure bakearen bozkarioa nahi dut; zuk zure umeei ematen diozuten bakea galdegiten dut, eta khartsuki desiratzen dut zure konsoazio-
neen argia zeïña baita ume hekien bazka.

Bake hura ematen badarotazu, eta isurtzen baduzu bozkario saindu hura zure zerbitzariaren arimarat, allegriazko kantez betheko da guzia, eta zelorekiñ hariko da zure laudatzen.

Baiñan hastantzaen bazare harenganik, maiz egiten zaren bezala *eziñ ibilliko da lausterka zure mandamenduko bidean*; belhaunak aldi guzian flakatuko zaizko, eta haren eskuek ezute indarririk izanen bere bulharren iotzeko baizen, ikhusirik erori dela lehen zuen estatu dohatsutik: *Noiz eta ere zure argiak haren brnaren gaiñean diztiantzen baitzuten, eta gerizatzen baitzinduen tentazione muthirien kontra zure hegalen itzalaz.*

3. Aita iustu, saindu, eta bethi laudatzekoa, ethorri da zure zerbitzariaren frogatzeko orena.

Aita guziz maitagarria, iustu da zure zerbitzariak oren huntan zerbait paira dezan zure amoreagatik.

Aita bethi adoragarria, huna non den ordua zeñetan zuk eternitate guzitik ikhusi duzun bezala zure zerbitzariak kanpotik garaitua behar baitu izan aphur batekotz zurekiñ bethi bizitzekotz bizitze barreneko batez.

Den beraz arbuiatua, den humiliatua, den gizonen begietan eroria, eta garaitua, sofrikariz kargatua, ahiduraz flakatua, zurekiñ batean argi berri baten alban bitz dadintzat, eta fiñean dohatsuen zorionaz zeruan goza dadintzat.

Aita guziz saindua zuk horla manatu duzu, zuk horla nahi izatu duzu, eta zure ordenuen araber garthatu da gauza.

4. Ezen zuk zure maiteei egiten diozuten grazia da, hei indarra ematea guzien gogo onez pairatzeko zure amoreagatik, eta hei atsekabeak egortzea, plazer duzun aldi guziez, eta plazer duzun presuna guzien bidez.

Ezen lurrean ezta deus gerthatzen zure providenziaren ordenuz, eta konseilluz baizen: deus

ezta egiten bere ethorkia zure borondate sobe-
ranoaren eztuenik.

*On izatu da enetzat, launa, humiliatu bainau-
zu, iakiñ dezadantzat, bide hortaz iustu egiten
ditutzula gizonak, eta ene bihotzetik supherbiaz-
ko goratzapen guziak, eta burupe bano guziak
khen detzadantzat.*

Progotxos da enetzat zeren *ene bisaia ahal-
keriaz estalia izatu baita*. Ene konsolazioneak
bilha detzadantzat hobeki zure baithan, ezen ez
gizonen baithan.

Hortik ikhasi ere dut zure iuiamendu gordeen
beldur izaten: ikhusirik gaztigatzen duzula gaix-
tagiña bezala iustua ere; baiñan bethi iustuki,
eta zuzenki.

3. Esker darozut, o ene Jainkoa, zeren ezta-
rozkidatzun gupidetsi zure gaztiguak; aitzitik
zeren zure kolpeez porroskatu bainauzu, niri
dolorea dolorearen gaiñean egorririk, eta barne-
ko penei gorputzeko sofrikariak ere iuntaturik.

Ezta deus ere ez zeruan ez lurrean ni konso-
la nazakenik baizen, zu. O, ene launa, eta ene
Jainkoa, arimen miriku zerutik ethorria, *zeiñak*

zaurtzen baigaituzu, eta sendatzen eramaten thonbaraiño, eta handik bihurarazten.

Hedatu duzu zure besoa ene gainert eta zure zigorrada instrukzionetzat baliatuko zait.

6. Huna non naizen esk aita guziz maitagarria; humiliatzen naiz, eta ematen dut neure burua bihotz onez zure gaztiguen azpian.

Jazar zazu ene bizkarraren gainean, behera zazu ene buru superbioa; xuzen zazu ene borondate makhurra zurearen arabera.

Egiñ nazazu zure dizipulu humill, eta jainkotiar, hala nola baitakizu egiten plazer duzunean, zu obedi zaitzadanzat den kheiñurik xumeenean.

Neure burua, eta nik ditudan guziak ematen ditut zure gaztiguzko xigorren azpian; hobea-go dut mundu huntan gaztigatu bertzean baiño.

Zuk ezagutzen ditutzu gauza guziak, jeneralean, eta partikularrean, eta ezta gure konzienzia barreanean deus estalirik zuretzat.

Ethorkizuneko gauzak zure ezagutzan dire, ethor ditezen baiño lehenago; eta nihork ez tarotzu irakatsi behar, zer lurrean iragaten den.

Zuk badakizu zer dudan on berthutean aitzina goateko, eta zein progotxos diren atsekabeak bizioen herdoildura khentzeko.

Egizu nitaz plazer duzun guzia, eta eztezazula arbuia ene arima bere bekhatuengatik, zeinak nihork baiño hobeki zuk ezagutzen baituzu.

7. Indazu grazia ez dezadan ikhas, iakiñ behar dudana baizen, ez dezadan maita maitatu behar dena baizen, ez dezadan lauda zure gogara denik baizen, eta ez dezadan arbuia zure desgogara denik baizen.

Egidazu grazia ez dezadan gauzez iuia *kanpoko itxurapenen arabera*, eta ez nadiñ mintza iendeenganik aditzen ditudan hitz ariñen arabera; baiñan iuia dezadan gauza ageri direnez, eta espiritualez xuxenki, eta egiaren arabera, eta gauza guzien gaiñetik billha dezadan zure borondate sainduaren konplitzea.

8. Gizonak enganatzen dire maiz bere sensuen arabera iuiaturik.

Munduaren maitatzailleak enganatzen dire, halaber gauza ageri direnak eta iragankorrak baizen ez maitaturik.

Gizon bat hobeagotzen othe da, zeren den handiagotzat idukia?

Ez segur; eta gizon bat bertze batez laudatua, ezta bertzerik, baizen enganari bat engantua bertze enganari batez: superbio bat bertze superbio batez, itsu bat bertze itsu batez, eri bat bertze eri batez: eta laudorio bano horiek baliatzen dire hobeki ohoratzeke baiño desohoratzeke, eta konfunditzeko.

Ezen St. Franzes humillak erran duen bezala gizona hanbat da bere baithan zenbat baita zure begietan, o ene Jainkoa.

LI. KAPITULUA

*Gauza humilletan hari behar dela;
handiagorik eziñ egiñ ditekenean,
guziz agortasuneko denboran.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, eziñ bethi iraun dezakezu zure berotasunean, eta bethi eziñ zaudezke kontenplazioeko gradu gora batean, ezen naturaleza haiñ da gaixtua, eta flakaturia, non baitezpada behar baituzu iausi beheragorat, eta ikhasi bortxaz bederen bizitze huntako lazerien iasaten.

Izanen ditutzu bethi haiñitz khirats, eta barneko pena pairatzeko, gorputz hilkor batean bizi zareïño.

Behar duzu beraz haragian zareïño maiz uhendatu haragiaren karga pisua zeïñak gibelatzen baitzaitu bizitze espiritualari zure burua osoki ematetik, eta Jainkozko gauzen kontenplazetik.

2. Orduan egiñ dezakezun hoberena da zure unhaduraren arintzea kanpoko zerbait obra humillez ene baithan zure esparantza ematea eta ene begira egotea; zure agortasuna eta zure desterrua pazienziarekiñ iasatea, zure ganat bihur nadiñ arteraiño zure konsolatzerat, eta zure pena guzietarik libratzerat.

Ezen ahantziriko darozkizut zure nekhe guziak, eta gozaraziko zaitut barreneko bakeaz.

Idekiko darotzut ene eskrituren atsegiñezko baratzea, zure bihotza bozkarioak zabalduko du, eta *abiatuko zure lausterka ene manamenduen bidean.*

Orduan ezagutuko duzu *bizitze huntako sofrikaioak eztirela deus, bertzekotz zuretzat dagoen loriaren aldean.*

LII. KAPITULUA

*Batbedrak uste behar duela
gaztiguak hobeki dituela merezi
konsolazioneak baiño.*

ARIMAK

1. launa, eztut merezi ethor zaitezen ene konsolatzerat. lustuki tratatzen nauzu miserian, eta atsekabeen uzten nauzunean.

Ezen itsasoan ur den bezanbat nigar egiten banu ere, ez netzake merezi zure konsolazio-neak.

Ezen haiñ handizki, hanbat aldiz, eta hanbat maneraz ofensatu zaitudan ondoan, eztut iguriki behar gaztigutik, eta punizionerik baizen.

Hala gauza guziak ungi pisatu ondoan, eztut merezi den konsolazionerik xumeena.

Baiñan zuk Jainko guziz ona, zure obrak dese-giñ nahi eztitutzuna, eta *zure graziazko tresorak miserikordiazko iarrotan erakutxi nahi ditutzuna*, ematen diotzotzu zure zerbitzariari merezitu

gabe Jainkozko konsolzioeak, gizonen konsolazioeak ez bezalakoak.

Ezen zure konsoalzioeak munduko solasen konsolazionetarik hagitz dire diferentak.

2. Zer egiñ dut, launa, zuk niri zeruko konso-lamendurik emateko.

Helaz! eztut kausitzen deus onik ene bizitze guzian, eztut deus ikhusten ene baithan, baizen bethiereko pendura bat biziorat, eta nagitasun handi bat ene eskasen uzterat.

Egia da gazua hori, eta eziñ ukha dezaket, bertzela erraten banu ene kontra altxa zintezke, eta nihor ez ene alde.

Zer beraz merezitu dut ene bekhatuez baizen ifernua, eta eternitateko sua.

Aithortzen dut zin ziñez ene Jainkoa, merezi dudala manera guziez trufatua, eta arbuiatua izatea, eta ez naizela gai zure zerbitzarien artean kondatua izateko.

Heraberekiñ egiten dut aithor hori, halere erranen dut egia ene buruaren kontra; ene bekhatuez akusatuko naiz zureganik errexkiago

miserikordiaren, eta barkhamenduaren ardieste-ko.

3. Zer erranen dut ene bekhatuen orhoitzape-
nak ematen darotan ahalkerian, eta nahasmen-
duan.

Eziñ ahoa idek dezaket baizen errateko hitz
hauk bekhatu egiñ dut, launa, bekhatu egiñ dut,
urrikal nakizu, eta barkha diezadazu.

*Utz nazazu aphur bat ene atsekabean,
auhen, eta nigar egiterat, iauts nadiñ baiño lehe-
nago illhunbezko lur hartarat, zeïña baita herioa-
ren egoitza.*

Eta zer galdegiten duzu bekhatore kriminel,
eta dohakabeaganik, baizen ean dezan bihotza
humiliatua, eta bere bekhatuen urrikiaz erdira-
tua.

Egiazko urrikiak, eta bihotzeko humiliazio-
neak sor-arazten du barkhamenduaren esparan-
tza; hark sosegatzen du konzienzia altaratua
kobraraizen grazia galdua, libratzen gizona Jain-
koaren koleratik, eta iuntatzen musu saindu
batez arima penitenta bere Jaunarekiñ.

4. Bekhatore baten urrikimendu humilla zure gogarako sakrifizio bat da, zeinaren urriña hobeago baitzaitzu insensu, eta bertze usain on guziena baiño.

Urriki hura konpara daiteke *usain on preziatu harekiñ, zeña isuria izatu baitzen zure oin sakratuen gaiñerat: ezen eztuzu egundaiño arbuiatu bihotz egjazki urrikitu, eta humiliatu bat.*

Urrikimendu hura da ihes lekhua gure arimako etsaien kontra.

Hark eramaten tu bertzetan hartu ditugun notha, lohidura, eta khutsu gaixto guziak.

LIII. KAPITULUA

*Munduko ontasunekiñ iosiak direnei
eztiotzatela Jainkoak ematen bere
graziak.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, deus ezta haiñ baliosik, nola ene grazia, eztu nahi izan bertze gauzekiñ belsautua, ez nahastatua munduko konsolazioneekiñ.

Nahi baduzu beraz hura eman diezazudan hastan zatzu zureganik traba guziak.

Billha zazu erretiramendua, lakhet bekizu baxharrik zure buruarekiñ egoten.

Ihes egiozute solas alferrei, iarraik zakizko othoitzari, duzun artha zure konzienzia garbi idukitzeaz, eta zure bihotza bethi zure bekhatuen urrikiaz zaurtua izateaz.

Munduari ez balitz bezala behatu behar diozu, eta lothu behar zaizko Jainkoari hertsikiago lurreko gauza guziei baiño.

Ezen eziñ dukezu gogoia ene baithan finkatua, munduko atsegiñ iragankorren ondoan zabilzala.

Hastandu behar duzu zure ezagunetarik, eta maitetarik, eta iduki behar duzu zure arima munduko konsolzione guziez gabetua.

Hartarakotz londoni Petri Apostoluak othoizten ditu hertsiki giristiño guziak, bizi daitezen lurraren *gaiñean lehortar, eta bideante bezala*.

Oi nolako segurantzarekiñ hilzen den gizona deusi ere mundu huntan amudioz ezatxakona!

Ordean arima eri eta flakoa eziñ daoke gauza guzietarik horla hastandua, eta lurreko gauzekiñ iosia denak eztaki zer den gizon barrenkoi, eta espiritualaren libertatea.

Bada nahi badu izan espiritual, behar diote ukho egiñ, atzei bezala hurkoei ere; eta bere buruaren beldur izan behar du nihoren ere baiño gehiago.

Zure burua osoki garai ahal badezazu errexkiago gero bertzeak eginen tutzu.

Biktoriarik handiena nork bere burua garaitzea da. Nork ere bere burua hezi baitu halako maneraz non haren sensuek arrazoiñari obedi-

tzen baitiote, eta haren arrazoiñak gauza guzietan ene borondateari hura da bere buruaren garaitzaille, eta munduaren nausi.

3. Nahi baduzu perfekzione gora hura ardie-tsi, lothu behar zaizko lan hari zure indar guziez, hari behar duzu zuhaitza errotik pikatzen, athera behar duzu zure bihotzetik zeure buruarentzat zure aisientzat, eta zeñ nahi den munduko ontasunentzat duzun amudio desordenatua.

Nork ere bere amudio propioa garaitu baitu, haiñak egiñ du hurren guzia, ezen ebaki du bizio guzien erroa.

Eta biktoria haren fruitua da bake bat deuse-re eziñ altara dezakena.

Baiñan nola gutiak baitire bere buruei hiltze-ra ensaiatzen direnak: hala gehienak bere pasio-need gathibu gelditzen dire, halako maneraz non espirituak eziñ garai baitetzake haragia.

Bada enekiñ libertate osoan ibiltzeko hezi behar dire gutizia desordenatuak eta ez lothu kreatura bati ere pasionez, edo amudio propioz.

LIV. KAPITULUA

*Graziaren, eta naturalezaren
mobimendu diferentez.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, artha handirekiñ hari zaite zure baithan berezten naturalezaren, eta graziaren mobimenduak, ezen hagitz dire gaitzak eza gutzen, eta presunarik argitueneke ere nekhez ikhasten dute hekien artean difernziaren egiten.

Guziak ungiari darraizko: guziek zerbait ontasun dute bere hitzen, eta obren xedetzat; baiñan ungiaren itxurak haiñitz enganatzen ditu.

2. Naturaleza siñeziosa da, gizon gehienak irabazten ditu, eta bereganatzen, enganatzen, eta bere saretarat erorazten, eta eztu bertze xederik bere buruaren kontentatzea baizen.

Kontrarat graziak eztu nihor enganatzen, sinplea da, eta artifizio guzien etsaia: hastantzen da gaizkiaren iduri guzietarik, guziak egiten ditu

phuruki Jainkoagatik, zeña baita haren egiazko sosegua, eta haren xede baxharra.

3. Naturalezak ez du hil nahi, ez du nahi izan zapatua, ez garaitua, nekhez obeditzen du, eta gaitzi zaio azpiko izatea.

Baiñan graziak darabilan arimak artha daoka bere buruaren mortifikatzeaz, eta atsegiñen gutiziei kontra egiteaz, nahi du garai dezaten, libertateaz gabe dezaten, erregela hertsien azpian emendatzen.

Urrun da nausitasuna billhatzetik edo desiratzetik; aitzitik bethi nahi du izan Jainkoaren manuko, eta egon haren azpian, *eta bethi prest dago bere burua* Jainkoaren amoreagatik *gizon guzien azpian ematerat*.

4. Naturaleza bere intresak darabilla, hura bere abantailen ondoan dabilla.

Graziak berriz ez dio beiratzen bere aisiari, eta probetxuari; baiñan bai bertzeren onari.

5. Naturalezak nahi du izan ohoratua, eta errespetatua.

Graziak eztu nahi ohore, eta loriarik Jainkoarentzat baizen.

6. Naturaleza ahalkerian, eta meziprezioaren beldur da.

Graziak *pairatzen ditu afruntuak bozkariorekiñ Jesus-Kristoren amoreagatik.*

7. Naturalezak maite du pausua, eta gorputzaren aisia.

Grazia eziñ daoike alferrik, eta gogotik lanari lotzen zaio.

8. Naturaleza gauza ederren, eta kuriosen ondoan dabilla, higuin ditu gauza txarrak, lodiak, eta latzak.

Graziak billhatzen tu gauza lanoak, eta guti baliosak; harroak, eta gogorak eztitu arbuia-tzen; gogotik iausten tu tresna zahar, eta ihe-tzeak.

9. Naturaleza lurreko gauzei darraiote, boz-ten da irbaziaz, tistatzen kalteaz, asarratzen; eta sumintzen hitz ofensagarri batez.

Grazia lotzen zaie zeruko ontasunei haiñ borthizki non munduko kalteek ezpaitute altaritzen, ez ukitzen bidegabeek, ez asarratzen ofendek; zeren bere tresora, eta bozkarioa eman baitu zeruan deusik galtzen ezten lekhan.

10. Naturaleza abariziosa da, eta hirritsez bethea gogotikago dago ematerat baiño hartzerat, bereak ditu maite, et iabetu nahi du gauza guziez.

Grazia liberala da, hark eztu nahi iabetasunik, balsan nahi ditu gauzak; gutiz kontentatzen da, eta *atsegiñago zaio hartzea baiño ematea.*

11. Naturalezak emten daroku amudio munduarentzat, eta kreaturentzat billharazten darozkigu gorputzaren nahikarak; eta erabiltzen gaitu banitateen ondoan; galarazten daroku denbora solas, eta goan ethorri alferretan.

Graziak ematen du Jainkoaren amudioa, eta berthuteena; hark ukho egiten diote kreaturei, ihes munduari, higuin ditu haragiaren gutizia lohiak; uzten ditu pasaieta inutillak, eta ahalke da iende artean agertzeaz ere.

12. Naturalezari on zaio kanpoko konsoalzio-
neen izatea, eta sensuen atsegiñez gozatzea.

Graziak gure konsolazionea billhatzen daroku
Jainkoa baithan, eta ontasun soberanoan, gure
atsegiñ guzia.

13. Naturaleza bethi hari da bere progotxu,
edo aisiagatik, eztu deus egiten dohaiñik, baiñan
haiñbertze, edo gehiago izateagatik, eta bede-
ren fagorez, eta laudorioz pagatua izateagatik,
eta haiñitz baliarazten ere du egiten, edo ema-
ten duena.

Baiñan graziak eztu billhatzen deus iraganko-
rik, eztu nahi bertze irabazirik edo sririk Jainkoa
bera baizen, eta lurreko ontasunetarik eztu nahi
zeruko ontasunen ardiesteko behar dena baizen.

14. Naturaleza bozten da ahaide, eta adiskide
haiñitzen izateaz, loriatzen da bere sortze diz-
tiantaz, eta kasta nobleaz, handiei gorthe egiten
diote, lausengatzen ditu aberatsak, eta bere idu-
takoei egiten diote besta, eta begitarte.

Graziak maite ditu bere etsaiak, eta adiskide haiñitz izateak ez dio buruperik ematen, ezta superbiatzen bere sortzeaz, ezta prezatzen bere aitziñekoen noblezia, berthuteak ezpadio prezarazten.

Pobreei gehiago behatzen diote aberatsei baiño, ez ditu handiak lausengatzen; baiñan inozent doloratua urrikaltzen zaio. Presuna sinpleak, eta egiaiak ditu maite, eta ez dobleak, eta artifiziosak.

Presuna prestuak hertxatzen ditu *gerotik gerorat perfekzionaean aitziña goaterat*, eta Jesus- Kristoren berthuteak obretan emanik haren iduriko egiterat.

15. Naturaleza lauster errenkuratzen da penaz, eta gabeaz.

Graziak konstantki pairatzen du pobrezia.

16. Naturaleza beretzat hari da, ihardukitzen badu, gudu egiten badu, beretzat egiten du.

Graziak gauza guziak bihurtzen diotza Jainkoari, zeñaganik heldu baitire: ez du uste baduela deus onik, ez du deusez ere buruperik ez du ihar-

dukitzen, eta eztaoka bere burua bertzeak baiño argituago; baiñan bere adimendua, eta argi guziak ematen ditu Jainkoaren zuhurziaren, eta haren iuiamenduen azpian.

17. Naturalezak iakiñ nahi tu gauza gordeak, eta sekretuak; aditu berriak, ilkhi kanporat, eta dastatu gauza guzietatik. Nahi du izan ezagutua, eta zerbait egiñ, bederen, laudorioak, eta estimua erakhar diozoketenik.

Grzaia ezta kontu hari berriez, eta kuriostasun banoez; ezen horietan eztu ikhusten gure korrupzione zaharraren markarik baizen, eta bertze alde egia errateko ezta deus berririk, hala nola ezpaita deus iraupenezkorik lurraren gainean.

Hark irakasten du sensuen gutizien hersten, banaloriari, eta gure buruaz dugun kontentamenduari ihes egiten, gure baithan laudagarri, eta miragarri direnak humiltasunaz gordetzen, gauza guzietan, eta iakintasunaren argi guzietan arimaren progotxua, eta Jainkoaren loria billhutzen.

Eztu nahi izan laudatua, baiñan Jainkoa nahi du lauda dadiñ bere dohaiñ guzietan, zeren hark bere liberalitate phuruz ematen baititu gauza guziak.

18. Grazia hura naturaz goragoko argi bat da, Jainkoaren dohaiñ berezi bat.

Hura da ungi mintzatzeko hautetsien marka, eta zigillua, eta salbamendu eternalaren bahia. Hark arima altxatzen du lurreko gauzen amudiotik zeruko gauzen amudiorat, eta lehen guzia haragizko zena guzia espiritual egiten du.

Hala zenbatenaz naturaleza heziago eta zapatuago baita hanbatenaz grazia isurtzen da bethekiago arimarat; eta gizon barrenkoia egunetik egunerat Jainkozko isuri husuez perfekzioan aitziañatzen da, eta hurbiltzen Jainkoarekiñ behar duen idurirat.

LV. KAPITULUA

*Naturalezaren korrupzioenez,
graziaren beharraz, eta hark
arimetan egiten dituen efektuez.*

ARIMAK

1. Ene launa, eta ene Jainkoa, zure imaginat, eta idurirat kreatu nauzuna, indazu bada zure grazia hura zeñaren handitasuna, eta beharra haiñ ungi erakutxi baitarotazu; garai dezadantzat ene naturaleza gaixtoa, zeñak behiere bekhaturat, eta heriotzerat bainarama.

Ezen sentitzen dut ene haragian bekhatuaren legea, espirtuaren legeari kontra egiten dioena zeñak gathibu itxekitzen bainau, eta maiz ergiten baitaokit sensuen nahikarak.

Hala eziñ garai deaket ene pasioeen indarra zure grazia ezpada ethortzen ene bihotzerat, ene laguntzerat, eta borthizterat.

2. Zure graziaren, eta grazia handiaren beharra dut hezteko naturaleza bat, *haste hastetik gaitzerat ekharria*.

Ezen naturaleza hura lehenbiziko gizonaren bekhatuaz gaixtatua, eta pozoatua izatu da, eta bekhatu haren pena iausti da Adamen ume guzietarat.

Halako maneraz bainon naturaleza ona, eta eskas gabea zelarik zuk kreatu zinduenean, orai haren izena ematen baizaio bizioari, eta flakeziari; zeren eta naturaleza hark graziaz ezpada lagundua lurrerat, eta bekhaturat baikaramatza.

Hark orai duen indar aphurrak su iñar bat dirudi hautsaz estalia, eta su iñar hura arrazoin naturala da illhunbeez estalia, ziñaren artetik egiten baita oraiño ungiaren; eta gaizkiaren, egiaren, eta gezurraren artean berezkoa, eta diferentzia; eztuelarik arren ahala ungi zaionaren egiteko, gabetua delarik egiaren ezagutza osoaz, eta haren desirak eztirelarik iustuak, eta inozentak.

3. Hargatik, ene Jainkoa, *zure legean lakhetzen zait, eta maitatzen dut barreneko gizonaren*

arabera, baitakit, ona dela, iustua, eta saindua dela, kondenatzen dituela gaizki guziak, eta irakasten darokula bekhatuaren higuintzen.

Baiñan haragiak bekhatuaren legearen azpian ematen nau; eta sensuen gutziak hobe-kiago egiten ditu arrazoinarenak baiño.

Handik heldu da, kausitzen baitut ene bait-han ungiaren egiteko nahia, eta ezpaitut kausitzen haren konplitzeko ahala.

Deliberazione onak hartzen ditut: baiñan nola ene flakotasunean eskasten baitzait hagoan egoteko behar dudan grazia, den trabarik xumeena edireten dudanean flakutzen naiz, eta bihotza erortzen zait.

Hala ezagutzen dut perfekzionaeren bidea, eta badakit zer behar dudan egiñ haren ardieste-ko; baiñan ene korrupzionaeren karga pisuak zapaturik eziñ harat hel naiteke.

4. Oi, ene Jainkoa, ala zure graziaren behar bainaiz ungiaren hasteko, hartan aitziñatzeko, eta haren osoki akhabatzeko.

Ezen hura gabe eziñ deus dakiket; *baiñan gauza guzien egiteko gai naiz hartaz borthiztua naizenean.*

O grazia zeruko dohaiñ egiazkoa, zeña gabe ezpaita merezimendu propiorik, eta zeña gabe naturalezaren dohaiñ guziak ezpaitire deus.

Hura gabe gizonaren iakintasuna, eta antzea, aberastasuna eta edertasuna, indarraren, eta bihotzaren handitasuna, espiritua, eta hitz ederrak, eztire deus zure begietan, o ene Jainkoa.

Ezen naturalezaren abantail horiek ematen zaizkote onei bezala gaixtoei ere, grazia, eta Jainkoaren amudioa da hautetsien dohaiña berezia, hartaz merezitzen dute bizitze eternala.

Haiñ gauza handia da grazia, non profeziazko espiritua, mirakuiilluen obratzeko dohaiña, eta kontenplazionerik gorena ere ezpaitire hura gabe prezatzeko.

Fedea bera, esparantza, eta bertze berthuteak eziñ daitezke zure gogarako, o ene Jainkoa, grazia, eta kharitatea gabe.

5. O grazia dohatsua, ziñak espirituz pobre direnak berthutez aberats egiten baititutzu, eta

zeruko dohaiñez betheak direnak humill baita-
duzkatzu!

lauts zaite ene arimarat, zato ene ganat, eta
goizetik betje nazazu zure konsoalzoneez, bel-
durreez nekheak, eta agortasunak flakaturik ero-
raraz nazaten.

Othoizten zaitut, o ene Jainkoa, bethi kausa-
raz nazazu zure grazian zure aitziñean.

Ezen *asko dut zure grazia*, naturalezak desi-
ratzen dituen bertze gauza guzietarik izaten
ezpanu ere.

Zer nahi den tentazione, edo atsekabe gert-
ha dakidan *ez naiz deusen ere beldur izanen*
zure grazia enekiñ deiño.

Hark borthizten nau, gidatzen, eta laguntzen
nau.

Ene etsai guziek baiño indar gehiago du, eta
argi gehiago munduko zuhur guziek baiño.

6. Hark irakasten du egia, hark xuxentzen
bizitzea, hark argitzen bihotza, arintzen penak,
eta atsekabeak, khentzen tristezia, eta beldurra,
hazten deboziona, eta isu penitenziazko nigar
sainduak.

Zer naiz ni hura gabe, egur ihar bat sukoz
baizen on eztena?

*Beraz, ene Jainkoa, zure graziaz prepara
nazazu aitziñetik, eta grazia hura lagun bekit
bethi, eta atzarria iduk benaza kontiño obra
onen egiterat. Jesus-Kristo zure semea launaren
merezimenduak gtik. Halabiz.*

LVI. KAPITULUA

Gure buruari ukho egiñ behar diogula, eta iasan gurutzeta Jesus-Kristok bezala.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, zenbatenaz gehiago higuinduko baituzu zure burua, hanbatenaz hertsikiago enekiñ lothuko zare.

Eta nola kanpoko deus ez desiratzeak egiten baitu barreneko bakea, hala gure buruei ukho egiteak egiten du Jainkoarekiñ gure batasuna.

Nahi dut ikhas detzazun gauza guziak ene nahirat uzten konrestarik, eta errankizunik bategabe.

Niri iarraik zakizkit, ni naiz bidea, egia, eta bizitzea; biderik gabe nihor eziñ dabilke, egia gabe ezta ezagutza segurik, bizitzea gabe ezta nihor bizi.

Ni naiz zuk hartu behar duzun *bidea*; zuk sinhetsi behar duzun *egia*, zuk desiratu, eta iguriki behar duzun *bizitzea*.

Ni naiz *bide* segura, *egia* eziñ enganatuzkoa, *bizitze* fiñ gabekoa.

Ni naiz *bide* xuxenena, *egia* lehena, *bizitze* egiazkoa, dohatsua eternala.

Ene bidean bazaude, ezagutuko duzu *egia*, *egiak salbatuko zaitu*, eta bizi araziko zaitu eternitate guzian.

2. *Bizitzea ardietsi nahi baduzu begira zatzu ene manamenduak.*

Nahi baduzu *egia* ezagutu, *sinhetsazu* ene baithan.

Perfet izan nahi baduzu sal zatzu ditutzun guziak.

Ene dizipulu izan nahi baduzu ukho egiozu zure buruari.

Bizitze dohatsua irabazi nahi baduzu, *mezpreza* zazu oraiko *bizitze* hau.

Nahi baduzu *zerurat* altxatu, *behera* zaite, eta *humilia* lurrean.

Ene erregetasunaeen partale nahi baduzu, *iasan* zazu enekiñ *gurutzea*.

Ezen gurutzearen maitatzailleek baizen ezute kausituko dohatsutasunaren, eta egiazko argiaren bidea.

ARIMAK

3. Ene launa, eta ene Jainkoa zure bizitzea haiñ nekhatua, eta munduaz arbuiatua izatu denaz geroztik, egidazu grazia zure imitatzeko, eta munduaren meziprezioaren desiratzeko.

Ezen zerbitzaria ezta handiago bere iauna baiño, ez eta dizipulua bere nausia baiño.

Usa zazu beraz zure zerbitzaria zu bezala bizitzen, ezen hortan dago ene salbamendua, eta saindutasun egiazkoa.

Zure bizitzeaz mintzo eztiren liburuek edo solasek ez naute konsolatzen, ez naute osoki kontentatzen.

JESU-KRISTOK

4. Ene semea, dakizunaz geroztik, et irakurri duzunaz geroztik nik zer egiñ, eta irakatsi dudana, *dohatsu izanen zare hek obretan ematen badituztu.*

Nork ere baitakizki, eta begiratzen baititu ene manamenduak hark ni maitatzen nau, eta nik ere hura maitatuko dut; eta hura iararaziko dut ene aitaren tronuan.

ARIMAK

5. Jesus ene launa, egiñ bedi zuk erran eta agindu duzun bezala, eta othoi gai errenda nazazu grazia haren ardiesteko.

Hartu dut gurutzea zure eskutik, iasanen dut gurutze hartu dudana, eta garraiatuko dut heriotzeraiño darotazun bezala.

Fraide saindu baten bizitzea gurutzea da baiñan gurutze hura zeruko bidea da.

Sarthu naiz bide hartan, etzait zillhegi gibelat bihurtzea, are gutiago bide haren uztea.

6. Ea beraz anaiak, goazen elkarrekiñ Jesus gurekiñ izanen dugu.

Jesusen amoreagatik hartu dugu gurutzea: haren amoreagatik iasan zagun fiñeraiño.

Hura izanen da gure laguntzaille, gidari, aitzindari.

Horra gure erregea non doan gure aitziñean,
hark gure alde nahi du gudukatu.

Jarraik gakizkon bihotz handirekiñ, eztugun
etsaien beldurrik.

*Hill gaitezen behar bada gerla hortan, eta
gure laidotan etzagula erranaraz gai izatu gare-
la gurutzearen banderaren uzteko.*

LVII. KAPITULUA

Etzaizula bihotza erori behar gure eskasengatik.

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, nahiago zaitut ikhusi humill, et pazient atsekabetan; ezen ez debozinez, eta konsolazione espiritualez bethea gauzak zure gogara doazkitzunean.

Zergatik horla khexatzen zare zure kontra egiñ edo erran den gauza xume batez.

Handiagoa balitz ere, etzinduke hargatik alaratu behar.

Utz atzu gizonen solas bano horiek, ezta gauza berri bat halakoen aditzea, ezta lehen aldia horla zure kontra mintzatu direna; ez eta azkena ere haiñitz bizi bazare.

Bihotz haiñitz duzu deus pairatzekorik eztuzunean, bertzeei konseillu onak ematen diotzotzute, eta zure hitz onez borthizten ditutzu; baiñan ustekabeko zerbait gaitz gerthatzen zaitzu-

nean, berehala eskasten zaitzu konseillua, eta indarra.

Ezagut zazu beraz zure flakotasun eziñ gehiagokoa; frogatzen duzu maiz den gauzarik xumeenetan. Halere iakiñ zazu pena horiek, eta horlakoak zerutik egortzen zaizkitzula zure salbamendukotz.

2. Khen zazu lehen bai lehen pena hek zure bihotzetik; eta eziñ bazaozke hek sentitu gabe, bederen etzaitezela khexa, eta hekiengatik ez bekizu bihotza eror.

Paira zazu bederen pazienziarekiñ eziñ egiñ badiezakezu bozkariorekiñ.

Pena baduzu zure kontra mintzatzen aditzeaz, eta orduan kolera bixten bada zure bihotzean, fazega zazu berehala, eta ezpedi athera zure ahotik hitz behar gabekorik, eta flakoak eskandala detzakenik.

Kalma bihurtuko da lauster graziarekiñ batean, eta grazia hark sosegatuko du zuree bihotzeko altaramendua, eta erresumiñ guzia gozatuko.

Bizi naiz oraiño, dio Jainko launak, bethi prest zure laguntzerat, eta zuri egundaiño baiño konsolazione gehiagoren ematerat, baldiñ zure esparantza guzia ene baithan emanik othoizten banauzu khar handirekiñ.

3. Zaren fermu, eta prepara zaite egundaiño baiño gehiago pairatzeraty.

Ez dezazula etsi gerthatzen bazare atseka-beez maizago penatua, edo borthizkiago tentatua.

Alabaiñan gizon zare, eta ez Jainko: baduzu gorputz bat, eta etzare espiritu huts aingeruak bezala.

Nola ziñagozke beti berthutezko, eta indarrezko estatu batean, hala egotu eztirenaz geroztik ez aingeruak, zeruan ez eta gizona parabisu lurrekoan.

Nik plaiñuz daudezenak konsolatzen ditut, eta atheratzen bere penetarik, nik jainkotasuneraiño altxatzen ditut bere flakotasuna ezagutzen dutenak.

ARIMAK

4. Ene launa den bethiere benedikatua zure hitza: *gozoago da ene bihotzarentzat eztirik hoberena ene ahoarentzat baiño.*

Zer egiñ nezake hanbat atsekabe, eta hersturen erdian, zuk ezpaninduzu borthizten zure hitz sainduz?

Baiñan zer antzia dut nik zer nahi den pairaturik ere, ardiesten badut salbamenduko porturat?

launa inazu fiñ on bat, eta mundu huntarik bertzerat iragate dohatsu bat.

Ene Jainkoa orhoit zaite nitaz, eta gida nazazu biderik xuxenenaz zure erresumarat. Halabiz.

LVIII. KAPITULUA

*Ez ditugula zundatu behar
Jainkoaren iuiamenduak, eta gutaz
gorago diren gauzak. Zer maneraz
behar ditugun ohoratu sailduak.*

JESU-KRISTOK

1. Ene semea, begira zaite sartzetik gauza goregitan, eta zundatzetik Jainkoaren iuiamendu gordeak.

Ea zergatik Jainkoak bat uzten duen, eta bertze bati grazia handiak egiten diotzon, zergatik den bat humiliatua, eta bertze bat altxatua.

Gauza horiek ixitzen dituzte gizonen argi guziak, eta hekien espiritu eta arrazoiñamendu guziak eztire gai Jainkoaren ezagutzeko.

Hala beraz deabruak horlako gogoetak egortzen darozkitzunean, edo gizon kuriosek horlako galde suerterik egiten darozkitzutenean; ihardets diozozute profetaren hitz hautaz: *Justua zare launa eta zure manamenduak zuzenak dire.*

Edo bertze hautaz: *launaren iuiamenduak egiazkoak dire, eta berenez dire iustuak.*

Gizonek izialdura behar dute ene iuiamenduentzat, eta ez dute hari behar hekien zundatzen, ezen gizonaren adimendua ezta gai hekien ezagutzan sartzeko.

2. Etzaitezela halaber iar ihardukitzen sainduen merezimenduez, hea bata sainduago den bertzea baiño, nor den handiago edo gorago zeruko erresuman.

Horlako gauzek bixten tuzte maiz behar gabeko eskatimak, hazten supherbiotasuna, eta banaloria, eta bat bedera banitate gorde batez bere sainduaren bertzeak baiño gorago haltatzen hari dela, egiten dire banderizak, eta hetan sartzen herrak eta inbidiak.

Ihardukitze horiek eztire behiñ ere on eta probetxos gizontzat, eta bethi dire higuingarri sainduentzat, *zeren ezpainaiz ni eskatimetako Jainkoa baiñan bai bakezkoa*, eta bake hura ezta-go nork bere burua egiazki haltatzean: aitzitik nork bere burua egiazki humiliatzean.

3. Batzuek deboziora gehiago dute saindu batentzat bertze batentzat baino, ordean afekzio hori maizago da humanoa, eta naturala ezen ez naturaz goragokoa, eta jainkozkoa.

Saindu guziak nik egiñ ditut, nik eman diotet grazia, nik loriaz sariztatu ditut.

Nik ezagutzen tut baxhotxaren merezimenduak, *nik eman diotzet ene ezintasunaren, eta ontasunaren markak*, hek enetzat deus egiñ baino lehen.

Nik ezagutu ditut mende guziak baino lehenago nerrorek maitatu, eta predestinatu ditudanak, ez naute hek ni lehenik hautatu, *nik hek hautatu ditut, eta berezi mundutik*.

Nik deithu ditut ene graziaz, ene ganat thiratu ditut ene mierikordiaz, nik munduko tentazioe diferentean artean gidatu ditut.

Nik bethe ditut ene konsolazioe sainduz, nik eman diotet onean iraupena, eta perseberantzia, nik fiñean khoratu dut hekien pazientzia.

4. Nik guziak ezagutzen ditut, guziak lehenbikotik azkeneraino, eta maitatzen amudio infinitu batez.

Nik behar dut beraz izan laudatua gauza guzietan, eta gauza guzien gaiñetik, nik behar dut izan ohoratua ene sainduetan; ezen nik predestinatu ditut; eta altxatu haiñ loria handirat, merezimendu propiorik aitziañetik izan gabe.

Hargatikan nork ere meziprezatzen baitu xumeena, haiñak eztu ohoratzen handiena, ezen nik egiñ ditut handia, eta xumea.

Eta nork ere ofensatzen baitu saindu hetarik bat, haiñak ni ofensatzen nau, eta zeruan diren bertze guziak.

Ezen guziak karitateaz iuntatuak, eta bat egiñak dire.

Eztute gogo bat, borondate bat, eta amudio bat baizen.

5. Baiñan guziz miragarri dena da, maiteago bainaute ni bere buruak, eta bere merezimendu guziak baiño.

Ezen bere buruaz gorago altxaturik, bere amudio propiotik ilkhirik maitatzen naute ni soberanoki, eta bere indar guziez, eta hartan kausitzen dute bere pausua, eta dohatsutasuna.

Deusek eziñ gibela detzake ene maitatzetik, eta eiñ iauts ditezke ni baiño deus beheragoren maitatzerat, zeren nola baitire egia eternalaz betheak sekulan iraungituko ezten amudiaren suaz erretzen hari baitire.

Hala beraz gizon haragizko lurrera bihotza penditua dutenak, eta bere atsegiñak baizen maitatzen ezta kitenak ez bitez atrebi sainduen dohatsutasunaz mintzatzerat.

Berretzen, edo gutitzen dute hekien loria bere nahiaren arabera, eta ez egia eternalak ematen duenaren arabera.

6. Hetarik haiñitzen baithan bada inoranzia, guziz haiñen baithan, zeïña argi eskasez ezpaitakite zer den amudio phuiru, eta espiritual batez nihoren maitatzea.

Nihoren maitatzean amudio naturalak, eta adiskidetasun humanoak darabiltza; eta uste dute lurreko gauzez bezala dela zerukoez ere.

Baiñan diferenzia hagitz handia da, presuna inperfetek uste duenaren, eta presuna zerutik argituek ezagutzen dutenaren artean.

7. Begira zaite beraz, ene semea, mintzatetik gauza goregiez, eta zure iakiña ixitzen dutenez.

Baiñan zure egiñ ahal guziak egitzu zeruko erresuman lekhu batean iateko, azkena behar balitz ere.

Hortaz nihork baleaki ere nor den handiago, edo sailduago zeruan, zertako luke ezagutza hura? baldiñ ezpada hortaz baliatzen bere buruaren ene aitzinean humiliatzeko, eta ene gehiago ohoratzeko, eta laudatzeko.

Nihor pensatzen dagoenean zeñ handiak diren haren bekhatuak, zeñ xumeak haren bert-huteak, zeñ urrun den sailduen perfekzionetik, hobekiago, eta Jainkoaren gogarago egiten du, sailduak elkarrekiñ konparatzen, eta hekien handitasunaz, edo xumetasunaz ihardukitzen hari denak baiño.

Hagitez hobeago da sailduak ohoratzea, eta othoiztea, eta hekien laguntza humiltasunekiñ, eta nigarrekiñ galdetzea; ezen ez hekien sekretu gordeen kuriostasun alfer batez miratzen, eta zundatzen haritzea.

8. Hek osoki kontent dire, gizonek balakite kontentatzen, eta solas, eta ihardukitze bano horiek bereganik hastantzen.

Eztute loriarik thiratzen bere merezimendu propiotarik, eztute hartzen deus onik dutela bereganik, guziez niri egiten darotate ohore; hortaz nik guziak eman diotzatet hekientzat izatu dudan amudio soberanoaz.

Haiñ betheak dire Jainkozko amudioz, eta zeruko atsegiñez, non eziñ baituke deus eskasik hekien loriak, eta dohatsutasunak.

Zenbatenaz baitire sainduak lorian gorago altxatuak, hanbatenaz dire bere baithan humillago, eta arrazoin hartaz dire eneganik gehiago hurbilduak, eta enekiñ hertsikiago iuntatuak.

Hargatik da errana eskritura sainduan: *Ematen dituztela bere khor oak Jainkoaren oiñetan, ahuspez iarraitzen direla bildotxaren aitziñean, eta adoratzen dutela mendetako mendetan bizi dena.*

9. Haiñitzek galdetzen dute, *nor den handiena zeruko erresuman*, eta ezpaitakite hea berak

gai izanen diren kondatuak izateko xumeenen artean.

Gauza handi bat da xumeen ere zeruan izatea, zein etan guziak handiak baitire; guziak deit huak direnaz geroztik Jainkoaren umeak, eta egiazki guziak hala direnaz geroztik.

Ezen xumeak altxatuko dire millen artean, biziko dire millaka mendez, eta bekhatoreak bizitzerik luzeenaren ondoan hillen dire sekulakotz.

Apostoluek gldetu zuten egun batez nor izanen zen *handiena zeruko erresuman*, eta aditu zuten errepusta hau, *ezpazaitte konbertitzen, eta egiten haurren iduriko, etzaitte sarthuko zeruko erresuman. Nor ere beraz humiliatuko baita haurtto bat bezala, hura izanen da handiena zeruko erresuman.*

10. Zori gaitz xumeekiñ batean humiliatu nahi eztutenentzat; ezen nola baita zeruko athea behera eziñ han sarthuko dire.

Zori gaitz halaber aberatsentzat zein ek baitituzte mundu huntan bere atsegiñak, eta nahikarak: ezen pobreak zeruan sartzen direnean hek egonen dire kanpoan oihuz eta nigarrez.

Humiliak boz zaitezte; *boz zaitezte pobreak;*
ezeñ zuena da zeruko erresuma; baldiñ Jainkoar-
ren bidean xuxen ibiltzen bazaite.

LIX. KAPITULUA

*Jainko xoilla baithan behar dugula
eman gure esparantza guzia.*

ARIMAK

1. Iauna, noren baithan eman behar dut ene fidanzia hemen naizeño? eta norenganik igurik ahal dezaket konsolamendurik mundu huntan?

Eztut deus uste zureganik baizen, o ene Jainkoa, zeñaren miserikordia infinitua baita.

Non ungi izatu naiz zu gabe, edo non gaizki kausitu naiz zurekiñ?

Nahiago dut gauza guzien eskasean bizi zure amoreagatik, ezen ez aberastasunen erdian zu gabe.

Nahiago nuke lurreko desterrua baldiñ zu han baziñe enekiñ, ezen ez zeruko erresuma zu han ezpaziñe.

Ezen zu zaren lekhuan da zerua, eta herio-tzea, eta ifernua zu etzaren lekhuan.

Zu zare ene gutizia guzien xedea, zure ganat egon behar dut bethi plainuz, oihuz, eta hatsberapenez.

Fiñean ene beharretan eziñ bertze nihori fida nakiok zuri baizen, o ene Jainkoa, eta nihor eztago zu bezain prest ene laguntzerat.

Zu zare ene esparantza, ene habea, ene konsolatzaillea, eta ene adiskide guziz leiala.

2. Guziak bere progotxuaren ondoan dabilta.
Zuk eztuzu billhatten ene salbamendua baizen, eta gauza guzian ene progotxukotz baliarazten tutzu.

Tentazione, eta atsekabeen hirriskuan zuk ni maiz utzi arren, guziak ene progotxutan egiten ditutzu, ezeñ usatu ohi duzu zure maiteen milla maneraz frogatzen.

Hargatik etzaitut gutiago maitatu, eta laudatu behar atsekabe, eta frogantza horietan naizenean, zeruko konsolazionerik handienez bethetzen nauzunean baiño.

3. Hargatik, ene launa, eta ene Jainkoa, zure baithan ematen dut neure esparantza guzia,

zure ganat egiten dut ene ihesa, zure oiñ sakratuetan ematen tut neure penak, eta atsekabe guziak, zeren ezpaitut kausitzen zutaz lekhora deus flakorik, eta ganbiakorrik baizen.

Ez ene adiskiden nonbreak, ez ene beiratzailleen indarrak eziñ lagunduko nau; zuhurrenek ere eziñ emanen dautet konseillu probetxosik; eziñ kausituko dut konsolazionerik, gizon iakiñsunen liburutan, ez laguntzarik aberastasunetan, ez segurantzarik lekhu batetan ere zeroni ezpazare adiskidea, ene laguntzaillea, habea, sustengatzaillea, irakatsaillea, ene argitzaillea, ene aberasteko tresora, eta ene segurean emateko ihes lekhua.

4. Iduriz gure bakekotz, eta zorionekotz diren gauzak eztire deus zu gabe, eta eztire baliatzen garabik gure dohatsutasunekotz.

Zure baithan da beraz ontasun guzien gaindura, bizitzearen gozoa, zuhurziazko tulunbioa; eta zure zerbitzariak zure baithan duten esparrantzak egiten du hekieñ konsoalzionea, eta indarra.

Zure ganat daduzkatene begiak altxatuak, o ene Jainkoa, zure baithan da ene esparantza, gureganik igurikitzen tut guziak, o miserikordien aita.

Benedika nazazu, santifika nazazu, ene bait-harat isur atzu zure zeruko benedikzioneak, egizu ene arimaz tenplu saindu bat, eta zure loriaren tronua, eta ezpedi kausi tenplu hartan deus ere zure Jainkozko maiestatea ofensa deza-kenik.

Begira dietzadazu, ene Jainkoa, zure ontasun, eta miserikordia infinituaren arabera.

Entzun zazu zure zerbitzari gaxoa, gauza guzien eskasean dena, desterratua, eta hastan-dua bere herri dohatsutik, eta ehortzia herioaren itzalean.

Defenda zazu ene arima. eta garbi idukazu bizitze huntako hirriskuen, eta korrupzionaeren erdian: eta zure graziaz gida zazu sekulako loriar-rat bakearen bidetik.

HIRUGARREN LIBURUAREN AKHABANTZA

Jesu-Kristoren Imitazionea

LAUGARREN LIBURUA

Aldareko sakramendu adoragarriaz

Amudiozko deiha mahaiñ saindurat.

JESU-KRISTOK

Zatozte eneganat, penatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik arinduko darozkitzuet zuen penak, eta nekheak.

Nik agintzen dudan ogia ene haragia da, munduari bizitzea emanen zioena.

Harzakue, eta ian zazue; hau da ene gorputza, zeïña tradituko baita eta largatuko heriotzerat zuentzat, egizue hau ene orhoitzapenetan.

Ene haragia iaten duena, eta ene odola edaten duena ene baitan dago, eta ni haren baitan.

Nik erraten darozkitzuedan hitzak espiritu, eta bizitze dire.

I. KAPITULUA

*Zenbat errespeturekiñ behar den
errezibitu sakramendu saindua.*

ARIMAK

1. O Jesus, egia eternala! hitz horiek guziak zureak dire, eta zureganik ilkhiak, ez izan arren guziak denbora berean erranak, ez lekhu berean eskribatuak.

Eta zeren diren gureak, eta egiazkoak, hartu behar ditut ezagutzarekiñ, eta federekiñ.

Zureak dire hitz horiek, zeren zuk erranak baitire, eta halaber eneak dire, zeren enetzat, eta ene salbamendukotz erran baitituzu.

Gogotik hartzen ditut gure ahotik lekhora, ene bihotzean barnago sar ditezentzat.

Ene bihotza animatua sentitzen dut hitz samur ezti, eta amultsu horiez; baiñan ene bekhatuiek izitzen naute, eta ene konzienziaren lohitasunak hasantzen nau misterio handi hortarik.

Zure gonbidatze eztiak thiratzen nau; baiñan ene bekatuen nonbreak, eta pisutasunak gibela-tzen nau.

2. Manatzen darotazu fidanziarekiñ zureganat hurbill nadillala, baldiñ nahi badut zure primeran parterik, ian dezadala Jainkozko ogi hura nahi badut bethi bizi eta ardietsi loria eternala.

Zatozte enegangat, diozu, penez eta nekhez kargatuak zareten guziak, eta nik zuen penetarik arinduko zaituztet.

O hitz maitagarria, eta bekhatore batentzat guziz konsolagarria, zuk ene launa eta ene Jainkoa, gonbida dezazun kreatura pobre bat, gauza guziez gabe bat, lazeriaz bethe bat, zure gorp-hutz guziz sainduaren komunionerat!

Baiñan, ene launa, nor naiz ni atrebitzeko zureganat hurbiltzerat?

Zeruen hedadura zabalak eziñ itxek zaitzake, eta diozu, zatozte guziak enegangat.

3. Nondik heldu da karitate sobraniatzko hori, eta gonbidatze guziz samur hori?

Nondik duket ausartzia zureganat ethortzeko ni, zeñak ez baitut ene baitan sentitzen deus onik, zerbait burupe, edo segurantza eman ahal diezakedanik?

Nola atrebituko naiz zu ene bihotzean errezi-bitzerat, hanbat bekhatu zure begietan egiñ dudan ondoan?

Aingeruak eta arxanjeluak ikharan daude zure aitziñean, iustuak, eta sainduak beldur dire zuretzat, eta diozut halere *zatozte guziak enegana*.

Zerorrek ez bazindu erraten, launa, nork siñ-hets lekake? nor hurbiltzerat ausarta liteke, zeronek ez bazindu manatzen?

4. Noe, haiñ gizon iustua, ehun urthez haritu zen arkha baten egiten, zeñetan berak iende gutirekiñ behar baitzuen salbatu.

Nola bada ni prepara ahal naiteke oren batez munduaren kreatzaillea errezibitzerat hari zor kaion errespetuarekiñ?

Moise zure zerbitzari handia, eta zure adiskide bereziak egiñ zuen arkha bat eziñ bustelduzko zurez, eta estali zuen urrerik phuruenaz, han

barna emateko legearen bi thaulak; eta nik krea-
tura bustel, eta korronpituak izanen dut ausar-
tzia haiñ errexki errezibitzeko lege emaille sobe-
ranoa, eta bizitzearen nausi eta autora?

Salomon, Israelgo errege guzien zuhurrenak,
kazpi urthe eman zituen zure ohoretan tenplu
guziz magnifiko baten egiten, zortzi egunez egiñ
zuen haren dedikazioneko besta, millaka sakrifi-
zioak ofrendatu zituen, eta alienziako arkha tron-
peta soiñuz, eta pobluaren bozkariozko oihuen
erdian, eraman zuen haren zat preparatua zen
lekhurat.

Eta ni gaxo, eta dohakabea, nola atrebituko
naiz zu ene baitan errezibitzerat, ni zeñak oren
erdi batez eziñ gogoia othoitzean iduk baiteka-
ket?

Eta oxala behiñ bederen oren erdi bat behar
den bezala eman banu!

5. O ene Jainkoa, zer eztute saindu hek egin
zuri atsegiñ egiteko!

Helaz! ala nik egiten dudana, deus gutia
baita, eta hala nik denbora guti ematen baitut
komunione saindurat preparatzen!

Gutitan kausitzen naiz ene baitan beribillatua, eta sarthua; gutiagotan gogoaren barraia-dura guzietarik libratua.

Arrazoiñ liteke bada zure maiestate adoragarriaren aitzinean, ez nezan izan gogoeta saindurik baizen, eta urrun litezen ene bihotzetik krea-tura guziak.

Zeren nik errezibitu behar dudana ez baita solamente aingeru bat, baiñan dingeruen nausia eta Jainkoa.

6. Hortaz diferentzia handia da alienziako ark-haren alde batetik, eta bertzetik zure gorphutz guziz garbiaren artean, arkha hartan barna ziren gauzen, eta zure graziaren artean.

Lege zaharreko sakrifizio guziak ere figura batzuk ziren, eta etziren konparatzeko zure gorphutzarekiñ, zeina baita biktima egiazkoa sakrifizio zaharren figurak bethetzen dituen.

7. Zergatik bada ez naiz khartsuago zure pre-senziia adoragarrian?

Zergatik ez naiz preparatzen arta gehiagorekiñ zure gorphutz preziatuaren errezibitzerat?

Patriarka eta Profeta zahar hek, Errege eta Prinze hek populu guziarekiñ, hanbat zelo eta amudio erakutxi dutenaz geroz zuri zor zaitzun Jainkozko, ohorearen ernateko?

8. Dabid Errege Jainkotiar hura, *dantzatu zen bere indar guziez* arkharen aitzinean, Jainkoak haren aitei egin ziotzaten ungien orhoitzapeneran.

Eragiñ zituen hañitz musikako instrument suerte, salmuak kantarazi zituen bozkariorekiñ, kantatu zituen berak ere harpa soiñuz espiritu sainduaren graziaz betherik.

Irakatsi zioten Israeldarrei bere bihotz guziaz Jainkoaren laudatzen, eta boz batez, haren egun oroz benedikatzen eta lorifikatzen.

Bada Testament kaharreko arkha hambat debozionerekiñ ohoratzen bazen, eta hanbat art-harekiñ Jainkoa laudatzen bazen haren aitzinean muga suerte batzuez; zenbat errespetu eta debozione giristiñoek eta nik eztugu behar izan gure aldarerako Sakramendu adoragarriaren aitzinean, eta Jesu-Kristoren gorputz preziatua errezibitzen dugunean?

9. Badabiltza iendeak hañitz lekhu suertetarat sailduen erlekien ikhusterat eta ohoratzerat, espanturekiñ aditzen tuzte hekien berthute eta obra handiak: miretsirik dakusate hekien ohoretan egiñ diren elizen edertasuna eta majnifizenzia, errespeturekiñ musu ematen diote hekien hezurrei urrez eta zirikuz estaliei.

Baiñan, ene Jainkoa, zu zeroni zare gure hurbillean, eta aitzinean gure aldareen gainean.

Zu, ene launa, zeina baitzare saildutako saildua gizonen kreatzaillea eta aingeruen nau-sia.

Horlako erromeriak maiz kuriostasunez egiten dire zerbait gauza berri-ikhusteagatik; hortaz nihor guti hetarik prestuago bihurtzen da, guziz goan ethorri horiek arintasunez egiten direnean, bizitzearen, ganbiatzeaz konturik egiñ gabe.

Baiñan egiazki zare eta errealki aldareko Sakramenduan, eta zare han osoki, o Jesus dibino, han zare; eta nork han digneki errezibitzen baitzaitu, haiña santifikatzen da eta bethetzen graziez.

Ez gaitu arintasunak, ez kuriostasunak ez sensuen atsegiñak zure ganat erakhartzen, baiñan fede bizi batek, esparantza fermu batek, eta karitate phuru eta egiazko batek.

10. O Jainko, ikhusten etzarena eta mundua kreatu duzuna, ala zure konportamendua miragarria baita gure alderat! ala zure eztitasuna, eta zure samurtasuna handia agertzen baita zure hautetsien alderat, hei zure gorputza sakramendu huntan iaterat ematen diogutenean!

Gauza horrek ixitzen tu gizonen adimenduak, horrek gehienik fidelen arimak zureganat thirtzen tu, horrek amudioz sustatzen ditu zure zerbitzarien bihotzak.

Ezen gure zerbitzari egiazkoei, eta bere bizi guzia bere arimen garbitzen daramatenei sakramendu adoragarri hortarik debozionezko khar handi bat heldu zaie, eta bethi berri den amudio bat berthutearentzat.

11. O misterio handi hunen grazia miragarria! baiñan gordea giristiño egiazkoek baizen senti-

tzen ez tuten, eta siñhets gorrek, eta bekhatuaren gathibuek eziñ errezibi deketena!

Sakramendu hunek isurtzen du gure baitharat espiritu sainduaren grazia; bihurtzen diotza gure arimari galdu zituen indarrak, eta kobratzen dio bere edertasuna bekhatuaren itsutasunak khendu zioena.

Eta grazia hura haiñ handia bada batzuetan non arimatik gorphutz flako huntarat iraganik osasuna, eta indarrak ere ematen baitiotza.

12. Baiñan, auhendatzeko dena da zeren garen haiñ ephel, haiñ antsikabe, eta dugun haiñ debozione guti Jesu-Kristoren errezibitzeko, zeña baita hautetsien esparantza bakharra; eta zeñak egiten baitu hekien merezimendu guzia.

Jesusek santifikatzen gaitu, eta hark erosi gaitu, Jesus da gure konsolatzaillea: desterru huntan, eta sainduen dohatsutasuna bertze bizitzean.

Baiñan lastimagarri da zeren hañitz iendek haiñ guti ezagutzen duten sakramentu hunen handitasuna, eta exzellenzia, zeñak egiten baitu

zeruaren bozkarioa, eta munduaren salbamendu-
dua.

O gizonen bihotzaren gogortasun estrañoia!
O itsutasun handia haiñ dohaiñ baliosa haiñ guti
prezatzea, eta zeren egun oroz errezibitzen
dugun ansikabetasunerat erortzea!

13. Ezen sakramendu handi hori ez balitz
ematen, eta errezibitzen lekhu batean baizen,
eta ez balitz mundu guzian aphez bat baizen
konfesatzeko podorea lukenik; zer debozionezko
kharrekiñ ezlioazke iendeak lekhu hartarat, eta
Jainkoaren aphez harenganat misterio sainduen
zelebratzen ikhusterat?

Orai hañitz aphezek hañitz lekhutan Jesu-
Kristoren sakrifizioa ofrendatzen dutenean, zer-
gatik ez progotxa fagore horraz? Ezen Jainkoak
manera hortan bere grazia eta amudioa hobeki
erakuxten daroku; zeren munduaren parte
guzietarat bere gorphutz sakratuaren komunio-
nea hedatu duenean, eman baitiote gizon guziei
haren errezibitzeko errextasun gehiago.

O Jesus, artzaiñ eternala! esker darotzut
zeren pobreak, lazeriatuak, eta gure herritik des-

terratuak garelarik, halere zure gorphutza eta odol preziatuaz hasten baikaitutzu, eta sakramendu handi horren errezibitzerat gonbidatzen zure ahoko hitzez erraten darokuzula: *zatozte enegant, penatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik arinduko darozkitzuet zuen penak eta nekheak.*

II. KAPITULUA

*Jainkoak sakramendu huntan
gizonari miragarriki erakuxten dioela
bere ontasuna eta amudioa.*

ARIMAK

1. Ene Jainkoa, ene esparantza guzia zure ontasun, eta miseriakordia infinituan emanik, heldu naiz zureganat eria bere mirikuaganat bezala, gose eta egarri dena biziaren ithurritat bezala, pobrea zeruko Erregeaganat bezala, zerbitzaria bere nausiaganat bezala, kreatura bere kreatora bezala, atsekabez bethea bere konsolator bezala, atseka bezala.

Baiñan nola merezitu dut zu ethor zaitezen enaganat? Nor naiz ni zuk niri zure buruaren emateko?

Nola bekhatore bat atrebitzen da zure aitziñea agertzerat? eta zu, launa, nola beheitzen zare bekhatore batenganat ethortzeraiño?

Zuk ezagutzen duzu ungi zure zerbitzaria, eta badakizu eztuela bere baitan deus onik zure bisita merezi dezakenik.

Aithortzen dut ene ezdeustasuna, ezagutzen dut zure ontasuna, laudatzen dut zure miserikordia, eta esker darotzut zure amudio eziñ gehiagokoagatik.

Ezen ontasunez bethetzen banauzu, hori egiten duzu zure bihotzeko penduraz, eta ez ene baitan den merezimendu baten ere gatik niri zure ontasuna hobeki ezagunarazteko, zure amudioa ene bihotzean handiago emateko, eta ni humiltasunean gehiago finkatzeko.

Beraz horla nahi duzunaz geroz errezibitzen ditut bozkariorekiñ zure fagoreak: oxala ene indijnitateak ez baliote trabarik ematen!

2. O Jesus, guziz ona, guziz eztia! zenbat errespetu, ezagutza eta laudorio eztarozkitzute guizonek zor zure gorphutz sakratuaz egiten diozuten dohaiñagatik?

Ezta guzienik munduan sakramendu hunen exzellenzia bere hitzez ezagutaraz dezakenik.

Baiñan nolakoak izanen dire ene gogoetak komunione sainduan ene launaganat hurbiltzen naizenean, zeñarentzat eziñ baituket errespeturik aski, eta zeña nahi bainuke halere digneki errezibitu?

Zer gogoeta ahal duket hobeagorik, eta ene salbamendukotz progotxosoagorik zure aitzinean neure burua ahalik beherena humiliatzea baiño, eta zure ontasun infinituki nitaz gorago altxatua laudatzea eta adoratzea baiño?

Laudatzen zaitut, ene Jainkoa, eta ez naiz nihoiz ere geldituko zure laudatzerik.

Arbuiatzen dut neure ezteustasuna, ematen naiz zure manu guzien azpian, eta iausten naiz ene beheratasunaren tulunbioraiño.

3. Zu zare saindutako saindua, eta ni bekhatore guzietarik dohakabeena.

Iausten zare eneganaraiño, eta ni ez naiz gai ene begien zureganat altxatzeko.

Heldu zare eneganat, enekiñ nahi duzu egon, deitzen nauzu zure banket sakraturat, eman nahi darotazu zeruko ianaria *aingeruen ogia*, zeina ez baita bertzerik, zu zeroni baizen. *Zeru-*

tik iauntsirikako ogi bizi hura, zeñak ematen baitio munduari bizitzea.

4. Horra nola erakuxten duzun zertaraiño maitatzen, eta ohoratzen gaituzun.

Zer esker, zer laudorio eztarotzugu zor haiñ fagore handiarentzat?

Oi ala zure xedeak gure salbamendukotz onak eta progotxosak izatu baitziren sakramendu hau ordenatu zinduenean!

Oi zeñ gozoa den, eta gustosa banquet hura, zeñetan zure burua ianaritzat ematen baitarokuzu! Oi ala zure obrak miragarriak baitire! launa, ala zure botherea handia baita, eta infinitua; zure egia eziñ explikatuzkoa!

Mintzatua zare, eta gauza guziak egiñ dire, eta guziak egiñ dire zure bitzaren arabera.

5. Gauza miragarria, eta fedearen argiak gabe siñhetz ez daitekena, zu, launa, egiazko Jainko eta egiazko gizona, estalia zare ogi pixka baten, eta arno xorta baten idurien azpian; han zare guzia osorik, eta errezibitzen zaituenak iaten zaitu behiñ ere konsumitu gabe!

Zu zare mundu unibersoaren nausi, eta iabea, deusen ere beharrik eztuzuna, eta halere egiñ duzu sakramendu hori gure baitan egotea-gatik.

Ene arima, eta gorphutza idukatzu garbitik, bihotz xahu, eta bozkarioz bethe batekiñ maiz parte har dezadantzat zure misterio sainduetan, eta errezibi dezadantzat ene arimaren salbamendukotz sakramendu adoragarri hori, zeïña ordenatu baituzu bere gainki zure loriakotz, eta zureganik izatu ditugun ontasunez gu bethi ere orhoitarazteko.

6. Boz zaite ene arima, eta eskerrak emotzu Jainkoari haiñ dohaiñ baliosaz, eta nigarrezko haren huntan utzi darokun haiñ konsolazione bereziaz.

Ezen misterio hau zelebratzen, eta Jesusen gorphutza errezibitzen duzun aldi guzian zure erresketamenduko obra handia erreberitzen duzu, eta zure salbatzaillearen merezimendu guzietan partale egiten zare.

Jesu-Kristoren karitatea ezta behiñ ere gutitzen, eta haren merezimenduen tresora ezta ahi-tzen.

Hala behar duzu bethi ere disposatu barreneko errebernendu handi batez grazia hartarat, eta konsideratu misterio handi hura errespetu, eta amudio bethi berri den batekiñ.

Bai, Mezako sakrifizioa nahiz ofrenda dezazun nahiz entzun dezazun, haiñ handi, haiñ berri, haiñ miragarri, iduritu behar zaitzu nola egun hartan berean Jainkoaren semea birjinaren sabel garbian, gizon egiten balitz, edo gurutzean itzaturik gure salbamenduagatik pairatzen balu pasionea, eta heriotzea.

III. KAPITULUA

Probetxos dela maiz kommuniatzea.

ARIMAK

1. Huna non heldu naizen, launa, zure dohaiñaz prorgotxatzeagatik; eta zurekin bozteagatik pobreaki preparatudiosunatsegit egko banket hortan.

Zure baitan kausitzen ditut nik desira ahal detzakedan, eta desiratu behar ditudan gauza guziak.

Zu zare ene salbamendua, ene erresketa-mendua, zu zare ene esparantza, eta ene indarra, zu zare ene ohorea, eta loria.

Isurazu beraz egun botzarioa zure zerbitzariaren bihotzerat, o Jesus adoragarria; ezen zureganat altxatua dut ene arima.

Orai nik gehienik desiratzen dudana da zu ene baitan errezibitzera behar den debozione, eta errespetu guziarekiñ; zu ene baitan sararaztea, zakeo bezala ni ere benedika nazazuntzat,

eta eman nazazuntzat Abrahamen umeen non-
brean.

Ene arimak borthitzki desiratzen du zure
gorphutzaren errezibitzea, ene bihotzeko guti-
ziarik handiena da zurekiñ bat egitea.

2. Eman zakizkit, eta kontent naiz, ezen zutaz
lekhora ezta egiazko konsolazionerik.

Eziñ naiteke zu gabe; eziñ bizi naiteke zutaz
bisitatua izan gabe.

Hargatik behar dut maiz hurbildu zureganat;
eta errezibitu behar zaitut ene gaitzen erreme-
diotzat, beldurrez bidean flaka nadin, zeruko
ianari hortaz gabetua banaiz.

Pobluei predikatzen ziñoten denboran, eta
hekiek eritasun diferentak sendatzen zintue-
nean, erran zinduen egun batez: *Eztitut iende
hauk egorri nahi bere etxetarat, iatera eman
gabe, beldurrez flakaturik geldi ditezen.*

Hori bera egizu ene alderat, launa, zure
burua eman duzunaz geroztik sakramendu hor-
tan, zure zerbitzari leialen konsolamendukotz.

Ezen zu zare arimaren ianari gustosa, eta zu digneki errezibitzen zaituenak izanen du primezatzat, eta saritzat loria eternala.

Nola ni maiz erortzen bainaiz, eta bekhatu hañitz egiten baitut; nola laster laxatzen bainaiz, eta errexki flakaten naiz behar dut baliatu othoitzaz, eta maiz hurbildu konfesionerat eta komunione saildurat.

Horla behar dut erreberitu, garbitu eta berotu, beldurrez komunioetik sopra urruntzen banaiz; ahantz detzadan ene deliberazione onak.

3. *Ezen gizonaren sensuak, gogoetak eta desirak haren gaiztasunetik ekharriak dire gaitzerat, eta haren gaixotasuna berretuko da bethi, zerbait Jainkozko laguntzak ez badu sendatzen.*

Eta komunione sailduak gaizkitik gibelatzen gaitu, eta ungian borthizten.

Orai beraz maiz haiñ laxo, eta haiñ ephel banaiz komuniatzen, edo meza zelebratzen dudalarik; zer liteke bada erremedio hura hartzen ez banu, eta ez banu bilhatzen laguntza handi hura?

Hala gai ez naizen arren egun guziet misterio saindueri zelebratzeko, artha izanen dut denboratik denborarat bederen komunione sainduaren errezibitzeko, eta haiñ grazia handian parte hartzeko.

Ezen arima leial batek zureganik urrundua deiño, eta gorphutz *hilkor huntan desterratua dagoeiño*, ahal duken konsolazionerik handiena da zutaz orhoitzea, eta bere nausi guziz maitea debozione khartsu batekiñ maiz errezibitzea.

4. O amudiozko mirakuillua! O beheramendu eziñ gehiagokoa! Zu, ene launa ete ene Jainkoa, espiritu guziei izatea, eta bizia eman diozutena; zu iautz zaitezen arima pobre baterat, eta zure Jainkotasuna eta gizontasuna enplega detzatzun haren gabearen bethetzen, haren beharren koinplitzen!

Ala zorionezkoa baita arima, dohatsua bihottza, bere launa eta bere Jainkoa errezibitzeko gai duena, eta hura errezibitzean bozkario saindu batez bethetzen dena!

Oi zein handia den harenganat heldu den launa! Zeiñ maitagarria den hark errezibitzen

duen arrotza, eta zeñ xarmagarria haren konpañia! Zeñ leiala haren bisitatzerat heldu den adiskidea! Zeñ ederra harekiñ iuntatu nahi duen esposa! Zeñ handia eta maitatzea merezi duena, lurraren gaiñean maita, eta desira daitezken guziak infinituki ixitzen ditzeenaz geroztik.

O Jesus mansoa eta ene guziz maitea! zerua eta lurra bere edertasun guziarekiñ ixil beitez, behera beitez, zure aitzinean; ezen deus badute laudagarririk, deus ederrik, guziak heldu zaizte zure ontasunetik eta manifizenziatik; eta hekien edertasunak eztu deus zure izenaren loriarekin konpara ditekenik, zeñak distiatzen baitu, zure zuhurtzia infinituak egiñ tuen obra guzietan.

IV. KAPITULUA

Komunione sainduaren abantaillak.

ARIMAK

1. O ene launa eta ene Jainkoa. isurazu zure grazia ene arimat: *emadazu parte zure benedikziorie eztieta*n, egiñ nazazu gai zu digneki errezi-bitzeko sakramendu handi hortan, atzar nazazu ene lokhuma pisutik, thira zazu ene bihotza zureganat, bisita zazu ene arima, eta *bisita hartaz saindu zazu* espirituz gusta dezadan zeruko eztieta sun hura, zeinaren bethetasuna zarratua baita sakramendu hortan bere ithurburuan bezala.

Argi zatzu ene begiak misterio handi hori kontenpla dezadantzat, borthitz zazu ene fedea fermuki siñhetz dezadantzat.

Ezen misterio hori zure obra da Jainkoak ordenatua, eta ez gizonen asmaturia.

Hala gizona ezta gai haren konprenitzeko, eta ungi ezagutzeko, zeren ixitzen baititu aingeruen ezagutzarik eta argirik bizienak.

Nola bada nik zundatuko dut, eta ezagutuko haiñ sekretu barrena, nik zeïña ez bainaiz lurrik, eta herrautsik baizen korrupzionerik, eta bekhaturik baizen?

2. Heldu naiz zureganat, o ene Jainkoa, bihotz simple batekiñ, fede fermu batekiñ, esparantza, eta errespeturekiñ, zure obeditzeagatik, eta zeren manatzen darotazun.

Siñhesten dut egiazki, eta errealki present zarela sakramendu huntan Jainko bezala, eta gizon bezala.

Nahi duzu, ene Jainkoa, errezibi zaitzadan, eta zurekiñ amudioz hertsiki iunta nadiñ.

Beraz zure ontasuna othoizten dut eta galdegiten darotzut hortakotz grazia bat, zeïña baita ene arima urth dadiñ amudioz eta samurtasunez isur dadiñ guzia zuretzat, eta eztezadan gehiago zutaz kanpoan bilha konsolazionerik.

Ezen sakramendu guziz handi hau arimako, eta gorphutzeko salbamendua da, eta eritasun espiritual guzien erremedio soberanoa.

Horrek gure bizioak sendatzen tu, gure pasio-neak bridatzen, gure tentazioneak garaitzen,

edo bederen flakutzen, haren bidez isurtzen dire grazia handiak gure arimatarat, berretzen da doi-doia hasten den berthutea, fiñkatzen da fedea, borthitzten esparantza, sustatzen, eta hedatzen karitatea.

3. Ezen zuk eman diozute, eta orai ere maiz ematen diotzozute sakramendu handi hortan hañitz grazia zure maiteei, eta behar bezala errezibitzen zaituztenei.

Hortaz, ene Jainkoa, zu ezagutzen zaitut ene arimaren salbatzailletzat, flakezia humanoen sendatzailletzat, eta barneko konsolazione guzien emailletzat.

Ezen hañitz konsolazione ematen diozute bere atsekabe diferenten erdian, altxatzen diozute bihotza eroria dutenei, ematen diozute zure laguntzaren esparantza handi bat, eta grazia berriez bixten tutzu, eta berotzen.

Halako fazoiñez bai non komuniatu baiho lehen khexos, ephel, eta antsikabe zirenak, kausitzen baitire onerak ganbiatuak, eta hobeki disposatuak zeruko ianari hura hartu ondoan.

Manera hortan konportatzen zare zure hauteszuen alderat, o ene Jainkoa, bere flakezia frogaturik, eta ezaguturik hobeki aithor dezatentzat zureganik dutela bere berthute guzia.

Hortaz bereganik hotzak dire gogorrak, eta debozionezko sentimendu gabeak, baiñan zuk egiten tutzu, bero, khartsu Jainkotiar.

Ezen nor doake humillki eztitasunen ithurri-rat, handik eztiago bihurtu gabe?

Nor dagoke berotu gabe su handi baten aldean?

Zu zare, ene Jainkoa, ithurri ahitzen eztiena, zu zare sua bethi bixtua dagoena, eta behiñ ere iraungitzen eztena.

4. Beraz eziñ aski hurbill banaiteke ithurri-rat ene egarriaren osoki hiltzeko zeruko ur hekien kanalerat, hurbillduko dut ahoa handik zenbait xortaren hartzeko, eta moian hortaz ene agortasuna hezatzeko, eta ene egartsua aphur bat bederen freskatzeko.

Eta eziñ banaiteke guzia zerukoa, eta amudioz sustatua kerubiñak, eta serafiñak bezala, guziarekiñ esaiatuko naiz egiazko debozionea-

ren ardietserat, eta ahalaz ene bihotza preparatuko dut humiltasunekiñ aingeruen ogiaren errezibitserat, zeruko su haren zenbait iñhar bederen ene baitan sentitzeko.

Konpli zazu zure ontasunaz, eta zure graziaz ene baitan eskas den guzia, Jesus dibinoa, ene salbatzaille guziz ona, eta mansoa, zeinak erran baitarokuzu: *zatozte enegangat, penatuak eta kargatuak zareten guziak, eta nik arinduko darozkitzuet zuen penak eta nekheak.*

5. Ikhusazu, launa, nekhatzen naizela, eta ene bekhokia izertzen dela, bihotz miñez herstua naizela bekhatusen kargatua, tentazioneez khexatua, ene pasionez trabatua eta penatua, eta eztela nihor ere zu baizen ni lagun nazakenik, libra nazakenik, salba nazakenik.

Zure eskuetan beraz ematen naiz osoki eta ematen dut dudan guzia, beira nazazuntzat bizitze iragankor huntan, eta bizitze eternalerat gida nazazuntzat.

Har nazazu beraz zure artharen azpian zure izen sainduaren ohoreran, eman nahi izatu daro-

tazunaz geroztik zure gorputz saindua ianaritzat, eta odol preziatua edaritzat.

Ene Jainkoa eta ene salbatzaillea, egidazu grazia zenbatenaz maizago hurbilduko bainaiz sakramendu handi hortarat, hanbatenaz ene baitan berret ditezen gehiago zure alderat amudiozko eta debozionezko sentimenduak.

V. KAPITULUA

*Aldareko sakramendu sainduaren
exzelenziaz, eta apheztasunari
daokan garbitasunaz.*

JESU-KRISTOK

1. Bazindu ere aingeruen garbitaruna, eta londoni launi Batistaren saindutasuna, halere, etzintezke gai, eta digne sakramendu handi horren ofrendatzeko, edo errezibitzeko.

Ezen zer nahi den merezimendu duken gizonak eztu behiñ ere aski ene gorphutzaren konsekratzeko, eta aingeruen ogia berak iateko, edo bertzeei partitzeko.

Misterio handia! dignitate ikharagarria! zeinñak ematen baitiote aphezei podore bat aingeruei eman etzaiotena.

Ezen xoillki aphez Elizaz lejitimoki ordenatuei eman zaie podorea misterio saindu hunen zelebratzeko, eta ene gorphutzaren konsekratzeko.

Egia da aphezak sakramendu huntan Jainkoaren ministre, eta instrumen dire, haren izenean

hari dire, haren hitzez baliatzen dire, eta hark manatzen diotena egiten dute; baiñan sakramendu haren egille nausia, eta buruzagia Jainkoa bera da.

Hark obratzen du estaliki, zeren baitu podore nahi duen guziaren egiteko, eta gauza guziak prest baitaudez haren obeditzerat.

2. Beraz sakramendu handi huntan hobeki behar dugu siñhetsi Jainko bothere guzia duena ezen ez gure sensuak, eta gauzen kanpoko iduripenak.

Hala errespeturekiñ, eta ikhararekiñ behar duzu bethi ere hurbildu misterio handi hortarat.

Ikhusazu zer zaren, eta zer ministerio, edo kargu eman zaitzun Ipizpikuak gure gaiñean eskuak pausatu dituenen.

Egiñ zare aphez, eta sakratu zare misterio handi horren zelebratzeko.

Duzun beraz artha behar denean Jainkoari sakrifizioaren ofrendatzeko leialtasun, eta debozione handi batekiñ; eta bizitzeko bethi ere zutaz erratekorik izanen ezten maneran.

Aphez egiñ zarenean etzaizkitzu obligazio-neak gutitu, aitzitik hartu ditutzu egiñbide berriak obligazio berriak sailduki bizitzeko, eta persekuzio handi baten ardiekiko.

Aphezak berthute guzietz beregindua behar du izan, eta eman behar diote guziei bizitze onaren enplua.

Berezia behar du izan poblutik, eta ezta bizi behar gizon komunek bezala; bizi behar du aingeruak zeruan, eta presuna perfetak lurrean bizi diren bezala.

3. Aphez batek iaunzkura sakratuez beztitua denean Jesu-Kristoren lekhu daoka, bere othoizta humilki Jainkoari ofrendatzeko, beretzat, eta populu guziarentzat.

Bere kasolaren gainean markatua darabilla nahiz aitzinean, nahiz gibelean salbatzailearen gurutzea, bethi erreberitzeko haren pasionearen orhoitzapena.

Ekhartzen du aitzinean Jesu-Kristoren enpluak behin ere bixtatik ez galtzeko, eta hei zelorekin iarraikitzen.

Ekhartzen du gibelean bertzeenganik heldu zaizkon gaitzak eztiki, eta pazienki iasateko.

Aitziñean dakharke bere bekhatuez nigar egiñ dezantzat; eta gibelean bertzeren hobenak ere auhenda detzantzat era iakiñ detzantzat ararteko bezala dela Jainkoaren, eta bekhatoreen artean.

Hargatik bethi behar diotza ofrendatu bere othoitzak, eta sakrifizioak Jainkoari ardiets dezakeen arteraiño hekientzat galdetzen duen grazia, eta miserikordia.

Fiñean aphezak sakrifizioa zelebratzen duenean ohoratzen du Jainkoa, bozten aingeruak, poblu giristiñoari ematen sentimendu onak, laguntzen ditu biziak, ematen hillak soseguan, eta bere burua ontasun hetan guzietan partale egiten du.

VI. KAPITULUA

*Komunionetik urruntzen denak
bizitzeari ihes egiten dioela, eta
indigneki hurbiltzen denak heriotzea
ematen dioela bere buruari.*

ARIMAK

1. Iauna, behatzen diodanean alde batetik zure goratasunari, eta bertzetik ene beheratasunari, ikharatzen naiz, eta konfunditzen ene baitan.

Ezen ez banaiz zureganat hurbiltzen bizitzetik urruntzen naiz, eta indigneki hurbiltzen banaiz heriotzerat noa.

Zer egiñen dut beraz, o ene Jainkoa, ene habea, ene laguntzaillea, duda, eta pena guzietan ene argitzaillea?

2. Irakats dazu bide xuxena, eta indazu molde labur bat komunionearen sailduki egiteko.

Ezen abantail handi bat da enetzat iakitea zer maneraz behar dudan ene bihotza preparatu progotxoski sakramendu horren errezibitzeko, edo sakrifizio handi horren ofrendatzeko zor darotzudan, errespetu, eta debozionerekiñ.

VII. KAPITULUA

Nork bere burua examinatu behar duela mahaiñ saindurat hurbildu baiño lehen, eta hartu bere eskasen uzteko deliberazione fermu bat.

JESU-KRISTOK

1 Apezak, digneki misterio sainduen zeletatzeko eta errezibitzeko, behar duen lehenbiziko artha da, hetarat hurbiltzea humiltasun egiazko batekiñ, errespetu handi batekiñ, fede oso batekiñ, eta Jainkoaren ohoratzeko xede phuru, eta xuxen batekiñ.

Examina zazu beraz ungi zure konzienzia, eta ahal guziaz garbi zazu kontrizione, eta konfesio- ne humill baten bidez; halako maneraz non ez bailaiteke zure baitan geldi notharik, zu haiñ ontasun handitik hastan ahal zaitzakenik.

Duzun urriki miñ bat jeneralean zure bekhatu guziez; baiñan duzun damu berezi bat egun oroz egiten ditutzun hutsez.

Eta denborarik asko baduzu, konfesa diotzotzu Jainkoari zure bihotzaren barrenean zure pasioneek zure baitan kausatzen dituzten miseria guziak.

2. Duzun damu handi bat zure burua ikhustez oraiño sensuen plazeretarat haiñ emana, eta munduarekiñ haiñ iosia, haiñ guti mortifikatua eta, gutizia desordenatuez haiñ bethea.

Haiñ guardia gabea zure sensuen gaiñean, imajinazione banoez haiñ nahasia.

Haiñ errexera zure baitharik ilkhitzerat, eta kanpoko gauzetan barraiatzerat, haiñ antsikabea zure barnearentzat.

Haiñ ekharria hirri egiterat eta dostatzerat haiñ gogorra urrikiarentzat, eta nigarrarentzat.

Haiñ laster gorphutzeko aisiak, eta atsegiñak billhatzen dituenak; haiñ nekhez penitenziaren garraztasunak hartzen dituenak.

Haiñ kurios berrien aditzeko, eta gauza ederrin ikhusteko; haiñ etsai humiliacione guzientzat.

Haiñ gosea ontasunen biltzeko; emateaz doanean haiñ beiratua; haiñ hertsia hekiñ itxekitzeko.

Haiñ guti beiratua mintzatzean, ixillik egoten haiñ guti usatua.

Haiñ guti erregelatua bizitzean, haiñ inperfecta manera guzietan.

Haiñ emana ian edanerat, haiñ gorra Jainkoaren hitzaren aditzerat.

Pausuaren haiñ maitatzaillea, haiñ lanaren etsaia.

Haiñ etzarria elkheen aditzeko; haiñ lotia khorooan kantatzeko.

Haiñ khexatua fiñkatzeko, haiñ gogo barraiatua othoitzeko.

Haiñ antsikabea Elizako ofiziotan, haiñ ephe-la mezan, haiñ agorra komunionean.

Haiñ errexazure baitharik ilkhitzeko, haiñ gaitzazure barnerat bihurtzeko.

Haiñ lasterra asarratzeko, haiñ errexazure berzteen ofensatzeko.

Haiñ ariña zure iuiamendutan, haiñ dorphea zure mehatxutan.

Haiñ lorios, eta alegera gauzak ungi doazkitzunean, flako, eta bihotz eroria zure nahigabeban.

Haiñ franko, eta jeneros deliberazione hartzean, haiñ laxo, eta agor hekien konplitzean.

3. Eskas horiek, eta horlako bertzeak Jainkoaren aitziñean auhendatu, eta konfesatu ondoan, eta zure flakotasunaz behar den dolorea konzebitu ondoan, har zazu deliberazione fermu bat zure bizitzearen xuxentzeko, eta ethorkizunerat berthutean aitziña goateko.

Egizu gero zure bihotzaz aldare bat, eta han ofrenda zakizkit osoki bethiereko sakrifizio, edo holokostatzat: utzatzu ene eskuetaratzure gorphutza, eta zure arima ene zerbitzatzeko borondate fermu batekiñ.

Manera hortan egiñen zare gai Jaiknkozko misterioen zelebrazteko, eta ene gorphutzaren sakramendua zure arimaren probetxu handitan errezibitzeko.

4. Ezen ezta ofrendarik Jainkoarentzat digneagorik, eta nahikarazkoagorik, ez eta, satis-

fakzionerik gare bekhatuen urratzeko hobeago-rik, eta probetxosagorik, nola nor bere burua phuruki, eta osoki ofrendatzea Jesu-Kristoren gorphutzarekiñ batean mezako sakrifizioan, eta komunione sainduan.

Gizonak egiten badu bere egiñahala, eta bere bekhatuez egiazko urrikimendu bat harturik heldu bazait barkhamendu galdetzerat: *luramentu egiten dut neure buruaz, dio Jainko launak, eztudala nahi bekhatorearen heriotzea, nahiago dudala, konberti dadiñ, eta bizi dadiñ; eta konbertitzen bada ahantziko ditudala osoki haren bekhatuak, eta jeneralki guziak barkhatuko diotzadala.*

VIII. KAPITULUA

*Jesu-Kristori osoki eman behar
gaizkola, hark bere burua guretzat
eman duen bezala.*

JESU-KRISTOK

1. Nola nik ene nahiz ofrendatu baitiot neure burua ene aitari zure bekhatuentzat gurutzean, eskuak hedaturik eta gorphutza billhuzirik; eta ez baita deus ene baitan gelditu gizonak Jainko-arekiñ baketzeko, eta errekonziliatzeko sakrifiku ez tudanik.

Hala egun guzietz meza entzutean behar zaizkit ofrendatu osoki ofrenda garbi, eta saindu bat bezala zure amudio guziaz, zure indar guzietz, eta zure bihotzeko hedadura guziaz.

Zer nahi dut gehiago zureganik, baizen zaren guzia niri eman zakizkidan?

Zuk zure burua eman gabe ematen darotazun guzia, ez tut deus estimatzen, ezen ez nabilla zure gauzen, eta emaitzen billha; baiñan zure.

2. Ezen nola zuk gauza guziak ere ez baitzintuzke asko ni gabe; hala niri ere etzait zurerik deus on zu gabe.

Ofrenda zakizkit beraz, eta eman zakizkit osoki, eta errezibituko dut atsegiñekiñ zure ofrenda.

Nik ofrendatu diot osoki neure burua ene aitari zurezat; zure ianaritzat egiñ dut ene gorp-hutza, eta ene odola: ni guzia zuretzat, eta zu guzia enetzat izateko.

Baiñan zuk zure burutik gelditzen baduzu. Zerbait eman gabe, balin baduzu oraiño zuretzat zenbait amarradura, eta ez baduzu zure burua osoki, eta gogotik ene nahirat largatzen, zure ofrenda ez liteke osoa, ez perfeta gure arteko batasuna.

Nahi baduzu beraz ardietsi egiazko libertatea eta grazia, behar duzu gauza guziak, baiño lehenago zure burua gogo onez ofrendatu, eta Jainkoaganat alde baterat largatu.

Ezen guziak badire presuna argituak, egiazko espiritualak, eta bere pasioneen nausi direnak

hori heldu da zeren gutiak baitire bere buruei osoki ukho egiten dakitenak.

Bethi egia izanen da nik erran dudana, *Nork ez baitiote ukho egiten dituen guziei eziñ daiteke ene diszipulu.*

Beraz nahi baduzu izan ene diszipulu, egidazu sakrifizio bat zure buruaz, eta zure afekzione guziez.

IX. KAPITULUA

Gure buruak, eta gure guziak behar diotzagula Jainkoari ofrendatu, eta othoit egiñ behar dela guzientzat.

ARIMAK

1. Ene Jainkoa, zeruan eta lurrean diren gauza guziak zureak dire.

Eta eztu deus bertzerik nahi baizen zuri neure buruaren ematea, eta eternitate guzian zure izatea.

Egun beraz, ene launa, ofrendatzen natzaitzu bihotz xuxen, eta sinple batekiñ zure gathibu bezala zure bethi obeditzeko, eta laudoriozko sakrifizio bat bethi zuri ofrendatzeko.

Har zazu neure buruaz egiten darotzudan ofrenda, zure gorphutz sakratuaren sakrifizioarekiñ batean, zeña egun ofrendatzen baitarotzut ene eta poblu guziaren salbamendukotz aingeru sainduen aitziñean, zeñak aldarearen inguruan baitire ageri ez badire ere.

2. launa, ematen ditut zure miserikordiazko aldarearen gaiñean zure ofensatzen hasi nintzen egunetik orai arteraiño aingeruen, eta zure aitziñean egiñ ditudan hoben, eta bekhatu guziak, zure amudioaren suak erre, eta suntsi detzantzat.

Urra zatzu ene bizioan nothak, garbi zazu ene konzienzia bekhatu guzietarik.

Bihur dazu ene hobenez galdu dudan grazia, indazu ene hutsen barkhamendu osoa, miserikordia egiten darotazula, eta ematen bakezko musua, errekonziliazonearen seiñalea.

3. Zer egiñ dezaket ene bekhatuen desegiteko, baizen hek auhendatzea, eta konsesatzea, eta miserikordia zuri galdegitea?

Othoizten zaitut, ene Jainkoa, duzun bada nitaz miserikordia, huna non naizen zure oiñetan, othoi entzun zazu ene plaiñua.

Damurik handiena dut neure bekhatuez; eztut nahi gehiago hetarat bihurtu.

Auhendatzen ditut, eta auhendatuko bizi nai zeño, prest naiz penitenzia, eta satisfakzione ene ahal guziak egiterat.

Barkha dietzakidatzu ene falta guziak, ene Jainkoa, barkha dietzakidatzu, zure izen sainduaren ohoretan.

Salba zazu ene arima zure odol preziatuaz erosi duzuna.

Largatzen dut neure burua zure miseriakordiarat, naizen guzia zure eskuetan ematen naiz.

Zure ontasunaren arabera trata nazazu, eta ez ene maleziaren, eta gaixtakeriaren arabera.

4. Ofrendatzen darotzut halaber ene baitan den ungia, hagitx aphurra, eta imperfeta izan arren; zuk garbi, eta eskas guzietarik libra dezazuntzat. Errezibi zazu arren, ene Jainkoa, eta emozu behar duen merezimendua, zure begietan eder, eta nahikarazko izan dadintzat, eta emozu bere azkeneko persekzioea, fiñ dohatsu bateterat gida nazazu, ez naizen arren zerbitzari alfer, inutill, eta kreatura ezteuz bat baizen.

5. Ofrendatzen darozkitzut halaber arima onen gutizia sainduak, ene ahaideen beharrak, ene adiskideenak, ahainenak, arrebena, mai-

teenak, eta zure amoreagatik, niri, edo bertzeei ungi egiñ darokuten guzienak.

Othoitzten zaitut halaber hañentzat zeñek ene othoitzak galdetu baitituzte beretzat, edo bere iendeentzat, nahiz diren biziak, edo hillak.

Guziez ardietz dezatentzat zure graziaren laguntza zure konsolazioneen eztimasuna, heriskutan zure sustengua; eta librantza bere gaitz guzietarik; manera hortan bere pena guzietarik ilkhirik bere eskerrak bozkariorekiñ bihur dietzakituztentzat.

6. Ofrendatzen darozkitzut halaber ene othoitzak, eta errekonziliazionezko sakrifizio hau bereziki niri zerbait ofensa, damu, afruntu, bidegabe, edo pena egiñ darotanentzat.

Fiñean othoitz berak egiten darozkitzut zerbait damu, altaramendu, gaitz edo eskandala eman diotedan guzientzat, nahiz hitzez, edo obraz, nahiz ustekabez, edo maleziaz.

launa, khen zazu gure bihotzetik suspitxak, despitak, herrak, asarradurak, eskatimak, eta zerk ere karitatea zaurt, eta giristiñoen arteko amudioa guti baitezake, eta hura guzia.

Barkha diozozute, launa, barkha diozozute
miserikordia galdetzen darozuteiei, emozute
zure grazia, haren beharra dutenei, eta egiñ gai-
tzatzu gai grazia hartaz gozatzeko mundu hun-
tan; eta bizitze eternalaz nolaz bertzean.

X. KAPITULUA

Komunione saindutik eztela arrazoin gutiz gibelatu behar.

JESU-KRISTOK

1. Maiz hurbill du behar duzu grazien, eta miserikordien ezitasun, eta garbitasun guzien ithurbururat, senda zaitezentzat zure biziatarik, eta pasione desordenatutarik; eta borthitzago izan zaitezentzat, eta erneago deabruaren tentazioenen, eta enganio gaixtoen kontra.

Ezen nola baitaki etsaiak zeñ probetxu, eta laguntza handiak kausitzen diren komunione sainduan, bere egin ahal guziak egiten tu presuna Jainkotiarrak handik gibelatzeko, eta urruntzeko.

2. Handik heldu da zenbaitek komuniatzerat preparatzeaz baitituzte tentazionerik borthitzetak.

Maliziazko espiritu hura, zeña kausitzen baita Jainkoaren umeen artean ere lopen libu-

ruaren errana den bezala, heldu da hekien nahasterat bere siñezia ardurazkoez, hekien altaratzerat beldurtasun banoez, duda, eta eskrupula arrazoin gabekoez hekien deboziona hozteko, eta fedea gutitzeko, agian gibelatuko direla alde baterat komunietik, edo komuniatzen badute bederen egiñen dutela ephelki, eta antsikabeki.

Baiñan ezta konturik egiñ behar haren artifizioez, eta hark egortzen dituen gogoetez zenbat izigarriak, eta ahalkagarriak badire ere, behar da garaitu bere arma propioez, eta egorri behar zaizko berari bere inspirazione lohiak.

Arbuiatu behar da doakabe hura, eta burlatu behar da haren ahal guzietz: zer nahi den atakada egiñ diezazun, zer nahi den nahasmendu altxa dezan zure baitan, eztuzu hargatik hastandu behar komunione saindutik.

3. Maiz halaber debozionaeren izateko lehia handiak, eta ungi konfesatu nahizko khexagune sobraniazkoak penatzen du espiritua, eta trabatzen komunione saindua.

Segi zazu beraz zuhurren konseillua, khen zatzu zureganik khexaguneak, eta eskrupuluak, ezen hek apartatzen dute Jainkoaren grazia, eta agortzen deboziona.

Etezazula komunione saindua utz zenbait altaramendu ariñ, edo espirituko pena xumegatik; baiñan zoaz berehala konfesatzerat, eta barkha diozozute bertzeei bihotz onez zuri egiñ darozkitzuten ofensak.

Zeronek nihor ofensatu baduzu humilki barkhamendu eska zakizko, eta Jainkoak barkhatuko darozkitzu zure bekhatuak.

4. Zer progotxu duzu konfesionearen horla luzatzeaz, eta komunionearen gibelatzeaz?

Lehia zaite zure arimaren purgatzerat penitentziaz; arthikazu lehen bai lehen pozoiña kanporat, har zazu kontrapozoiña, gehiago irabaziko duzu horla, ezen ez luzamendutan ibiliz.

Egun arrazoiñ batek gibelatzen bazaitu komuniatzetik, bihar benturaz handiago bat sortuko zaitzu: manera hortan hañitz ziñaudezke komuniatu gabe, eta luzamendu horien ondoan

kausi zintezke benturaz gutiago gai sakramenduaren errezibitzeko.

Khen zatzu ahalik lasterrena beldurkhunde, eta gogo urritasun horiek, ezen ezta deusetakotz on khexagunetan egotea, egunak altaramendutan iragatea; eta sakramendutarik urruntzea, egun oroz gertha ditezken traba xumeengatik.

Aitzitik kaltiar da hagitz komunionearen hantat gibelatzea, ezen luzamendu horiek epheltzen dute, pisatzen, eta lohakartzen gure arima.

Helaz! badire presuna laxo, eta antsikabe batzuk, zeïñen atsegiña baita bakhan konfesatzea, eta zeïnek gogotik gibelatzen baitute komunione saindua, bere buruen haiñ goardia hertsian egoterat obligatuak ez izateko.

5. Oi ala Jainkoaren amudio, eta debozione guti baitute haiñ errexki komunione saindutik gibelatzen direnek!

Oi ala dohatsua baita, eta Jainkoaren gogarkoa haiñ ungi bizi dena, eta bere konzienzia haiñ garbi dadukana, non gai bailiteke egun guziez ere komuniatzeko zillhegi balitzaio, eta egiñ ahal baleza begietan hartua izan gabe.

Baldiñ norbait hastantzen bada noizik behiñ mahaiñ saindutik errespetuz, humilltasunez, edo bertze zenbait arrazoiñ onez, laudatzeko da.

Baiñan epheltasunerat erortzen bada, behar du bere deboziona bixtu, eta bere ahalak egiñ, eta Jainkoak borondate ona maite duenak egiñen du gaiñerakoa.

6. Zenbait arrazoiñ iustuk komuniatzerik gibelatzen badu, eta halere balin badu egiazko desira, eta xedea komuniatzeko, ezta gabetua izanen komunione onaren fruituez, eta progotxuez.

Ezen arima onek egun guzietz, eta oren guzietz ere trabarik batere gabe komunia dezakete espiritualki, eta progotxurekiñ.

Ordean badire denbora batzuk, eta egun berezi batzuk, zeñetan behar baitute sakramentaliki ere komuniatu amudio, eta errespetu handirekiñ, ene loria hobeki billhatzen dutela, ezen ez bere konsolazione propioa.

Ezen salbatzaillearen inkarnazionea, eta pasionea debozionerekiñ gogoan darabillhagun guzian, eta harekiñ bat egiterat esaiatzen garen

guzian espiritualki komuniatzen dugu, eta haren gorphutza errezibitzen begiek ikhusten eztuten manera batean.

7. Baiñan beztagatik xoillki, edo usantzagatik komuniatzerat hurbiltzen dena, gutitan, izanen da gai ungi komuniatzeko.

Dohatsu bere burua Jainkoari ofrendatzen dioena holokauztazko sakrfsizio bat bezala meza erraten edo komuniatzen duen aldi guzian!

Meza erratean etzaitezela izan ez luzegi ez laburregi, begira zazu neurri arrazoiñezko bat eta segi zazu zurekiñ bizi direnen usantza ona, eta laudatzekoa.

Etzaitezela izan bertzeentzat nekharri, edo penagarri, zabilta bide komunaz, segi zazu zure aitziñekoek eman darotzuten exenplua, eta hobeki beha diozozu bertzeren progotxuari, ezen ez zure gutziari, eta debozione propialari.

XI. KAPITULUA

*Arimak Jesu-Kristoren gorphutzaren,
eta eskritura sainduaren behar
handia duela.*

ARIMAK

1. O Jesus, guziz ona eta mantsoa! nolako atsegiña duen arima Jainkotiarrek iaten hari denean zure mahaiñean, zeinetan ez baitzaio ematen bertze ianaririk zu zeroni baizen, zeïña baitzare hark maitatzen duen guzia, haren gutizien xede baxarra, eta ontasun guzietan den maitagarriena?

Oi ala gozo bailitzaiket ene bihotza nigarretan urtzea zure aitziñean isurtzeko, eta zure oiñen bustitzeko, Madalena dohatsuak bezala!

Baiñan non kausituko dut debozione samur hura, eta nork egiñen tu ene begiez nigarrezko ithurriak?

Egiaz zure aitziñean naizenean zure aingeruez guzia inguratua ene bihotzak sustatu behar luke, eta bozkarioz urthu nigarretan.

Ezen ogiaren, eta mahatz arnoaren iduri-
en azpian estalia izan arren halere badakit egiazki
zarela sakramenduan.

2. Ene begiak ez litezke gai zuri behatzeko
agertzen baziñe zure argi propialean, eta zure
Jainkozko distiaturan; eta mundu guzia eziñ
laoke ezdeusetarat billhartzatu gabe zure loria-
ren, eta maiestateaten aitziñean.

Beraz ene flakotasunagatik estaltzen gare,
eta gerizatzen sakramendu hortan.

Halere badut, egiazki, eta adoratzten dut
lurraren gaiñean aingeruek zeruan adoratzten
dutena, baiñan nik fedez ikhusten dut, eta hek
ageriki, eta belo gabe.

Halere kontentatu behar dut fedez, eta argi
haren laguntzarekiñ ibilli behar dut, *eternitateko
egun handia ager dadiñ arteraiño, zeinak sunsi-
tuko baititu itzalak, eta argituko figura guziak.*

Estatu perfet hura ethor daitekenean, etzare
gehiago baliatuko sakramenduz, zeren doha-
tsuek zeruko lorian ez baitute horlako erreme-
dioen beharrik.

Gozatzen dire fiñ gabeko bozkario batez Jainkoaren aitziñean; ikhusle dute bekhoz bekho; han argi xumeago batetik iraganik Jainkotasunaren argizko tulunbiorat gustatzen dute berbo eternala, ez hartu duen haragiaren arabera; baiñan mende guziak baiño lehenago zen bezala, eta eternitate guzian izanen den bezala.

3. Gauza miragarri hauk gogoan iragaten tudanean, konsolazione espiritualak ere unhagarri zaizkit, ezen ene Jainkoa bere lorian ageriki ikhuiten eztudaiño, ezdeus zaizkit munduan aditzen, eta ikhusten tudan gauza guziak.

Zuk badakizu, ene Jainkoa, deus eztela gai ene kontentatzeko, eta konsolatzeko zu baizen, hortaz eztut ere deus bertzerik desiratzen zu eternitate guzian kontenplatzea baizen.

Orduan ene gutizia eziñ konpli dezaket gorp-hutz hilkor huntan naizeino; hala iarri behar naiz pairatzerat, eta zure nahi sainduaren azpian eman behar dut neure burua ene gutizia guziekiñ.

Ezen zure sainduiek zeruko erresuman bozkarioz betherik zurekiñ daudezenak mundu huntan

zirenean fede, eta esparantza handirekiñ iduriki-tzen zuten egun dohatsu hura, zeññetan behar baitzintuen hek hartu zure loriarat.

Hek siñhetsi dutena siñheten dut nik ere; hek zuten esparantza bera dut; eta segurantza humill batekiñ uste dut helduko naizela zure graziarekiñ batean hek iadanik ardietsi duten zorionerat.

Bizkitartean fedearen argiz ibilli behar dut hemen bizi naizeñño sainduen exenpluez borthizturik.

Izanen dut ene konsolazione, eta ene argitze-ko liburu sainduak ere, eta guzien gaiñekoa izanen dut zure gorphutz guziz sakratua, erremediostat ene flakezietan, eta ihes lekhutzat ene atsekabetan.

4. Ezen ikhusten dut bi gauza baitezpada ditudala behar mundu huntan, eta hek gabe eziñ garraia dezakedala bizitze dohakabe hau.

Ene gorphutzeko presondegi huntan naizeñño bi gauzen beharra dut, ianariaren, eta argiaren.

Hartarakotz nahi izatu nauzu ene flakotasu-nean hagoan iduki zure gorphutz sakratuaz

zeiña baliatzen baitzaio ianaritzat ene arimari; eta gorputzari, *eta bertze alde, zure Jainkoko hitzaz egiñ duzu falnbeu bat ene argitzeko neure bide guzietan.*

Bi gauza horiek gabe eziñ bizi naiteke, ezen Jainkoaren hitza da ene arimaren argia, eta zure gorputzaren sakramendua da bizitzearen ogia.

Erran daiteke oraiño bi gauza horiek direla bi mahaiñ bezala, zeiñak eman baitituztu zure Elizan, bata alde batean, eta bertzea bertzean.

Bata da aldare sakratuaren mahaiña, zeiñaren gaiñean baita aingeruen ogia zure gorputz preziatua.

Bertzea da Jainkoaren legearen mahaiña, zeiñak zarratzen baititu erlijioneko egiarik sailduenak, zeiñak irakasten baitu: fede xuxena, eta zeiñak sarrarazten baikaitu beloaz barnago saildutako saildua den lekhurat.

O Jesus, argi eternalaren arraio saildua, ditutzun eskerrak, zeren eman darokuzun zure lege sailduaren mahaiña zeiña preparatu baitarokuzu zure Profetez, Aposoluez, eta Elizako bertze doktozez.

5. Bethiereko eskerrak darozkitzut, o gizonen kreatzaillea eta erresketatzaillea, zeñak munduari erakuxteko harenzat duzun amudioa, preparatu baitarokuzu banket handi bat, zeñetan ematen baitarokuzu iaterat, ez bazkoko bildotxa, zeña baitzen figura bat, bañan zure gorphutza bera, zure odolarekiñ.

Banket sakratu hartan bethetzen tutzu bozkarioz zure zerbitzari leialak, *eta horditzen tutzu sainduki hei edanarazirik salbamenduko khali-tzean, zeñetan baitire, zeruko atsegiñ guziak*, han sasiatzen dire gurekiñ aingeru sainduak; baiñan manera eztiago, eta dohatsuago batez.

6. Oi ala Aphezen dijnitatea handia baita, eta ohoragarria, hek xoillki dutenaz geroztik podore maiestatezko Jainkoaren gorphutza konsekratze-ko, hitz sainduen berthutez, bere ez baiñez haren laudatzeko, bere eskuetan haren itxekitzeko, bere ahotan haren errezibitzeko, eta ianaritzat fidelei partitzeko!

Oi ala haiñ maiz garbitasun guzien Jainkoa errezibitzen dutenek eskuak garbi behar baitituzte, ahoa xahu, bihotza notha gabe!

Ala aphez batek bildotx notha gabearen haragia errezibitzen usatuak gordian egon behar baitu beldurrez itzur dakion hitzik onest, saildu, probetxos eztenik.

7. Haren begiek Jesu-Kristoren gorputz adoragarria egun guzietz ikhusten dutenek modest, simple, eta garbi behar dute.

Haren eskuek xahuak behar dute izan, eta bethi ere zerurat altxatuak zeruaren, eta lurra-
ren kreatzaillea haiñ maiz ukitzen dutenaz geroz.

Aphezei guziz erraten zaizte legean eskribatuak diren hitz hauk, *zareten saildu zeren saildu bainaiz ni, zeña bainaiz zuen launa eta, Jainkoa.*

8. O Jainko botheretsua, lagun gaitzatzu zure graziaz gu zeñak apheztasunaz ohoratu baikaitzutu, gure karakterari daokan garbitasunarekiñ, eta debozionatearekin zerbitza zaitzaguntzat.

Eta eziñ bizi bagaitezke behar bezan bat inozentzia, eta saildutasunekiñ, igutzu nigarrak gure bekhatuen zin-ziñez auhendatzeko; eta egi-

guzu grazia zerbitza zaitzagun gerorat fermuta-
sun, berotasun, eta humiltasun gehiagorekiñ.

XII. KAPITULUA

*Artha handirekiñ behar dugula
preparata komunione saindurat.*

JESU-KRISTOK

1. Ni naiz garbitasunaren maitatzaillea, eta arimen saindutzaillea.

Bihotz garbi baten billha nabillha, hartaz egiteko ene pausa lekhua.

Prepara diezadazu sala bandi bat, ungi mublata, han ianen dut ene dizipuluekiñ bazkoko bildotxa.

Nahi baduzu ethor nadiñ zureganat, eta gurekiñ egon nadiñ, *garbi zaite lemami zaharretik*, eta xahu zazu zure bihotzeko egoitza, khen zatzu handik munduaren khutsu guziak, eta bizioen habarrotsak, *egon zaite zure bakhartasunean karraioa hegaztegian bakharrik dagoen bezala*, eta erabill zatzu zure espirituan bihotz miñekiñ zure biziko errebelamendu guziak.

Ezen adiskide samur batek bethi ere lekhurik hoberena, eta ederrena aphaintzen du bere mai-

tearentzat, zeren hortan erakuxten baitu zein maite duen harenganat heldu dena.

2. Iakin behar duzu halere zer nahi den egin zazu eziñ aski ungi prepara zaitezkeela ene errezibitza; ez eta deus bertzerik gogoan izan gabe urte batez zure artha guziak hortan ematen baizintu ere.

Graziaz eta miseriakoz uzten zaitut ene mahaiñerat, gizon aberatz batek bere mahaiñerat, gonbidatzen balu bezala pobre eskaille bat, zeinak eziñ bere ezagutza erakutsi bailiozake bere miseriaren aithorrez, eta bere esker xoillez baizen.

Egizu zure baitan dagoen guzia, eta egizu arthoski, ez usantzaz, edo eziñ bertzez.

Errezibi zazu errespetu handi batekin, eta beldurtasun amudiozko batekin zure launaren eta Jainkoaren gorputza, zeinak maite baitzaitu, eta nahi baitu zurenganat ethorri.

Nik deitzen zaitut ene mahaiñerat, nik nahi dut ethor zaitezen, nik konplutuko dut zuk eskas duzuna, zu zato, eta errezibi nazazu.

3. Debozinezko sentimendu samurrak ematen darozkitzudanean eskerrak emotzu Jainkoari, zeinak egiten baitarotzu grazia bat, eta miseriakordia bat merezi eztuzuna.

Kontrarat zure burua sentitzen baduzu agortasunean, egizu othoitz, plaiñu, nigar, io zazu athea, etzaitezela unha, iraun zazu grazia salbagarri haren papur bat, edo ihintz bat merezi dezakezun arteraiño.

Zuk ene beharra duzu, nik eztut zure beharrik.

Zu etzare eneganat heldu ene santifikatzeko, baiñan ni heldu naiz zureganat zure hobetzeko, eta saindutzeko.

Eneganat heldu zare saindutzerat enekiñ bat egiñik grazia berrien errezibitzerat, eta gerotik gerorat perfetago egiterat.

Etzazula har antsikabeki; haiñ grazia handia, zure bihotza arthoski prepara zazu, han sararazteko zure maitea.

4. Orduan ezta asko gure debozionearen bixtea, eta gure arimen preparatzea komuniatu

baino lehen; komuniatu ondoan ere artha behar duzu debozinezko sentimendu hetan irauteko.

Ezea sakramenduan errezibitu dugun grazia-
ren ez galtzeko hanbat artha behar da nola
haren errezibitzerat preparatzeko; eta artha
hura bera moian bat da grazia berrien ardietse-
ko.

Kontrarat bere Jainkoa errezibitu ondoan kan-
poko konsolazionetarat barraiatzen denak gal-
tzen du dispozizionea, eta gaitasuna haren erre-
zibitzeko.

Ebak orduan solas alferrak, zoaz aparterat,
goza zaite pausuan zure Jainkoaz.

Ezen egiazki zurekiñ duzu, eta mundu guziak
ere eziñ idek dietzakezu.

Niri eman behar zaizkit zaren guzia, ene bai-
tan behar duzu bizi, zure baitan baiño hobeki;
ene baitan behar duzu hemendik harat gauza
guziez pausatu deusen ere griñarik gabe.

XIII. KAPITULUA

*Gauza guzietz billhuzi behar dela
Jesu-Kristorekin perfetki komunione
saindu bat egiteko.*

ARIMAK

1. Noiz izanen naiz aski dohatsu, oi ene Jainkoa, zu baxharrik, kausitzeko, zuri neure bihotza idukitzeko, eta zutaz gozatzeko ene arimak desiratzen duen bezala; halako fazoiñez non nihork ez binau gehiago arbuiatuko, eta kreaturek ez binaute mobituko, eta ez baitarotet behatuko ere?

Baiñan mintzatuko baitzaizkit zu niri, eta ni ere zuri buruz buruan adiskide bat bere adiskidearekiñ mahaiñean mintzo den bezala.

Nik desiratzen dudan guzia, nik zuri galdeztzen darotzudan guzia da, o ene Jainkoa, zurekiñ bat egiñ nadiñ osoki, laxa dezadan ene bihotza kreaturen amudiotik, misterio saindu hau maizago ofrendatuz, eta errezibituz ikhas dezadan

zeruko gauza eternalen gerotik gerorat gehiago gustatzen.

Helaz! ene Jainkoa, noiz izanen naiz haiñ her-
tsiki zurekiñ bat egiña, eta zure baitan hondatua;
non ene burua ere ahantziko baitzait osoki?

Zaren enekiñ, ni zurekiñ izan nadintzat, eta
hemendik harat bat baizen izan ez gaitezentzat.

2. Zu zare egiazko ene maitea *millen artean
hautatua*, zure baitan nahi dut pausatu bizi nai-
zeiño.

Zu zare Jainko baketierra; zuk dakharkezu
lekhu guzietarat bakea, eta sosegua; zu etzaren
lekhuana ezta penarik, oiñhazerik, eta miseria
eziñ akhabatuzkorik baizen.

*Zu zare egiazko Jainko gordea komunionean,
zuk eztuzu ariarik, eta egitekorik gaiztaginekiñ,
sinpleekiñ, eta humillekiñ dire zure solasak.*

*Oi ala zure espiritua eztia baita, launa, zure
amudioaren samurtasuna zure umeei irakuxteko
hasten ditutzunak geroztik ogi gozo, gustoz, eta
zerutik iauntsirikako batez.*

*Egiazki ezta poblurik den handienik ere bere
Jainkoak haiñ hurbill dituenik, nola zu baitzare*

hurbill zure zerbitzari leialetarik, nahi duzunaz geroz izan hekien egunorozko ogia, hekien konsoletzeko, eta hekien bihotzak zerurat altxatze-ko.

3. *Zein poblu da munduan giristiñoen poblua-rekiñ konpara ditekenik?*

Non kausituko da zeruaren azpian kreaturarik haiñ Jainkoaz maitaturik, nola arima saindu bat, zein etan sartzen baita Jainkoa, haren hazteko bere haragi loriosaz?

O grazia eziñ esplikatuzkoa, fagore berezia, amudio neurri gabekoa Jainkoak gizonari bereziki markatzen dioena!

Zer bihurtuko diot Jainkoari hainbat grazia, fagore, eta amudioerentzat?

Eztut deus haren gogarakoago denik ene bihotza baiño, zeina ematen baitiot alde baterat bere bihotzarekiñ hertsiki bat egiñ dezantzat.

Oi ene arima Jainkoarekiñ osoki iuntatua balitz, orduan ene barren guzia bozkarioz bethe liteke!

Orduan launak erran liezaket: Enekiñ egon nahi baduzu, nik ere nahi dut zurekiñ egon: eta

nik ihardets niozoke: Ah! launa, gogotik, egidazu fagorea enekiñ egoteko, nik nahi dut zurekiñ egon ene bihotz guziaz.

Ene nahi guzia da ene bihotza izan dadiñ osoki, eta bethikotz zurekiñ bat egiña.

XIV. KAPITULUA

Arima saindu batzuk komuniatzeko duten gutiziaz.

ARIMAK

1. *O ene Jainkoa, zeñ handiak, zeñ hanitzak diren zure beldur direnentzat gordeak daoskatzun ontasunak, eta eztitasunak!*

Orhoitzen naizenean zenbat kharrekiñ, eta debozionerekiñ arima on batzuek hurbiltzen diren zure sakramendurat, gorritzen naiz ahalkez ikhustea zenbat epheltasunekiñ, eta antsikabetasunekiñ ni hurbiltzen naizen mahaiñ saindu hartarat.

Ahalkatzen naiz zeren agor, eta gostu gabe gelditzen naizen; zeren eztudan barnea samurtua, eta sustatua zure aitzinean; zeren eztudan sentitzen komunionearentzat hanbat amudio, eta khar nola bertze hañitzek, zeñak eziñ baitzaozken nigarrak isuri gabe bere desiren, eta berotasunaren podorez.

Bere kharrak idek arazten zioten bere bihotzeko, eta gorphutzeko ahoa zure errezibitzeko urbizien ithurria bezala, eta zure aragia ianik bere gosearen sasiatzeko.

Hargatik hurbiltzen ziren zure mahaiñerat bozkario handi batekiñ, eta apetitu, hirritz, eta gosete espiritual batekiñ.

2. Oi ala hekien fedea beroa baitzen, eta bizia ala hark ungi frogatzen baitu errealki present zarela sakramendu hortan!

Arima hek ezagutu dute egiazki launa ogiaren haustean, eta erakuxten dute Emausko diszipuluek bezala Jesus hekiekiñ dabillhala; hekien bihotzak haren amudioz haiñ sustatuak direnaz geroztik.

Helaz, ala urrun bainaiz ni haiñ debozione samurretik, eta haiñ amudio khartsutik!

Jesus ona, eta eztia, othoi nauzun urrikari pobre lazeriatu bat naiz zure aitziñean.

Indazu othoi zure amudiotik zenbait indar bederen komunione sainduan ene fedea handi dadintzat gerotik gerorat gehiago, ene esparantzaz borthitz dadintzat, eta ene bihotza behiñ

zure amudioz sustatua zeruko manna hor dastatu ondoan behiñ ere ephel eztadintzat.

3. Zure miserikordiak, launa, eman diezaket errexki hanbat desiratzen dudan grazia hori, zeña baita eneganat ethortzen zarenean isurtzea ene bihotzerat sazko, eta kharrezko; amudiozko eta eztitasuneko espiritu hura.

Ezen arima berezi hekien afekzione, eta desira khartsuak sentitzen ezitudan arren, ematen darotazu bederen afekzione bero hekien gutizia.

Desiratzen dut handizki, eta othoitzten zaitut partale egiñ nazazun haiñ beroki maite zaituzten arimen merezimendutan bai eta oraiño hekien lorian.

XV. KAPITULUA

*Deboziona ardiesten dela
humiliatuz, eta nork bere buruari
ukho egiñez.*

JESU-KRISTOK

1. Debozionaeko grazia behar duzu galdegiñ zin-ziñez; desiratu, beroki, iguriki pazienziarekiñ, eta esparantzarekiñ, eskerrekiñ errezibitu; humiltasunekiñ beiratu; arthoski hari ihardetsi, eta hartaz baliatu, eta utzi Jainkoari hautua har dezantzat berak plazer duen manera, eta denbora zure bisitatzeko.

Humiliatu behar duzu hagitz debozionerik batere, edo guti baizen sentitzen, ez duzunean; baiñan etzaitzu hargatik bihotza erori behar, eta eztuzu behar sobera tristatu.

Maiz Jainkoak kolpe batez, eta ahantz orduan ematen du denbora luzez eman nahi izatu eztuena, eta othoitzaren hastean eman eztuena akhabantzan ematen du batzuetan.

2. Haiñ flakoa bada gizona, non Jainkoak egortzen baliotza graziak hark galdegiten dio-tzan bezaiñ sarri, eta bere nahien arabera eziñ iasan bailetzake.

Idurikazu beraz debozione bero baten grazia esparantza fermu, eta pazientzia humill batekiñ baiñan ez badarotzu Jainkoak eman nahi, edo eman ondoan ezarian khentzen badarotzu zure gaiñ egizu, eta siñhetzazu eskas hori zure bekhatutarik heldu dela.

Ezen maiz graziaren debekatzeko edo has-tantzeko gureganik; asko da deus guti, baldiñ deus guti behar bada deithu, eta ez eskas handi batentzat iduki haiñ ontasun handia debekatzeko asko handi dena.

Zer ere baita traba hura dela handia, edo xumea garaitzen baduzu, eta khentzen alde baterat, galdetzen duzuna ardietsiko duzu.

3. Ezen noiz eta ere bihotz guziaz emanen baitzaizko Jainkoari, eta zure fantasiaren arabe-ra ez baituzu hau edo hori galdegiten, baiñan haren eskuetan alde baterat emanen baitzare kausituko gare bake handi batean, eta Jainkoare-

kiñ hertsiki iuntatua, zeren zure kontentamendu guzia izaten baita Jainkoaren nahiaren konpliztea.

Hala nork ere bere xedea Jainkoaganat altxatuko baitu bihotz sinple, eta xuxen batekiñ, eta bere burua garbituko baitu kreaturen amudio desordenatu, edo herra guzietarik, haiña gai izanena da graziaren errezibitzeko, eta ardietsteko Jainkoaganik debozionatearen dohaiña.

Ezen Jainkoak ez ditu bere benedikzioak isurtzen toki hutsetarat baizen, eta zenbatenaz nihork gehiago ukho egiten baitiote behere hundertako gauzei, eta hiltzen baitzaio bere buruari, bere burua meziprezatuz, hanbatenaz graziak heldu zaizko lasterrago, eta hañitzago, eta da libroago zeruko gauzetarat bihotzaren altxatze-ko.

4. Orduan haren espirituko begiak idekiko dire, kausituko du bere burua aberatz zeruko ontasunez; eta berak ere miretsiko du bere zoriona, haren bihotza idekiko da, eta zabalduko bozkarioz, eta emanen du bethikotz bere burua haren eskuetan.

Manera hortan bethetzen da beriedikzioez Jainkoa bere bihotz guziaz billhatzen duena, eta bere arimaz gaizki baliatzen eztena, hura munduko gauza banotan enplegaturik.

Halakoari ematen zaio komunione sainduan Jainkoarekiñ hertsiki bat egiteko grazia, zeren haiñak ez baitio behatzen bere debozioneari, eta bere konsolazioneari, aitzitik sakrifikatzen baitio-tza debozione, eta konsolazione guziak Jainkoaren ohoreari, eta loriari, zeïñak hobeki billhatzen baititu sakramendu hortan kausitzen duen gustu espiritual guzian baiño.

XVI. KAPITULUA

*Agertu behar diotzogula gure
beharrak Jesu-Kristori, eta galdetu
bere grazia.*

ARIMAK

1. Ene Salbatzaille, guziz ezta, eta maitagarria, zeñaren orai errezibitzea desiratzen baitut egiazko debozione batekiñ.

Ezagutzen dituzu ene flakeziak, eta ene beharrak.

Badakizu nolakoak diren ene gaitzak eta bizioak, eta zeñ maiz naizen penatua, tentatua, altaratua, khexatua, eta bekhatuz ere lizundua.

Heldu naiz zureganat erremedio bakharrerat bezala, othoitzten zaitut, konsola nazazu, eta ariñ dietzakidatzu ene penak.

Gauza guziak dakizkienari mintzo natzaio, ene barren guzia ikhusten duenari ene perfetki konsolatzeko, eta laguntzeko bakharrik gai denari.

Zuk badakizu eztela nihor ere, ni baiño on beharragorik, eta berthute guziez gabetuagorik.

2. Huna non naizen, ene Jainkoa, pobrea, eta billhuza zure aitziñean grazia galdegiten darotzut, miserikordia eske nagotzu.

Ene gosearen sasiatzeko indazu bizitzearen ogia, ene epheltasunaren khentzeko, susta nazazu zure amudioaz; ene itsutasunaren sendatzeko argi nazazu zure bisaiako arraioez.

Ganbia diezadazu gostua halako maneraz non munduko atsegiñak kausituko baititut khira-tsez betheak, bizitze huntako penak, eta gaitz guziak ariñak; eta munduan laudatzen diren gauza guziak mezprezagarriak, eta ahanztekoak.

Itzulazu ene bihotza zureganat, altxa zazu zerurat, eta ez nazazula utz basatua, eta errebelatua lurrean ibiltzerat.

Eztezadan kausi, ez orai ez nihoiz, gozorik zure baitan baizen; zeren zu baitzare ene ianaria eta edaria, ene amudioa eta ene bozkarioa, ene atsegiña eta ene on guzia.

3. Oi oxala zure presentiaz sustatzen baninduzu, erretzen, eta zure baitharat osoki gantziatzen; halako fazoiñez non amudioz zurekiñ bat egiñik eta su sakratu hartaz nolaz baitere urthurik, ez baininteki zurekiñ espiritu bat baizen.

Eztezazula permeti ene arima doan zureganik gose hutz eta agor; baiñan balia zaite ene alderat miserikordia hartaz beraz, eziñaz haiñ miragarriki baliatu baitzare zure sailduen alderat.

Nork behar luke miretsi zu errezibitzean guzia suzko egiten baninz ere, eta samurtasunez zuretzat urtzen baninz ere; zu zeroni zarenaz geroztik su bat bethi bixtua, eta nihoiz iraungitzen etzarena, khar bizi bat bihotzak garbitzen, eta espirituak argitzen ditutzuna.

XVII. KAPITULUA

Nolako amudio eta debozionearekiñ behar dugun desiratu Jesu-Kristoren errezibitzea sakramendu sainduan.

ARIMAK

1. launa, nahi zaitut errezibitu debozione handi batekiñ amudio bero, eta gutizia khartsu batekiñ, hala nola egiñ baitute zure sainduak, eta hañitz presuna prestuk, zeïnen debozionea zure gogarakoa izatu baita, eta zeïnak hagitz Jainkotiarki bizi izatu baitire.

O ene Jainkoa, amudio eternala, ene ontasun baxharra, ene dohatsutasun fiñ gabekoa, nahi zaitut errezibitu egundaiño sainduk izatu duen, edo izatu ahal duken gutiziarik borthitzenarekiñ, eta errespeturik handienarekiñ.

2. Eta gai ez naizen arren debozionezko sentimendu horien ene baitan izateko, halere ofrendatzen darozkitzut ene bihotzeko afekzione

guziak, neronek gutizia khartsu hek guziak banitu bezala.

Ofrendatzen darozkitzut halaber ene bihotz guziaz humilltasun handirekiñ arimarik Jainkotiarrenak ahal tuzken desirarik khartsuenak.

Ez dut deus ere enetzat itxeki nahi; baiñan neure burua, eta neure ontasun guziak nahi ditut bihotz onez zuretzat sakrifikatu, eta guziak zure zerbitzuket enplegatu, eta kosumitu.

Ene launa, eta ene Jainkoa, ene kreatzaillea, eta erresketatzaillea, nahi zintuzket egun errebitu zuri dagotzun bezalako samurtasun, errespetu, ohore, ezagutza, amudio, eta saindutasun guziarekiñ; fede, esparantza, eta garbitasun guziarekiñ, hala nola errebitu baitzintuen Birjina Ioriosak zure ama sainduak, noiz eta ere Inkarnazioneko misterioaren berria ekhartzen zioen, aingeruari ihardetsi baitzioen errespetu, eta humilltasun handirekiñ: *Huna launaren nes-katoa, konpli bedi ene baitan zure errana.*

3. Nahi nuke gai baninz zure aitziñean agertzeko bihotza desira sainduz betherik, eta zure amudioz sustaturik dispozizione saindu hekiekiñ,

zeiñetan baitzen Joanis Baptista sainduetan den handiena, eta zure aitzindari dohatsua, noiz eta ere Espiritu sainduaren mobimenduz iauzi baitzen bere amaren sabelean, eta noiz eta ere iendartean zeïña biltzala ikhusirik erran baitzuen zutaz humilltasun, eta zelo handirekiñ: *Esposaren adiskidea bozkario handitan da esposarekiñ denean, zeren aditzen baitu haren boza.*

Ofrendatzen darozkitzut halaber zure sainduei eman diotzotzuten bozkario Jainkozkoak, afekzione khartsuak, espirituen bere baitharik ilkhitzeak, argi naturaz goragokoak, eta zeruko bisioneak.

Hek ofrendatzen darozkitzut kreatura guziak zeruan, eta lurrean egundaiño eman, eta sekulan emanen darozkitzuten laudorio guziekiñ.

Ofrendatzen darozkitzut nahiz enetzat, nahiz ene othoitzetan gomendatu behar darozkitzudan guzientzat, guziez behar bezala laudatua, eta lorifikatua izan zaitezentzat eternitatean.

4. Ene launa eta ene Jainkoa, errezibi zatzunik zuri laudorio infinituen emateko dudan desi-

ra, eta zure perfekzione neurri gabekoen arabera ohoratua ikhusteko dudan nahia, eta gutizia.

Ohore hori bihurtzen darotzut, eta nahi darotzut bihurtu egun guzietan, eta momentu guzietan ere.

Eta gonbidatzen ditut, othoizten tut ene bihotz guziaz zeruko espirituak, eta giristiño leial guziak lagun nazatela zure laudatzen, eta zuri eskerren emanen.

5. Lauda bezaitzate launa, lurreko populu, kasta eta erdara guzietan, lorifika bezate zure izen adoragarria bozkario saildu, eta zelo khartsu batez bere baitarik ilkhirik.

Misterio saildu hau debozionerekiñ, eta errespeturekiñ zebratzen dutenek, eta fede bizi batekiñ errezibitzen dutenek ardietz bezate zureganik ene bekhatuen barkhamendua.

Orhoit beitez othoi ni naizen bezalako bekhatore dohakabeaz mahaiñ saildutik ilkhitzen direnean, zurekiñ miñki bat egiñak, debozionez ukiuak, eta samurtuak, bozkarioz, eta konsolazioz betheak, eta osoki sasiatuak.

XVIII. KAPITULUA

*Eztela sobera kuriostasunekiñ
zundatu behar misterio hau; baiñan
hurnillki arrazoiña eman behar dela
fedearen azpian.*

JESU-KRISTOK

1. Ene Semea, begira zaite kuriostasun alfer batez misterio handi hunen zundatzen haritzetik, beldurrez eror zaitezzen dudazko, eta siñhetz gortasunezko tulunbio barrenerat.

Jainko guziz goraren maiestatea zundatu nahi duena, haren loriak egotziko, eta azpiratuko du, karga garaiak bezala.

Gizonaren espirituak asma dezakena baiño gehiago daike Jainkoaren eskuak.

Ezta debekatzen egiaren billhatze humill, eta sinplea nihor prest dagoenean argien errezibitzerat, eta Elizako aitek irakasten darokutena siñhesterat.

2. Dohatsu da sinpleki, eta lanoki dabilhana, gauka gaitz, eta espiritua nahaz dezaketenei ihes egiten diotena, eta Jainkoaren manamenduen bide xuxenean segurantzarekiñ ibiltzen dena.

Hanitzek galdu dute deboziona gauza illhuna, eta bere ezagutzaz goragokoak iakiñ, eta zundatu nahiz.

Eztarotzut galdegiten espiritu gora bat, eta misterioen ezagutza barren bat; baiñan fede sinple, eta bizitze xahu bat.

Zutaz beherago diren gauzek ere ixitzen badute zure ezagutza, nola bada iakiñen tutzu zutaz gorago direnak?

Humilia zaite Jainkoaren aitziñean, emazu zure arrazoña fedearen azpian, eta izanen tutzu zerutik zure espiritua soseguan emateko behar-ko ditutzun argi guziak.

3. Badire misterio hunen siñhestearen gaiñean tentazione borthitzak dituztenak, baiñan hori heldu da hobeki etsaiaren maleziatik, ezen ez hekien fede eskasetik.

Zu etzaitezela penetan eman, etzazula iharduk zure gogoetekiñ; eztiozozutela ihardetz hark ematen darozkitzun dudei, baiñan siñhetz zazu Jainkoaren hitza; entzun zatzu Sainduak eta Profetak; eta zureganik ihesi egorriko duzu espiritu maleziazko hura.

Horlako tentazioeak progotxos dire maiz Jainkoaren zerbitzariantzat.

Ezen deabruak eztitu tentatzen siñhetzgorrak, eta gaixtagiñak; hek osoki beretuak daoza; baiñan leialei, eta Jainkotiarrei milla tentazioe, eta atsekabe egortzen diotzate.

4. Zoaz beraz mahaiñ saindurat fede fermu, eta garbi batekiñ, eta errespetu humill batekiñ.

Eta zure espiritua ixitzen duten gauza guziez pausa zaite Jainkoaren gaiñean.

Etzaitu enganatuko siñhesten baduzu; baiñan enganatuko zare zure burua siñhesten baduzu.

Jainkoa sinpleekiñ, eta bihotz xuxenekiñ dabillha: humillei agertzen zaiote: xumeei ematen diote intelijenzia, eta argia: Arima garbiei ematen diotzate haiñitz ezagutza; baiñan bere

grazia gordetzen diote espiritu kuriosei, eta superbioei.

Gizonaren arrazoiña flakoa da, eta engana diteke; baiñan fedea bethi egiazkoa da, eta eziñ enganatzkoa.

5. Hala arrazoiña, eta argi naturala fedeari behar zaio iarraiki; eztu behar haren aitziñean ibilli; ez hura desegiñ, eta irauli.

Ezen sakramendu handi huntan fedeak, eta amudioak, daoka lehenbiziko herunka berthute guzien artean, eta efetu handiak egiten tuzte manera gorde, eta eziñ erran bezalako batez.

Jainko eternalak izate, eta podore infinitua duenak egiten tu zeruan, eta lurrean gauza handiak, eta gure ezagutzaz goragokoak; eta haren obra miragarriek ixitzen dute gure espirtuen hedadura guzia.

Hortaz obra hek ez balire gizonaren espirtuaz goragokoak, eta errexki ezagut ahal balitez, ez litezke deithu behar mirakulluzkoak, ezin erran, eta esplikatzkoak.

AKHABANTZA